


ZeharGAIT

Lanbide Heziketan zeharkako gaitasunak
garatzeko tresna praktikoak
Irakasleentzako baliabideak

*Leire Escajedo
Igor Filibi*



ZeharGAIT

Lanbide Heziketan zeharkako gaitasunak garatzeko tresna praktikoak

Irakasleentzako baliabideak

Egileak:

Leire Escajedo

Igor Filibi



Bilbo, 2022

CIP. Biblioteca Universitaria

Escajedo San Epifanio, Leire

ZeharGAIT [Recurso electrónico]: Lanbide Heziketan zeharkako gaitasunak garatzeko tresna praktikoak: irakasleentzako baliabideak / egileak, Leire Escajedo, Igor Filibi. – Datos. – [Leioa]: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2022]. – 1 recurso en línea: PDF (311 p.). – (Ikertuz)

Incluye referencias bibliográficas (p. 303-311)

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-1319-453-0.

1. Formación Profesional. 2. Equipos de trabajo. 3. Comunicación en las organizaciones. 4. Gestión de conflictos. I. Filibi López, Igor, coautor.

(0.034)377

(0.034)65.012

Argitalpena: IKASLAN Bizkaiak eta BBK-k kofinantzatua.

Hitzaurreak: Nora Sarasola, BBK-ko Gizarte Ekintzako Zuzendaria, eta Eduardo Alzola, IkasLAN Bizkaiako Presidentea.

Koordinatzaileak: Alba Estanyol eta Eduardo Alzola

Egileak: Leire Escajedo San-Epifanio eta Igor Filibi López

ISBN: 978-84-1319-453-0



Lan honen hedapen digitala *Creative Commons CC BY-NC-ND* lizentziarekin baimentzen da, irabazi asmorik gabe. Nolanahi ere, egile eta intelektualaren errespetatu behar da, eta ez dago baimenduta obra honetatik eratorritako obrarik, ezta obra osoa edo haren zati bat copyrightaren titularrak diren horien baimenik gabe hartzea.

Aurkibidea

Hitzaurreak

Itsasontzi baten motorra (<i>Nora Sarasola, BBK-ko Gizarte Ekintzako zuzendaria</i>)	9
ZeharGAIT erreminta-kutxa (<i>Eduardo Alzola, IkasLAN Bizkaia, Presidente</i>).	11
Egileei buruzko oharra	12
Liburu honen eta bere unitate didaktikoen barne-egitura.	13
1. Unitatea. ZeharGAIT tresnak.	15
1. Zer behar du pertsona batek bere zeharkako gaitasunak hobetzeko?	17
2. Trebetasun bigun eta zeharkakoen aldeko ahalegina Bizkaiko LH publikoan	21
3. ZeharGAIT eredua: Bizkaiko LH-n enplegarritasunerako gaitasunak garatzeko proposamen metodologiko osagarri bat	22
3.1. ZeharGAIT ereduaren garapena: sarrera ohar batzuk.	22
3.1.1. Nola garatu da ZeharGAIT metodoa?	22
3.1.2. Zertan datza ZeharGAIT lan-metodologia?	23
3.2. Elkarrizketa modua ZeharGAIT erudian: jarduera guztietarako gomendio komunak	24
3.2.1. ZeharGAIT taldeen ezaugarriak	24
3.2.2. Saioen kopurua eta iraupena. Aurretiazko ezagutzak	25
3.2.3. Metodologia presentziala	29
3.2.4. Prozesuaren urratsak: irekiera, lan-saioak eta itxiera	29
3.3. Feedbacka edo atzeraelikadura lan-saioetan	29
2. Unitatea. Taldean lan egitea	39
1. «Talde-lana»-ren kontzeptuarekiko lehen hurbilketa: zein da zure esperientzia?	41
2. Ekipoei buruzko gauzak, agian hain begi-bistakoak ez direnak	47
2.1. Giza taldeen zergatia. Errendimendu-eskalaren bidezko hurbilketa	47
2.2. Zer irabazten du enpresak talde-lanarekin?	53
2.3. Talde-lanarekin, zer irabazten du langileak?	54
2.4. Talde-lanean, dena ez da abantaila	55
3. Multzoa ekipo bilakatzeko erronka	57
4. Taldeak osatzeko metodoak	69
4.1. Taldeak osatzen Belbin-en metodologiarekin.	73
4.2. Myers-Briggs metodologiarekin taldeak osatzen (MBTI)	85
4.3. Nola osatzen duten elkar Belbin eta MBTI metodologiek	90

4.3.1. Belbin eta MBTI metodologiaren arteko elkarguneak	90
4.3.2. Metodologia konbinatuaren erabilgarritasuna ekipoak sortzeari begira	91
4.3.3. Funtsezko talde-postuak.	91
4.3.4. Funtsezko printzipioak.	93
5. Talde baten bizitzan eta garapenean dauden faseak/etapak	99
5.1. Talde baten hasierako fasea eta parte-hartzaileek nola egiten dioten aurre: orientazio-etapa	100
5.2. Taldearen arauak ezartzen diren etapa	109
5.3. Taldeetan gatazkak konpontzeko etapa	114
5.4. Taldeen bizitzaren azken etapa	121
6. Lidergoa taldeetan	125
7. Ekipoaren funtzionamendua zaintzen	140
3. Unitatea. Pertsonen arteko harremanak ingurune antolatuetan	147
1. Pertsonen arteko harremanak eta horiek gertatzen diren testuinguruak: antolakuntzaren ideia edo antolamendu-sistemak, dela ikaskuntzarako, dela lan-munduan	149
1.1. Bidezkoa al da ikasgela edo enpresa baten antolakuntza?	150
1.2. Antolakuntza batean integratzea	151
2. Jazarpena: biktima, borrarera eta ezer egiten ez duten ikusle asko	154
2.1. Prebenitzea, elkarrekin bizitzeko modua hobetuz	154
2.2. Mikrojustizia eta mikroerasoetatik jazarpen moralera	155
3. Pertsona bakoitzak talde edo antolakuntza baten barruan betetzen duen funtzioa edo rola, eta rolek sortzen dituzten arazoak	160
3.1. Pertsonen motibazioa taldeetan daudenean: sarrera	168
3.2. Pertsonen motibazioa taldeetan daudenean: sakontzea	170
3.3. Motibazioaren beste ikuspegi bat: Maslowren piramidea	171
3.4. Nagusi eta buruzagiak	188
4. Rolaren arteko komunikazioa eta distantzia soziala	193
4. Unitatea. Emozioen kudeaketa eta komunikazioa	199
1. Komunikazioa: zailena beti da nola.	200
2. «Adimen emozionala» deitzen duten hori: haserrearen gaineko jardura	212
2.1. Nekatu egiten nauzu; haserretu egiten nauzu; ez da hainbesterako	213
2.2. «Haserretzen denak beste egiteko bat du: bere haserrea lasaitzea». Esaldi hori ulertzeko era ezberdinak.	214
3. Asertibitateari buruzko jarduerak	226
4. Besteari entzutea, nola komunikatu jakiteko	237
5. Batzuetan, gure buruak tranpa egiten digu	239
5.1. Gogamenak egiten dizkigun tranpa horien adibide batzuk.	239
5.2. Gure adimenak esaten digun horrek min egiten digunean.	241
6. Besteak entzuteari eta komunikazioari buruzko kasuak	248
6.1. Aurrena entzun gabe hitz egitea	248
6.2. Isiltasunak, isiluneak	255
Lan-eskema eta denboralizazioa	255

7. Hitzik gabeko komunikazioa	259
7.1. Hitzik gabeko komunikazioa zer den.	259
7.2. Kontuan hartu beharreko alderdi batzuk	259
7.3. Hitzik gabeko komunikazioaren elementu nagusiak	260
7.4. Lan-egoeratan hitzik gabeko komunikazioa era egokian erabiltzeko gomendioak	260
5. Unitatea. Gatazka-konponketa	273
1. Zer dira gatazkak eta gogoeta bat horiek konpontzea beharrezkoa eta posiblea den (edo ez)	274
2. Bitartekaritza-espazioak sortzea edo identifikatzea, eta horiek aprobetxatzea	285
3. Aurretiazko gatazkak ondo ez ixteagatik sortzen diren gatazkak	288
4. Barkamenari buruz	291
Eranskinak	299
ZeharGAIT jardueren indizea	300
Aipatutako bibliografia eta bibliografia gehigarria	303

IkasLAN Bizkaian eta BBK-n gudan konfiantza izan zutenei, haien denbora eskaini ziguten LHko irakasle guztiei, beren esperientzia eta hausnarketak helarazi zizkiguten profesionalei, eta hobekuntza helburuz metodoa probatu zuten ikasleei. Haiei guztiei eskeintzen diegu liburu hau. Guztiei, eskerrik asko bihotz bihotzetik.

Leire eta Igor

Hitzaurreak

Itsasontzi baten motorra

Lanbide-heziketa ezinbesteko elementua da lehiakortasun iraunkorrerako. Egungo lan-merkatuaren beharretara eta etorkizuneko aurreikuspenetara egokitutako pertsonen gaitasunak garatzea gai estrategikoa da berrikuntza ekonomiko eta sozialerako ingurune eta kultura egokiak ezartzeko. BBK-k, bere Gizarte Ekintzaren bitartez, urteak daramatza erronka berriei aurre egiteko prestatutako ekosistema profesionala sortzearen aldeko apustua egiten.

Gaur egungo lan-munduak etengabeko erronkak ditu, aldaketak abiadura handian gertatzen diren une honetan. Ez bakarrik aldaketa teknologikoak, baita lan-, kudeaketa- eta antolaketa-ereduekin zerikusia dutenak ere. Errealitate berri horren ondorioz, prestakuntza-materialak etengabe eguneratu behar dira, talentua eta berrikuntza sortzeko zutabeetako bat baitira.

Diskurtso askotan aipatzen da nolabaiteko desoreka dagoela ehun sozioekonomikoak eskatzen duenaren eta profesionalak eskuratzen duten prestakuntza-eskaintzaren artean. Trebetasun batzuk, hala nola taldean lan egitea, komunikazio eraginkorra, gatazken konponketa eta rolen kudeaketa, funtsezkoak dira pertsonen enplegarritasunean. Baina prestakuntza-eredu tradizionalak, batez ere, ezagutza teknikoak eskuratzean jartzen dute arreta.

2018ko amaieran hasi zen Ikaslan Bizkaiaren GizaLEADER programa, BBK-k berrikuntza ekonomiko eta sozialerako ingurune eta kultura egokiak ezartzeko duen konpromisoaren adierazgarri. IKASLAN Bizkaia Bizkaiko Lanbide Heziketako Ikastetxe Publikoen Elkarteak da eta maila desberdinetan hamar mila ikasleri baino gehiagori ematen die zerbitzua ikasturte bakoitzean. Kualifikazio handiko irakasleekin, irakas-kuntza modernoa eta kalitatezkoa eskaintzea da helburu nagusia, ikasleen giza prestakuntzarekin konprometitua.

Gabriel Celaya euskal poeta handiak zioenez, *«itsasontzi bati motor bat jartzea bezala da hezkuntza. Neurtu, pentsatu, orekatu egin behar da. Eta dena martxan jarri»*. Eta nik esango nuke behin nabigatzen ari denean, ontzi horrek etengabeko doikuntza, aldizkako azterketak eta mantentze-lanak behar dituela. Eta are garrantzitsuagoa, ontzi guztiek kapitain on bat behar dute, ekaitzei aurre egin eta portu onerantz nabigatzen dakiena.

Irakurlearen esku dago gaur egun zeharkako gaitasunak indartzeko eta garapen profesionalerako lidergoa bultzatzeko ezinbesteko tresna, munduan bakarra den lana, Lanbide Heziketako ikasleentzat eta irakasleentzat gidari izatea bilatzen duena, ez bakarrik Bizkaikoak, baita mundu osokoak ere. ZeharGAIT liburu guztiz praktikoa da, erabilgarria eta aplikagarria izateko diseinatua, eta gaur egun ez dago gaztelaniaz,

frantsesez, ingelesez edo alemanez argitaratutako erreferentzia baliokiderik. Horregatik, lan hau beste hizkuntza batzuetara itzuliko da eta deskargatzeko formatu digitalan jarriko da eskuragarri.

Hasieratik, Ikaslan Bizkaiaren bokazioa LHko sare publikoko ikasle guztiak eta enpresa handiak eta ehundaka enpresa txiki eta ertain lortzea izan da. GizaLEADER programa zeharkako konpetentziak emateko metodologiak identifikatzeko eta indartzeko ezarri zen (batzuentzat, soft skills), LHko familiek gaitasun horiek eskuratzeko mailak egiaztatze sistema bat ezartzeko, eta tituludunei trebetasun pertsonalak eta laguntza adimenduneko tresna bat emateko, garapen profesionalean eta pertsonalean lidergo eraginkorra izan dezaten.

ZeharGAITek 2018an gure gain hartu genuen erronka hori osatzen du, eta egungo lan-merkatuan ezinbestekoak diren trebetasunak garatzeko tresna oso erabilgarria jartzen du ikasleen, irakasleen eta enpresa-ingurunearen eskura; bertan, lehiakortasun iraunkorra gero eta nabarmenagoa da, eta gaitasun berriak behar ditu.

Sareko ikastetxeetako irakasleekin eta enpresarekin elkarrizketatutako diagnostikoaren lehen fasea egin ondoren, eta gaiari buruzko loturak dituzten hainbat hizkuntzako lanen azterketa zehatza egin ondoren, proiektuaren ahalegina ZeharGAIT eskuliburuan jaso diren unitate didaktiko batzuen garapenean oinarritu zen.

Liburu honen formatu digitala *Open Access*-en zabaltzen da, gaztelaniazko, euskarazko eta ingelesezko bertsioekin, eta helburu praktikoa du; etorkizuneko profesionalen gaitasunen prestakuntzan eta garapenean parte hartzen duten ehun guztientzat erabilgarria izatea du helburu. Ospe handiko argitaletxe akademiko batean argitaratua, egoera errealetan inspiratutako kasu praktikoa biltzen ditu liburuak, ikasleen eta Bizkaiko enpresa-ingurunearen errealitatearekiko erabilgarritasuna eta hurbiltasuna maximizatzeko balio dutenak.

Hezkuntza da talentuaren prestakuntza bultzatzen duen ardatz egituratzailea, Bizkaiko etorkizun ekonomiko eta sozialaren erronken buru izango dena, lehiakortasunaren eta iraunkortasunaren ikuspegitik. GizaLEADER da Celaya poeta handiak aipatzen zigun ontzia, eta ZeharGAIT, berriz, ikasleen eta enpresa-sarearen erronkei aurre egiten laguntzen dion motorra. Hori guztia, ontzia kapitaintzeko beharrezkoak diren tresnak eman nahi dizkiogun irakasle baten bultzadarekin.

Espero dugu liburu hau oso erabilgarria izatea lanbide heziketaren ozeano berrietara ausartu nahi dutenentzat.

Nora Sarasola
BBK-ko Gizarte Ekintzako zuzendaria

ZeharGAIT erreminta-kutxa

Euskal Lanbide Heziketak merezitako ospea du eraginkortasunari eta abangoardian egoteari dagokionez, eta, horren ondorioz, erreferente bihurtu da Estatuan eta Europan. Baina gauzak ondo egiteak ez du esan nahi enplegarritasunerako funtsezkoak diren gaitasunetan hobetzen jarraitu ezin denik, zeharkako gaitasunak barne, noski.

2018 amaieran, Ikaslan Bizkaiak hasiera eman zion GizaLEADER programari, BBK-k lagunduta. Eta programa horren barruan, sareko ikastetxeetako irakasleekin elkarrizketatutako diagnostiko baten ondoren, besteak beste, Unitate Didaktikoak egiteko prozesu bati ekin zitzaion, lehendik ezarrita zeuden beste tresna eta jardunbide egoki batzuekin batera, ikasleen zeharkako trebetasunak indartzeko baliagarri izan zitezten. Prozesu horren emaitza gisa, obra hau aurkezten da hemen.

ZeharGAIT argitalpenak metodologia praktiko eta espezifikoa eskaintzen du zeharkako gaitasunak lantzeko 6 eta 12 ikasle bitarteko taldeetan, gure sareko Lanbide Heziketako edozein ziklo eta familiatakoak. Esparru horretan, eta lau unitate tematikotan nagusietan taldekatuta, nahieran erabil daitezkeen proposamen batzuk eskaintzen dira hemen, eduki teoriko-praktiko oso argiak eta ondo egituratutako jarduerak dituztenak.

Ariketa bakoitza bi bertsiotan aurkezten da. Alde batetik, bada bertsio bat irakasleentzako jarraibide zehatzak eta iradokizunak jasotzen dituena. Bestalde, obra honek erraz deskargatu edo erreproduzitu daitezkeen elementuak biltzen ditu, ikasgelan erabiltzeko; ikasleekin partekatzeko bertsioa da hori. Unitate bakoitzaren goiburuetan, ariketetan lantzen diren elementu nagusien aurkezpena ere aurkezten da, erabilgarritasun-eskemen edo koadroen laguntzarekin. Erreferentzien atalak ZeharGAIT lan-eremuetako edozeinetan ezagutzak zabaltzeko aukera ematen du, eta liburuaren amaieran eskaintzen den kasuen eta tresnen aurkibide bateratuak erraztu egiten du multzo horren barruko zeharkako bilaketak egitea.

Eduardo Alzola
IkasLAN Bizkaia, Presidentea

| Egileei buruzko oharra

Leire Escajedo eta Igor Filibi EHUko irakasleak dira, hurrenez hurren Lan Harremanen eta Gizarte Lanaren Fakultatean, eta Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean. Leire Zuzenbidean eta Zientzia Biologikoetan doktorea da, eta Igor, politologo eta soziologoa, Nazioarteko Harremanetan doktorea.

Irakaskuntzako eta ikerketako beste jarduera batzuekin batera, 2010. urteaz geroztik, beren jarduera profesionalaren zati bat hezkuntza-berrikuntzako proiektuetara bideratu dute, argitalpenak eginez eta hainbat mailatako (unibertsitatea, lanbide-heziketa, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza) irakasleei prestakuntza-ikastaroak emanez.

Aholkularitza-jarduerak honako hauek dira: 1) hezkuntza-berrikuntzako premien eta aukeren diagnostikoak; 2) premia desberdinetara egokitutako ikaskuntza aktiboko tresnen diseinuak; 3) irakasleei laguntzea beraiek diseinatutako ikaskuntza-tresnak diseinatzen eta ezartzen; 4) emaitzen argitalpenetan laguntzea.

Arreta berezia jarri dute zeharkako gaitasunen garapenean, simulazioen eta rol-jokoaren bidez, gamifikazio-tekniken hainbat erabileraren bidez eta erronketan eta arazoetan oinarritutako ikaskuntzen bidez.


Liburu honen eta bere unitate didaktikoen barne-egitura

01 Unitate bakoitzaren hasieran edukien aurkibide zehatza eta laburpen labur batzuk (hautatutako testuak) jasotzen dira unitatea ZeharGAIT tresna multzoaren osotasunean kokatzeko lagungarri.

02 Oinarri teorikoa: unitate guztietan daude irakasleentzat baliagarriak diren informazioak jasotzen dituzten atalak. Erabilgarriak izan daitezkeen zenbait irakurketen laburpen zein aterakin puntualak ere ematen dira, bai eta ideia nagusi batzuk, koadroetan bilduta. Horren helburua zera da, material hauek erabiltzeko irakasleei ahalik eta erraztasun handienak ematea.

03 ZeharGAIT jarduerak adierazle batekin markatu dira (ikus hemen, eskumatara, adibidea). Irakasleentzako jarraibideez gain, jarduera hauen atal dira ere ikasleentzat zuzenean deskargatzeko orrialdeak.

04 Jarduerak eta unitateak edozein ordenatan erabil daitezke. Erabilera hori nahierara errazago egiteko, obra honen amaieran aurki daitezke erreferentzia bibliografiko osagarriak bai eta, horiek baino lehen, kasu eta ariketa guztien zerrenda bat (haien ezaugarri nagusien eta jorrazten diren gaien deskribapenarekin).







iStock-etik hartutako argazkia

1. Unitatea

ZeharGAIT tresnak

-
1. Zer behar du pertsona batek bere zeharkako gaitasunak hobetzeko?
 2. Trebetasun bigun eta zeharkakoen aldeko ahalegina Bizkaiko LH publikoan
 3. ZeharGAIT eredu: Bizkaiko LH-n enplegarritasunerako gaitasunak garatzeko proposamen metodologiko osagarri bat
-

Agian zaila egingo zaigu zehaztea noiz entzun genituen lehen aldiz «*zeharkako gaitasunak*» esamoldea eta horiekin lotutako beste adiera batzuk, baina hezkuntza-inguruneetan adierazpen horiek behin eta berriz erabiltzeak alde guztietatik dauden inpresioa sortu du.

Gutxi gorabehera, denok uste dugu gaitasun horien azpian dagoen ideia ulertzen dugula. Izendatzen diren bakoitzean, gogorarazten zaigu *arrakala bat* dagoela, batetik, enplegatzaileek beren enpresetan sartzten diren gazteengandik espero dutenaren eta, bestetik, beren lan-taldeetan sartzeko dituzten trebetasunen eta jarreraren artean. Behin eta berriz esaten zaigu gure garaiko profesionalak, ezagutza teknikoaz gain, *zerbait gehiago* garatu behar dutela.

Eta xehetasunetan sartzea kostatzen arren, berehala imajinatzen dugu *beste zerbait hori* zer izan daitekeen. Gehigarri horrek sentiarazten digu norbait, lanposturako kualifikatuta egoteaz gain, hau da, profesionala izateaz gain, lanpostu baterako *pertsona egokia* izan daitekeela. Egin beharreko lanaren alderdi teknikoaz gain, giza dimentsiotik *egokitzeko gai* den norbait.

Eta *egokitzeko gai* esaten dugu, neurri handi batean eta gaitasun ez-tekniko horiei zein izen ematen diegun berdin duela, zera hartzen baitugu kontutan: pertsona bat, bere zereginean, beste pertsona batzuekin bat etorri behar izaten duela. Testuinguru jakin batean eta lanbide-eremuaren eta lanpostuaren arabera, pertsona batek gaitasuna behar du beste batzuekin elkarri eragiteko, enpresa edo lantalde baten *engranajea* modu egokian joan dadin.

Foro batzuetan, aditzera eman nahi denean lanpostu batetarako zeharkako gaitasunak dituzten pertsonen bila dabilzala, modu informalean honelako esamoldeak erabiltzen dira haiei (batez ere gazte direnei) aipamen egiteko: «neska-mutil jatorrak».

Baina ez jatortasunari edo edertasunari buruz RAEren hiztegiak «majo» bezala deskribatzen duenaren zentzuan. Pertsona *jatorrak*, lanpostu baterako prestakuntza egokia izateaz gain, **baditu ere trebetasun pertsonalak, enpresetan engranajeen edo lan-taldeen barruan elkarri eragiteko eta horietan edo lanbide-karreran garatzeko aukera emango diotenak**. Hau da, pertsona hori, *job-fit*, lanpostu baterako egokia da, terminoaren zentzu zabalean.

Zeharkako gaitasunei esamolde formal anitzekin egiten zaie erreferentzia. Nahiz eta guztiz sinonimoak ez diren. Horietako zenbait Unitate honen barruan errepatatuko ditugu, eta agian ideiarene funtsa ondoen laburbiltzen duen adiera hau da: enplegagarritasunerako gaitasunak. Azken finean, prestakuntza teknikoaz gain *plus* hori edukitzeak *lanpostu baterako egokiak* egiten gaitu eta, beraz, lortu dugun titulazio profesionaletik lanpostura heltzen lagundu.

Hasiera-hasieratik ohartarazi nahi dugu obra honen helburua ez dela eztabaida teorikoetan murgiltzea, ezta horiek konpontzen saiatzea ere. Asko idatzi da zeharkako gaitasunei buruz oro har, edo horietako batzuei buruz zehazki, eta oraindik eztabaidatzen ari dira Psikopedagogian, Enpresen Antolaketan eta beste sektore akademiko eta profesional batzuetan.

Ikaslan Bizkaia sarearen esperientziatik diseinatutako argitalpen honen helburua da tresnak eskaintzea; Lanbide Heziketako irakasleentzat lagungarri izan daitezkeen

tresnak, irakasle horiek, askotan oso baliabide gutxirekin, egunero lan egiten baitute hainbeste pertsonaren –gazte eta ez hain gazte– enplegarritasunaren alde.

Zeharkako gaitasun guztien artean, ZeharGAI T eskuliburu honek arreta berezia jarri du honako lau multzo hauekin zerikusia duten trebetasunekiko tresnak eskaintzen:

- *Taldean lan egitea;*
- *Ingurune antolatuen barruan ematen diren pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa;*
- *Adimen emozionala, asertibotasunarekin eta emozioen kudeaketarekin batera;*
- *Gatazken kudeaketa eta konpontzea.*

1. Zer behar du pertsona batek bere zeharkako gaitasunak hobetzeko?

Edonork hobetu ditzake bere soft skills direlakoak.
Bi gauza besterik ez ditu behar: nola egin jakitea eta nahi izatea.

(R. Niermeyer, 2006)

Rainer Niermeyer-ek *Kiembaum metodoa* eratu zuen, kudeatzaile eta zuzendarien trebetasunak garatzeko helburuduna. Haren aburuz, *soft skills* edo trebetasun bigunak, neurri handiagoan edo txikiagoan, pertsona guztiek dituzten trebetasunak dira eta, ondorioz, guztion eskura dago gure trebetasun horiek hobetzea. *Edonork hobetu ditzake bere trebetasun bigunak*, diosku. Gakoa, hala ere, hobekuntzarako behar den horretan datza. Niermeyer-en hitzetan gauza bi dira beharrezko: *nola hobetu jakitea, eta hobetu nahi izatea.*

Bigarren eskakizunak, *nahi izateak*, zera azpimarratzen du, trebetasun hauen hobekuntzarako ezinbestekoa dela pertsonaren parte-hartze aktiboa. Norbaiten trebetasun bigunak onak ez badira eta pertsona horrek horiek hobetzeko berezko motibaziorik ez badu, oso zaila litzateke hobekuntza hori kanpoko pizgarri hutsekin sustatzea –positibo zein negatiboak izan. Adin guztiak dira onak zeharkako trebetasunak hobetzeko, bizitza osoan irauten duen ikaskuntza da gaitasun hauena. Gure prestakuntza- eta lanbide-esperientziek, pertsona zehatzekin zein gizartearekin ditugun harremanek, bai eta gure buruarekin harremantzeko dugun erak ere eragina du trebezia hauengan.

Behin motibazioa argi dagoenean, bigarren premisa edo eskakizunaren beharra sortzen zaigu: gure trebetasun hauek nola hobetu jakin edo ikastea.

Seguru irakurleak hautemango zuela Niermeyerrek gaitasun edo *trebetasun bigunak* esamoldea erabiltzen duela. Nahita mantendu dugu. Esamolde hori eta *zeharkako gaitasun* adiera ez dira guztiz sinonimoak, baina bada bien esentzian antzekotasun garrantzitsu bat: pertsonak beste pertsona batzuekin lan egiteko garatzen dituzten trebetasunez ari gara.

Trebetasun bigunak (edo soft skills) eta enplegarritasunerako funtsezko trebetasunak ez dira bi kontzeptu sinonimoak, nahiz eta batzuetan hala erabiltzen diren. «Soft skills» adierazpena hard skills (trebetasun teknikoak) adierazpenaren osagarri gisa sortu zen, armada iparramerikarraren inguruan, eta «employability skills» (enplegua lortzeko trebetasunak) esamoldea, berriz, enpresa-antolaketaren arloan agertu zen.

Soft skills terminoa Estatu Batuetako armadan erabiltzen hasi zen bere tropen *hard skillen* kontrako edo osagarri gisa, hau da, era guztietako makineria edo tresna teknikoak erabiltzeko trebetasunen kontrakarrean. Beste pertsona batzuekin elkarreragiteko trebetasun garrantzitsuak *soft skills* gisa nabarmendu ziren, eta, gutxienez, liderrengan funtsezkotzat jotzen ziren (eta gainerako soldaduentzat desiragarritzat). Kontua da, ordea, enpresaren eta lan-harremanen inguruan aditu askori ez zaiela gehiegi gustatzen *soft skills* terminoa. Nahiago dute enplegarritasunerako funtsezko trebetasunez hitz egin. 70eko hamarkadan ere sortu zen beste termino bat.

Bigarren Mundu Gerraz geroztik eta 70.eko hamarkada horretara arte, enplegua eta ekonomia etengabe hazi ziren mundu mailan. Baina krisiaren eztandak, besteak beste, egiturazko langabezia handia eragingo du, eta eragin handia izango du gazteengan. Garai berrietara egokitzeko, industriak eraldaketa sakonak egingo ditu eta orduan hasiko da, hain zuzen, *enplegarritasunerako funtsezko trebetasunei* buruz hitz egiten.

90eko hamarkadan, ikuspegi berri hori lanbide-heziketako sistemetara iritsi zen, eta funtsezko trebetasunen lehen zerrendak sortu zituen, nahiz eta azken hamarkadan bakarrik zabaldu den mundu mailako hezkuntza-maila guztietara (Bowman, 2010).

Urte horietan, enplegu-emaileek zundaketa eta ikerketa ugaritan adierazi dute trebetasun tekniko espezifikokoak oraindik ere ezinbestekoak direla, baina dagoeneko ez direla nahikoa lan-merkatuaren beharrak asetzeko (OECD, 2012). Beste trebetasun batzuk behar direla. Funtsezko galderak bi izango dira: zeintzuk diren trebetasun horiek eta nola gara daitezkeen enplegua lortu nahi duten pertsonengan, gazteenetan bereziki.

Nola hobetu trebetasun batzuk zeintzuen izenari buruz ere oraindik adostasunik ez dagoen? Eta zer zentzutan planteatu dezakegu trebetasun edo gaitasun horiek «irakas-tea» edo ikasleengan garatzea, pertsona batzuek sortzetikoak dituztela diruditenean, serietik etorriko balira bezala, eta beste pertsona batzuek, berriz, horiek nola hobetu ulertzeko zailtasunak badituzte?

Ez dago argi zein den modurik egokiena trebetasun bigunei eta/edo enplegarritasunerako funtsezko trebetasunei buruz hitz egiteko. Zeharkako trebetasunak, trebetasun bigunak, kore trebetasunak, etab. Agian egokiena gaitasun hauen errealitate poliedrikora hurbiltzen diren termino anitzak maneiatzera ohitzea; izatez guztiek azpimarratzen dute gaitasun horietako alderdiren bat. Hurbileko terminoak dira, baina

ez sinonimoak, eta ez dira testuinguru beretan sortu. Eta zer trebetasun idatzi behar diren hobetu beharreko zerrendan, horri buruz ez dago erabateko adostasunik ere. Ikus ditzagun zenbait proposamen.

Brewer eta Comynen arabera, Lanbide Heziketako enplegarritasunerako funtsezko gaitasunen zerrenda espezifikoa hiru bloke hartu behar dira kontuan, eta horietako hirugarrena, «lan-trebetasun nuklear» gisa izenpetzen dutena, zeharkako gaitasunei dagokiena da.

Trebetasun teknikoak	Zeregin espezifikoak egiteko behar diren trebetasun espezializatuak, ezagutzak edo know-how delakoa.
Trebetasun pertsonalak	Lana egiteko banakako atributu garrantzitsuak; besteak beste, zintzotasuna, integritadea, lan-etika.
Lan-trebetasun nuklearrak	Ikasteko eta egokitzeko trebetasunak; irakurtzeko, idazteko eta kalkulatzeko gaitasuna; modu eraginkorrean entzutea eta komunikatzea; sormenez pentsatzea; arazoak modu independentean konpontzea; lanean nork bere burua maneiatzea; beste lankide batzuekin elkarre- ragitea; taldeetan edo taldeetan lan egitea; oinarrizko teknologia erabiltzea; lidergo eraginkorra eta gainbegi- ratzeko gaitasuna.

Iturria: Brewer/ Comyn, 2015:2.

Brewer-ek (2013) lan-trebetasun nuklearren dozenaka zerrenda berrikusi zituen (core work skills), batez ere enpresek eta enplegatzaileek eginak, hainbat sektoretan eta mundu osoko herrialdeetan, zerrenda gehienetan errepikatzen ziren elementuak sintetizatzeko. Elementu komun horiek lau kategoria handitan sailkatu zituen (Brewer eta Comyn, 2015: 10-11): ikasten ikastea, pertsonen arteko komunikazioa, taldeko lana eta arazoen konponketa.

Hona hemen azaldutako kategoria bakoitzaren barruan sartzen diren elementuen banakapena. Zerrendak irakurtze hutsak laguntzen du hautematen, zailtasunik gabe, lotura handiak daudela kategoria bakoitzean sartzen diren jarrera, portaera eta trebetasunen artean. Egoera hori bereziki nabarmena da taldean lan egitearen kasuan. Talde batean moldatzeko eta bertan erantzukizunei aurre egiteko, hainbat trebetasun behar dira, hala nola: moldagarritasuna, norberarekiko erantzukizuna (eta norberaren ikaskuntza), entzuteko eta komunikatzeko trebetasunak edo gatatzeko-egoerak konpontzeko gaitasuna.

Ikasten ikastea	<p>Ikasteko borondatea</p> <p>Ikasteko teknikak erabiltzea, ezagutza eta trebetasun berriak eskuratzeko eta aplikatzeko</p> <p>Modu seguruan lan egitea</p> <p>Ikasteko gaitasun autonomoa</p> <p>Norberaren ikaskuntzaz arduratzea</p> <p>Modu abstraktuan pentsatzea</p> <p>Informazioa antolatzea, prozesatzea eta atxikitzea</p> <p>Informazioa interpretatzea eta komunikatzea</p> <p>Erantzunak aurkitzeko ikerketa sistematikoa garatzea</p> <p>Denbora eraginkortasunez eta eraginkortasunez erabiltzea kalitatea sakrifikatu gabe</p> <p>Atazetarako ikuspegirik onena hautatzea</p> <p>Atazak hasi, garatu eta osatzea</p> <p>Moldagarria izatea</p>
Komunikazioa	<p>Eskumenez irakurri</p> <p>Materialak irakurri, ulertu eta erabiltzea, grafikoak, koadroak eta irudikapen bisualak barne</p> <p>Enpresaren hizkuntza (k) ulertzea eta hitz egitea</p> <p>Enpresak jarduten duen hizkuntzan eraginkortasunez idaztea</p> <p>Entzule bati zuzenduta idaztea</p> <p>Entzutea eta eraginkortasunez komunikatzea</p> <p>Entzutea, ulertzeko eta ikasteko</p> <p>Zenbakien erabilera eraginkorra</p> <p>Norberaren ideiak eta ikuspegia artikulatzea</p>
Taldean lan egitea	<p>Lanean norbera moldatzea</p> <p>Talde edo taldeetan lan egitea</p> <p>Lankideekin elkarreragitea</p> <p>Taldean besteen pentsamenduak eta iritziak errespetatzea</p> <p>Taldearen kulturaren barruan lan egitea</p> <p>Taldearen helburuak ulertzea eta horietan laguntzea</p> <p>Beste batzuekin planifikatzea eta erabakiak hartzea, eta emaitzak babestea</p> <p>Ekintzen erantzukizunari aurre egitea</p> <p>Elkarteak eraikitzea eta askotariko esperientziak koordinatzea</p> <p>Taldearen adostasunerantz lan egitea erabakiak hartzerakoan</p> <p>Beste batzuen ekarpenak baloratzea</p> <p>Atzeraelikadura onartzeko gaitasuna</p> <p>Gatazkak konpontzea</p> <p>Coaching eta mentoring lanak egitea eta beste batzuei atzeraelikadura eskaintzea</p> <p>Lidergo eraginkorrerako habilezia</p> <p>Taldea mugiaraztea, lan handia egiteko</p>
Arazoak konpontzea	<p>Sormenez pentsatzea</p> <p>Problema modu independentean ebatzea</p> <p>Onarpenak proban jartzea</p> <p>Arazoak identifikatzea</p> <p>Datuen testuingurua eta inguruabarrak kontuan hartzea</p> <p>Lana egitea lortzeko ekimen-gaitasuna</p> <p>Informazioa biltzea, aztertzea eta antolatzea, denbora, dirua eta helburuak lortzeko beste baliabide batzuk planifikatzea eta kudeatzea</p>

2. Trebetasun bigun eta zeharkakoen aldeko ahalegina Bizkaiko LH publikoan

Unitate didaktiko hauek prestatzea, IkasLAN Bizkaiaren GizaLEADER Programan hainbat urtez egindako lanaren emaitza da. BBKren laguntzarekin, Programaren lehen fasean diagnostiko elkarrizketatu bat egin zen IkasLAN Bizkaia sareko ikastetxeekin (irakasle eta kudeatzaileei), bai eta Lantokiko Prestakuntzan sare honetako ikasleei abegi ematen dieten enpresekin ere. Enpresei dagokienez, sektorea alde batera utzita, enplegatzaileei eskatzen zitzaien adieraz zezatela –beren esperientzia pertsonaletik– zein zeharkako gaitasun jotzen zituzten garrantzitsuentzat beren taldeentzako pertsonak kontratatzerakoan, eta zer aholkatuko zieten beren sektorean enplegu-eskaera bat aurkezteko asmoa zuten pertsoneri.

Ikastetxeetako irakasleen kasuan, elkarrizketetan honako galdera hauen antzekoak egiten ziren:

- Curriculumetan zein zeharkako gaitasun lantzen ziren eta gaitasun horiek nola/zergatik hautatu izan ziren;
- Zer jarduera mota egiten ziren moduluetan, zikloetan edo ikastetxeetan zeharkako gaitasun horiek garatzeko edo hobetzeko;
- Eta gaitasun horiek prestakuntzan laguntzeko orduan (prestakuntza-ebaluazioa) eta zeregin desberdinak kalifikatzerakoan zein modutan hartzen ziren kontuan.

Elkarrizketa bidezko diagnostiko horretan oinarrituta, GizaLEADER Programa lanaren bigarren fasean sartu zen, eta horren emaitzen artean obra hau dago. Honen bidez, irakasleek eta ikastetxeek eskatzen dituzten premia batzuei erantzun nahi zaie; enplegarritasunerako trebetasunei buruzko kontzientzia, bai eta horiek eskuratzeko aukerei buruz lan egiteko tresna osagarriak eskaintzen dira hemen. Egindako diagnostikoak argi erakusten du trebetasun hauek eskuratu zein garatzeko berebizikoa dela lehenik eta behin zera hautematea: komunikazioak, problemak ebazteak edo plangintzak enplegarritasunari dagokionez zenbateko garrantzia duten. Kontzientzia hartze horrek erreflexitatearen osagaia ere badu, hots, norbere errealitatera itzuli eta haren gainean hausnarketa egiteko gaitasunarena.

Gogoeta partekatuko espazioak sortzeko helburuarekin, ZeharGAIT lan-unitateek zeharkako gaitasunei buruzko ikaskuntza-proposamen esanguratsuak egiten dituzte tamaina ertaineko ikasle-taldeentzat (6-12 kideko taldeentzat). Zein zentzutan bilatzen da ikaskuntza esanguratsu bat? Aniztasuna dago pertsonen bizitzeko eran, eta hori kontuan hartuta, zera konektatu nahi da: alde batetik, pertsona ezberdinek dituzten bizitzeko moduak, eta bestetik profesioen egunerokoan ematen diren egoerak, arazoak eta hartu beharreko erabakiak (Dee Fink, 2013). Besteak beste, kasu txikietan oinarritutako ariketak, aukera anitzeko galderak, irakurketa egokituak eskaintzen dira, taldeka horien gainean gogoeta egiteko.

3. ZeharGAIT eredia: Bizkaiko LH-n enplegarritasunerako gaitasunak garatzeko proposamen metodologiko osagarri bat

3.1. ZeharGAIT ereduaren garapena: sarrera ohar batzuk

Liburu honen egileek Leire Escajedo eta Igor Filibi, diseinatutako metodologia da ZeharGAIT Eredua, Lanbide Heziketako (LH) ikasleen enplegarritasunerako gaitasunak indartzeko. Gaitasun horiek lantzeko metodo praktiko bat da, ia hiru urteko ikerketa-programa sakon baten ondoren diseinatua.

3.1.1. Nola garatu da ZeharGAIT metodoa?

Lehenik eta behin, dagoen literatura berrikusteko epe luze baten ondoren, Ikaslan Bizkaia sareko Lanbide Heziketako ikastetxe publiko gehien-gehienetako arduradun eta irakasleekin elkarrizketatu ziren egileak, beren ikastetxetan zeharkako konpetentziak nola lantzen ziren lehen eskutik ezagutzeko, bai eta haien irakasleen ezaugarriak, ikasleak eta ikastetxeetatik hautematen zituzten beharrak zehatz-mehatz ezagutzeko ere. Egileak hainbat enpresatako arduradunekin bildu ziren LHko ikasleengan zer eskatzen zuten jakiteko, eta zer falta zen edo zer hobetu zitekeen jakiteko.

Diagnostiko-fase hori oso baliagarria izan zen hizkuntzaren tonua eta metodologiaren ikuspegia zehazteko eta metodoa behar espezifiko horietara egokitu ahal izateko. Iruzkina eta bizitza errealeko egoera ugari jaso dira, gero liburuaren kasu praktiko bihurtu direnak.

Bigarrenik, egileek beren esperientzia erabili zuten LHko irakasleei prestakuntza-ikastaroak emanez, ikaskuntza aktiboko metodologia desberdinekin, irakasleentzako orientabideak argitzeko, metodo horrek ahalik eta eraginkortasun handiena izan dezan.

Hirugarrenik, egileek prestakuntza-ikastaro pilotu bat egin zuten LHko ikasleentzat, GizaLEADER programaren barruan, enpresetan praktikak egin aurretik enplegarritasunerako trebetasunetan zuten prestakuntzaren osagarri. Prestakuntza-ikastaro hori 2019an ezarri zen, eta, ondoren, ikasleen iritziekin findu eta doitu zen, batez ere praktikoak diren eta eskola teoriko soilekin edo eskuliburuaren irakurketarekin ikasi ezin diren ezagutzak eskuratzeko ariketa eta metodologia egokienak identifikatzeko.

Azkenik, oso baliagarriak izan ziren IkasLAN Bizkaiko hainbat pertsonarekin izandako elkarrizketak, erakundearen beharrak identifikatzeko eta gaur egun Lanbide Heziketaren mundu konplexuaren barruan orientatzeko. Aldaketa garrantzitsuak izan ziren, hala nola, erronketan oinarritutako ikaskuntzaren metodologiaren orokortzea (ABR), eta duela gutxi eredu dualak sartu dira, klaseak eta enpresetako praktikak modu askoz biziagoan konbinatzen dituztenak.

ZeharGAIT eredia testuinguru horretan txertatzen da, eta Lanbide Heziketa bizitzen ari den aldaketa estrategikoak osatu nahi ditu, enpresen eskaera bati arreta handiagoa eskainiz: prestakuntza hobea enplegarritasunerako funtsezko gaitasunetan.

3.1.2. Zertan datza ZeharGAI T lan-metodologia?

Metodologia praktikoa da, 6-12 pertsonako talde txikietan lan egiteko pentsatua, eta bi bideratzailek gidatutako ikaskuntza-esparrua sortzen du, hainbat unitate didaktikotan planteatutako ariketetan oinarrituta.

ZeharGAI T metodologiak hainbat iturritatik edaten du, eta hainbat mekanismo pedagogiko eta irakaskuntza-baliabide konbinatzen ditu. Kontzeptu garrantzitsu batzuetarako sarrera laburrak daude, eta, ondoren, adibide argigarriak; gero eztabaidatuko diren egoerak garatzen dituzten testu propioak eskaintzen ditu; hasierako eta autoebaluazioko hainbat galdera-sorta ematen ditu; hainbat egileren ariketak egokitzen ditu, intuiziozko ikaskuntzaren potentzialean arreta jartzeko; taldeak sortzeko eta kudeatzeko eredu propioak ezartzen ditu; egoera bat sortzen duten albiste eta kasu erreal ugari egokitzen ditu, eta, ondoren, gogoeta egiten duten galdera-detonatzaile batzuk ematen ditu, eta, ondoren, zenbait pertsona ezagunen datu oso ezagunak izan daitezkeenak (besteak beste, kirolari ezagunenak).

Material eta baliabide ugari diseinatu dira, irisgarriak, errazak eta intuitiboak izan daitezzen, egungo euskal Lanbide Heziketako erdi-mailako eta goi-mailako ikasketak egiten dituzten neska-mutilen ohiko profilerak egokituak. Erabilitako hizkuntza ere izugarri zaindu da, haren tonua, eta gogoetarako gune bat sortzen saiatu da, begirada guztiek ezagutzen dituzten eguneroko bizitzako alderdietan finkatu ahal izateko, baina askotan ez da arreta gehiegirik jarri alderdi horietan.

Zentzu horretan, metodoa gidatua da. Baina ez dago zuzenduta, eta horrek esan nahi du bideratzaileek ezagutza horren ateraino lagun diezaioketela parte-hartzaileari, baina argi utzita ate hori zeharkatzeari buruzko erabakia parte-hartzaile bakoitzarena dela soilik. Egileoi garrantzitsua iruditzen zaigu puntu hau azpimarratzea: metodologia atsegina da, gonbidatzen du, baina ez du indarrik eta ez du behartzen. Jakinminetik, irudimenetik, gatibatzen saiatzen da, begi-bistako gaiak planteatuz, baina horien hausnarketak ezagutza berri batean aurrera egitea ahalbidetzen du. Hurbilketa ia soziologikoa da, pertsonen arteko bizikidetzaren zein konplexua den erakusten du eta harridurara garamatza, eta hortik hausnarketara.

ZeharGAI T metodoak ez du irakasten, baizik eta esparru bat sortzen du, non parte-hartzaileek, bideratzaileen oharrak eta iradokizunak aintzat hartzen badituzte, ondo ezagutzen zituztela uste zuten egoeren esanahi eta dimentsio ezkutuak ikasteko aukera izango duten. Metodoak ezagutza sortzen du eguneroko egoeretan deskubritzen denean, eta horiei buruz hausnartzean, autoezagutza sortzen da. Izan ere, gaitasun horiek horrela baino ezin dira ikasi, esperientzia praktikotik, hausnarketatik eta komunikaziotik. Beraz, Metodoak aukera ematen du pertsona bakoitzarentzat ezagutza esanguratsu bat sortzeko, etorkizunean ikasi ziren egoeratik (ezagutza testuinguru profesionaletara transferitzea) bestelako testuinguru berrietan erabili ahal izango dena.

Aipatutako tresna eta baliabide aniztasunarekin lortzen da hori, baina *In-Tray* metodologiaren garrantzia azpimarratzea merezi du, praktika profesionalaren eguneroko egoerak planteatzean datzana, gai praktikoa eta zehatzen inguruan gogoeta egitea eskatzen duena.

Liburu hau lau alderditan oinarritu da (Unitate Didaktikoak), lehentasunezko zatitza baitira enplegarritasunerako gaitasunen barruan; baina ez dira inola ere baztertzen beste gai garrantzitsu batzuk, bigarren mailako presentzia dutenak. GizaLEADER programaren diagnostiko-faseak lau gai zehatz areagotzea gomendatu du: taldean lan egitea, pertsonen arteko bizikidetzaren, komunikazio asertiboa eta gatazkak konpontzea.

Hala ere, ZeharGAIT metodoa eskalagarria da, eta horrek esan nahi du irekia dela eta etorkizunean osa daitekeela hainbat gai lantzen dituzten unitate didaktiko berriekin, metodologia berari jarraiki.

Gainera, ahalik eta erabilgarriena izateko, Metodoa malgua da. Horrek esan nahi du unitateek eta ariketek irizpide pedagogiko jakin batzuen arabera ordena jarraitzen dutela, baina horrek ez du esan nahi ariketak beste ordena batean egin ezin direnik, irakasleek egoki baderitzote edo denbora dela eta. Horrela, ikastaroa osorik eta iradokitako ordenan egin daiteke, baina ariketa solteak ere egin daitezke, irakasleak unitate didaktikoen alderdi zehatzak soilik landu nahi baditu. Erabilera malgu hori errazteko, indize orokor xehatuaz gain, kasuen zerrenda eta bakoitzarekin landu daitezkeen gaiak jasotzen dituen taula bat gehitu da.

Ikasgelan inplementatzearen ikuspuntutik, unitate didaktiko bakoitzak irakasleentzako orientabideak biltzen ditu, bai ariketak behar bezala prestatzeko, bai ikasgelan ikasleekin garatzeko, bai azken bateratze-lana egiteko. Hori guztia, beraz, bat dator metodologia aktiboak inplementatzeko hiru fase klasikoekin: prestatzea, inplementatzea eta bateratzea (edo *debriefing* delakoa).

3.2. Elkarrizketa modua ZeharGAIT ereduaren jarduera guztietarako gomendio komunak

3.2.1. ZeharGAIT taldeen ezaugarriak

Obra honetan jasotzen diren jarduerak hainbat pertsona-taldetan erabiltzeko diseinatuta daude, haien adina, esperientzia edo lanbide-heziketako maila edozein izanda ere, eta ezaugarri hauek dituzte:

- 6-12 parte-hartzaile (taldearen tamaina mugatua).
- 2 bideratzaile egotea (pertsona batekin ere egin daiteke, baina kasu honetan abantaila pedagogikoetako batzuk galtzen dira).
- GOI arauak errespetatzea, alemanez TZI, (Cohn, 1975; Löhmer/Standhart, 2015), elkarreragineko gaien tipologia espezifikora egokituta. Xehetasun handiagoz azalduko dira.
- Parte-hartzaileen talde naturala apurtzen saiatzea edo, gutxienez, talde naturaletik aldentzen saiatzea (giro pedagogiko berria sortzeko).
- Parte-hartzaileen motibazioa (oso gomendagarria da ikasleek ikastaroan edo prestakuntza-saioan borondatez parte hartzea, bestela gelan giro egokia sortzea eragotz baitaiteke).

Deskribatutako betekizunetatik, egokia da zehaztasun handiagoz azaltzea elementu agian ezezagunena, Ruth Cohnnek diseinatutako interakzio-ereduaren arauak. Eredu hori alemanezko TZI siglez ezagutzen da, edo, euskaraz, *Gaian oinarritutako interakzioa* – GOI (Cohn, 1975; Huber, 2020). Bere ereduak elkarrizketarako oinarri gisa ezartzen diren arau sinple baina funtsezko batzuk ditu. Arau horien betetzea da pertsona bideratzaileek ziurtatu eta gainbegiratu behar dutena, sortu nahi den gogoeta- eta elkarrizketa-espazioaren funtsezko elementua baita. Aurkezpen-modu egokiena arau horiek topaketa egiten den espazioan modu ikusgarrian jartzea eta saio bakoitza hasi aurretik errepasatzea izaten da. Modu naturalean, pertsona bideratzaileak ohartarazpen puntualaren behar txikiarekin, elkarrizketa-eredua zailtasunik gabe finkatu ohi da, ez baitira konplexuak.

Proposamen metodologiko honetan nabarmentzen diren elementuak:

- Gaia ardatz duen interakzioa (elkarrizketa) sustatzen da, taldea protagonista dela. Helburuak banakakoak nahiz taldekoak dira, aldi berean.
- Saio bakoitza nola irekitzen eta ixten den, alderdi hori oso ondo zaintzen da beti.
- Giro emozionalari garrantzia ematen zaio (testuinguru atsegina, segurua).
- Motor komunak bilatzen dira (taldekideak non dauden, zein puntutan, eta, horretarako, motibazio-elkarrizketak).
- Eginez ikasten da, nora iritsi nahi den esperimendatuz («egiten ikasten» irakasten da, ez dira «ezagutza teorikoak» ez eta besterik gabe errepikatu daitezkeen praktikak ere).

3.2.2. Saioen kopurua eta iraupena. Aurretiazko ezagutzak

Talde-ikaskuntzak hainbat modutan antola daitezke, lortu nahi diren helburuen arabera. Zeharkako trebetasunen kasuan, ZeharGAI T ereduaren helburua da agertokiak sortzea, hoietan pertsonak zeharkako gaitasunak lantzeko aukerak izan ditzaten; gaitasun horiek eskuratzea ez ezik, eduki horiek esperientziatik barneratzeko aukera ere eman nahi da.

Saioen kopurua eta iraupena: hainbat aukera

Horrek esan nahi du zeharkako trebetasunetara hurbiltzea ez dela egiten ikuspegi teorikotik eta ikasleen pasibotasunetik. Apusturik eraginkorra bezala, lantalde bat sortzen da, pertsona zehatz batzuekin, eta lan-talde horrek esperimendatuko ditu saioak (nahi bezain beste). Hala ere, ez dago oztoporik jarduerak, modu berezian eta talde irekiagoetan unean-unean erabiltzeko.

Zenbat lan-saio? Obra honek jarduera multzo zabal bat aurkezten du, gaika ordenatuta, eta jarduera errazten duen pertsonaren esku geratzen da ikasle zehatzentzat interesgarrienak izan daitezkeen jarduerak hautatzea.

Bestela esanda, giza talde eta egoera bakoitzarentzat, eta, zehazki, bideratzaile bakoitzarentzat, komeni da hobekien egokitzen diren tresnak aukeratzea, eta, era berean, ataza ezberdinekiko egokitzat jotzen diren egokitzapenak egin ahal izatea.

Parte-hartzaileen aurretiazko ezagutza

Hainbat ikaslerekin osatzen den taldeak jakin behar du lan-saio jakin batzuetan helburu komunak lortu nahi direla. Zeharkako trebetasunak dira gai nagusia, baina esperientzia pertsonalaren bidez landu nahi dira. Hau da, helburua da pertsona bakoitzak bere buruarentzat baliotsua den zerbait ikastea, besteekiko komunikazio-lanaren bidez. Beste zeregin batzuetan ez bezala (teknikoagoak), zeharkako trebetasunak komunikazio-dimentsio hori behar dute behar bezala lan egiteko.

Jardueretako batek ere ez du eskatzen parte-hartzaileek alde aurreko ezagutzak izatea edo prestatzeko lanen bat egitea.

ZeharGAI T taldearen funtzionamendurako arauak

Taldearen funtzionamendu-arauak pertsona bakoitzak bere espazioa aurkitzeko eta guztiek bere helburuetarantz jo ahal izateko dira. Ereduaren berezitasunik handienak ez daude taldearen funtzionamenduan, baizik eta, bereziki, jardueren barruan elkarriketak irekitzeko eta garatzeko moduan. Jarduera espezifikotian ikusiko denez, fase guztiek dituzte fase desberdinak eta, horien artean, beti dago elkarriketarako gune bat. Elkarriketa horretan zenbait gomendio gorde behar dira, zeharkako trebetasunak garatzeko aukerak optimizatze aldera.

Arauek, esan bezala, Ruth Cohnen TZI ereduaren islatzen dute, gaiak ardatz dituen interakzio ereduaren lanbide hezkuntzaren esparrura egokituak. Zeintzuk dira arau horiek? *Izan zaitez zure moderatzailea*, dio Ruth Cohnen deskribatutako TZIren printzipioetan (Cohn, 1975; Huber, 2020). Elkarriketa-proposamen bakoitzean, kontziente izan ala ez, hiru erpinen arteko triangulu bat eratzen da: horietako batean pertsonak daude (*ni* bakoitza), beste erpin batean taldea dago, *gua*; hirugarrenean elkarri eragiten diogun *gaita* dago. Eta hori guztia ingurune edo mundu batean gertatzen da, egoera jakin batean.

Egoera jakin batean eta gai bati dagokionez elkarrengatik arauak errazak dira: *ni arduratzen naiz nire arazoez, zu zeureez; mundua guztion zeregina da*. Beste ikuspegi batetik begiratuta, elkarriketa-eredua premisa batetik abiatzen da: *elkarrekin-tzaren helburua da pertsona bakoitzak askatasunez ekarpena egitea –bere interakzio-maila erabakitzea– eta, aldi berean, taldearengandik jasotzen duenaren protagonista izatea*. Taldeak kohesionatzeko modu bat da, indibidualtasuna ezagutzen duena.

TZI eredu hori testuinguru jakin batzuetan aplikatzen da, eta, jakina, ikaskuntza-talde jakin batzuetan ere bai.

Beraz, arauak behin eta berriz gogorarazten dute *pertsona bakoitza, autonomia dela eta bere buruaz arduradun*. ZeharGAI T saioretan talde-elkarriketarako arauak TZI ereduaren egokitzapen batetik abiatuta proposatu dira. Pertsonak taldeekin elkarrengatik bilatzen da, baina, alde batetik, taldearen lan-prozesuen eta dinamiken artean oreka egon dadin, eta, bestetik, pertsona bakoitza bere ikaskuntzaren protagonista izan dadin.

Saioa hasi edo, uneren batean, elkarriketa-modua gogorarazteko

Garrantzitsua da, lehenengo saioaren hasieran, bideratzaileek argi eta garbi azaltzea elkarriketarako modu zehatza nolakoa den, denborarekin parte-hartzaileek erabilera-rekin hori barneratzen joan daitezen.

Jarraian, elkarriketarako arauak deskribatzen ditugu, eta, ondoren, horien laburpena jasotzen duen taula bat aurkezten da. Gomendioen taula horretara joko dugu behin eta berriz liburu honetan proposatzen diren talde-elkarriketako jarduera gehienetan.

- a) *Baieztapen edo iruzkin bakoitzean, hitz egin ezazu «ni» erabiliz; ez erabili gu edo inpersonala (denek behar lukete, inork ez daki, etab.)*

Nia erabiliz hitz egiteak gure hitzen erantzule egiten gaitu, eta besteenganako proiektzioak saihesten ditu. Pluralean edo modu inpersonalean (*ni*-rik gabe) hitz egiten dugunean, orokortzeko arriskua dugu, baieztapen baten atzean gure iritzia ezkutatzeko, baieztapen hori, oro har, denok dakigun egia edo zerbait balitz bezala; eta, horrela, ez dugu gure gain hartzen esaten ari garenen erantzukizuna. Araua honek esaten dugunaren erantzule egiten gaitu. *Nik* nire izenean hitz egiten dut, eta parte-hartzaile bakoitzak bere kabuz. Denek, nahi dutenean, hitz egiteko aukera izan behar dute, baina beren ikuspegitik eta esperientziatik.

b) *Saiatu besteek esaten dutena ez interpretatzen*

Zu zara esaten duzunaren eta esaten ez duzunaren erantzule; egiten duzunaren eta egiten ez duzunaren erantzule ere bazara. Besteei ere erantzukizun horrek dakarren autonomia uzten die: beren buruaren erantzule dira. Pertsona bakoitza bere buruaz jabetzen den heinean, horrek bere askatasuna areagotzen du. Norbaitek zer esan nahi izan duen ziur ez bazaude, eskatu argitzeko (baliteke beste une batzuetan beste batzuek zuri ere galdetzea, zuk esandako zerbait hobeto ulertzen saiatzeko). Norbaitek esaten dizun zerbaitek erreakzionarazten bazaitu, saia zaitez azaltzen zer iradokitzen dizuten edo nola berpizten zaituzten hitz horiek; saia zaitez hautematen eta azaltzen hitz horiek zer zentzutan sortzen duten zugar erreakzio bat (zurea da erreakzio hori, ez bestearena, ezta erabili dituen hitzena ere).

c) *Orokortzeak saihestu*

Gai batean oinarritutako elkarrekintzak ez du ez adostasunetara ez egia absolutueta-ira iristea bilatzen. Elkarrizketa-agertoki bat da, non pertsonak, egoera jakin batean, gai baten inguruan elkarreragiten duten, ikasteko, beren buruarentzat baliotsuak diren ondorioak eta esperientziak ateratzeko helburuarekin. Oro har, orokortzeak ez dira elkarrizketa modu honetan erabilgarriak. Adibidez «irakasleek ez digute ulertzen» edo «neskak ikasiagoak dira» esaldien gisakoak ez dira oso baliagarriak elkarrizketa mota honetarako. Hobe duzu beti zehatzetik hitz egitea: «iaz, ingeleseko irakasleak, profesionalak bagina bezala tratatzen gintuen, eta ez zen konturatzeko batzuek oinarri gutxi geneukala», «institutan talde-lana egin nuen eta talde lan hartarako ezagutu nituen hiru neskek nik baino askoz gehiago ikasten zuten».

d) *Galdera bat egiten duzunean, azaldu, halaber, zer ulertu nahi duzun*

Adibidez: «zergatik esan duzu udan izan zenuen lan hartan zure lankideekin zenuen harremana txarra zela nagusiaren erruz? Esan nahi duzu nagusia nolabait zuek zaitzen eta aurrez aurre jartzen saiatzen ari zela? Asko harritzen nauelako galdetzen dizut, baina egia da duela pare bat urte antzeko zerbait gertatu zitzaidala».

e) *Pertsona batek hitz egiten duenean, gainerakoek arreta jartzen dute. Elkarrizketa paraleloek taldea asaldatzen dute*

Noizbait ikusiko zenuen telebistako edo irratiko saio horietako bat, une batzuetan tertuliakide guztiek batera hitz egiten dutena. Zer sentitzen duzu pertsona askok aldi berean hitz egiten duten une horietan? Seguruenik, ezin duzula ezer ulertu, arreta hainbat arreta-guneren artean desbideratzen baita. Gainera, elkarrizketa batean bi hari edo gehiago sortzen direnean, bat aukeratu behar duzu —horrek esan nahi du beste elkarrizketa-haria galtzen duzula—. Batzuetan, gainera, hari bati jarraitzen diotenek, ahotsa goratzen dute, elkar ondo entzun nahian, eta, horren ondorioz, segundo gutxiren buruan solaskide gehienak oihuka hasten dira.

ZeharGAI taldeetan ez dugu horrelako elkarrizketa erarik nahi. Guztiok elkarrizketa-hari berean zentratuta egon behar dugu, hori dela eta gomendatzen da parte-hartzaileen kopurua mugatzea. Gainerako parte-hartzaileek esaten dutena entzunez eta ulertzen saiatuz gauzatzen da elkarrizketa eredu hau. Hori da gure gogoeta besteen ekarpenekin aberasteko modua, eta esaten denari eta eragiten dizkigun erreakzioei ahalik eta etekin handiena ateratzeko modua.

f) *Argibideren bat eskatzeko etenek (taldea egiten ari den horretan parte hartzen jarraitzeko norbaitek argitu behar dituenak) lehentasuna dute*

Hau oso garrantzitsua da. Zerbait argi geratzen ez bada, argitu egin behar da jarraitu aurretik; pertsonak adierazitakoa ondo ulertzeko aukera egon behar du ere. Etenak eta distrakzioak ez dira gauza bera, baina taldea bera izango da horiek bereiztuz joango dena; elkarrizketaren artea, elkarrizketaren esperientzekin garatzen da.

g) *Begiratu zure gorputzari eta jarri arreta sentitzen dituzun seinaleetan. Ikusi, halaber, zer esaten dizun besteen gorputz-hizkuntzak.*

Adi esaten duzunarekin, baina baita hori adierazteko moduarekin ere. Arreta jarri, halaber, pentsatzen duzunari eta besteei entzuten diezun bitartean sentitzen duzunari. Gure keinu eta adierazpenek gure hitzek adina informazio ematen dute. Zaindu hau eta begiratu besteen hitzik gabeko komunikazioari. Gorputzaren keinu eta seinale horiek emozioak adierazteko bide bat izan ohi dira, hala nola, gogoa, nahigabea, haserrea, etab. Hori guztia oso garrantzitsua da eta gertatzen ari denari buruzko informazio baliotsu asko ematen digu. Ez dugu dena batera prozesatu behar, baina gure pertzepzio-gaitasuna trebatuko dugu.

ZeharGAIT taldeen barn-elkarrizketetarako gomendioen laburpena

ZeharGAIT jarduerak egitean, taldeetan elkarrizketa izateko moduari buruzko gomendio komunak (ZeharGAIT Gomendioak)

1. Baieztapen edo iruzkin bakoitzean, hitz egin ezazu «ni» erabiliz, eta ez «gu» edo «inpersonala» erabiliz (denek behar lukete, inork ez daki, etab.).
2. Saiatu besteek esaten dutena ez interpretatzen.
3. Saihestu orokortzeak.
4. Galdera bat egiten duzunean, azaldu zer ulertu nahi duzun.
5. Pertsona batek hitz egiten duenean, gainerakoek arreta jartzen dute. Elkarrizketa paraleloek taldea asaldatzen dute.
6. Argibideren bat eskatzeko etenek (norbaitek zerbait ulertzeko laguntza behar duenean, taldea egiten ari den horretan parte hartzen jarraitu ahal izateko) lehentasuna dute.
7. Begiratu zure gorputzari eta jarri arreta hautematen dituzun seinaleetan. Ikusi, halaber, besteen gorputz-hizkuntzak zer esaten dizun.

(6) Lan egiteko modu hori instrumentala da eta, aldi berean, ikasteko iturri ere bada. Pertsonen arteko topaketa zintzoa (ez abstraktua) oso aberasgarria da, pedagogikoa. Pertsonaren autonomia eta interdependentzia konbinatzen dira; besteen multzoan norbanako izateari leku ematen dio, nortasuna desegin gabe; eta tolerantzian eta ikuspegi-aniztasunean hazteko aukera ematen du ere.

Topaketa esanguratsua izan dadin, gainera, ez da ezinbestekoa pertsonak pentsatzen edo sentitzen ari diren guztia partekatzea. Are gehiago, batzuetan, espazio propioa dutela eta bereiz daitezkeela sentitzea (nahiz eta taldean egon) oso onuragarria da.

Beraz, komeni da izotza apurtzea eta norbanako bakoitzak bere buruari galdera esanguratsuak egiteko lekua sortzea, baina pertsonak deseroso sentitu gabe. Hori ez da erraza, pertsona bakoitzak bere harremanak dituelako. Aholkuak ematen dira kasuz kasu.

Saioa zuzentzen ez duten irakasleen (bideratzaileen) rola.

Saioan laguntzen duenaren rola erraztekoa da. Ez da beharrezkoa unitate horiek hartzen dituzten gaietan aditua izatea. Metodoa entrenatutako bi bideratzailek edo LHko irakasleek beraiek ezartzeko pentsatuta dago. Idealki, irakasleek metodologia horri buruzko prestakuntza-ikastaro bat jasotzen badute, emaitzak hobeak izango dira ziurrenik, baina, nolana ere, ahalegin handiena egin da liburu erraza eta intuitiboa izan dadin, eta irakaskuntzan gutxieneko esperientzia duen edozein irakasle erraz erabil dezan.

Jarduera bat bi pertsonak inplementatzeak, hau da, bi alderatzaile egoteak abantaila ugari ditu, bai taldea kudeatzeari dagokionez, bai parte-hartzaileen behar espezifikotara egokitzeari dagokionez. Hala ere, pertsona bakar batek ere egin ditzake saioak, baina abantaila pedagogiko batzuk galduko dira.

3.2.3. Metodologia presentziala

ZeharGAIK metodoaren alderdi nagusi bat saioen presentzialtasuna da. Lehen esan bezala, ariketa gehienak praktikoak dira eta haien helburua da parte-hartzaileek egoera jakin batzuk esperimintatzea. Hori gertatzea oso zaila da saioak aurrez aurrekoak ez badira, online formatuetan hitzik gabeko informazioaren zati handi bat galtzen baita. Gainera, aurrez aurreko erlazioak bakarrik ahalbidetzen du metodoak arrakasta izateko ezinbestekoa den klima mota sortzea.

Lan honen egileen esperientzian oinarrituta, posible da metodo presentziala osatzea online egindako jarduera batzuekin, baina azken hauek ezin dute aurrez aurrekoa guztiz ordezkatu. Aurrez aurrekoa ez den modu batean posible da gogorarazteko edo indartzeko zeregin batzuk esleitzea, edo hausnarketa pertsonalerako ariketa batzuk, baina beti ere gero taldeak aurrez aurreko saioetan eztabaidatu ahal izango lituzkeenak.

Lan harremanen esparruan pertsonak hautatzeko erabiltzen diren tresnen kasuan, automatizaziorako eta digitalizaziorako nolabaiteko joera dago gaur egun; hori jakina da. Objektibotasun-maila handia bermatze alderakoak dira pertsonen hautatze sistemak gaur egun, zeharkako gaitasunei dagokienean ere. Erabilera pedagogikoaren kasuan, ordea, eredu analogikoa eta presentziala askoz onuragarriagoa da, bereziki zeharkako gaitasunak lantzeari begira.

3.2.4. Prozesuaren urratsak: irekiera, lan-saioak eta itxiera

ZeharGAIK lan-saioek helburu zehatza dute. Garrantzitsua da hortik hastea, asmoaren aurkezpen edo oroigarri horretatik, bai lehen egunean, bai saio bakoitzean: zure ustez, zer egitera etorri gara gaur hona?

Pertsona bakoitzak asmo hori adieraztea, parte-hartzaile bakoitzak bere irakurketa egitea eta geroago berrikustea oso garrantzitsua da (pertsona bakoitzari eta pertsona guztiei dagokienez). Nik zer espero dudan eta helburua zein den baldin badakit bakarrik ebaluatu ahal izango dut azkenean zer eramango dudan.

Gainera, taldeak esku hartzen duen beste gaien artean, ondo dago taldeko estrategiari buruz ere hitzegiteko denbora hartzea: eskainiko den denborari buruz, gauden tokiari buruz eta nola goazen, gure planari buruz. Estrategiari buruz taldean hausnartzeko dinamikek lidergoa pertsona bakoitzarengan kokatzen dute ere, ez taldean soilik. Lidergo partekatua da.

3.3. Feedbacka edo atzeraelikadura lan-saioetan

Ikaskuntza prozesu guztietan da erabilgarria gure helburutik gertu edo urrun gauden jakiteko orientazioa jasotzea. Zeharkako gaitasunen ikaskuntza ez da salbuespena. Baina esan daiteke trebetasun hauen lan-saioen kasuan, feedback horrek ez duela antzik irakasle batek beste gai batzuen inguruan eman dezakeenarekin (adibidez, zeregin tekniko bat egiten ari denean)

Esperientziarekin, irakasle guztiek ikasten dute ikasleak orientatzeko eta haien ikaskuntza berrelikatzeko zailena ez dela soilik gure balorazioa adierazteko modua, baizik eta ikasleek, diren pertsonak diren aldetik, atzeraelikadura hori nola jasotzen duten hautematea (Didau/ Rose, 2016: 83). Jasotzen dutenaren arabera, baliteke bilatzen dugunaren guztiz kontrako efektua eragitea.

Fritz Heiderren (Heider, 1958) *kausazko esleipenaren teoria* aplikatuz, atzeraelikadura eskaintzeko modu batzuk beste batzuk baino emaitza hobea eman dezakete, segun eta ikasle zehatzek zein modutan hauteman ohi dituzten emaitza jakin bat lortzeko erabakigarriak izan diren faktoreen multzoa. Adibide hauetan ikusi daiteke eragin hori:

– *Zeri egozten dio ikasle batek ataza batean nota ona edo nota txarra lortu izana?*

Ona eta txarra pertsonalizatzeko joera duen pertsona bat bada, pentsatuko du beregan zerbait dagoela atazan arrakasta edo porrota ekarri duena (adibid.: ataza honetan ona naiz, ondo ematen zait, baldarra naiz, asko saiatu naiz, gehiago saiatu behar nuen). Hala ere, gertatzen dena kanpoko faktoreei egozteko joera badu, zorte gehiago edo gutxiago izan duela pentsatuko du, irakasleak mania gehiago edo gutxiago diola (edo egun ona zein txarra izan duela), edota kasualitatea izan dela. Azken kasu horietan guztietan, ikasleak emaitza (ona edo txarra) ez dela bere mende egon ulertzen duenez, ez da oso gertagarria hurrengoan emaitzak hobetzeko ahalegintzea. Oстера atazaren porrota ahalegin gutxi egin izanarekin lotzen badu, arrakasta lortzea ahalegin gehiago jartzearekin lotuko du.

– *Ikasleak uste du faktore horiek, emaitza onak edo txarrak dakartzatenak, egonkorrak direla edo ez direla?*

Faktoreak egonkorrak direla uste badu (bizkorra dela edo ez dela, irakasleak mania diola, zeregin hori ondo edo gaizki ematen zaiola, inoiz ez duela zorterik), ikasleak sentituko du ere faktore horiek ezin direla aldatu, eta litekeena da ere aldatzeko saiorik ez egitea. Aldiz, ikasleak uste badu zereginak arrakasta izatea edo porrot egitea eragin izan duten faktoreak faktore ezegonkorrak direla, zazituki onartuko luke ere bere aburuz motibazio egokiarekin emaitza hobetzen saia daitekeela (ez nuen egun ona izan, baina beste saio batean agian izan dezaket; ez nuen nahikoa ikasi, praktika falta zitzaidan, baina banuke ikastea edo gehiago saiatzea; egun horretan urduri negoen, baina hurrengoan agian ez da horrela izango, edo urduritasun gutxiago izateko zerbait egin nezake; etab.).

– *Garrantzitsua da, halaber, zeregin jakin batean lortu den arrakasta edo porrota pertsonaren beste alderdi batzuetara zabal daitekeen ala ez ikustea; pertsonarentzat ez da gauza bera porrota puntuala izan dela hautematea edo sentitzea porrot hori bere burua inguratzen duen zerbait globalaren ondorio dela.*

Irakasleak zehatza denean aholkuak ematerakoan, eta ataza pertsonaren beste alderdiengandik bereizteak, laguntza ematen du, pertsonaren ahalegina helburu zehatz baterantz zuzentzen bait dugu, pertsonaren autoestimua kaltetu gabe.

Laburbilduz: atzeraelikadura batek ikasleak beren jardunean hobetzera bultzatzen, oso garrantzitsua da beren jardunaren zein zati barne-faktoreei (beren buruari) zor zaien erakustea, zein faktore ezegonkorrei (hau da, hobekuntza onartzen duten zein faktoreei) eta ahalegina non/zein puntutan jarri behar duen zehaztea ere. Atzeraelikadura hori oso erabilgarria da, ikasleak zerbait espezifiko eta argira orientatzen ari baikara, eta hori hobetzea bere esku baitago erabat. Horrek ez du esan nahi kanpoko faktoreek eta faktore egonkorrek ez dutenik lekuri atzeraelikaduran. Batzuetan, porrota mota horietako faktoreen batek eragin dezake. Hala gertatzen denean, pertsonari

lagundu behar zaio, egoera uler dezan, eta, agian, zer gauza alda daitezkeen eta bere kontroletik kanpo zeintzuk dauden ikusten lagundu behar zaio.

Zeharkako gaitasunen prestakuntzan bereziki garrantzitsua da irakasleek beren inertzia ebaluazio kalifikatzaileak egiteari uztea. Helburua ez da nota bat jartzea, izatez oso konplexua (eta erabilgarritasun gutxikoa) da zeharkako gaitasunak erabiltzea eskatzen duen ataza baten kasuan, erabiltze hori kalifikatzea. Aitzitik, helburua pertsonari laguntza ematea da, gaitasun hauek lantzeko bidean jartzea, nor bere bide pertsonalean, autoezagutzaren bidean. Bide horri eman nahi zaio lan honekin ekarpena, ebaluazio hezitzaile, pedagogikoa, argia eta partekatua, elkarrizketatua eta azaldua sustatuz.

Zeharkako trebetasunak garatzeari dagokionez, erronka handia da pertsona bati atzeraelikadura argia helarazteko modu argi, egoki bat topatzea. Esan bezala, enplegagarritasunerako gaitasunak, funtsean, pertsona baten bizitzak aurrera egin ahala mugarik gabe gara daitezkeen trebetasunak dira; *nola garatzen jakitea da* behar dena; besterik ez. Kontua da jakintza hori pertsonen esku jartzea ez dela erraza. Horregatik, hemen aurkezten diren jarduera gehienetan, amaierako paragrafoetan, zera planteatzen da, parte-hartzaileekin solas egiteko gidoi txiki bat, galdera irekiekin, jardueran zehar islatu diren zeharkako gaitasun ezberdinen ingurukoa. Bideratzaileari dagokio, funtsean, parte-hartzaileekiko atzeraelikaduraren prozesu osoa premisa nagusi batetik abiatzen dela bermatzea: *trebetasun bigunak, guztiak, hobetu daitezke. Pertsona izateak esan nahi duenaren parte dira*. Hori da ZeharGAIT baliabideen ikuspegia.

ZeharGAIT jarduera: Zure enpresa-proiekturako pertsonak elkarrizketatzen

Jardueraren aurkezpena

Jarduera honen helburua da trebetasun bigunei, zeharkako gaitasunei buruzko lehen hartu-eman sortzea pertsona-talde batean.

Jarduera honen erabilgarritasuna anitza da:

- *Ikasle-talde bati trebetasun bigunak lantzen laguntzen dioten irakasleentzat, jarduera honek «tenperatura hartzea» ahalbidetuko du, edo, psikopedagogian esan ohi den bezala, «ikasgelan zer dugun irakurtzea» (gure lan-saioen hartzaile izango diren ikasleak, pertsona zehatzak ezagutzea).*
- *Parte hartzen duten ikasleentzat: 1) saioen funtzionamendu-arauak gogorazteko balioko dute unitate honetan ikusi ditugunak; 2) eta, oro har, obra honetan lantzen den gaien –zeharkako konpetentzietan– murgiltzeko.*

Oso garrantzitsua da, jarduera guztietarako (ikus orientabide metodologikoak), planteatuko diren kasuetako batek ere ez duela irtenbide bakarra. Eta posible diren irtenbideen artean posible da ere horietako bat ere «pertsona guztientzat egokiena» ez izatea; posible da adostasunik ez egotea irtenbide ezberdinen alde onak eta txarrak baloratzeko moduari dagokionean. Garrantzitsua da, horregatik, pertsonak sentitzea espazio hori dutela beren iritzia sortzeko, eta, aldi berean, besteei aitortzea ere norbere iritzia izateko autonomia osoa dutela. Hori ere jarduera honen elementu garrantzitsu bat da.

Jardueraren faseen, prestakuntzaren eta denboralizazioaren deskribapen zehatza

Testuinguruaren deskribapena. Taldeko pertsoneri planteatzen diegu enpresa bat sortuko dutela; zehazki, haien LHko graduari dagokion jarduera-sektore bereko enpresa bat. Enpresa berria langile gisa sar daitezkeen pertsonen kopurua txikia da (3-4 gomendatzen da, 6 gehienez). Muga horrek helburu bat du: **beren enpresa-proiektua diseinatzeko ari diren ikasleek banan-banan ikusi eta pentsatu ahal izatea pertsona horietako bakoitzari**; imajinatu ahal izatea zer dakarren pertsona jakin batzuk beren enpresa-proiektuan sartu beharrik; ikustea nola horrek berekin dakarren pertsona horiek antolatu beharra, arlo teknikoan eta gizatasunean. Azken finean pertsona horiekin eman nahi zaio bizia enpresari, honek bere helburua lor dezan (zerbitzuak ematea edo ondasunak ekoiztea).

Gogoratzekoa: taldeko elkarrizketa eskatzen duten jardueraren faseetan, «ZeharGAIT jarduerak gauzatzean hitz egiteko moduari buruzko gomendio komunak» (ZeharGAIT gomendioak) erabiltzea gomendatzen dugu.

Gakoa: lanpostu jakin baterako prestakuntza tekniko egokiaz gain (prestakuntza hori, izatez, hautagai bakoitzari dagokionez presuntziozkoa izango da), jardueraren garrantzitsuenak da ZeharGAIT taldea gonbidatzea hautagaien zeharkako trebetasunetan pentsatzera (jarrerak, trebetasunak, balioak). Pertsonak zein ekarpen ekarri ahal diote bakoitzaren enpresa-proiektuari? Horren inguruko jarduera da hau: 1) zer ezaugarri zehatz bilatzen dituzten pertsonengan; 2) eta zer ebidentzian edo zantzutan hauteman daitezkeen pertsonak ezaugarri edo gaitasun horiek dituzten edo ez.

Jardueraren denboralizazioa: gomendatutako iraupena ordu eta erdi edo bi ordukoa da, taldearen tamainaren eta zenbat enpresa sortuko diren kontuan hartuta. Denborabanaketa hau gomendatzen da: denboraren %30 1. faseako, denboraren %35 2. faseako, denboraren %20 3. faseako, eta denboraren %15 jardueraren hiru faseak gauzatu ondorengo *debriefing*- edo hausnarketa kritikoaren faseako.

Fase bakoitzerako denboralizazioa eta jarraibideak (1, 2 eta 3 Faseak)

Jardueraren 1. fasea

Fasean, jarduera zertan datzan azalduko zaie ikasleei, eta hasierako galdetegia emango zaie. Jarraian, galdetegi horren bertsio bat aurkituko duzu, bereizita inprima daitekeena (1. dokumentua). Fase horretarako metodologiak hainbat aukera onartzen ditu. Beharrezkoa balitz, sarrerako jarduera gisa, beste atazekin hasi aurretik, elkarrizketa sor daiteke sektoreko enpresa txikien inguruan.

1. faseak bi ataza ditu. Lehenengo zeregina sektoreko enpresa txiki bat elementu desberdinekin irudikatzean datza (izena, kokapena, jarduera espezifikoa eta horri buruz eskaini nahi diren xehetasun guztiak). Bigarren zeregina gure proiekturako langileak biltzea da. Azken horri dagokionez, hainbat aukera daude. Adibidez, parte-hartzaile bakoitzak bere enpresa askatasunez sortzeko aukera dago, edo, aitzitik, jarduera bikoteka edo talde txikietan egin dezakegu. Era berean, askatasun osoa eman dezakegu enpresan sartuko diren lanpostuak edo lanbide-kategoriak aukeratzeko, edo irakasle-taldeak oinarritzeko (edo gutxieneko) diseinu bat eman dezake.

Hala ere, kasu guztietan, isilean hausnartzeko denbora txiki bat egotea gomendatzen dugu, eta parte-hartzaileek idatziz jasotzea beren enpresaren diseinua eta hautagaien profilak. Hori horrela, posible izango da, eta erraza, hausnarketaren ondoren diseinu hori beste ikasleekin partekatzea (horma-irudi txiki bat egiten bada, adibidez, gero irudi guztiak horma-irudi handiago batean itsas daitezke).

Jardueraren 2. fasea

1. faseko zereginari emandako erantzunetako bat bera ere epaitu gabe, arbel batean irauliko ditugu gure enpresan bilatzen ditugun giza profilak eta ebidentziak edo zantzuak bilatzeko moduak. Oso garrantzitsua da ZeharGAIT taldeko pertsonak beren hautagai potentzialak deskribatzeko erabiltzen dituzten hitz zehatzak leialtasunez islatzen saiatzea (ez beste esamolde batzuekin ordezkatu). Ez dago eragozpenik antzeko terminoak berragertzeko, eta ez da beharrezkoa sintesirik egitea edo profilak taldekatzen saiatzea.

Jardueraren 3. fasea

Enpresa-proiektu guztiek beren profilak aurkeztu ondoren, hirugarren fasean bi ataza egingo dira, txanda berezietan (deskargatu daitezkeen 2. eta 3. dokumentuak). Gutxienez bi txanda egitea gomendatzen da, baina ataza bakoitza zatikatu egin daiteke eta txanda gehiagotan egin, txanda bakoitza laburragoa izanik. Komeni da, halaber, txanda bakoitzaren aurretik parte-hartzaileak hausnartzeko une bat hartzera gonbidatzea, bai eta ematen dituzten erantzunetako bat edo batzuk idatziz ematera ere. Erantzunak adierazpen laburrak izan daitezke, hori partekatzeko orduan lagungarri izango da (adibidez, paper zati txikiak badira, gero enpresa-proiektuak deskribatzen dituzten horma-irudien ondoan jar daitezke).

1. txanda: enpresaburu bakoitzak zer profil bilatzen dituen ikusita (DOK2 inprimagarria), gomendioren bat egin al diezazuegu hautagaiak hautatzeko zer egin dezakezun jakiteko? Hau da, taldean lan egiteko gaitasuna duen pertsona bat bilatzen ari dela esan badigu, bezeroekiko tratuan ondo moldatzen den pertsona bat edo egoera estresagarrietan ondo moldatzen dakien pertsona bat, nola egingo genuke guk lan bila datozen pertsonen artean ezaugarri hori hautemateko? Oso garrantzitsua da enpresak eskatutako hasierako profiletan termino berririk ez sartzea; hau da, parte-hartzaileek beren enpresak eta proiektuak adierazpen zehatz batzuekin deskribatu dituzte, eta horiek fideltasunez jasotzen saiatu gara, hitzak aldatu gabe. Arreta gehiago jartzeko, nahi izanez gero, pertsona bakoitzak enpresa-proiektu bati edo biri bakarrik erreparatzea eska dezakegu, betiere berak diseinatutako proiektua alde batera utzita.

2. erronda: atera diren profil guztiak eta eman zaizkien gomendioak ikusita, zuk diseinatu duzun enpresaren osaera hobetuko zenuke? (DOK3 inprimagarria). Kontua da hasierako diseinua defendatzea edo aldaketaren bat planteatzea, beste batzuek pentsatu dituzten gauzak ikusita.

Iradokizun gisa, parte-hartzaileek beren esaldiak hasteko erabil ditzaketen esamoldeak aurkez daitezke: «2. enpresatik asko gustatu zait nola deskribatu duten x lanposturako bilatzen duten pertsonaren profila». Edo «ikusit dut eta interesgarria iruditzen zaidan ezaugarri bat», «interesgarria iruditu zait ezaugarri hori honegatik edo horregatik», edo «hautagaiak hautatzeko proposatu den iradokizunen arteko hau» baliagarria iruditu zait zeren..., eta abar.

Debriefing (jarduera ixtea)

Deskribatutako atazak amaituta, itxiera gisa gomendagarria da une batez mahai gainean agertu izan diren ideietako batzuk biltzen gelditzea. Sakontzeko asmorik gabe, hemen, jarduera-proposamen zehatz honetan hausnarketa horretan lagungarri izan daitezkeen galdera batzuk aipatzen dira.

Adibidez, interesgarria da kointzidentziei erreparatzea (agian, zenbait parte-hartzailek pentsatu dute lanpostu jakin batzuek trebetasun bigunak behar dituztela, nahiko

zehaztuak), bai eta desadostasunei ere. Adibidez, enpresaburu bakoitza pertsona batzuekin edo besteekin erosoago edo erosoago senti daitekeelako eman daitezke desadostasunak, edo enpresako pertsonen arteko harremanak modu desberdinean (hierarkikoa, lankidetzakoa, etab.) irudikatzen dituelako. Errealidadean ere gertatzen da hori, kontuan hartzekoa da. Badaiteke gure giza profila enpresak bilatzen duenarekin bat ez etortzea, eta badaiteke ere guk geuk sentitzea agian epe ertain edo luzean ez garela gisa horretako antolakuntza baten barruan eroso izango. Inguruabar horretaz jabetzea zeharkako gaitasunek betetzen duten rolari buruzko ikaskuntza baliotsua ere bada.

Oharra. Oso garrantzitsua da ikuspegi aniztasunari balioa ematea. Desberdintasunak ulertzea animatzea. Eta ariketa ZeharGAIT lan-formatuko arauak gogorarazteko erabiltzea (batez ere, behin eta berriz esan dugunez, *ez epaitzea*).

Ziur asko, alboko arazo gisa, agerian geratu da badirela enplegu bat lortzen eta mantentzen laguntzen duten ezaugarriak, eta kontrako eragina duten jarrerak eta portaerak. Elkarrizketetan eta lehen hartu-emanetan, gainera, zenbait pertsonak abantaila edo desabantaila ikusten dute estereotipo sozial eta kulturalen ondorioz. Aurreiritzi horiengatik geure burua desabantailan ikusten dugun ala ez, gauza da banan-banan gaudenean (lan bat lortzeko elkarrizketa batean, praktika batean, ikasgela batean), beti ere aukera dugula benetan nor garen, nolakoak garen erakusteko, eta hautemango da beraz aukera horiei etekin ateratzearen garrantzia Orohar, gure zeharkako kompetentziak abantaila gisa ikusi behar ditugu: horiek hobetzeko eta garatzeko aukera dugu.



ZeharGAIT jarduera

Diseinatu zure enpresa eta bildu pertsonak zure enpresa-proiekturako

Zure jarduera-sektorean **enpresa bat sortuko duzu**. Enpresa txiki bat, zeu izango zara zuzendaria eta 2 eta 5 pertsona arteko langile taldea izango duzu. Hartu paper bat eta diseinatu zure enpresa:

- 1) **1. URRATSA: diseinatu zure enpresa.** Pentsatu izen bat. Zure enpresa kokatuko zenukeen leku bat. Pentsatu nori emango diozuen zerbitzua. Nolakoa izango da enpresaren eguneroko funtzionamendua. Idatzi xehetasun horiek.
- 2) **2. URRATSA: pertsonak errekluta itzazu zure enpresa-proiekturako.** Trebetasun teknikoez gain, kontuan izan zuk lana antolatzeko duzun modura ondo egokituko lirakekeen pertsonen bila zabiltzala. Lanpostu horietarako hautagaien bila zabiltzala iragarriko duzu, pentsatu iragarria nola egingo zenukeen. Pertsonak beren hautagaitza bidaliko dute, curriculum batekin, eta haien artean aukeratu egin beharko duzu: pentsa itzazu aukeraketa egiteko irizpideak.

Lan-elkarrizketetara joaten diren pertsona guztiek prestakuntza tekniko egokia izango dute zereginak egiteko. Ez duzu horregatik kezkatu beharrik. Zure ustez zure enpresaren funtzionamenduan hobeto egokituko diren pertsonak aukeratzeko zer egingo duzun pentsatu behar duzu.

Pertsona bakoitzeko, profil/lanpostu bakoitzeko, pentsatu gutxienez BI ezaugarri edo ezaugarri; pentsa ezazu ere nola egiaztatuko duzun hautagaiek ezaugarri horiek dituzten edo ez. Hortaz, profil/ lanpostu bakoitzeko, galdera bi hauei erantzuna eman:

- Lan-elkarrizketan: zer galdetuko zenioke edo zer gauzari erreparatuko zenioke, hautagai bat bilatzen ari zarenekin bat datorren jakiteko. Zein zantzuri erreparatuko zenioke pertsona batek ezaugarri horiek betetzen dituen ala ez jakiteko.
- Pertsonaren bat probaldi baterako kontratatuzeko aukera izango bazenu (adibidez, bi asteko edo hilabeteko kontratua), zertan erreparatuko zenuke pertsona hori ondo egokitzen den egiaztatuzeko, zure enpresarentzat bilatzen ari zaren hori bada?





ZeharGAIT jarduera

*Diseinatu zure enpresa eta bildu pertsonak zure enpresa-proiekturako
(2. dokumentua)*

Hainbat enpresa aurkeztu dira, beren diseinu orokorraren zirriborro batekin eta beren ibilbideari ekiteko bila dabiltzan pertsonen profilaren xehetasunarekin. Ahaztu une batez zure enpresa, eta erreparatu beste pertsona batzuek proposatutako enpresa bati edo batzuei.


Imajinatu kanpoko aholkulari bat zarela. Kanpotik aholku edo iradokizunen bat ematen saiatuko den pertsona bat.

Enpresentzat zer profil bilatzen diren ikusita:

- Profiletako bati buruzko iradokizunik, zalantzarik edo iruzkinik baduzu?
- Profil zehatzetan sartuta, enpresaburua bilatzen ari den pertsonen ezaugarrietan, gomendioren bat egin dezakezu hautagaiak hautatzeko arreta zer gauza edo zantzuengan jartzeari begira?



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).



ZeharGAIT jarduera

Diseinatu zure enpresa eta bildu pertsonak zure enpresa-proiekturako (3. dokumentua)

1. URRATSA: zure enpresaren proiektua har ezazu berriro. Erreparatu ondo zure diseinua islatzeko zer nolako panek/horma irudi jarri zenuen; erreparatu ere bilatzen zenituen pertsonen profila deskribatzeko erabili zenituen hitzei.

Orain osatu esaldi hauek:

- Diseinatu duten beste enpresa horretatik, bereziki interesgarria iruditu zait...
- Diseinatutako beste enpresa batzuekin alderatuta, nik diseinatu dudan enpresako lantaldea honetan edo horretan antzekoa dela ikusten dut (edo bat datorrela), eta beste gako hauetan desberdina ikusten dut.
- Nik profiletan bilatzen ditudan ezaugarriei dagokionean, zenbait iradokizun eta estrategia eman izan dira elkarrizketan edo praktika-aldian hautagaiengan biltzekoak. Beste enpresei ere iradokizunak eman zaizkie. Horietatik guztietatik baliagarriak iruditu zaizkit...

2. URRATSA: ikusitakoaren ondoren, zure ustez, non daude zure enpresa-proiekturako pertsona egokiak biltzeko zailtasun handienak?





2. Unitatea

Taldean lan egitea

-
1. «Talde-lana»-ren kontzeptuarekiko lehen hurbilketa: zein da zure esperientzia?
 2. Ekipoei buruzko gauzak, agian hain begi-bistakoak ez direnak
 3. Multzoa ekipo bilakatzeko erronka
 4. Taldeak osatzeko metodoak
 5. Talde baten bizitzan eta garapenean dauden faseak/etapak
 6. Lidergoa taldeetan
 7. Ekipoaren funtzionamendua zaintzen
-

Batzuetan berdin erabiltzen badira ere, zentzu hertsian, taldekatze hitzak pertsona, animalia edo gauza multzo bati egiten dio erreferentzia. Pertsonen, animalien edo gauzen taldekatze edo batuketa soilak aukera ematen digu osotasun hori, multzoa, taldekatze adierazpenarekin orokorrean aipatzeko. Askotan esaten zaie «talde», zentzu zabalean.

Baina pertsona-multzoez ari garenean, taldekatze forma ezberdinak bereizi ohi dira eta multzoa/taldekatzea eta taldea (edo ekipoa) zentzu ezberdinean erabiltzen dira.

Pertsona-multzoen barruan, talde edo ekipa bat bereizten duena da **taldea osatzen duten pertsona guztiak helburu komun batekin edo batzuekin konprometituta daudela**.

Zentzu honetan, leku berean lanean ari den pertsona-multzo bat, adibidez, tailer mekaniko bat, ekipoa izango litzateke soilik baldin eta bere zereginak elkarri lotuta badaude. Bere bertsiorik hoberenean, ekipoak talde kooperatiboak direla esaten da, helburu bererantz lan egiten duten pertsona-taldeak.

Pertsonak espazio bakar batean bat baldin badatoz, baina banaka ari badira lanean, egia da multzo bat osatzen dutela, baina horiei buruz hitz egiteko adierazpen zuzena honako hau izango litzateke: «pertsona-multzoa», baina ez «ekipoa» edo lan-taldea.



Unitate honetan taldeez hitz egingo dugu, ekipa adierarekin, eta hainbat jarduera egingo ditugu taldean lan-egitearen garrantziaz eta, aldi berean, zailtasunez. Horren barruan sartzten dira, besteak beste:

- Zergatik eta zertarako egiten den lan lan-taldeetan.
- Zer zailtasun dakartzan taldean lan egiteak.
- Zer fasetatik igarotzen da pertsona-talde baten bizitza, sortzen denetik finkatzen den arte eta, azkenik, desegiten den arte.

1. «Talde-lana»-ren kontzeptuarekiko lehen hurbilketa: zein da zure esperientzia?

Unitate didaktiko honetarako prestakuntza gisa, bideratzaileari gomendatzen zaio hasierako galdetegi bat egiten hasteko. Galdetegi hori, ondoren, parte-hartzaileekin erabili ahal izango da, gai horri buruzko hasierako hausnarketa egitea baitu helburu, talde-laneko esperientzian oinarrituta (dela eremu profesionalean, dela besteetan).

Oso garrantzitsua da galdetegia banaka egitea. Taldean eginez gero, garrantzitsua da parte-hartzaileek ahalik eta zintzoen erantzutea. Lagungarria izan daiteke, baliagarria balitz, taldean eginez gero galdetegiari banaka erantzutea.

Pertsona bideratzaileentzat ZeharGAIT jarduera: lau ariketa, orain arte bizi izan ditugun talde-laneko esperientzia(k) partekatzeko

Testuinguruaren deskribapena

Jarduera hau ZeharGAIT taldeetako bideratzaile lanak egingo dituzten pertsonak bigarren unitate honetako proposamenei eta tresnei dagokienez kokatzeko pentsatuta dago. Hala ere, ikasleekin ere erabil daiteke, bertsio egokitan. Banaka edo taldeka egin daiteke.

Jardueraren denboralizazioa

Galdetegia lau ariketatan antolatu da. Ariketetako bakoitza bereizita egiteko pentsatuta dago, baina markatutako ordenan. Galdetegi hau lagungarria da parte-hartzaileak 2. unitatean kokatzeko, talde-lanaren gaiari buruzko hausnarketa pertsonala has dezaten; hau da, galdetegiak hurrengo ariketa eta eztabaidetarako eremua prestatzen laguntzen du. Taldean eginez gero, denbora pertsonalak –galdetegiari erantzun ematekoak– eta elkarrizketa denborak txandakatu behar dira (gutxi gorabehera, galde-sorta bakoitza betetzeko behar den elkarrizketa-denboraren bikoitza; parte-hartzaileen kopuruaren arabera egokitu daiteke).

Jardueraren ariketak eta faseak

- 1) Gaiari sarrera: talde lanaren esparruan parte-hartzaileek aurretik izan dituzten esperientziak partekatzea da helburu. Hemen jarraian eskaintzen den galdetegian, parte-hartzaileei eskatzen zaie talde-lanean bizi izan dituzten esperientziak gogoratzen eta ebaluatzen saiatzea, beti ere irizpide batzuen arabera.
- 2) Lehenengo hausnarketa-maila: behin esperientziak jasota, bigarren urratsa hausnarketa bat da; zehazki talde-lanari buruz hausnartzeko eskatzen zaie, orokorrean, bai eta taldean lan egitearen alderdi zehatz batzuei buruz ere.
- 3) Bigarren hausnarketa-maila. Atal honetan pentsatzeko gune bat irekiko da talde baten funtzionamendu «on» edo «egokia» eragiten duten faktoreen inguruan. Parte-hartzaileei eskatuko zaie ere talde-lanari dagokionez bakoitzak dituen

ezaugarri pertsonalen inguruan: hau da, taldean lan egiterakoan zer gauzetan sentitzen duten trebeak direla zein gakoetan sentitzen duten trebetasunak hobetzeko beharra dutela.


- 4) Hirugarren eta azken gogoeta-maila. Aurreko guztiaren gainean pentsatzeko momentua da hau, bai eta garrantzitsuentzat jotzen dena laburbildu. Planteatzen den gaia honako hau da: lantalde bat osatu beharko bazenu, nola egingo zenuke? Alde teknikoaz aparte, zer hartuko zenuke kontuan taldekide izango diren pertsonak aukeratzekoan?

Ohar batzuk, jarduera hori taldean egiten den kasurako:

Parte-hartzaileek galdetegiak bete ondoren, ideien errepasso bateratua egin daiteke, nabarmendu nahi dituzten ideia batzuk bateratuz. Kontua ez da sistematikoak izatea, baizik eta hausnarketarako espazio bateratua sortzea. Taldean egingo balitz, taldeko elkarrizketa eskatzen duten jarduera-faseetarako, gomendio komunak erabiltzea gomendatzen dugu, ZeharGAIT (ZeharGAIT Gomendioak) jarduerak egitean hitz egiteko moduari dagokionez.

Beste aukera bat hurrengo ariketara igarotzea da, galdera-sorta hau gogoeta pertsonalerako aurretiazko ariketa gisa utziz, non parte-hartzaileak unitate honen gaiaren barruan kokatu diren.

Egoeraren arabera, bideratzaileak galdetegiak jaso ditzake (izenik gabe), parte-hartzaileen aurretiko esperientziak ezagutzeko eta gainerako ariketak beren beharretara hobeto egokitzeke.



ZeharGAIT jarduera

Taldeetan lan egiteari buruzko hausnarketa kokatzeko lau ariketa

1. Gaiari buruzko sarrera: aurretiazko esperientziak

Inoiz lan egin duzu taldean? Hurrengo galderi erantzuteko, ona litzateke zure aurreko esperientzietako bat aukeratzea, edo, nahi izanez gero, bat baino gehiago. Ahal izanez gero, intentsitate handienekoak izan behar dute, bai onean, bai alde txarrean.

Zer moduzkoa izan zen esperientzia? Eroso sentitu al zinen ikaskideekin lanean?

Zure ustez, zerk funtzionatu zuen ondoen taldean?

Arazorik egon zen? Nola konpondu zenuten? Taldeetan lan egitearen inguruan, zer ikasi zenuen? Antzeko egoera bat biziko bazenu, zer egingo zenuke desberdin?



2. Lehen gogoeta-maila

Gaur egun, zer da zuretzat talde bat?

Taldean lan egitea ideia ona dela iruditzen zaizu? Zein kasutan edo zein helburu lortzeko?

Zer gauza atera daitezke gaizki edo zerk eragin ditzake arazoak talde batean? Nola saihestu litezke? Saihestu ezin direnean, nola uste duzu konpondu behar direla?

Zure ustez, taldekideak pixka bat ezagutzeak lan komuna errazten du? Edo hobe da hutsetik abiatzea?

Taldekide batek bere lanarekin zailtasunen bat duela ikusiko bazenu, zure ustez, horren aurrean zer ekintza edo jarrera izan beharko zenuke zuk (zailtasun horri eta pertsona horri dagokienez)?

Arazo bat sortzen bazaizu eta zure burua zerbait konpontzeko gai ikusten ez baduzu, zer espero zenuke zure taldekideengandik?



3. Bigarren gogoeta-maila

Zure ustez, zer gauza hartu behar dira kontuan talde batek funtziona dezan? Uste duzu pertsona batzuei hobeto ematen zaizkiela aipatu dituzun gauza horietako batzuk?

Zure ustez, gauzak argitzeko eta arazoak saihesteko lagungarria izan daiteke alde aurretik –lanean hasi aurretik– taldeak gerta daitezkenei buruz hitzegitea?

Ona edo erabilgarria izango litzateke hasieratik adostea talde-arau batzuk lanari ekin aurretik? Zein alderdiri buruz?

Zer motatako gauzak egiten dituzu ondo? Zure ustez, taldea hobetzen laguntzen dute?

Talde baten funtzionamendurako garrantzitsuak diren zein gauza ez zaizkizu oso ondo ematen edo gehiago kostatzen zaizkizu?

4. Hausnarketaren hirugarren eta azken maila

Lan-talde bat antolatu beharko bazenu (aukeratu zein lan-testuingurutan –Hau da, zure egungo lan-ingurunean edo simulatutako batean–), nola egingo zenuke? Pentsatu ondo eta apuntatu zure ustez garrantzitsua dena, zergatia azalduz.



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).

2. Ekipoei buruzko gauzak, agian hain begi-bistakoak ez direnak

2.1. Giza taldeen zergatia. Errendimendu-eskalaren bidezko hurbilketa

Aspalditik, talde-lana enpresek baloratzen eta eskatzen duten trebetasuna da. Lana eskaintzen den iragarki askotan, langilea taldean lan egiteko gai izatea eskatzen da. Zuzendariei, berriz, taldeak gidatzeko eta kudeatzeko gai izatea eskatzen zaie. Enpresako gaietan espezializatutako liburu-denda batera joanez gero, talde-lanari buruzko gaikako apalategia izango da, ziurrenik, leku gehien eta bariedade gehien hartzen dituenetako bat. Beraz, zalantzarik gabe, talde-lana funtsezko trebetasuna da enplegua lortzeko. Hala ere, trebetasun hori guztion ahotan egoteak ez du esan nahi beti ondo ezagutzen denik zer den, zertarako balio duen, eta are gutxiago pertsonak nola landu eta hobetu badakitenik.

Lehenik eta behin, taldean zergatik lan egiten den jakin behar da xehetasunez, hau da: zer ekarpen egiten duen eta enpresetako taldeen izateko arrazoia zein den. Hainbat eta hainbat enpresa daudela eta lantaldeek oso lan desberdinak egiten dituztela kontuan hartuta, erantzun erraz bezala zera esan ohi da: askotan talde-lanak aukera ematen duela banakako pertsona baten irismenetik kanpo leudekeen helburuak lortzeko. Baina kontuan izan behar da «askotan» horrek ez duela «beti» esan nahi.

Alderdi garrantzitsu horri buruz pentsatzeko, ekipoen zergatia, ekipoen errendimendu-eskala erabiltzea proposatzen da.

ZeharGAIT jarduera: taldeen zergatia (Errendimenduaren eskala)

Ekipoen errendimendu-eskala tresna erabilgarria eta oso erraza da. Honako hausnarketa hauek gidatzean datza: 1) zein alderdik egiten dute gizabanako bat talde bat baino lehiakor edo eraginkorragoa; 2) hausnarketa bat gizabanako bat talde bat baino gehiago dela uste dugun alderdiei buruz; 2) eta beste lan-talde batzuekiko, ekipo lehiakor eta kooperatiboek zein kasuetan eskaintzen duten errendimendu eta eraginkortasun handiagoa.

Jardueraren deskribapena

Sarrerako jarduera honen helburua da erakustea talde-lana ez dela beti lan bat aurrera eramateko egokiena. Egin beharreko lanaren helburuaren eta ezaugarrien arabera izango da hori. Baina ikusiko da, halaber, zirkunstantzia egokiak gertatzen direnean, taldea edozein gizabanakoren gainetik dagoela argi eta garbi. Era berean, taldeen barruan alde handiak daude dinamika lehiakor edo kooperatibo batekin funtzionatzen dutenen artean. Hemen, berriz ere, egoera egokian, talde kooperatiboak, non kideek ahalegin guztia multzoaren zerbitzura jartzen duten, argi eta garbi gailentzen dira beren errendimenduan beren artean lehiatzen diren taldeak baino.

Gogoratzekoa

Jarduera hau banaka edo taldeka egin daiteke. Taldean egingo balitz, taldeko elkarrizketa eskatzen duten jarduera-faseetarako, ZeharGAIT jardueretan elkarrizketa egiteko eskainitako gomendioak erabiltzea iradokitzen dugu (ZeharGAIT Gomendioak, 1. unitatea).

Denboralizazioa


Prestakuntza errazten duen pertsonak gaia sartu ahal izango du gorago azaldutako ideiekin edo antzekoekin, eta fitxa hau banatu: «Gizabanakoen errendimendua vs. eki-poen errendimendua».

1. Fasea: ondoren, parte-hartzaile bakoitzak 5 minutuz horri buruz pentsatu eta fitxa bete ondoren, denbora-tarte bat irekiko da (10 minutu), eta parte-hartzaile bakoitzak bere ideiak eta adibideak emango ditu, fitxa orokorra arbel edo antzeko batean osatuz (ematen dena baloratu edo komentatu gabe). Azkenik, arbelean dauden ideia guztiak banan-banan eztabaidatzen dira, eta taldean erabakitzen da horietatik zein diren zein diren ekarpen egokienak galdetzen zena argitzeko.

2. fasea: bideratzaileak, aurreko fitxan idatzitako arrazoiak entzun eta komentatu ondoren, bi aukera ditu:

- *Zenbait adituk identifikatu duten talde-lanaren abantailak errepasatu ditzake (azalpen gisa). Formatua halakoxea izan liteke: «autore batzuek diote aurrez aurreko harremanak oso garrantzitsuak direla taldeak ondo funtziona dezan. Zer iruditzen zaizue?»*
- *Beste aukera bat da parte-hartzaileei abantaila eta desabantaila horiei buruzko testuak ematea (testu desberdinak talde txiki bakoitzarentzat), parte-hartzaileek ZeharGAIT taldeari abantaila horiek transmititu diezazkioten.*

3. fasea: lau alderdi horiek komentatu ondoren, parte-hartzaileei gomendatzen zaie guztien artean errezeta moduko bat egitea, lantalde baten hasierak nolakoa izan behar-lukeen azaltzeko, edo talde bat ondo abiatzeko aholkuak emateko.



ZeharGAIT jarduera

Gizabanakoen errendimendua vs. ekipoen errendimendua

Zure ustez, noiz da handiagoa talde baten errendimendua gizabanakoarena baino? Zer zeregin motatan?

Gizabanakoaren errendimendua handiagoa da...	Ekipoen errendimendua handiagoa da...
--	---------------------------------------

Talde bat norbanakoa baino handiagoa den zereginetan, zure ustez, zein talde mota da eraginkorrena: taldeko kideak elkarren artean lehiarazten dituen edo lankidetzaz sustatzen duena? Beti? Zein zereginetan?

Taldekideak lehiarazten dituen taldearen errendimendua handiagoa da...	Lankidetzaz sustatzen duten taldeen errendimendua handiagoa da...
--	---



Errendimenduaren eskala - Irakasleentzako orientabideak (2. eta 3. Fasea)

Eranskin bibliografikoan edo norberaren kontura aurki daitezkeen beste erreferentzia batzuk alde batera utzi gabe, zenbait adituen ikuspegiak eskaintzen dira hemen, begiratzaileren erosotasunerako. Materialak hiru bloketan multzokatu dira:

- a) Zein dira talde-lanaren abantailak?
- b) Zein dira pertsona talde batek talde on gisa funtzionatzeko ezinbesteko baldintzak?
- c) Talde onak, jaio ala egin egiten dira?

Gogoratu behar da ariketa honen helburua zein den. Alde batetik erakutsi nahi da *zenbait egiteko aurrera eramateko taldeak errendimendu handiagoa izan ohi duela giza-banakoek baino, eta bestetik, talde-lan gehienetarako errendimendu handiagoa lortzen dutela lankidetzaren taldeek*, lehiatzen duten taldeek baino. Hori da jarraian datozen testuen orientazioa. Grafiko bat ere ematen da, eztabaidan erabil daitekeena, bai eta lan kooperatiboaren ezaugarrien eta arrakasta-faktoreen zerrendak ere, dela lan-ingurunean, dela hezkuntza- eta prestakuntza-inguruneetan.

a. Zein dira taldean lan egitearen abantailak?

Adibidez, Acostak (2011:49) talde-lanaren abantaila hauek identifikatzen ditu:


- *Produktibitate handiagoa*
- *Komunikazio eraginkorragoa*
- *Lan-giro bizigarriagoa*
- *Motibazio handiagoa*
- *Lan-banaketa zehatzagoa*
- *Besteen iritziekiko errespetua*
- *Konpromiso handiagoa lantaldearekin*

Unitate didaktiko horiek Lanbide Heziketaren eremuan egingo direnez, interesgarria dirudi jakitea talde-lanak abantaila nabarmenak dituela hezkuntzan ere (Gamez, 2013: 115-116):

- Edukiak hobeto ikastea (beldurraren edo estresaren maila murrizten du, parte-hartzea errazten du, eta ikasleen arteko elkarrekintzak elkarrekintza hobetzen du, ikaskideen eragina ikaskuntza areagotzeko erabiliz),
- Diziplina hobea (funtzionatzen duen talde bat egoteak arreata-faltak eta jokabide desegokiak murrizten ditu, taldearen hazkundera eta arazo horiei aurre egiteko trebetasunen garapena sustatzen baititu)
- Gizarte-harreman hobeak (komunikazio hobea eta pertsonen arteko harremanak).

Aspaldidanik aditu askok uste dute, bai enpresaren munduan, bai hezkuntzaren arloan, zalantzarik gabe, kooperatiboki lan egiten duten taldeen ikaskuntza lehiakortasun-giroan lan egiten duten taldeena eta banaka lan egiten dutenen pertsonena baino askoz ere handiagoa dela (Johnson, Johnson eta Stanne, 2000).

Hori grafiko honen bidez adieraz liteke:



b. Zein dira pertsona talde batek «ekipo on» gisa funtzionatzeko ezinbesteko baldintzak?

Lankidetzan egindako ahaleginak, gizabanakoen ahaleginak baino lehiakorragoak noiz ziren aztertzerakoan, tentuz hartu behar dira kontuan emaitza hori lortzeko baldintzak zein diren. Metodologia honen aitzindari dira Johnson eta Johnson (1994, 2005), eragin handia izan dute, eta bost ezaugarri nagusi identifikatzen dituzte ikas-kuntza prozesu kooperatiboetarako ezinbesteko:

- 1) Interdependentzia positiboa
- 2) Pertsonen artean, aurrez aurreko interakzioa
- 3) Norberaren eta taldearen erantzukizuna
- 4) Pertsonen eta taldeen arteko trebetasunak garatu eta erabiltzea
- 5) Taldearen funtzionamendua maiz eta sistematikoki baloratzea.

Azter dezagun ezaugarri horietako bakoitza arreta handiagoz:

b1. Interdependentzia positiboa. Lehenengo ezaugarriak esan nahi du taldekide guztiek onartzen dutela taldearen arrakasta ezinbestekoa dela pertsona bakoitzak arrakasta izan dezan. Horrek konfiantza-dosi handi bat eskatzen du; konfiantza izan behar da gainerako lankideek beren zatia behar bezala egingo dutela eta espero diren emaitzak lortuko dituztela.

b2. Pertsonen artean, aurrez aurreko interakzioa. Bigarren ezaugarria lehenengoaren ondorio da: kide guztiek elkarri lagunduko diote helburu pertsonalak eta taldekoak lortzen. Talde guztiak heterogeneoak direnez, horrek esan nahi du indargune eta ahulgune desberdinak dituztela. Taldearen ahaleginaren parte garrantzitsu bat izan go da taldea bera funtzionaraztea, eta horretarako oso garrantzitsua da elkarrekintza pertsonala, ahal den guztietan aurrez aurre.

b3. Norbanakoaren eta taldearen erantzukizuna. Hirugarrenik, funtzionamendu mota horrek erantzukizun bikoitza dakar: indibiduala eta kolektiboa. Taldeko kide bakoitzak bere banakako zereginen ardura hartzen du, eta horien berri eman behar du, baina, era berean, taldearen ardurekiko konpromisoa hartu behar du ere, eta talde-lanaren arrakastan lagundu behar du.

b4. Pertsonen arteko trebetasunak eta taldean lan egitekoak garatu eta erabiltzea.. Laugarren ezaugarria da arestian azaldutako guztia ezinezkoa dela gizarte-trebetasun jakin batzuk behar bezala garatu gabe. Taldean sortzen den giroa taldearen funtzionamendu egokiaren oinarritzko pieza izango da.

b5. Azkenik, bosgarrenik, taldearen funtzionamenduaren berrikuspen sistematiko eta etengabea funtsezkoa da, bai zerk funtzionatzen duen eta zerk ez ikasteko, bai eta ziurtatzeko ere taldeko kideek kontuak emango dituztela eta inork ez dadin besteen ahaleginez balia. Azken batean, taldearen eraginkortasuna eta justizia bermatu nahi dira, ezin baita taldearen funtzionamendu egokia mantendu kide batzuek sistematikoki beren lanaren zatia betetzen ez dutenean. Ikaskuntza mota honen abantailak maximizatze beharrezkoa da giro emozional egoki bat, bai eta konfiantza ere, eta bi horiek ezin dira ziurtatu baldin eta ez badago mekanismorik arazoak konpontzeko edota zereginak era egokian banatzen direla bermatzeko.

Lan kooperatiboaren ezaugarri nagusi horiek ikusita, argi dago taldeko kideen presentzia fisikoak eta aurrez aurreko kontaktu fisikoak nabarmen laguntzen dutela taldearen funtzionamendu egokian. Eta, aitzitik, hurbileko kontaktu hori zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta zailagoa izango da behar den giro ona sortzea eta mantentzea.

Laburbilduz, taldean egin daitekeen jarduera bati dagokionez:

- Ekipo bat (talde kooperatiboa) beti izango da eraginkorragoa kideek elkarren artean lehiatzen duten talde bat baino.
- Taldea eraginkorra beti izango da indibiduo isolatua baino emankorragoa.

Hala ere, egia da pertsona konprometitu eta ezagutzadun bat eraginkorragoa izan daitekeela gaizki funtzionatzen duen talde bat baino.

c. Ekipo onak, jaio edo egiten dira?

Elkarlanerako gaitasuna, hau da, talde-lan eraginkorrerako behar diren ezagutza, trebetasunak eta jarrerak, funtsezko kompetentziatzat hartu dira XXI. mendean pertsona guztientzat, baina bereziki erabakigarria da derrigorrezko hezkuntzatik lanbide-heziketarako trantsizio-etapan (Monereo *et al.*, 2013:236).

Hauek dira ekipo eraginkorren errendimenduari buruz gehien azertu diren faktoreak (Monereo *et al.*, 2013: 236-239):

- Generoaren eragina taldearen lankidetzan. Hainbat azterlanek erakusten dute emakumeek emaitzen pertzepzio positiboagoa dutela jarduera kooperatibo bat egin ondoren, gehiago ikasten dutela taldean lan eginez, eztabaida gehiago sustatzen dutela eta komunikazio-estilo interaktiboagoa erabiltzen dutela.

- Lantaldearen helburuak partekatzea. Autore gehienak bat datoz esaterakoan ikasketa kooperatiboaren funtsezko ezaugarriak hauek direla: helburu partekatua, taldearen barruko interdependentzia positiboa eta norbanakoaren erantzukizuna bermatuko duten rolen banaketa.
- Rolak eta funtzioen banaketa. Taldeak errendimendu handiagoa du rola metodo esplizitu eta justifikatu baten bidez esleitzen direnean, horiek modu arbitrarioan egiten direnean baino.
- Elkarrekintza- eta erregulazio-jarraibideak erabiltzea, zeregin edo arazoren bat konpontzeko taldekideek ezagutza partekatu behar dutenean.
- Helbururako orientazioa. Taldearen helburuak kideentzat esanguratsuak direnean emaitza hobeak ematen direla frogatu da.
- Gizarte-giroa. Taldearen eraginkortasuna nabarmen handitzen da taldearen giroa oinarri hauen gainean garatu denean: elkarriketa, besteen iritziekiko tolerantzia eta umore ona.
- Elkarrekiko laguntza. Taldeko kideen artean elkarrekiko laguntza emozionala eta kognitiboa ematen denean, taldearen kohesioa eta identitatea handitzen dira eta banakako ikaskuntza areagotzen da.
- Era eraginkorrean lan egiteko uneak sustatu, eta denbora-tarte jakin batzuetan jarduera esanguratsuak sortzea. Bi gertaera nabarmentzen dira bereziki: a) lanerako une eraginkorrak daude, beste batzuk baino, eta horiek sustatzeak garrantzia du; b) harremanaren hasieratik pertsonak taldeari egiten dioten ekarpenen kantitate eta kalitateak eragin handia izango du ikaskuntzaren emaitzan.
- Autoebaluazioa. Taldekideak egin duten lana argi eta garbi hautemateko gai direnean, taldearen errendimendua handiagoa izaten da.

Bederatzi aldagai horiek aztertu ondoren, azterlan honek (Monereo *et al.*, 2013:249) ondorioztatu du lan kooperatiboaren arrakasta iragartzen duten faktoreak lau direla nagusiki:

- Gizarte-giroa.
Pertsona bideratzaileak parte-hartzaileei gogorarazi behar die ariketa honetan parte-hartzaileek erantzun dutela beren trebetasunei buruz dituzten pertzepzioei buruz, eta, emaitzaren arabera, baliteke pertsona batzuek emaitza horiek partekatu nahi ez izatea.

Gogoratzekoa

Taldeko elkarrizketa eskatzen duten jarduera-faseetarako, *ZeharGAIT jardueretan elkarrizketa egiteko eskainitako gomendioak* erabiltzea iradokitzen dugu (ZeharGAIT Gomendioak, 1. unitatea).



ZeharGAIT jarduera

Autoezagutza Belbin-en metodologiarekin

Talde-rolak	Taldeari egin diezaioketen ekarpena	Baimentzen zaien ahultasuna
Burmuina	Sortzailea, irudimentsua, libre-pentsatzailea. Ideiak sortzen ditu eta arazo zailak konpontzen ditu.	Ezikusiarena egiten du. Bere pentsamenduetan murgilduegia eraginkortasunez komunikatzeko.
Baliabide-ikertzailea	Kanporakoaia, suharra, komunikatiboa. Bilatu aukera berriak. Kontakutak garatzen ditu.	Baikorregia. Hasierako berotasuna desagertu ondoren, interesa galtzen du.
Koordinatzailea	Heldua, ziur bere buruaz. Talentua identifikatzen du. Argitu helburuak. Ondo delegatu.	Manipulatzaile gisa hauteman daiteke. Lan pertsonala deskargatzen da.
Bultzatzailea	Erronkaria, dinamikoa, presiopean ondo egiten du lan. Oztopoak gainditzeko ekimena eta kemena du	Probokatzeko joera. Jendearen sentimenduak mindu ditzake.
Monitore ebaluatzailea	Serioa, zorrotza eta estrategikoa. Aukera guztiak hautematen ditu. Zuzen juzgatzen du.	Ez du besteak inspiratzeko ekimenik eta trebetasunik. Kritikoegia izan daiteke.
Kohesionatzailea	Laguntzailea, pertzepziozkoa eta diplomatikoa. Entzun eta eragotzi liskarrak	Zalantzati egoera erabakigarrietan. Konfrontazioak saihesten ditu.
Ezartzailea	Praktikoa, konfiantzazkoa, eraginkorra. Ideiak ekintza bihurtzen ditu eta egin beharreko lana antolatzen du.	Zurruna neurri batean. Aukera berriei erantzuteko motela.
Bukatzailea	Saiatua, kontzientea, irrikatsua. Bilatu akatsak. Leundu eta hobetu.	Gehiegi kezkatzeko joera du. Eskuordetzeko uzkur.
Espezialista	Entregatua, independentea, interes mugatuekin. Ezaugarri eta ezagutza espezifikoak ematen ditu	Oso eremu mugatuetan bakarrik laguntzen du. Teknizismoetan azaltzen da.


Iturria: <https://www.belbin.es/roles-de-equipo/>. Egileek itzulita.

Egitekoa

- Rolak ikusita eta zure iritziz, ba al dago benetako pertsonarik edo fikziozko pertsonaiarik horietako batean edo bestean sartzen denik?
- Jarraian, adierazi, zirkuluak jarritz, zer rolekkin identifikatzen zaren gehien; eta jarri X bat identifikatzen ez zaren roletan.
- Hurrengo urratsa: ordenatu itzazu zirkulu batez markatu dituzun rolak, lehen-tasun-ordenaren arabera. Rolan batekin gehien identifikatzen bazara, emazioz 1 bat; hurrengoari bi, eta horrela hurrenez hurren.



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).



ZeharGAIT jarduera

Autoezagutza Belbin-en metodologiarekin(2 ataza)

Jarraian, erantzun idatziz galdera hauei. Horiei buruzko elkarrizketa hasiko da taldean:

- Inoiz pentsatu al duzu zure pertsonaren alderdi horiei buruz?
- Zure ustez, zertarako izan daitezke baliagarriak galdera horiek?
- Zure ustez, ezberdintasunak izaten dira pertsona batek bere burua nola ikusten duen eta besteek nola ikusten duten? Zer dela eta, zure ustez?
- Uste duzu horrelako gaiez jabetzea baliagarri izan dakiokela pertsona bati beste batzuekin lan egiteko edo enplegua aurkitzeko? Arrazoitu labur-labur zure baiezkoko edo ezezko erantzuna.



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).

4.2. Myers-Briggs metodologiarekin taldeak osatzen (MBTI)

ZeharGAIT jarduera: Autoezagutza MBTIrekin

Isabel Briggs Myers eta Katharine Briggs-ek egina, MBTI indizea C.G. Jung-en teoriatik abiatuta dago eraikita. Lehentasunak lau dimentsiotan gurutzatu egiten ditu (estrobertsio-introbertsioa, sentsazio-intuizioa, pentsamendu-sentimendua, epaiketa-pertzepzioa), eta, hortik abiatuta, autoezagutzarako tresna honek lau kategoriatan taldekatutako 16 pertsonalitate-motaren katalogoa osatzen du. Ingeleseko siglak: E-I, S-N, T-F, J-P. Tresna honetan oinarrituriko ariketa anitz sortu daitezke, askotariko helburuekin. Hemen bat proposatzen da.

MBTI autoezagutza-jarduera baten denboralizazioa

Jardueraren 1. fasean, parte-hartzaileei lau galdera erantzuteko eskatzen zaie:

- 1) MUNDU GOGOKOENA. Zer duzu nahiago: kanpoko munduan edo zure barne-munduan zentratu? (Barnerakoi, Kanporakoia zara; Estrobertsio-Introbertsioa da nagusi zugar) [E - I]
- 2) INFORMAZIOA: Zer duzu nahiago, jasotzen duzun oinarritzko informazioan zentratu, edo informazio hori interpretatzea eta esanahiak gehitzea? [S - N]
- 3) ERABAKIAK. Erabakiak hartzen dituzunean, zer duzu nahiago: logikatik eta sendotasunetik hasi, edo pertsona eta egoera bereziei erreparatuz hasi? [T - F]
- 4) EGITURA. Kanpoko munduarekin erlazionatzen zarenean, zer duzu nahiago: gauzak erabakita edukitzea, edo informazio eta aukera berrietara irekita egotea? [J - P]

Ondoren, jardueraren 2. fasean, partehartzaileei eskatuko zaie MBTI metodoak definitzen dituen lau nortasun-profilak irakurtzea. Profil horietako bakoitza galderari emandako erantzunetako batzuekin lotzen da, eta hori horrela, eskatuko zaie ere erantzunen eta MBTI, (Briggs-Myers eta Briggs) taulen arteko lotura aztertzea. Lau lehentasunei eman zaizkien erantzunak kontutan hartuta, pertsona baten MBTI profila zehazten da. Adituen esanetan, lan-talde orekatu batetan desiragarria litzateke profil guztietako pertsonak daudela ziurtatzea. Jarraian, profil bakoitzaren ezaugarri nabarmentenak deskribatzen dira.

ANALISTAK	DIPLOMATIKOAK
<ul style="list-style-type: none"> – Irudimena eta pentsamendu estrate- gikoa – Lider ausarta, bide bat bilatzeko edo bat sortzeko erabakiarekin – Erronka intelektualek erakartzen di- tuzte 	<ul style="list-style-type: none"> – Karismadun liderrak, entzuten diete- nak liluratzen dituztenak – Alaiak, umore onekoak, lankideei irri- barre eginarazten dietenak – Pertsona atseginak, enpatikoak, besteei laguntzen saiatzen direnak
JAGOLE edo ZELATARIAK	ESPLORATZAILEAK
<ul style="list-style-type: none"> – Ekintzetara bideratutako pertsona praktikoak – Administratzaile onak, gauzenak edo pertsonek – Nortasun babeslea, lagunkoia 	<ul style="list-style-type: none"> – Esperimentatzaileak, hainbat arlotan trebeak – Mentalitate artistikoa, gauza berriak esperimentatzeko prest – Animatzaile sutsuak, dibertigarriak


Jatorrizko iturria: <https://www.16personalities.com/es/descripcion-de-los-tipos>. Egileek sortutako taula.

Irakurri ahala, irakurri eta komentatu ere egin daitezke.

3. fasea: hirugarren fasean, honako galdera honi idatziz erantzuteko eska dakie-
ke pertsoneri: profil hauetako zeinekin identifikatzen zara gehien? Zeinekin gutxiago?
Proposamena baliagarria izan zaizu?

Eztabaida, ordea, ez da termino pertsonalegietan planteatu behar, ZeharGAIT Go-
mendioetan gogorarazten dugun bezala, taldeko elkarrizketa dakarten jarduera-fasee-
tarako. Interakzioa, besterik gabe, analisi mota horren erabilgarritasunari buruzkoa
izan daiteke, bai elkar ezagutzerakoan, bai lantalde eraginkorrak eratzeko horiek era-
biltzeko aukerari dagokionez.

Oharra: eredu hau oso era erraztuan aurkeztu da. Hala ere, nortasun-test bat egitea
oso baliagarria izan daiteke nor bere burua ezagutzeko eta lantalde eraginkorrakoak
eratzeko. Hori dela eta, interesgarria eta praktikoa izan daiteke parte-hartzaileei nor-
tasun-test konplexuago bat egitea iradokitzea. Egokiena beti da zentro espezializatu
batera joatea. Hala ere, ariketa honen praktika gisa ideia bat egin nahi bada, aukera
hori eskaintzen duten webgune ugarietako batera jo daiteke.



ZeharGAIT jarduera

Autoezagutza Myer-Briggs adierazlearekin (MBTI) – 1. Fasea

Mesedez, hurrengo galderari erantzuna eman:

- 1) **MUNDU GOGOKOENA.** Zer duzu nahiago: kanpoko munduan edo zure barne-munduan zentratu? (Barnerakoi, Kanporakoia zara; Estrobertsio-Introbertsioa da nagusi zugar) [E - I]
- 2) **INFORMAZIOA:** Zer duzu nahiago, jasotzen duzun oinarritzko informazioan zentratu, edo informazio hori interpretatzea eta esanahiak gehitzea? [S - N]
- 3) **ERABAKIAK.** Erabakiak hartzen dituzunean, zer duzu nahiago: logikatik eta sendotasunetik hasi, edo pertsona eta egoera bereziei erreparatuz hasi? [T - F]
- 4) **EGITURA.** Kanpoko munduarekin erlazionatzen zarenean, zer duzu nahiago: gauzak erabakita edukitzea, edo informazio eta aukera berrietara irekita egotea? [J - P]



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).



ZeharGAIT jarduera

Autoezagutza Myer-Briggs adierazlearekin (MBTI) – 2. Fasea

MBTI metodoak lau nortasun-profil zehazten ditu. Profil horietako bakoitza aurreko atazan bete dituzun galderei emandako erantzunetako batzuekin lotzen da.

Adituen esanetan, lan-talde orekatu batetan desiragarria litzateke profil guztietako pertsonak daudela ziurtatzea. Jarraian, profil bakoitzaren ezaugarri nabarmenenak deskribatzen dira.

<p style="text-align: center;">ANALISTAK</p> <ul style="list-style-type: none"> – Irudimena eta pentsamendu estrategikoa – Lider ausarta, bide bat bilatzeko edo bat sortzeko erabakiarekin – Erronka intelektualek erakartzen dituzte 	<p style="text-align: center;">DIPLOMATIKOAK</p> <ul style="list-style-type: none"> – Karismadun liderrak, entzuten dietenak liluratzen dituztenak – Alaiak, umore onekoak, lankideei irribarre eginarazten dietenak – Pertsona atseginak, enpatikoak, besteei laguntzen saiatzen direnak
<p style="text-align: center;">JAGOLE edo ZELATARIAK</p> <ul style="list-style-type: none"> – Ekintzetara bideratutako pertsona praktikoak – Administratzaile onak, gauzenak edo pertsonenak – Nortasun babeslea, lagunkoia 	<p style="text-align: center;">ESPLORATZAILEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> – Esperimentatzaileak, hainbat arlotan trebeak – Mentalitate artistikoa, gauza berriak esperimentatzeko prest – Animatzaile sutsuak, dibertigarriak


Jatorrizko iturria: <https://www.16personalities.com/es/descripcion-de-los-tipos>. Egileek sortutako taula.

Egitekoa

- *Profil hauetako bakoitzak, zure ustez, zein erantzun emango lioke 1go atazan aurkeztu zaizkigun galderetako bakoitzari?*
- *Adituek diote lantalde orekatuetan profil guztietako pertsonak izatea komeni dela. Zer deritzozu horri?*
- *Zure arlo profesional zehaztean hiru taldekide soilik dituen talde bat osatu behar-ko bazenu, zein profil utziko zenuke taldetik kanpo? Eta hamar taldekide izan ahal izatekotan, zenbat pertsona izan nahiko zenituzke profil bakoitzeko? Arrazoitu zure erantzuna.*



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).



ZeharGAIT jarduera

Autoezagutza Myer-Briggs adierazlearekin (MBTI) – 3. Fasea

Jarraian, erantzun idatziz galdera hauei. Emandako erantzunei buruzko elkarrizketa taldean egingo da:

- Inoiz pentsatu al duzu zure pertsonaren alderdi horiei buruz?
- Zure ustez, zertarako izan daitezke baliagarriak galdera horiek?
- Zure ustez, ezberdintasunak izaten dira pertsona batek bere burua nola ikusten duen eta besteek nola ikusten duten? Zer dela eta, zure ustez?
- Uste duzu horrelako gaiez jabetzea baliagarri izan dakiokela pertsona bati beste batzuekin lan egiteko edo enplegua aurkitzeko? Arrazoitu labur-labur zure baiezkoko edo ezezko erantzuna.



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).

4.3. Nola osatzen duten elkar Belbin eta MBTI metodologiek

Aukeratutako bi metodologiek, Belbinek eta MBTIk, ez dute gauza bera bilatzen, baina osagarriak dira: pertsona baten talentuen eta trebetasunen ulermena aberasten dute; eta, aldi berean, aztarnak eskaintzen dituzte, horiek direla medio erakusteko talentu/trebetasun horietako bakoitzak taldearen lanean nola lagun lezakeen hobeto. Horregatik, bi metodologiak, bata bestearen osagarri, erabiltzea, nork bere burua hobeto ezagutzeko baliagarria izan daiteke. Era berean, komeni da kontuan hartzea hainbat enpresatarako giza baliabideen ataletan era horretako metodoak erabiltzen dituztela, hautagaien profilak hobeto hautemateko.

Hala ere, beti ez dago aztirik test osoak egiteko. Kasu horietan, baliotsua izan daiteke tresna bat izatea, hain finduta egon ez arren, erraz eta azkar erabil daitekeena (adibidez ikasgelan ekipoak sortzeko).

Helburu horrekin, metodologia laburtu bat eraikiko dugu, Belbin eta MBTI metodologiaren konparazio eta sintesitik abiatuta.

4.3.1. Belbin eta MBTI metodologiaren arteko elkarguneak

Aurreko ataletan azaldu denez, Belbinek bederatzi rol desberdin planteatzen ditu, hiru profil mota handitan multzokatuta:

- *Harremanak*
- *Hausnarketa*
- *Ekintza*

Myers-Briggsek, MBTI metodologiarekin, berriz, hamasei nortasun mota proposatzen dituzte, lau kategoria handitan banatuta:

- *Analistak*
- *Diplomatikoak*
- *Jagole edo zelatariak*
- *Esploratzaileak*

Bi metodologiak alderatuz gero, antzekotasun edo baliokidetasun nabarmenak ikus daitezke:

- Analistak Belbin-en hausnarketa-kategoriaren baliokideak izango lirateke, nolabait.
- Diplomazialariek Belbingo harreman-kategoriaren oso antzekoak dirudite.
- Zelatariak eta esploratzaileak, berriz, Belbin-en ekintza-profilen baliokideak izango lirateke nolabait.

Puntu komunak laburtuz gero, ikusiko dugu bat datozela behintzat hiru rol estrategiko motari dagokionez, alegia talde batek eraginkorra izateko behar dituen funtsezko rolei dagokienean. Horiek dira: hausnarketa-rolak, harreman pertsonaleko rolak eta ekintza-rolak. Taula honetan laburbil ditzakegu:

Belbin-en eta Myers-Briggs-en ikuspegiaren artean antzemandako kointzidentziak (rol tipologiak).

ERREFLEXIO-ROLAK: arazoak sortu, aztertu eta konpontzen dituzte

Pertsona hauek ideia sortzaileak ematen dituzte, eta arazo zailak konpontzen gozatzen dute. Horretarako, ezagutza espezializatu onak izaten dituzte. Ideiak pentsatu eta proposatzeaz gain, leundu ere egin behar dituzte, zentzua izan dezaten eta gauzagarriak izan daitezten. Zer egin behar den jakiteaz arduratzen dira.

INTERRELAZIO-ROLAK: taldea koordinatu eta kohesionatzen dute

Pertsona hauek pertsonengan, haien harremanetan eta egoera emozionalean jartzen dute arreta. Gogo bizia jartzen dute eta taldea kohesionatzen dute, sarritan umorearen bidez, eta taldeko kide bakoitzari keinu pertsonalak egiteko gai dira, animoa altxatzeko, motibatuzko eta bakoitzaren maximoa ateratzeko. Kudeatu eta koordinatu egiten dute taldea, hura helbururantz bideratuz eta sortzen diren gatazkak konpontzen lagunduz. Taldea ekipo kohesionatu gisa funtzionatzeaz arduratzen dira.

EKINTZA-ROLAK: ekimena dute eta gauzak gertarazten dituzte

Pertsona hauek errealitate bihurtzen dituzte planteatutako ideiak. Inplementatzaileak dira, egiteaz arduratzen dira, eraginkorrak dira eta lanaren azken kalitatea ziurtatzen dute. Ideiak plan operatibo bihurtzeaz eta hori gauzatzeaz arduratzen dira.

4.3.2. Metodologia konbinatuaren erabilgarritasuna ekipoak sortzeari begira

Talde orekatu eta eraginkorra lortzeko, ezer baino lehen, garrantzitsua izango litzateke pertsona bakoitza zer roletan egokitzen den identifikatzea, gero pertsona hori beste batzuekin era egokian taldekatu ahal izateko. Posible den heinean talde guztietan profil bakoitzeko gutxienez pertsona bat egongo dela ziurtatzea komeni da. Hori posible ez denean, taldeak gutxienez zera beharko luke, kontuan hartu beharreko gauzen zerrenda (nahiz eta inoren izaerarekin oso bat ez etorri, badirelako egin beharreko zenbait zeregin edo jarraitu beharreko zenbait errutina, eta zerrenda horrek horietaz nolabait arduratzen laguntza emango du).

Egokiena zera litzateke, talde-laneko esperientziaren bat izan ondoren, denek hausnarketa bat egin ahal izatea: bere burua nola ikusten duten, zein diren taldeari laguntzeko ezaugarri baliotsuenak, eta ahultasuna kontutan hartuta, zein arazo sor daitezkeen (aurretiazko autoebaluazio-galdetegiak erabil daitezke).

Era berean, gomendagarria da hasierako fasean, taldea aktibatzen denean eta benetako ekipo bihurtzen denean, elkarrizketa ireki eta zintzo bat sortzea, alde aurreko esperientziei buruz hitz egiteko. Erabilgarria izaten da jakitea bakoitzak taldearengandik zer espero duen, eta elkar ezagutzea, egon litezkeen arazoei aurrea hartzeko eta ikasteko ere nola egin daitezkeen azken hauek taldearen errendimenduan eraginik izan ez dezaten.

4.3.3. Funtsezko talde-postuak

Lantaldeen barruko rolekin amaitzeko, Jacques eta Jacquesek (2007:23) adierazi dute oso garrantzitsua dela hasieran izendatu behar diren funtsezko bi postu edo ardurak: koordinatzailea eta idazkaria.

KOORDINATZAILEA

Besteekin harremanetan jartzeko eta lan egiten jakiteko gaitasuna behar du.

Parte-hartzea errazteko, taldeko kide guztiei entzun behar die, baina eztabaida eternizatzea saihestu behar du, sintesia eginez eta konponbiderako pistak proposatuz.

Jarduerak koordinatzen ditu eta taldea zuzentzen du, bere helburuen eta aurretik guztien artean hartutako akordioen arabera.

Koordinatzaileak gai-zerrenda proposatzen du, taldearen bilerak eraginkorrak izan daitezen.

Bilera bat hasi ondoren, koordinatzailearen eginkizuna animatzaile gisa jardutea da, kide isilenei hitza emanaz eta berak hitz egin nahi duenean ere, bere izena hitza emateko txanden zerrendan idatziz.

Aldian-aldian, eztabaidaren eta ondorengo erabakien aurrerapena errazteko azaldu diren iritziak laburbiltzen ditu.

Koordinatzailea taldeko kideak ados jartzen saiatuko da. Ezinezkoa denean bozkatu egingo da, baina koordinatzaileak ziurtatuko du talde osoak bere gain hartuko duela erabaki hori, eta bozketak ez duela taldea hautsiko.

Koordinatzailea lan-banaketari adi egon behar da, bileraren amaieran mundu guztiak bere lana ondo zehaztuta duela eta modu ekitatiboan banatu dela ziurtatuz.

IDAZKARIA

Pertsona hau taldearen memoria da. Pertsona zorrotza, antolatua, egituratua eta zorrotza izan behar du. Bere zeregina oso garrantzitsua da, taldearen eztabaidetan kontuan hartu beharreko funtsezko elementu guztiak kontuan hartzen dituen baita.

Gai-zerrenda jaso behar duzu onartu ondoren.

Idazkariak aktak idatziko ditu. Gai-zerrendako puntu bakoitzean jorratutakoaren laburpena egin behar du, eta zehatz-mehatz jaso behar ditu hartutako erabakiak, bai eta pertsona bakoitzaren zereginak ere, banatu ondoren.

Idazkaria arduratzen da taldearen dokumentuak, aktak, erabakiak, lana egiteko dokumentu erabilgarriak, irakaslearen kontsignak eta abar gordetzeaz, eta taldeko dokumentuak antolatzen eta sailkatzen ditu. Horrela, beti jakingo da nori egin erreferentzia dokumentu bat entregatu edo jaso behar denean.

4.3.4. Funtsezko printzipioak

Metodologia laburtuaren atal hau amaitzeko, bi printzipio hartu behar dira kontuan:

Taldearen osaera

Talde on bat ikuspegi desberdinak dituzten pertsonak osatu behar dute, eta elkarrekin eta modu harmonikoan lan egiteko gai izan behar dute. Elkar osatu eta lagundu behar dute beren ahulguneetan, talde osoa etekin handia ateratzeko gai izan dadin.

Komunikazioa

«Komunikazioa zure helburuak lortzen lagun diezaguketen beste batzuekin harremanetan jartzean datza. Trukean, zuk haienak lortzen lagun diezaiekezu.»

Pitino eta Reynolds (1997:118)

ZeharGAIT jarduera

Metodologia LABURTUA: rol desberdinen zergatia ulertuta

45-60 minutuko bi jarduera proposatzen dira. Bereizita egin daitezke, edo horietako bat bakarrik aukeratu.

1. jarduera (45-60 minutuko iraupena)

Sarrera moduan, jardueraren bideratzaileak Belbin eta MBTI metodologiaren arteko elkargunean agertzen diren rol motak deskribatzen ditu (hausnarketa, harreman pertsonala eta ekintza). Parte-hartzaileek honako hauek aurkeztuko dituzte, idatziz eta banaka:

- Hiru profiletako bakoitzak taldeari eman ahal dizkion elementu positiboaren adibideak
- Zein ahulgune ikusten ditut rol hori bete dezakeen pertsona batengan
- Zer galdetuko zenieke hautagai posibleei, edo zertan erreparatuko zenuke pertsona horiek bilatzen ari zireten profil zehatzarekin bat datozen ala ez jakiteko?

Arbelean jartzen dira galdera ezberdinei eman zaizkien erantzunak. Guztiek erantzunak partekatu bitartean ez da eztabaidarik egingo; entzun besterik ez. Gero hasiko da eztabaida. Elkarrizketari hasiera emateko abiapuntu interesgarria da profil ezberdinen elementu positiboak eta ahultasunak aztertzea. Parte-hartzaileek abantaila-desabantaila horiek zehazterakoan badaiteke ados egotea edo ez, hortaz erabilgarria izaten da kointzi-

dentziak eta desadostasunak egiaztatzea. Taldeko elkarrizketarako, ZeharGAIT jardueretan elkarrizketa egiteko eskainitako gomendioak erabiltzea iradokitzen dugu (ZeharGAIT Gomendioak, 1. unitatea).

Fase honen helburua parte-hartzaile guztiek profil bakoitzak ematen duena ulertzea da. Ez da adostasunik bilatzen; matizak daude beti. Garrantzia du ere zera ulertzeak, talde batean gauza desberdinak daudela egiteko, ardura ezberdinak, eta pertsona bakoitzak modu desberdinetan laguntzen duela arrakasta kolektiboan. Gure aniztasunaren isla ere bada profilak eta pertsonak ikusteko dugun era ere; aberastasun hori kudeatzen ikasi behar dugu.

2. jarduera (45-60 minutuko iraupena)

Aditu askoren ustez, talde batek ondo funtziona dezan, gutxienezko bi funtzio betetzen dituzten pertsonak behar ditu: koordinatzailea eta idazkaria. Hori da izpide jarduera honetan.

1. Fasea: zer espero dezakegu talde bateko idazkari edo koordinatzaile batengandik? Banakako zeregina da hau.

2. fasea: Bakoitzak pentsatu dutena arbelean partekatuko da (horretarako 1. Inprimagarrian erantzuna idatziz emateko eskatzen zaie 1go fasean) eta bigarren honetan egitekoa hitz egitean datza. Elkarrizketa-fasean, gomendio komunak erabiltzea gomendatzen da, 1. unitatean deskribatutako ZeharGAIT (ZeharGAIT Gomendioak) jarduerak egitean hitz egiteko moduari dagokionez.

3. fasea: bideratzaileak, egoki iritziz gero, jarduera honen aurreko zati teorikoan aurkeztu izan den taulari buruzko informazioa gehituko du. Fase hau ez da ezinbestekoa.


4. fasea: 2. inprimagarria. Banakako bigarren ataza.

Parte-hartzaileei galdera hauei erantzun ematea eskatzen zaie, bakoitzak bere kabuz.

- 1) Zure ustez, zer ezaugarri izan behar dira koordinatzaile edo idazkari izateko?
- 2) Zure ustez, zein dira rol horretan jartzen diren pertsonen ahulguneak?
- 3) Talde batean, nola aukeratu koordinatzailea eta idazkaria? Zozketaz, dohainengatik, taldekideak aukeratzeagatik, nagusi batek erabakita? Nahi baduzu, konparatu izendatzeko modu bat edo bestea erabiltzearen arteko aldeak.
- 4) Koordinatzaileak eta idazkaririk ez badugu, nola antola gaitzke?

5. fasea: elkarrizketa, 2. Inprimagarriko galderaz galdera. Taldeko elkarrizketarako, ZeharGAIT jardueretan elkarrizketa egiteko eskainitako gomendioak erabiltzea iradokitzen dugu (ZeharGAIT Gomendioak, 1. unitatea).

Oharra: Bi pertsona horiek (koordinatzailea eta idazkaria) zer egin beharko luketen jakiteaz gain, egingo ez balitz gertatuko litzatekeenaz jabetzea da jarduera honen helburua. Horri esker, talde batean egin beharreko lanak sakonago ulertu ahal izango dira, eta, beraz, taldearen funtzionamendua hobeto ezagutu ahal izango da.



ZeharGAIT jarduera

Rol desberdinen zergatia ulertuz

Aditu batzuen arabera, talde bat sortzen dugunean, garrantzitsua da bertan trebetasun eta ezaugarri osagarriak dituzten pertsonak egotea, eta, gainera, pertsona horiek rol desberdinak hartzeko nolabaiteko gaitasuna izatea. Zehazki, honako rol hauek izateko beharra adierazi dute:

ERREFLEXIO-ROLAK: arazoak sortu, aztertu eta konpontzen dituzte

Pertsona hauek ideia sortzaileak ematen dituzte, eta arazo zailak konpontzen gozatzen dute. Horretarako, ezagutza espezializatu onak izaten dituzte. Ideiak pentsatu eta proposatzeaz gain, leundu ere egin behar dituzte, zentzua izan dezaten eta gauzagarriak izan daitezten. Zer egin behar den jakiteaz arduratzen dira.

INTERRELAZIO-ROLAK: taldea koordinatu eta kohesionatzen dute

Pertsona hauek pertsonengan, haien harremanetan eta egoera emozionalean jartzen dute arreta. Gogo bizia jartzen dute eta taldea kohesionatzen dute, sarritan umorearen bidez, eta taldeko kide bakoitzari keinu pertsonalak egiteko gai dira, animoa altxatzeko, motibatzeke eta bakoitzaren maximoa ateratzeko. Kudeatu eta koordinatu egiten dute taldea, hura helbururantz bideratuz eta sortzen diren gatazkak konpontzen lagunduz. Taldea ekipo kohesionatu gisa funtzionatzeaz arduratzen dira.


EKINTZA-ROLAK: ekimena dute eta gauzak gertarazten dituzte

Pertsona hauek errealitate bihurtzen dituzte planteatutako ideiak. Inplementatzaileak dira, egiteaz arduratzen dira, eraginkorrak dira eta lanaren azken kalitatea ziurtatzen dute. Ideiak plan operatibo bihurtzeaz eta hori gauzatzeaz arduratzen dira.

Jarduera hau proposatzen dizugu. **Imajinatu diru-laguntza bat jaso duzula zure sektoreko enpresa txiki bat sortzeko (5-15 langile).** Pentsatu bilatzen ari zaren taldean eta erantzun galdera hauei:

- Zer elementu positibo ematen dizkio rol horietako bakoitzak zuk imajinatu duzun talde horri?
- Zenbat pertsona behar dituzu rol bakoitzetik? Pentsa ezazu ez bakarrik zer ematen dizuten, baizik eta zer ahulgune izan ditzakeen ere rol hori bete dezakeen pertsona batek, edo zer desabantaila izan dezakeen desoreka izateak. Futbol talde batek ezin ditu 8 atezain edo 11 aurrelari izan. Oreka behar du.
- Imajinatu zure burua hautagai posible ezberdinei lan-elkarrizketak egiten. Zer galdetuko zenieke hautagai posibleei, edo, pertsona aurrean duzula, zeri erreparatuko zenioke pertsona horiek bilatzen ari zaretenarekin bat datozen ala ez jakiteko?





ZeharGAIT jarduera

Nola antolatuko gara ekipoa sortzeko? (1)


Aditu batzuen arabera, lantaldeek gutxienez bi pertsona izan behar dituzte eginkizun horietako bakoitzean: koordinatzailea eta idazkaria. Zure ustez, zer lan egin ditzake, talde bati dagokionez, funtzio hori betetzen duen pertsona batek?

KOORDINATZAILEA

IDAZKARIA



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).



ZeharGAIT jarduera

Nola antolatuko gara ekipoa sortzeko? (2)

Aurreko ataza egitean arbelean islatuta geratu dena eta elkarrizketan koordinatzailearen eta idazkariaren rolei buruz esan dena ikusita, erantzun galdera hauei.

Komeni da 4 paper zatitan banatzea, goiburuan zenbaki bat jarriz (paper bakoitza zein galderari dagokion jakiteko, enuntziatuak kopiatu beharrik gabe).


- 1) Zure ustez, zer ezaugarri izan behar dira koordinatzaile edo idazkari izateko?
- 2) Zure ustez, zein dira rol horretan jartzen diren pertsonen ahulguneak?
- 3) Talde batean, nola aukeratu koordinatzailea eta idazkaria? Zozketaz, dohainengatik, taldekideak aukeratzeagatik, nagusi batek erabakita? Nahi baduzu, konparatu izendatzeko modu bat edo bestea erabiltzearen arteko aldeak.
- 4) Koordinatzailearik eta idazkaririk ez badugu, nola antola gaitezke?



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).

II. Atala

Talde baten bizitzako faseak eta etapak



5. Talde baten bizitzan eta garapenean dauden faseak/ etapak

Hainbat azterlanek erakusten dutenez, talde guztiek, sortutakoan, fase edo etapa batzuk igarotzen dituzte beren garapenean, eta horiek ezagutu egin behar dira. Egileek lauzpabost etapa bereizten dituzte. Pallarés-ek deskribatutakoak erabiliko ditugu, baina baliagarria da beste deskribapen batzuk kontuan hartzea, ez baitatoz bat eta horrek eztabaida aberastu bait dezake.

Irakasleentzako OHARRA: bideratzaileak uste badu ez dela beharrezkoa, eta zuzenean Pallarés-en eredura joan nahi badu, aurrerago aurkituko du.

Alderik handienak, jarraian ikusiko dugun bezala, bi egoeratan daude: talde bat finkatu eta eraginkortasuna lortzen duen arte zenbat etapa adierazten diren —eta zein modukoak—, bai eta itxiera moduko azken etapa bat barneratzen den (edo ez).

Tuckmanen lanari jarraituz (1965koa; Gamezek aipatua, 2013:108), fase nagusiak honako hauek lirateke;

1. Prestakuntza-fasea. Fase honetan, taldekideak elkarren artean harreman-tzera ohitzen dira, eta, aldi berean, ebaluatzen hasiko dira taldeak beren beharrak beteko dituen eta bakoitzak taldearekiko dituzten igurikimenak beteko omen dituen ere.
2. Gatazka- edo doikuntza-fasea. Itxaropenak emaitzekin alderatzen dira, eta horrek asegabatasuna eragin dezake. Konpetentzia egon daiteke eta pertsonen arteko eta talde barruko gatazkak sor daitezke. Desadostasunak egon daitezke zereginari dagokionez, baita buruzagiaren aurkako matxinada ere.
3. Normalizazio-fasea. Taldeak egitura onartzen du eta gatazkak gainditzen doaz, talde-kohesioaren eta sentimendu positiboen sorreraren bidez. Rol berriak ak eta arau berriak agertuko dira. Ataza bati aurre egiten dioten bitartean informazioa trukatzeko eta alternatibak eztabaidatzeko/adosteko aukera ematen da.
4. Errendimendu- edo funtzionamendu-fasea. Taldeak bere egiturazko arazoak konpontzen ditu, funtzionalagoa, malguagoa; sistematikoagoa eta praktikoagoa izaten hasten da. Zeregina taldearen egiturarekin bat dator.
5. Ixteko fasea. Taldeak bere helburuak lortu ditu. Funtzionatzen jarrai dezake edo arrakastaz desegin daiteke.

Esparru akademikoan, Villak (1998) lau etapa identifikatzen ditu (Gamezek aipatua, 2013:110):

1. Etapa indibidualista. Ikasleek elkar ezagutzen ez duten eskola-talde baten lehen egunetan ematen da etapa hau; segurtasunaren banakako bilaketak markatzen du. Maskarak erabiltzea ohikoa da, erdi ahotsez hitz egiten da, isiluneak ugariak dira; begiradak deserosoak eta zailak dira, eta elkarrekintzak ahulak dira.
2. Bilaketa-etapa. Taldean segurtasun-bilaketa bat egiten da. Kide bakoitza bera izaten saiatzen da taldean, azpitaldeak osatzeko joera dago, pertsona besteekiko argiago hautematen da, elkarrekin lan egiten da; baina komunikazioa eta interakzioa oraindik ez dira osatu.

3. Identifikazio-etapa. Parte hartzea pixkanaka aberasten doa, eta horrek sintoma desberdinak eragiten ditu: hitzez eta berariaz taldekide izateak suposatzen duen akordioa adierazi ohi da; giroa lasaiagoa da; iritziak askotarikoagoak dira eta ez dira hain homogeneoak; guak balio handiagoa hartzen ari da norberaren nia errespetatzen ari den heinean.
4. Finkatze-etapa. Taldea egituratu eta antolatu egiten da: taldekideak taldearen mugez eta askatasun-marjinaz jabetzen dira; rolen definizio prozesua bukatu egiten da, eta ghorrek esan nahi du haien banaketa egokitzat ematen dela, bai eta taldearen autoritatea ere; kohesioa eta eraginkortasuna areagotu egiten dira, taldekideen arteko konfiantza eta lotura afektiboei esker. Taldearen autoerrealizaziora iristen da, non taldeak bere prozesua ebaluatzen dakien, bai eta bere funtzionamendua kontrolatzen eta sortzen diren tentsioei aurre egiten eren.

→Pallarés-ek proposaturiko faseak honako hauek dira:

Pallarés (1993, Gámezek aipatua, 2013: 110-113) ere lau etapa identifikatzen ditu, agian ikasleentzat argiagoak izan daitezkeenak:

1. Orientazio-etapa
2. Arauak ezartzeko etapa
3. Gatazkak konpontzeko etapa
4. Amaierako etapa

Ohartarazi dugunez, etapa horiek, Pallarés deskribatutakoak, izango dira gure erreferentzia jarduera-bloke honetan. Ondoren zirriborratuko ditugu, irakurketa eta kasu praktikoekin, gogoeta pertsonalaren eta ikasgelako bateratze-lanaren bidez sarkontzeko. Garrantzitsua da ikasleek antzematea lantaldeen bizitza ez dela estatikoa; lantaldeek, gizatalde guztiek bezala, prozesuak, etapak igarozten dituzte. Erabilgarria da horren berri izatea; horrela zailtasunak bizitzerakoan ikuspegi zabalagoa izan dezakete; egoerak gainditzen dituen sententzioa saihesteko. Horrek, bestetik, talde-lanaren zailtasunei aurre egiteko baliabide nahikoak dituztela sentitzeko aukera ere emango die, edo behintzat baliabide horiek bilatzeko aukera. Hori guztia taldean lan egitea zaila delako, Pat Riley saskibaloia entrenatzaileak zioen bezala.

Ikasleak prozesu horretaz jabetzea bezain garrantzitsua da bideratzaileak (edo enpresako zuzendariak) fase horiek ezagutzea, fase horietan aktiboki esku hartu ahal izateko eta talde-bilakaera prozesua talde eraginkor eta efiziente baterantz gidatzeko; gainera, esku-hartzea oso esanguratsua izan daiteke: atazen kalifikazioak hobetzen lagunduu, bai eta pertsonen arteko harremanetarako gaitasuna hobetzen ere. (Gámez, 2013: 114-115).

Jarraian, lan-talde baten garapen-faseei buruzko hausnarketak bai eta hainbat alderdi lantzeko jarduerak eskaintzen dira.

5.1. Talde baten hasierako fasea eta parte-hartzaileek nola egiten dioten aurre: orientazio-etapa

Mini-kasuak eta ariketak hasi aurretik, gomendagarria izaten da elkarrizketa ireki batean (talde handian edo bikoteka edo talde txikitan) parte-hartzaileek edozein tal-

detan izan dituzten iraganeko beldurrak eta esperientzia txarrak azaleratzea. Pertsona bakoitzak talde-lanarekiko jarrera orokorra, errezeloak, aurretiko esperientziak eta/edo taldean lan egiteko dituen abantailak eta arriskuak adieraz ditzake. Talde txikitari ideia trukaketa labur bat egin ondoren (parte-hartzea bultzatzeko), talde guztiek beren ondorioak bateratzen dituzte.

Hasierako hausnarketa-ariketa honek gainerako jardueretako edozein girotzeko balioko du. Era berean, bideratzaileak talde-lanaren kontzeptu orokor batzuk har ditzake kontuan, hala nola etapak (1993ko Pallarésen azken sailkapenean oinarrituz, hori hartu baita jarduerak antolatzeko oinarritzat), eta, ondoren, hainbat alderdi lantzeko egokien iruditzen zaizkion ariketak aurkezten ditu.

ZeharGAIT jarduera Tigrea eta otsoak (Unairentzako istorio bat)¹

Testuingurua

Talde baten bizitzaren hasierako etapa honetan, taldean sartzen den pertsona bakoitzari sortzen zaion ziurgabetasuna da gertakari garrantzitsua. Aldaketa edo egoera berri orotan, ezezagunarekiko nolabaiteko beldurra sortzen da: norekin osatuko dudana taldea, nolakoak izango diren, nola eramango garen, esperientzia nolakoa izango den (inoiz taldean lan egin ez badut) eta abar. Beldur horiek sentitzea eta antsietate hori guztiz normalak dira; izan ere, talde baten bizitzako lehen etapa honen egin beharreko gauzetako bat da taldekideak orientatzea, eta egoera horretara moldatzen laguntzea.

Jarduera eta denboralizazioa

Ildo horretan, beldur horiek ezagutu eta garaitzen laguntzeko, hasierako irakurketa hau diseinatu da: «Istorio bat Unairentzat: tigrea eta otsoak» (egilea: Igor Filibi).

1. fasea: jarduera irakurtzeko denbora. Norberak irakurtzea gomendatzen da, baina posible da ere lehen irakurketa taldean egitea, gero banakako denborari hasiera emanez.
2. fasea: jarraian dagoen galdetegia banatuko da, eta pertsona bakoitzari banaka erantzuteko eskatuko zaio, 12-15 minututan.
3. fasea: ondoren, elkarrizketa-gune bat irekiko da erantzunak partekatzeko, eta tarte bat utziko da ere ezarritako galderetatik kanpo irakurketari buruzko iruzkinak egiteko.

Gogoratzekoa

Taldeko elkarrizketa eskatzen duten jarduera-faseetarako, *ZeharGAIT jardueretan elkarrizketa egiteko eskainitako gomendioak* erabiltzea iradokitzen dugu (ZeharGAIT Gomendioak, 1. unitatea).

¹ Igor Filibik idatzia.



ZeharGAIT jarduera

Tigrea eta otsoak (Unairentzako istorio bat) - Igor Filibi

Unai haserre eta umore txarrez iritsi zen etxera. Amak ez zion ezer esan agurtu ere egin gabe sartu zenean. Une bat zeraman bere gelan giltzapetuta, aitak atea ukitu eta zer moduz zegoen ikustera sartu zenean. Pixka bat kostatu zitzaion hitz egiten hastea, baina azkenean esan zion irakasleak taldean lan egitera behartu zituela eta esleitu zizkieten ikaskideak ez zitzaizkiola batere gustatzen.

- Zerbait egin dizute? –galdetu zion aitak—. – Ez –esan zuen hark—, baina ez ditut gustoko; ez ditut ezagutzen, eta, gainera, nahiago dut lanak neuk bakarrik egin, neure erara. Akats egiten badut, nire errua.

Aitak erantzun zuen:

- Ikusten dut, kontua ez da ezer txarrik egin dizutela, baizik eta ez dakizula zer den talde bat.
- Badakit, noski- esan zuen Unaik, entzun berri zuenagatik are haserreago. Baina aitak, jaramonik egin gabe, hizketan jarraitu eta esan zion:
- Istorio bat kontatuko dizut –eta bere ondoan eseri ondoren hasi zen. Oihanean tigrea da ehiztaririk handiena, animalia guztiek diote beldurra eta ihes egiten dute haren aurrean, bera baita animaliarik indartsuena eta boteretsuena. Orro egiten duenean, oihana isildu egiten da. Eta tigreak badaki; beraz indartsuena dela uste du. Hala eta guztiz ere..
- Utzi kontuak, aita, ez naiz jada ume bat! –esan zuen Unaik ezer ulertu gabe eta nahiko haserre. Zertara zetorren ipuin bat kontatzea? Baina aitak, ahotsa goratu gabe, esan zion:
- Entzun iezadazu, eta izango duzu gero zuk hitzegiteko aukera-eta bere istorioarekin jarraitu zuen:

Egun batean, ordea, tigrea, antilope baten atzetik zihoala, hanka batean zauritu zen. Ez zen oso zauri larria, baina ezin zuen ehizatu, eta, beraz, ezin zuen ezer jan. Handik egun batzuetara, hain zegoen ahul, laster hilko zela bazekiela. Hilzorian zegoenean, lurrean etzanda, otso adintsu bat gerturatu zitzaion. Tigrea konturatu zen otso adintsu hura oso astiro zebilela, ez zela gai korrika asko egiteko, eta bere atzaparrak ere ez zirela hain indartsuak. Hortzen bat ere falta zitzaion. Indarririk izan banu, arazorik gabe hilko nukeen, pentsatu zuen tigreak bere baitarako. Tigrea ohartu zen otso hura, jadanik ehizatu ezin zuena, ongi elikatua eta osasuntsua zela bere adinarekiko. Ezin izan zuen saihestu galdetzea: otso, ikusten dut zahartuta eta nekatuta zaudela, ezin duzula korrika egin, ezta ehizatu ere, niri gertatzen zaidan bezala. Baina zu osasuntsu zaudete eta ni hiltzear nago. Nola liteke?

Otsoak begiratu zion eta ezer esan gabe alde egin zuen. Baina tigrea tematu egin zen eta oihu egin zion: otso, mesedez, erantzuiozu nire galdera honi! Kontatu zure sekretua hil aurretik. Otsoa gelditu egin zen. Zalantza egin eta atzera begiratu zuen,



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).

tigrea zegoen lekura. Ez zenuke ulertuko, esan zion azkenean, eta ez dut zurekin eztabaidatu nahi zure azken uneetan. Baina tigreak berriro ekin zion: ez dut eztabaidatuko; benetan diotsut. Jakin egin nahi dut.

Orduan otsoak hitz egin zion. Oihaneko guztiek uste dute izakirik boteretsuena zarelara, indartsuena, eta denek beldurra dizute. Baina otsook badakigu hau ez dela egia. Inor ez da hain indartsua. Talde batek ondo lan egiten duenean, taldekideek elkarri laguntzen diotenean eta elkarrekin lan egiten dakitenean, orduan talde hori edozein animalia baino hamar aldiz indartsuagoa da. Otsoek badakigu, gizakiek dakiten bezala. Ahulak dira, mugitu ezinik jaiotzen dira, azala fina dute eta urradurek zauritu egiten dituzte; ez dira asko ibiltzen eta ez dira indartsuak. Hala ere, denok diegu beldurra, baita zuk ere. Ez al diozu zeure buruari inoiz galdetu zergatik? Tigreak otsoaren erantzun luze hark, hainbeste azalpenek enbarazu egiten ziotela antzeman zuen. Erantzun erraza eta zuzena espero zuen, baina otsoaren hitzek asmakizun bat eta galderak zituen. Umore txarrez zegoen, baina, sekretu hura jakin nahi zuenez, gogo txarrez erantzun zion otsoari: gizakiak indartsuak dira sua dutelako, denek dakite.

Otso adintsuak irribarre egin zuen. Ez, ez da horrela. Bere indarra ez dago sutan. Gizakiak indartsuak dira elkartuta daudelako, beren herrixka babesten duen oholesia altxatzeko elkartzeko gai direlako, eta guztien artean zubiak, etxeak, bideak eta era guztietako objektuak eraikitzen dituztelako beren fabriketan. Elkarren artean koordinatzen dira, guztien artean osatzen eta laguntzen dute elkar. Hor datza bere indarra. Otsook ere ikasi dugu hau. Gaztetan ikusten zera ikusten nuen, taldeko buruak beti jaten zuela lehena, askotan ehizan parte hartu gabe, eta bere bizitzaren amaieran, lasterka egin ezin zuenean, taldeak ehizatzen genuenetik jaten uzten ziola. Egun batean otso adituenetako bati galdetu nion ea zergatik egiten genuen hau. Bere erantzunak harritu egin ninduen, eta gero gazte belaunaldi bakoitzari kontatu diot. Gure indarra taldean datza. Gutako batek hankan min hartzen duenean eta aste pare batez ehizatu ezin duenean, bakarrik balego, erremediorik gabe hilko litzateke, zu orain bezala. Baina taldeak babesten eta defendatzen badu, zaintzen eta elikatzen badu, laster suspertuko da eta berriro ehizatuko du guztion onerako.

Barregarria da diozuna, esan zuen tigreak, burua lurrean bermatuz. Otsoak erantzun zuen: badakit ez duzula ulertzen, ez duzulako inoiz probatu, baina, sinetsidazu, norbaitek funtzionatzen duen talde bat ezagutzen duenean, ez du inoiz ahazten eta etorkizunean errepikatzen saiatzeko da. Baina tigreak ezetz egiten zuen buruaz lurretik: ez da egia, diozuna diozula. Ez nauzu konbentzitu. Ez du inolako zentzurik zu elikatzeak, baldin eta ezin baduzu lasterka egin edo ehizatu. Taldeari ez diozu ekarpenik egiten. Engainatuta dauzkazu, nahiz eta aitortu behar dizudan meritua duzula, zure helburua lortu baituzu.

Otsoa orain algaraka. Benetan uste duzu ez dudala ezer ematen, ezin dudalako lasterka egin edo ehizatu? Nire lana oso garrantzitsua da. Nik gizakiak ezagutzen ditut, badakit nola ehizatzen duten, eta otso asko hiltzea saihestu dut nire aholkuekin. Elkar zaintzen dugunez, eta tigreak baino urte gehiago bizi garenez, zuen trikimailu guztiak ere ezagutzen ditut. Nik zure aita ezagutu nuen, eta badakit zein bidetatik zabilzan zu eta zein diren zure ehizarako tokirik gogokoena. Badakit zelatan egotea gustatzen zaizula, eta horregatik dakit zein itzaletan egon zaitezkeen makurtuta. Horrela salbatu



ditut otso asko zure atzaparretatik. Nire bizitza luzean lehorte gogor bat ezagutu dut eta ezagutzen dut non geratzen diren azken ur-putzuak. Badakit zein belar diren onak zauriak sendatzeko eta zeintzuk saihestu behar diren ez gaixotzeko. Hori guztia da taldeari ematen diodana.

Otso gazteek beren kemena eta indarra ematen dute, txakurkumeak etorkizuna dira eta horregatik maitasunez zaintzen ditugu, gero beren taldea errespetatu eta baloratu dezaten. Gure taldean, animalia bakoitzak zerbait bakarra ematen du, eta guztion artean talde bikaina osatzen dugu. Batzuk arakatzailerak dira, beste batzuk adimentsuak; batzuk burutsuak eta beste batzuk metodikoak. Eta beti dago baten bat, une txarretan barre eginarazten eta adorea altxatzen diguna. Horregatik, tigrea baino txikiagoak eta indartsuagoak garen arren, elkarrekin boteretsuagoak gara eta zu hil ondoren biziraungo dugu. Orain badakizu zergatik bizi zareten gutxiago tigreak, eta zergatik hiltzen zareten bakarrik.


Ni joaten naizenean, talde osoak negar egingo dit eta agur esango dit, eta egingo duten dolu kolektiboak are gehiago indartuko du taldea; beraz, nire heriotza ere taldeari egingo diodan azken ekarpena izango da. Hau da otsoek dakiguna, baina ez naiz zu konbentzitzen saiatzen, tigrea zarelako, eta ni otsoa naizelako. Agur. Eta sastrakan desagertu zen.

Unaik isilik jarraitu zuen aitak istorioa amaitu zuenean. Eta ez zuen ezer esan bere gelatik irten aurretik galdetu zionean:

- Hau da kontatu nahi nizun istorioa, eta orain zuk zeuk pentsa dezakezu zer nahiago duzun izan: tigrea ala otsoa?



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).



ZeharGAIT jarduera

Tigrea eta otsoak (Unairantzako istorio bat) – Zereginak

Erantzun, mesedez, galdera hauei. Ondoren, zure ikaskideekin batera jarriko dira.

Zein modelorekin identifikatzen zara gehien: tigrea edo otsoa? Zergatik?

Bietako zein iruditzen zaizu eraginkorrena? Zer abantaila ikusten dizkiozu bakarka lan egiteari? Eta taldean lan egitera?

Oro har, jendeak taldean lan egiteko nahikoa informazio eta esperientzia duela uste duzu?

Taldeetan edozein lan, edozein egoeratan lan egin daitekeela uste duzu, edo nohiz-behinka? Arrazoitu zure erantzuna. Zure ustez, zer baldintza bete behar ditu talde-lanak eraginkorra izateko?



ZeharGAIT jarduera

Markos eta Idoiaren kasuak: bi taldeetan etapa hasten

Testuingurua

Etapa honetan, taldean sartzen den pertsona bakoitzari sortzen zaion ziurgabetasuna da egitaterik garrantzitsuena. Aldaketa edo egoera berri orotan, ezezagunarekiko nolabaiteko beldurra sortzen da: nortzuk ukituko nauten taldean, nolakoak izango diren, nola eramango garen, esperientzia nolakoa izango den (inoiz taldean lan egin ez badut), eta abar. Beldur horiek sentitzea eta antsietate hori guztiz normala da; izan ere, talde baten bizitzako lehen etapa egoera berriaren barruan orientatzea eta egokitzea da.

Atal honen hasieran adierazi bezala, parte-hartzaileek izan ditzaketen beldurrak eta esperientzia txarrak azalertzeko diseinatuta daude, besteak beste, honako kasu txiki bi hauek. Horrek esan nahi du elkarrizketa bideratzeko moduak malgua izan behar duela, konfiantza eragin behar duela, parte-hartzaileei beren beldurrak zabaltzen eta adierazten utziz, baina, noski, inor behartu gabe.

Lehenengo kasuan, Marcosek bere beldurrei aurre egin behar die. Bigarrenean, Idoia protagonista dela, desadostasunaren gaia landuko da (taldeko kideek dituzten helburuei dagokienez). Taldekide guztiek helburu bera partekatzen ez dutenean –nota altua lortzea, adibidez, Idoiaren kasuan bezala-, zaila da taldeak funtzionatzea. Laguntzako izan daiteke taldean horri buruz hitz egitea eta akordioaren bat lortzen saiatzea.


Kasu hau beste gai garrantzitsu bat lantzeko ere erabil daiteke: mendekotasuna. Talde batean sartzen nautenean, gertatzen zaidanaren zati bat talde horren funtzionamenduaren arabera izango da. Idoiaren kasuan, zerbait behar du (nota on bat), baina hori, puntu batetaraino behintzat, taldearen funtzionamenduaren mendeko da; eta beraz ez dago Idoiaren esku. Pertsona bat talde baten mende dagoenean berarentzat garrantzitsua den zerbaitetan, oso estresagarria eta neketsua izan daiteke.

Jarduera eta denboralizazioa

1. fasea: jarduera irakurtzeko denbora. Norberak irakurtzea gomendatzen da, baina posible da ere lehen irakurketa taldean egitea, gero banakako denborari hasiera emanez.
2. fasea: jarraian dagoen galdetegia banatuko da, eta pertsona bakoitzari banaka erantzuteko eskatuko zaio, 12-15 minututan.
3. fasea: ondoren, elkarrizketa-gune bat irekiko da erantzunak partekatzeko, eta tarte bat utziko da ere ezarritako galderetatik kanpo irakurketari buruzko iruzkinak egiteko.

Gogoratzekoa

Taldeko elkarrizketa eskatzen duten jarduera-faseetarako, *ZeharGAIT jardueretan elkarrizketa egiteko eskainitako gomendioak* erabiltzea iradokitzen dugu (*ZeharGAIT Gomendioak*, 1. unitatea).



ZeharGAIT jarduera

Talde batean lan egingo dut. Zer egingo dut? (Markos)

Marcos astebete baino ez zebilen ostalaritza-eskolan, eta konturatu da modulu bakoiteko irakasleak taldeak sortu dituela datozen bost asteetan lan bat egiteko.


Oraindik bere klaseko hiruzpalau pertsona baino ez ditu ezagutzen, eta urduri samar dago nola egokituko den ikusteko. Ez du inoiz taldean lan egin. Enpresa gehienetan lantaldeak ohikoak direla jakin arren, ideiak beldur pixka bat ematen dio. Ez daki bere ikaskideekin maila emateko gai izango den, ezta elkar nola eramango duten ere. Gainera, bere lau kideetako bik lehenagotik ere ezagutzen zuten elkar, eta ez daki nola hartuko duten taldean. Ez du segurtasunik gabe jokatu nahi, baina ezta jakinarena egin ere.

Kezkatuta dago, taldeak ondo funtzionatzen ez badu agian ezingo duelako modulua gainditu. Dena nola joango den jakiteko irrikitan dago.

Erantzun galdera hauei

- Ulertzen dituzu Marcosen beldurrak?
- Bere taldekideei antzeko zerbait gertatuko zaiela uste duzu?
- Zure ustez, zer egin beharko luke Marcosek bere kideekin izandako lehen bileran, dena ondo atera dadin?
- Esperientzia txarrik izan al duzu talderen batean egindako lehen bileran?
- Eta esperientzia onik?





ZeharGAIT jarduera

Idoiak nota ona behar du

Erdi mailako ziklo bateko bigarren mailan dago Idoia. Lehen maila nahiko ondo eman zitzaion, eta pozik dago eskolan. Aurreko urtean talde-laneko bi esperientzia izan zituen, eta emaitzak oso bestelakoak izan ziren. Taldeetako batek oso ondo funtzionatu zuen eta bera oso gustura egon zen, bere onena eman. Oso kalifikazio altua lortu zuten. Beste taldea oso bestelakoa izan zen. Lau kideetatik erdiak, bi mutil oso lagunak, ez zuten ia parte hartu. Klasetik ez ziren ia agertzen eta ez zuten beren lanaren parte egin. Beste lankide batek eta berak dena egin behar izan zuten. Azkenean, irakasleak esku hartu zuen, eta pixka bat konpondu zen asuntua, egun batzuetako epea gehigarri bat eman baitzien. Egia da azkenean dena ondo entregatu ahal izan zutela, baina oso erreta bukatu zuen Idoiak; ikasgaiari uko egiteko zorian ere egon zen.

Orain, Idoiak oraingoan nolakoa izango den galdetu dio bere buruari, eta nahiko beldur dio ezagutzen ez duen talde baten mende egoteari. Kalifikazioak ere kezkatzen du, Lanbide Heziketako goi-mailako ziklo bat egin nahi duelako eta batez besteko nota altua behar duelako.

Galderak

- Nota altua lortu behar baduzu, Idoiak bezala, kezkatuko al zinateke talde-lana egin behar izanez gero?
- Nota alturik behar ez baduzu, baina taldeko kide batek baietz jakiten baduzu, kontuan hartuko zenuke nolabait? Nola?



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).

5.2. Taldearen arauak ezartzen diren etapa

Taldean bizitzaren etapa honetan, bigarrena Pallaresen sailkapenean, talde bateko partaideek taldearen funtzionamendua arautuko duten arauak definitzen dituzte. Lana nola garatuko duten eta harremanak izateko, planifikatzeko eta abarrerako moduari buruzko elkarriketa soil baten emaitza izan daitezke, edo dokumentu idatzi batean jaso daitezke, kide guztientzat, eta etorkizunean etorri daitezkeenentzat, taldearen jardura arautuko duten arauak argi uzteko.

Arau batzuk finkatzeko hausnarketa horretan, talde arrakastatsu askok gatazka-iturri posibleenak identifikatzeko ahalegina egiten dute, eta horiek konpontzeko moduak bilzen dituzte. Arau horiek egoteak taldearen kohesioa indartzen du, pertsonak jakin dezaten zer espero dezaket. Horrek, besteak beste, beldurrak eta balizko arazoak kudeatzen laguntzen du. Baina arauak finkatzeko prozesu hori ez da berez gertatzen; pertsonen ekimenak behar ditu.

ZeharGAIT jarduera Gemma eta Garazi kasuak, eta Guztien artean talde bat

Jardueren deskribapena

Hiru kasu desberdin aurkezten dira, guztiak aurrerago deskribatuko den denboralizazio-eskema berarekin lan egiteko.

- *Gemma hitza eskatzen du*: kasu hau erabil daiteke taldeko komunikazioaz hitz egiteko, taldean gauzak nola doazen ikusteko beharraz, arazoei buruz garbi hitz egitearen garrantziaz, lidergoaz, bai eta kide guztiek arau batzuk adostearen beharraz.
- *Garaziren kasuak*, berriz, talde bi alderatzen ditu. Adibide egokia izan daiteke taldearen arauak eratzeko prozesuari hasiera nola eman dakioken aurkezteko. Besteak beste ikusten dira pertsona-multzo eta benetako talde (edo ekipoen) artean dauden desberdintasunak.
- *Denon artean talde bat sortzen*. Kasu hau talde eraginkorrak nola antolatzen diren hobeto ulertzeko pentsatuta dago. Belbinen rolen metodologia ikusi aurreko sarrera ona izan daiteke kasu hau. Metodologia hori aurretik deskribatu da eta liburu honetan hari buruzko jardura gehigarri batzuk proposatzen dira. Ikasleek taldea eraginkorra izan dadin antolatze beharra ulertzen dutenean, errazagoa da Belbin metodoak (edo antzekoren batek) talde bati zein ekarpen egin diezaioken hautematea. Gakoa da uler dezatela antolakundearen beharra eta arazoei guztion artean heltzea.

Lan-eskema eta denboralizazioa

Testua banatu ondoren, jarduera hiru fase hauei jarraituz egingo da:

1. fasea: irakurketa

Kasuan kasuko testua arretaz irakurtzeko eskatzen zaie parte-hartzaileei. Irakurri egin behar dute, eta ondo ulertzen saiatu. Irakurri ondoren, aurkezten den kasuari buruz labur pentsatzeko eskatzen zaie (minutu bat edo bi).

2. fasea: galderei banaka erantzuten zaie

Ondoren, pertsona bakoitzak, banaka, kasuari buruzko galderak erantzun ditzala eskatzen da. Komeni da erantzunak hausnartzea, eta, behin zer esan nahi den jakinda, ahalik eta erantzunik zehatzena eta laburrena pentsatzea. Erantzun labur horiek idaztea gomendatzen da ere. Horri esker, eztabaida bizkorragoa eta emankorragoa izango da.


3. fasea: bateratzea

Koordinatzaileak galdera bakoitza irakurtzen du, eta parte-hartzaileek erantzun dutenari buruz hitz egiten dute. Erantzun guztiak entzun ondoren (esan nahi dena galdetuz edo argituz, baina baloratu eta epaitu gabe), parte-hartzaile guztien artean eztabaida ireki bat hasten da.

Itxiera

Azkenik, jarduera ixteko, bideratzaileak parte-hartzaile bakoitzari eskatzen dio paper batean idatz dezala bere ondorioa, ikasi duena edo bere beharren eta egoeraren arabera balio dion zerbait. Hau pertsonala da guztiz; parte-hartzaileetako bakoitzak bere buruarentzat idazten du. Bakoitzak kasu bakoitzetik eta ondorengo eztabaidatik ateratzen dena idatzi behar du (ez da berez ozen irakurtzen ez eta idatziz entregatzen). Gisa honetako idazki horien multzoek ikasitakoa osatzen dute, eguneroko bat balira bezala, eta islatzen dute pertsona bakoitzak egindako ZeharGAIT ariketetatik baliagarritzat jotzen duena.

Gogoratzekoa: bai taldearen tamainari dagokionez, bai taldeko elkarrizketa eskatzen duten jarduera-faseetarako, ZeharGAIT jardueretan elkarrizketa egiteko eskainitako gomendioak iradokitzen ditugu (ZeharGAIT Gomendioak, 1. unitatea).



ZeharGAIT jarduera

Gemmak hitza eskatzen du

Gemma neska argia eta azkarra da. Ikasturte honetan erronka bidezko irakaskuntza antolatu egin dute bere Lanbide Heziketa zentroan, eta erronka horiek aurrera eramateko ikasle taldeak antolatu dira. Erronketako baterako tokatu zaion lantaldea elkarrekin inoiz lan egin ez duten eta oraindik elkar ezagutzen duten bost neska-mutilek osatzen dute. Gauzak ez doaz gaizki; denak ari dira lanean eta nahiko ondo konpontzen dira, baina ez dira oso eraginkorrak. Denbora asko galtzen dute bileretan, erabakiak hartzeko zailtasunak dituzte, eta entregatzeko epeak ere ez dira ondo zehazteko gai; beraz, lauhilabetekoak aurrera egin heinean konturatzen ari dira entregatzeko epea gertu dagoela eta denboraz eskaz dabilzateela.

Gemma, egoera hori hasieratik ikusten zuena, egun batean taldera oldartu zen eta argi eta garbi hitz egin zuen taldearekin. Ez zegoen ziur lankideek nola erantzungo zuten, baina esan egin behar zuela sentitzen zuen. Eta honela ohartarazi zituen: hobeto antolatu egiten ez baziren, ezingo zuketena lana epean eta era egokian bukatu. Bere harridurarako, ikaskideek arrazoia eman zioten. Hari begira geratu ziren: zelan egingo dugu, Gemma? Eta honek zera proposatu zuen, bakoitzak adieraztea zer gauza edo alderdi ziren kezka gehien sortzen ziotenak. Erronda bat egin zuten, non denek arretaz entzuten zuten elkar, bai eta parte hartu ere. Hainbat gai atera ziren: denbora hobeto planifikatzeko beharra eta bakoitzaren lanak entregatzeko datak jartzea, erabakiak adosten jarraitzea zein ona izango litzatekeen, bakoitzak esleitzen zaion alderdiaz arduratu behar duela, eta abar.


Charlesek, beste taldekide batek, zera proposatu zuen: arau komunak ezartzea proposatu zuen. Elkarrizketa aldi oso konstruktibo baten ondoren, akordio batera iritsi ziren. Denak oso pozik geratu ziren, eta bileratik ateratzean, hainbatek Gemma zoriundu zuten bere ekimenagatik.

Galderak

- Gemmaren taldeak hasieran izandako zailtasun horiek, zein maiztasunekin esango zenuke gertatzen direla taldeetan (eraginkortasun gutxiko bilerak, erabakiak hartzeko zailtasunak, eroso sentitzen ez diren pertsonak, edo beste zailtasun batzuk)?
- Nahi izan ezker, zuk zeuk izandako esperientziaren bat parteka dezakezu.
- Zer iruditzen zaizu Gemmak egin zuena?
- Ikusten duzu egoera hori konpontzeko beste modurik?



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).



ZeharGAIT jarduera

Garazik talde bi alderatzen ditu

Sukalde Zuzendaritzako bigarren mailan, Garazik ia hilabete darama taldean lanean, oso erronka interesgarrian. Gogotsu hasi zen, baina geroz eta gehiago kostatzen zaio gogoia mantentzea. Taldekide bakoitza bere erara doala iruditzen zaio. Garazi saskibaloitza talde bateko kapitaina da eta lider izatera ohituta dago. Egun batean, saskibaloitza-partida baten ondoren pabiloitik irtetean, jabetzen da zein ondo sentitzen den. Asko kostatu zaie irabaztea, ia hogeita puntu galtzen ari ziren talde oso on baten aurka. Baina azken laurdenean jokalariek begietara begiratu diote elkarri eta konjuratu egin dira. Partida hori denek batera irabazi behar zuten. Elkarri lagundu diote, sufritu dute, azken indar-gramoraino ekin dute eta ahituta amaitu dute. Baina azken bi minutuetan irabaztea lortu dute. Oso garaipen landua izan da, aldi berean oso pozgarria, taldeak irabazi duelako.

Une horretan burura etorri zaio gero ostalaritza eskolako bere taldeko kide bati deitu behar diola, irakasleak eskatutako lanaren zati bat amaitzeko. Ezin du saihestu lan horretan pentsatzeak sortzen dion gogorik ezaren sentsazioa, eta, aldi berean, entrenamenduetara eta partidetara bere taldearekin joateak ematen dion poza alderatzea. Orduan jabetzen da gertatzen denaz. Saskibaloian, talde bateko kide da, ekipoa dira, eta talde horretan guztiek elkarrekin egiten dute lan, sufritzen eta borrokatzen dute. Erronkaren taldean, ordea, pertsona batzuk biltzen dira, baina ez dago benetako lankidetzarik, ezta elkarren arteko laguntzarik ere. Zentzu zorrotzean, ez dira talde bat.

Bere kideari deitu beharrean, taldeari mezu bat bidaltzea erabakitzen du. Skype bidezko bilera bat antolatu du, eta taldekideak aurrez-aurre dituela, kontatu die zer sentitzen duen. Bere saskibaloitza taldearekin zer bizi duen azaltzen die, guztien artean elkar-laguntzearen abantailak, helburua talde moduan lortzearen ere, baita kolektiboaren babesa sentitzearen sentsazio horrek bere burua zein zoriontsu egiten duen ere. Argi eta garbi dio erronkarako antolatu den taldean hori sentitzea gustatuko litzaiokeela eta bera saiatzeko prest dagoela. Beste bi pertsonak, Kepak eta Maialenek, kirol klubetan daude eta babesa ematen diote.


Astelehen goizean geratzea erabaki dute, beren taldea ekipo bihurtzeko zer egin adosteko. Berandu dabilta eta ez dira garaiz iristen klasera. Irakasleak arreta deitzen die atzerapenagatik. Azkenean, harengana hurbiltzen direnean arrazoia azaltzeko, irakasleak irribarre egiten die eta taldean lan egiteko aparteko puntu bat jarriko diela esaten die. Une horretatik aurrera, taldeak beste era batera funtzionatzen hasten da, eta lan-harremana eta harreman pertsonala askoz ere arinago bilakatzen da.

Galderak

- Saia zaituz Kepa eta Maialenen paperean jartzen: nola sentituko zinateke Garaziren mezua jasotzean?
- Azaldu zergatik uste duzun irakasleak aparteko puntu batekin saritu dituela?
- Zer iruditzen zaizu Garaziko ekimena? Eta zure kideen erreakzioa?



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).



ZeharGAIT jarduera

Denon artean talde bat sortzen

Garaziren taldeak klasean eskatu zitzairen lanean bikain bat lortu zuenean, ospatu egin zuten. Erronkan aurrera egin bitartean egon ziren zenbait pasadizo erreparasatu zizuten. Denak bat zetozen Garazik une estrategiko hartan bidalitako mezua, bai eta ondorengo Skype bilera hura ere bereziki garrantzitsuak izan zirela taldeak bizi izandako une guztien artean. Bere partetik, Garazik eskerrak eman zizkien errekonozimenduagatik, baina zera azpimarratu zuen ere, benetako talde bat bilakatzearen ideia berak eman bazuen ere, taldearen dinamikan aldaketa nabarmena ez zela bere proposamenetik etorri, baizik eta taldeko kideei rola esleitzetik. Horrek bai aldatu zuela taldearen dinamika. Horretan, Kepa izan zen ekarpen erabakigarria egin zuena, futbol talde batean jokatzeko baitu, eta aipatu zuen talde batean denek dakitela bakoitza zertaz arduratzen den. Berak gogorarazi zuen bere taldean denek dakitela atezainak, atzelariak, zentralak, aurrelariak eta abarrek zer egin behar duten. Pertsona jakin batzuei zereginak esleitzea oso modu eraginkorra da zeregin guztiak estalita daudela bermatzeko, bai eta zeregin bakoitzaren ardura duen norbait dagoela jakiteko. Horrek ez du esan nahi, baina, une jakin batean lankide bati lagundu behar ez zaionik, baina betiere jakinda zein den bakoitzak jokatzeko duen papera, zein den bakoitzaren ekarpena.

Bere izena entzutean, Kepak gaineratu zuen egia zela, baina Interneten bilatu eta behar zituzten profilak aurkitu zituen Maiaalen izan zela; Belbin delako baten rola erabiltzea iradoki zien. Oso balagarria izan zen bederatzi zeregin mota horiek zerrendatuta ikustea, azken finean talde batean norbaitek egin beharreko gauzei bat zetozelako. Egia esan, konturatu ziren bakoitzak ekarpen desberdinak egin zituela taldeak funtziona zezan.

Une horretan, Itziar, ia inoiz hitz egiten ez zuena, animatu zen esatera banaka egin ezkerro haletako batek ere ezingo zukeela burutu haiek taldean egindako lan handia. Ziurrenik horregatik, talde on bat beste edozein baino askoz osoagoa eta eraginkorragoa delako, enpresek taldean lan egin ohi dute. Egia esan, esperientzia hark begiak ireki zizkien beren bizitzarako eta etorkizun profesionalerako oso garrantzitsua zen zerbaitetan, ikasgairako ikasitako gauzetatik askoz haratago.

Galderak

- Taldean lan egitea garrantzitsua dela iruditzen zaizu?
- Zer alderdi azpimarratuko zenituzke Garazik, Kepak eta Itziarrek aipatu dutenaren inguruan? Zein? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua?
- Taldean lan egitea erraza dela uste duzu, mundu guztiak dakiela egiten? Edo ondo egiteko ezagutzak eta praktika, esperientziak, beharrezkoak direla uste duzu?



5.3. Taldeetan gatazkak konpontzeko etapa

Giza ingurune guztietan, pertsona-taldeak egon ala ez, gatazkak sortzen dira. Beste unitate batean, izatez, pertsonen artean sortzen diren gatazkak eta horiek prebenitzeko, kudeatzeko edo konpontzeko aukerak aztertuko ditugu (5. Unitatea).

Nolanahi ere, kontuan izan behar da talde bat finkatzeko prozesuetan ohikoagoak direla beste ingurune batzuetan baino, parte hartzen dutenen artean sortzen eta egonkortzen ari den elkarrekintza eta erlazio bereziagatik.

Talde batean ohikoa da hasieratik tentsioak edo gatazkak egotea. Batzuetan ezabatu egiten dira edo ez dira aintzat hartzen, beste batzuetan behin-behinean konpontzen dira, baina taldea sendotzen joan denean, dena ondo badoa, azkenean komunikazioa irekiagoa eta zuzenagoa den une bat iritsiko da. Kohesioak sor daitezkeen arazoei erantzun egokiagoa ematea ahalbidetzen du. Gatazka horiek hainbat motatakoak izan daitezke, eta hainbat arazoirengatik izan daitezke, hori da hurrengo jardueretan aztergai.

ZeharGAIT jarduera Gatazken etapa taldeetan: entrenatzaile berriaren lehen eguna

Jardueraren deskribapena

Kasu honek taldeetako gatazkei buruz hitz egiten hasteko balio du. Gatazkak saihestezinak dira, baina oso modu desberdinetan kudeatu eta aurre egin dakieke. Kasu honetan ere taldearen dinamika hasieratik ondo hastearen garrantzia nabarmentzen da, horrela ez bada, gero dena askoz zailagoa bihurtzen baita.

Lan-eskema eta denboralizazioa

Testua banatu ondoren, jarduera hiru fase hauei jarraituz egingo da:

1. fasea: irakurketa

Kasuan kasuko testua arretaz irakurtzeko eskatzen zaie parte-hartzaileei. Irakurri egin behar dute, eta ondo ulertzen saiatu. Irakurri ondoren, aurkeztzen den kasuari buruz labur pentsatzeko eskatzen zaie (minutu bat edo bi).

2. fasea: galderei banaka erantzun ematea

Ondoren, pertsona bakoitzak, banaka, kasuari buruzko galderak erantzun ditzala eskatzen da. Komeni da erantzunak hausnartzea, eta, behin zer esan nahi den jakinda, ahalik eta erantzunik zehatzena eta laburrena pentsatzea. Labur idaztea komeni da ere. Horrek erraztuko du ondorengo eztabaida arina eta emankorra izatea.

3. fasea: bateratzea

Taldearen barruan pertsona bat aukeratzen da elkarrizketaren koordinatzaile. Galdera bakoitza irakurtzen du eta parte-hartzaileek erantzun dutena komentatzen dute. Erantzun guztiak entzun ondoren (esan nahi dena galdetuz edo argituz, baina baloratu eta epaitu gabe), parte-hartzaile guztien artean eztabaida ireki bat hasten da.

Azkenik, jarduera ixteko, bideratzaileak parte-hartzaile bakoitzari eskatzen dio paper batean idatz dezala bere ondorioa, ikasi duena edo bere beharren eta egoeraren arabera balio dion zerbait. Hau pertsonala da guztiz; parte-hartzaileetako bakoitzak bere buruarentzat idazten du. Bakoitzak kasu bakoitzetik eta ondorengo eztabaidatik ateratzen dena idatzi behar du (ez da berez ozen irakurtzen ez eta idatziz entregatzen). Gisa honetako idazki horien multzoek ikasitakoa osatzen dute, eguneroko bat balira bezala, eta islatzen dute pertsona bakoitzak egindako ZeharGAIT ariketetatik baliagarritzat jotzen duena.

Gogoratzekoa

Taldearen neurriari dagokionean eta taldeko elkarrizketa eskatzen duten jarduerara-faseetarako, *ZeharGAIT jardueretan elkarrizketa egiteko eskainitako gomendioak* erabiltzea iradokitzen dugu (ZeharGAIT Gomendioak, 1. unitatea).



ZeharGAIT jarduera

Entrenatzaile berriaren lehen eguna

Pat Riley entrenatzaileak NBAko Los Angeles Lakers talde txapelduna utzi eta New York Knicksera joan zenean, bere buruarekin borrokan zegoen talde batekin egin zuen topo. Taldearen kohesioa ahulduta zegoen eta jokalariek bakarka edo talde txikitan funtzionatzen zuten. Riley entrenatzaileak orduan, jokalariekin lehen bilera antolatu zuen. Bilera-aretoa heltzean, jokalariek zera topatu zuten, Rileyk alde aurretik gela hartan zenbait aulki-talde txiki kokatuta utzi zituela, jokalarien adiskidetasun-taldeak ordezkatzeko zituztenak.

Jokalari bakoitzari eskatu zion aulki jakin bat betetzea, eta, ondoren, gelako inguru ondo begiratzeko eskatu zien. Talde zatitu batek, esan zuen orduan, ezin du irabazi. Eta hamabost minutuz bakarrik utzi zituen, euren aukerak kontuan har zituzten.

Riley entrenatzailea itzuli zenean, jokalariek aretoa berrantolatu zuten, eta aulkiekin zirkuluerdi bat osatu zuten, entrenatzailearentzat aulki bat aparte utziz. Bilera bakar batekin, entrenatzaileak jokalarien kultura aldatu zuen, «nia» zentruan zuten kultura batetik «gua»-ren kulturaranzko bidea hartu zuten, eta taldearen kohesioa eta pentsamolde irabazlea eraikitzeko prozesua hasi zuen (Riley, 1993).

Iturria: Beswick, B. *Fútbol. Entrenamiento de la fuerza mental*. Madril, Ediciones Tutor, 2010, 175 or.

Galderak

- Zure ustez, zerk bultzatu zituen jokalariak aulkiak tokiz aldatzera?
- Zergatik ez zituen entrenatzaileak aulkiak zirkuluerdian jarri zuzenean?
- Testuan islatu den istorioaren antzekorik ezagutzen al duzu?



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).

ZeharGAIT jarduera Gatazkak taldeetan (konpromiso falta): beste istorio bat Unairentzat

Jardueraren deskribapena

Kasu honek ekipoetan sortzen diren arazo ohikoenetako bati buruz eztabaidatzeko balio du: norbaitek berarekin konpromisorik hartzen ez duenean eta multzo osoaren emaitza arriskuan jartzen duenean. Era berean, hori nola konpon daitekeen eta talde bat arriskuan jartzen duenarengandik nola defenda daitekeen ere hitz egin daiteke.

Lan-eskema eta denboralizazioa

Testua banatu ondoren, jarduera hiru fase hauei jarraituz egingo da:

1. fasea: irakurketa

Kasuan kasuko testua arretaz irakurtzeko eskatzen zaie parte-hartzaileei. Irakurri egin behar dute, eta ondo ulertzen saiatu. Irakurri ondoren, aurkezten den kasuari buruz labur pentsatzeko eskatzen zaie (minutu bat edo bi).

2. fasea: galderei banaka erantzuten zaie

Ondoren, pertsona bakoitzak, banaka, kasuari buruzko galderak erantzun ditzala eskatzen da. Komeni da erantzunak hausnartzea, eta, behin zer esan nahi den jakinda, ahalik eta erantzunik zehatzena eta laburrena pentsatzea. Idaztea lagungarri izan daiteke. Horrek erraztuko du ondorengo eztabaida arina eta emankorra izatea.


3. fasea: bateratzea

Taldearen barruan pertsona bat aukeratzen da elkarrizketaren koordinatzaile. Galdera bakoitza irakurtzen du eta parte-hartzaileek erantzun dutena komentatzen dute. Erantzun guztiak entzun ondoren (esan nahi dena galdetuz edo argituz, baina baloratu eta epaitu gabe), parte-hartzaile guztien artean eztabaida ireki bat hasten da.

Azkenik, jarduera ixteko, bideratzaileak parte-hartzaile bakoitzari eskatzen dio paper batean idatz dezala bere ondorioa, ikasi duena edo bere beharren eta egoeraren arabera balio dion zerbait. Hau pertsonala da guztiz; parte-hartzaileetako bakoitzak bere burua-arentzat idazten du. Bakoitzak kasu bakoitzetik eta ondorengo eztabaidatik ateratzen dena idatzi behar du (ez da berez ozen irakurtzen ez eta idatziz entregatzen). Gisa honetako idazki horien multzoek ikasitakoa osatzen dute, eguneroko bat balira bezala, eta islatzen dute pertsona bakoitzak egindako ZeharGAIT ariketetatik baliagarritzat jotzen duena.

Gogoratzekoa

Taldeko elkarrizketa eskatzen duten jarduera-faseetarako, *ZeharGAIT jardueretan elkarrizketa egiteko eskainitako gomendioak* erabiltzea iradokitzen dugu (ZeharGAIT Gomendioak, 1. unitatea).



ZeharGAIT jarduera

Beste istorio bat Unairentzat (bi aste geroago)³

Ostiral gauean Unai etxean geratu zen. Gaur ez al zara aterako? Galdetu zion amak. Ez, ez dut gogorik, utz nazazu. Eta bere musikan murgildu zen berriro. Baina amak ez du erraz amore ematen, eta esan zion argi zegoela zerbait gertatzen zitzaioela. Kontatu nahi izatekotan, bera prest egongo zen egongelan. Hobeto pentsatuta, Unai bapatean hau askatu zuen:

- Errua aitarena da. Eta otsoen beren txorakeriez. Gora tigreak! –amak ez zuen ezer ulertzen eta begiak zabal-zabalik zituen, harriduraz. Une hartan, aita sartu zen etxean.
- Nork egin du tigreen oihurik?
- Nik! –erantzun zuen Unai. Eta berriro esango dut: *Tigreak bizi! Otsoei eman diezaietela.*

Aitak hamabost egun lehenago kontatu zion istorioa gogoratu zuen. *Ikusten dut, esan zuen.*

- Eta ez etorri zure otsoen istorioekin. Gogoz entzungo nuke istoria bat kontatzen duena zer egin zure taldean ezer egiten ez duten pertsona bi daudenean, gainera lana zuk zeuk egiten duzunean samintzen zaizkizunak. Hori baliagarria izango litzateke, baina halako istoriarik ez badakizu, nahiago dut bakean uztea.
- Seme, galdera bakarra egingo dizut: otsoak idiotak direla uste al duzu? –Unai benetan harrituta geratu zen. Ez zuen aitaren erantzunik espero, kargara itzultzen baitzen–.
- Milaka urte daramatzagu gizakiok otsoak miresten eta haienganako beldurra izaten, beren adimen eta kemenagatik –jarraitu zuen aitak–. Benetan uste duzu beren taldean alferrak babestuko zituztela? Edo beste era batera esanda, uste duzu beren artean halakorik toleratuko balute bizirik iraungo zuketela? Eseri zaitez nirekin.

Eta Unai eseri egin zen, etsita, bazekielako beste istorio bat entzutear zegoela. Beste istorio bat, Buff..

- Ez da istorio berria, lehengo egunekoaren amaiera da. Otso adintsua bere taldearengana itzuli zenean, tentsioa sentitu zuen giroan. Otso guztiak apur bat aztoratuta zeuden; etengabeko kurrinka eta borroka txikiak entzuten ziren. Otso-eme nagusiak, taldearen buruak, arazoa aztertzeke eta konpontzeke kontseilua bildu behar zela ulertu zuen, gauzak lehertu baino lehen. Otso heldu guztiak bildu ziren. Nagusiak argi hitz egin zien. Azken egunotan, esan zuen ozenki eta irmo, gero eta tentsio handiagoa dago. Taldearen harmonia hautsi da eta hori oso txarra da. Denok dakigu gure indarra guztion batasuna dela. Hori galduz gero, ez gara negutik bizirik aterako. Badakigu, ezta?

² Egilea: Igor Filibi.



Otso gehienek baiezkoa egin zuten isilik, nahiz eta bizpahiru otsok burua makur eta begirada iheskorra eduki. Otso adintsua ohartu zen hiru otso hauen jarreraz, bi gazte eta bat adintsuagoa, Ile Beltza, aspalditik mingostuta zegoena, baina isilik geratu zen.

Otso-eme nagusiak denei galdetu zien ea inork ba ote zekien gertatzen ari zenaren arrazoa. Inork ez zuen hitz egiten; beraz, kapitainari galdetu zion, ehiza-estrategiak ondoen diseinatzen zituenari. Kapitaina, zer esan diezadakezu? Ezer ez, nagusi. Ez dut taldekiderik kritikatu nahi, ez nintzateke leiala izango. Ikusten dut, esan zuen nagusiak, eta zu, arakatzaillea? Zerbait esateko?

Arazo bat dagoela uste dut, nagusi andrea, baina ez nazazu mesedez hori esatera behartu. Ez naiz txibatoa. Ondo dago, esan zuen otso-eme nagusiak, norbaitek zerbait esango du? Inork ez zuela hitz egingo ikustean, galdera hau egin zuen: Nork uste du arazo bat dagoela? Denek baietz esan zuten. Eta nork uste du arazoari aurre egin behar diogula? Edo norbaitek uste du hobe dela horrela egoten uztea eta zer gertatzen den ikustea? Uste duzue hitz egiten ez badugu gauzak hobera edo okerrera egingo duela? Banan-banan guztiei begiratu zien aurpegira, eta erantzutera behartuta sentitu ziren. «Okerrera egingo du», aitortu zuten denek.

Otso-emeak, orduan, keinu serioarekin, esan zien arazo bat badela jakiten denean, hari aurre ez egiteak taldearen batasuna eta eraginkortasuna arriskuan jar ditzakeela; oso erabaki arduragabea dela. Inork hitz egin nahi ez badu ere, nagusia liderra da soilik baldin eta erabaki zailak hartzeko prest badago.


Ez da beharrezkoa inork ezer esatea, esan zuen otso-emeak. Nik badakit Ile Beltzak denbora luzea daramala taldean duen parte-hartzea gutxitzen, bere betebeharretatik ihesi. Eta hainbat ehizalditan huts egin dugula bera adi ez zegoelako. Taldean isiltasun handia zegoen; Ile Beltza bakarrik irauli zen bere lekuan, haserre. Zerbait esatera zihoan, baina Otso-eme handiak lehorrean moztu zuen eta haren begietara begira hitz egiten jarraitu zuen. Dena den, Ile Beltza, gaitzena ez da soilik azken asteetan gutxi jan izana; okerrera eta iragazgaitzena da zure bide egoistatik beste gazte batzuk arrastaka daramatzazula. Zure antzera, horiek ere arduragabekeriaz jokaten hasi dira. Nire erabakia da zu, Ile Beltza, taldetik kanporatzea. Gure lurraldean berriz ikusten bazaitut, etsai bat bezala hilko zaitugu, zeren etsai batek bezala, taldearen biziraupena arriskuan jarri duzula. Zoaz orain.

Ile Beltzak zerbait esateko keinua egin zuen, baina hobeto pentsatu eta mendirantz korrika egin zuen. Bi gazte matxinoak ikaratuta zeuden. Ez zuten susmatzen egin zutenaren larritasuna, eta ez ziren jabetzen taldearen biziraupena arriskuan jarri zutela. Ikaratuta zeuden, damututa bezain beldurtuta. Otso-eme Nagusiak damua nabaritu zuen, baina, hala ere, gogorra izan zen haiekin, abisu serioa eman nahi baitzien. Ez al zaizue azaldu zeinen garrantzitsua den elkartuta egotea, elkar babestea, arduratsuak izatea eta beharrezko daudenak zaintzea? Gutako bakoitzak horrela egiten ez badu, taldea desagertuko da eta gu guztiok hilko gara. Ikusi duzue zer gertatzen den norbaitek taldea arriskuan jartzen duenean. Zuen jokabidea errepikatzen baduzue, gauza bera gertatuko zaizue: taldetik kanporatuko zaituztegu eta zuen kasa geratuko zarete.

Unaik aitari esan zion ulertu zuela: Arazoei aurre egin behar zaie; salbagarriak diren taldekideei ohartarazi behar zaie eta, ahal den heinean, erreskatatu behar dira. Eta taldera itzuli ezin direnekiko erabaki gogorrak hartu behar dira taldea salbatzeko.

Aitak irribarre egin zuen eta esan zion: ulertu duzula ikusten dut.





ZeharGAIT jarduera

Beste istorio bat Unairentzat (2. dokumentua)

Erantzun, mesedez, galdera hauei. Gero, ikaskideekin batera jarriko dira.

Inoiz egin al duzu lan talde batean eta norbaitek bere betebeharrak alde batera utzi ditu edo ez ditu bere konpromisoak bete? Zer egin zuen taldeak? Arazoa konpondu al zen?

Etorkizunean, talde batean lanean ari zarenean, norbaitek konpromiso gutxirekin jokutzen badu, zer uste duzu egin beharko lukeela taldeak? Eta inork ez badu ematen arazoari aurre egiteko lehen urratsa, zuk zerbait egingo zenuke?

Zer iruditzen zaizu norbaitek arazoa mahai gainean jarri nahi ez izatea, ikaskide zintzoena izango ez litzatekeela argudiatuz, edo txibato baten antzera jokatzeari izango litzatekeela?



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).

5.4. Taldeen bizitzaren azken etapa

Talde guztiek, eta bereziki prestakuntza-zentroetan sortzen direnek, bizitza mugatua dute. Taldearen amaiera etapa bat da berez, eta, bertan, kontuan hartzea merezi duten portaera desberdinak gerta daitezke. Hori da hurrengo jardueraren testuingurua.

ZeharGAIT jarduera Amaitzen jakitea: amaiera-puntua ala puntu eta aparte?

Jardueraren deskribapena

Kasu honetan, lantaldeen beharrezko amaierari heltzen zaio. Une horretan, emaitzak eta barne-funtzionamendua ez ezik, sortu diren harreman pertsonalak ere ebaluatzeko aukera sortzen da.

Lan-eskema eta denboralizazioa

Testua banatu ondoren, jarduera hiru fase hauei jarraituz egingo da:

1. fasea: irakurketa

Kasuan kasuko testua arretaz irakurtzeko eskatzen zaie parte-hartzaileei. Irakurri egin behar dute, eta ondo ulertzen saiatu. Irakurri ondoren, aurkezten den kasuari buruz labur pentsatzeko eskatzen zaie (minutu bat edo bi).

2. fasea: galderei banaka erantzuten zaie

Ondoren, pertsona bakoitzak, banaka, kasuari buruzko galderak erantzun ditzala eskatzen da. Komeni da erantzunak hausnartzea, eta, behin zer esan nahi den jakinda, ahalik eta erantzunik zehatzena eta laburrena pentsatzea. Idaztea lagungarri izan daiteke. Horrek erraztuko du ondorengo eztabaida arina eta emankorra izatea.


3. fasea: bateratzea

Taldearen barruan pertsona bat aukeratzen da elkarrizketaren koordinatzaile. Galdera bakoitza irakurtzen du eta parte-hartzaileek erantzun dutena komentatzen dute. Erantzun guztiak entzun ondoren (esan nahi dena galdetuz edo argituz, baina baloratu eta epaitu gabe), parte-hartzaile guztien artean eztabaida ireki bat hasten da.

Azkenik, jarduera ixteko, bideratzaileak parte-hartzaile bakoitzari eskatzen dio paper batean idatz dezala bere ondorioa, ikasi duena edo bere beharren eta egoeraren arabera balio dion zerbaite. Hau pertsonala da guztiz; parte-hartzaileetako bakoitzak bere buruarentzat idazten du. Bakoitzak kasu bakoitzetik eta ondorengo eztabaidatik ateratzen dena idatzi behar du (ez da berez ozen irakurtzen ez eta idatziz entregatzen). Gisa honetako idazki horien multzoek ikasitakoa osatzen dute, eguneroko bat balira bezala, eta islatzen dute pertsona bakoitzak egindako ZeharGAIT ariketetatik baliagarritzat jotzen duena.

Gogoratzekoa

Taldeko elkarrizketa eskatzen duten jarduera-faseetarako, *ZeharGAIT* jardueretan *elkarrizketa egiteko eskainitako gomendioak* erabiltzea iradokitzen dugu (*ZeharGAIT* Gomendioak, 1. unitatea).



ZeharGAIT jarduera

Amaitzen jakitea: amaiera-puntua ala puntu eta aparte?

Eskola-aldia amaitu eta lan-zentroetako praktiketara joan zirenean, guztiei pena eman zien taldea haustek. Denak ados zeuden taldean oso ondo funtzionatu zutela esatearekin. Ikasturteko bizipen batzuk gogorarazi ondoren, Maialen jaiki egin zen, eta esan zuen ikasturtea amaitu zela, eta, beraz, taldea ere bai, baina horrek ez zuela esan nahi beren burua ikusteari edo geratzeari utzi beharko lioketeenik. Ikasgelako jarduera izan zena lankidetzeta-harreman ona bihurtu zen, baita adiskidetasun-harreman ona ere. Taldearen giro onak elkar ezagutzeko eta hautemateko aukera eman zien.

Ez zegoen arrazoirik harreman hori etorkizunean ez mantentzeko. Garazik, berriz, esan zuen hori lehenago gertatu zitzaioela, beste saskibaloi-talde batekin, kadeteetan egon zenean. Esan zuenez, noizean behin biltzen ziren, eta oso atsegina zen. Horrek indartu egin zituen, inork ez baitzuen galdu nahi ikasturteko hilabeteetan zehar ahalegin handiz eraiki izandako taldea.

Galderak

- Gogoan al duzu nolakoa izan zen iraganean izan zenuen lantalderen baten amaiera?
- Agur esateko prozesua ondo egin zenutela uste duzu? Beste modu batera izatea gustatuko litzaizuke?
- Ikaskide ohiekin harremanetan jartzen zara? Zure ustez, harremana aldatu egin da denborarekin?



III Atala

Lidergoa taldeetan



6. Lidergoa taldeetan

Hainbat lider mota daude. Lider-mota klasikoa hierarkian oinarritzen da bere irizpidea inposatzeko eta lana egiteko. Lider-profil horrek lantalde bat kudea dezake, baina ez du ekiporik sortzen: pertsonak zeregin bat egiteko bakarrik biltzen ditu, besterik ez. Mota horretako liderraren aldagai tipiko bat ere badago: buru autoritarioa edo despotikoa.

ZeharGAIT: jarduera

Buru autoritarioa. Matxinada ontzian

Irakasleentzako alde aurreko oharra: bideratzaileak edo parte-hartzaileetako batek testua ozen irakurtzea gomendatzen da. Nolanahi ere, deskargatzeko eta inprimatzeko dokumentua prestatu da ere, parte-hartzaile guztiei kopia eman nahi zaien kasurako.

Lidergo autoritario mota horren adibide bat *Rebelión a bordo* filmean (*Mutiny on the Bounty*, Lewis Milestone, 1962) agertzen den itsasontziko kapitaina izan liteke, Nordhof eta James Hallek idatzitako eleberrian oinarritua.

Istoria Portsmuthen hasten da 1787ko abenduan, HMS Bounty itsasontziak Tahitirantz zarpa egiten duen unean. Landare batzuk eta ogiaren zuhaitza jasotzeko asmoz doaz, bai eta Jamaikan birlandatzeko. Landare horiek kolonia britainiarreko eskla-boentzako elikagai izatea da helburua. Misioa garrantzi estrategiko handikoa da, eta Bligh kapitainari agintzen zaio, gizon zorrotz eta autoritario bati.

Bligh kapitainak hasieratik argi uzten du bere helburu bakarra misioa betetzea dela, prezioa edozein dela ere. Hori ikusten da Fletcher Christian ofizialari (Marlon Brando) itsasontzia Hornos Lurmuturreko ur arriskutsuetarantz zuzentzeko agintzen zaionean, ohiko ibilbideari jarraitu beharrean, Hego Afrikan dagoen Itxaropen Onaren Lurmuturra inguratuz. Tripulazioa eta ofizialak ez datoz bat erabakiarekin, baina Blighek bere irizpidea ezartzen du. Egoki ikusten du bere aginduak betetzen ez dituztenak gogorki zigortzea, baita krudeltasunez ere.

Ibilbide berria laburragoa izan arren, ekaitzek Bounty-aren bidaia atzeratzen dute, eta Tahitira iristen direnean, ogi-zuhaitzak ez daude lekualdatzeko prest. Horrek uhar-tean hilabete batzuk itxarotera behartzen ditu. Paradisu bat da, eta asteetan gizon guztiak, tripulatzaileak eta ofizialak, irlako liluragarrietan murgiltzen dira. Guztiak, Bligh kapitaina izan ezik.

Karga osoarekin berriz itsasoratzeko momentua helduta, berriro ere sortuko dira Tahitirako hasierako bidaian sortu izan ziren arazo berdinak, kapitainak bere gizonak oso zorrotz tratatzen dituelako. Une giltzarri bat dago, baina. Une jakin batean, eskifaiako kide bat nekatuta dago, eta Christian ofiziala, langile hori horrela ikustean, errukitu egiten da, harengana hurbildu eta ur-sorbo bat ematen dio. Ekintza hori Bligh kapitainak erabat debekatzen duen gauzetako bat da; ura rasionatu du, bidaian landareei urik faltako ez zaiela faltarik ziurtatzeko. Hori horrela, Bligh kapitainak Christian ur-ontziarekin ikusten duenean, eskuetatik kenduko dio. Eskifaia osoak eszena ikusten du. Christian kapitainarekin nazkatuta dago, eskifaiako kide guztiak bezala, eta matxinatu egiten da; Blighi ezpata ateratzeko eskatzen dio. Kapitainak matxinatutako ofiziala atxilotzeko agindua ematen du orduan, baina eskifaia ia ia osoak ofizialaren aldeko jarrera adierazten du. Bligh hil nahi dute, bere zigorreatatik eta tratu ankerra-

gatik mendeku gisa, baina kapitain berriak eragotzi egiten du, eta, itsasoaren erdian, Bligh txalupa batean uzten du, harekin egon nahi zuten marinel gutxi batzuekin. Itsasontzia urruntzen den bitartean, ontziko eskifaiak ogi-landare guztiak botako dituzte bordatik, jubiloizko oihuen artean.

Tripulazioa ankerkeria kapitaina baztertu du, baina horrekin ez da diziiplina desagertzen. Kapitain berriak, ordura arte Bligh-en itzalpean zegoenak, erabaki zailak hartu beharko ditu orain. Kapitainak bere gizona esaten die Ingalaterrara itzuli behar dutela edo legegabeak bezala hartuko dituztela, edozein unetan harrapatuak izareko beldurrez. Baina eskifaia gehienek geratu nahi dute; are gehiago, talde batek itsasontziari su eman ere emango dio, Ingalaterrara itzul ez dadin. Suak Christian harrapatu zuen eta erredura larriak sortu zizkion; izatez, handik gutxira hilgo da eta ontzia, berriz, ondoratu. Hil aurreko azken hitzak beren gizonentzat gorde zituen; beren arteko desberdintasunak konpondu eta bakean bizi daitezela esango die.

Hori guztia gertatzen den bitartean, Bligh kapitainak eta gizon fededun gutxi batzuek balentria bat egiten dute eta Ingalaterrara itzultzea lortzen dute. Gerra-kontseilua egingo diote Bligh kapitainari, ontzia galdu duelako. Errugabetzat hartuko badute ere, epaileak botere-abusua leporatuko dio, eta mendekoak behar bezala tratatzeko betebeharra gogorarazi.


Irakasleentzako oharra

Puntu honetan, testuaren irakurketa gelditu eta hausnarketa labur bat egin daiteke taldean (egokiena litzateke parte-hartzaileek filma ikusteko aukera izatea, edo, gutxienez, zatiren bat, baina lidergo-eredua irakurketatik soilik uler daiteke).

Aztertu ondoren, jarduera hori amaitutzat eman daiteke, edo, ondoren, erkatuta aztertu, hurrengo jarduerarekin batera.

Galderak

- Zer alderdik eman dizue atentziorik handiena kasu honetan?
- Zer aldatzen da itsasontzian matxinadaren ondoren?
- Zer ez da aldatzen?
- Bligh kapitain ona al da? Nola baloratzen duzu Bligh-en balentria, Ingalaterrara itzuli ahal izateko txalupa txiki bat bakarrik edukita?



ZeharGAIT jarduera

Matxinada ontzian (1)

Istoria Portsmuthen hasten da 1787ko abenduan, HMS Bounty itsasontziak Tahitirantz zarpa egiten duen unean. Landare batzuk eta ogiaren zuhaitza jasotzeko asmoz doaz, bai eta Jamaikan birlantatzeko. Landare horiek kolonia britainiarreko esklaboentzako elikagai izatea da helburua. Misioa garrantzi estrategiko handikoa da, eta Bligh kapitainari agintzen zaio, gizon zorrotz eta autoritario bati.

Bligh kapitainak hasieratik argi uzten du bere helburu bakarra misioa betetzea dela, prezioa edozein dela ere. Hori ikusten da Fletcher Christian ofizialari (Marlon Brando) itsasontzia Hornos Lurmuturreko ur arriskutsuetarantz zuzentzeko agintzen zaionean, ohiko ibilbideari jarraitu beharrean, Hego Afrikan dagoen Itxaropen Onaren Lurmuturra inguratuz. Tripulazioa eta ofizialak ez datoz bat erabakiarekin, baina Bligh bere irizpidea ezartzen du. Egoki ikusten du bere aginduak betetzen ez dituztenak gogorki zigortzea, baita krudeltasunez ere.

Ibilbide berria laburragoa izan arren, ekaitzek Bounty-aren bidaia atzeratzen dute, eta Tahitira iristen direnean, ogi-zuhaitzak ez daude lekualdatzeko prest. Horrek uharrean hilabete batzuk itxarotera behartzen ditu. Paradisu bat da, eta asteetan gizon guztiak, tripulatzaileak eta ofizialak, irlako liluragarrietan murgiltzen dira. Guztiak, Bligh kapitaina izan ezik.

Karga osoarekin berriz itsasoratzeko momentua helduta, berriro ere sortuko dira Tahitirako hasierako bidaian sortu izan ziren arazo berdinak, kapitainak bere gizonak oso zorrotz tratatzen dituelako. Une giltzarri bat dago, baina. Une jakin batean, eskifaiako kide bat nekatuta dago, eta Christian ofiziala, langile hori horrela ikustean, errukitu egiten da, harengana hurbildu eta ur-sorbo bat ematen dio. Ekintza hori Bligh kapitainak erabat debekatzen duen gauzetako bat da; ura razionatu du, bidaian landareei urrik faltako ez zaiela faltarik ziurtatzeko. Hori horrela, Bligh kapitainak Christian ur-ontziarekin ikusten duenean, eskuetatik kenduko dio. Eskifaia osoak eszena ikusten du. Christian kapitainarekin nazkatuta dago, eskifaiako kide guztiak bezala, eta matxinatu egiten da; Blighi ezpata ateratzeko eskatzen dio. Kapitainak matxinatutako ofiziala atxilotzeko agindua ematen du orduan, baina eskifaia ia ia osoak ofizialaren aldeko jarrera adierazten du. Bligh hil nahi dute, bere zigorreatatik eta tratu ankerragatik mendeku gisa, baina kapitain berriak eragotzi egiten du, eta, itsasoaren erdian, Bligh txalupa batean uzten du, harekin egon nahi zuten marinel gutxi batzuekin. Itsasontzia urruntzen den bitartean, ontziko eskifaiak ogi-landare guztiak botako dituzte bordatik, jubiloizko oihuen artean.

Tripulazioa ankerkeria kapitaina baztertu du, baina horrekin ez da diziplina desagertzen. Kapitain berriak, ordura arte Bligh-en itzalpean zegoenak, erabaki zailak hartu beharko ditu orain. Kapitainak bere gizonen esaten die Ingalaterrara itzuli behar dutela edo legegabeak bezala hartuko dituztela, edozein unetan harrapatuak izareko beldu-



rrez. Baina eskifaia gehienek geratu nahi dute; are gehiago, talde batek itsasontziari su eman ere emango dio, Ingalaterrara itzul ez dadin. Suak Christian harrapatu zuen eta erredura larriak sortu zizkion; izatez, handik gutxira hilgo da eta ontzia, berriz, ondoratu. Hil aurreko azken hitzak beren gizonentzat gorde zituen; beren arteko desberdintasunak konpondu eta bakean bizi daitezela esango die.


Hori guztia gertatzen den bitartean, Bligh kapitainak eta gizon fededun gutxi batzuek balentria bat egiten dute eta Ingalaterrara itzultzea lortzen dute. Gerra-kontseilua egingo diote Bligh kapitainari, ontzia galdu duelako. Errugabetzat hartuko badute ere, epaileak botere-abusua leporatuko dio, eta mendekoak behar bezala tratatzeko betebeharra gogorarazi.

Galdera hauei erantzuna eman

- Zer alderdik eman dizue atentziorik handiena kasu honetan?
- Zer aldatzen da itsasontzian matxinadaren ondoren?
- Zer ez da aldatzen?
- Bligh kapitain ona al da? Nola baloratzen duzu Bligh-en balentria, Ingalaterrara itzuli ahal izateko txalupa txiki bat bakarrik edukita?



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).



ZeharGAIT jarduera

Matxinada ontzian (eta 2)

Jarraian, kasu honi buruz argitaratu zen hausnarketa bat irakurriko dugu, Campuzano-k idatzia, eta bere esanak guk geuk aurreko ariketan atera ditugun ondorioekin alderatuko ditugu

«Kontakizun honek erakunde bat aurkezten digu, helburu batzuk bilatzen dituen etaboterea duen nagusi batek gidatuta izugarrizko porrota izango duena. Zergatik? Besteak beste, William Bligh kapitainak lidergoaren zentzurik ez izateagatik.

Aldi berean, tripulazioak Fletcher Christiani aitormen berezia egingo dio. Aintzatespen horrek berak boterea egikaritzea posible egingo du, hautatutako buru gisa; izatez bere agintearen jatorria taldearen onarpena bera izango baita, onarpen hori helburu kolektiboari egindako ekarpenarengatik eta bere gaitasun pertsonalarengatik datorrela. Christianek bere tripulazioarekin duen harremana hurbilekoa, demokratikoa eta eragin pertsonalekoa izango da: lidergo-harremana da.

Buruzagitzak bermatzen du liderrek jarraitzaileen ekintzak menderatu edo zuzenduko dituztela, zeren, printzipioz, jarraitzaileek men egiten ez badute buruek zigortzeko ahalmena baitute. Baina jarraitzaileak ez dira buruzagi-mota horrekin leialki lankidetzan arituko, behintzat lidergo-ezaugarri berriak ez badituzte. Aginduak modu mekanikoan betetzera mugatuko dira. Horretan datza lidergoaren eta buruzagitzaren arteko funtsezko desberdintasuna. Benetako liderrak taldekideen lankidetzaren sustatzen daki eta taldearen elkartasuna eta kohesioa areagotzen.

Hala, taldekoak ez diren pertsonen izendatutako buruek hasiera batean badituzte lidergoaren alde aurreko baldintzak (sinboloak, titulua eta kargua), baina taldeak dituen helburuak lortu ahal izateko, buruzagi horiek beste zerbait beharko dute. Helburuen lorpena jarraitzaileekin lan egiteko duten gaitasunaren arabera izango da. Nagusi batek ere ez du lortuko besteak ondo gidatzea, lehenago ez badu lortzen haien babesa, konfiantza, errespetua eta atxikimendua; hau da, lehen ez badu lortzen nola-baiteko lidergo-maila.»

(Hemendik egokitua: Campuzano, 2008: 56-57)³

³ Campuzano Arribas, Manuel (2008). *Alejandro Magno. La excelencia desde el liderazgo*. Madril, Visión Libros.

ZeharGAI jarduera

Lidergo gaitasuna duen nagusia: *Master and Commander*

Kasu horretan, gerraontzi bat gidatzen duen kapitain baten ezaugarriak aztertu ahal izango dira. Jack Aubrey kapitaina da aztergai, fikziozko pertsonaia protagonista Patrick O'Brianek idatzitako eleberrietan. Zineman Russell Crowe aktoreak interpretatu zuen (*Master and Commander. Munduaren beste aldean*, Peter Weir, 2003). Irakurgai gisa, Dolarea adituak pertsonaia honi buruz egindako azterketa baten aterakina erabiliko da, eta jarduera galdera bakar bati erantzutean datza, Aubreyren lidergoari buruz hausnarketa eskatzen duena.

Lan-eskema eta denboralizazioa

Testua banatu ondoren, jarduera hiru fase hauei jarraituz egingo da:

1. fasea: irakurketa

Kasuan kasuko testua arretaz irakurtzeko eskatzen zaie parte-hartzaileei. Irakurri egin behar dute, eta ondo ulertzen saiatu. Irakurri ondoren, aurkezten den kasuari buruz labur pentsatzeko eskatzen zaie (minutu bat edo bi).

2. fasea: galderei banaka erantzuten zaie

Ondoren, pertsona bakoitzak, banaka, kasuari buruzko galderak erantzun ditzala eskatzen da. Komeni da erantzunak hausnartzea, eta, behin zer esan nahi den jakinda, ahalik eta erantzunik zehatzena eta laburrena pentsatzea. Idaztea lagungarri izan daiteke. Horrek erraztuko du ondorengo eztabaida arina eta emankorra izatea.

3. fasea: bateratzea

Taldearen barruan pertsona bat aukeratzen da elkarrizketaren koordinatzaile. Galdera bakoitza irakurtzen du eta parte-hartzaileek erantzun dutena komentatzen dute. Erantzun guztiak entzun ondoren (esan nahi dena galdetuz edo argituz, baina baloratu eta epaitu gabe), parte-hartzaile guztien artean eztabaida ireki bat hasten da.

Azkenik, jarduera ixteko, bideratzaileak parte-hartzaile bakoitzari eskatzen dio paper batean idatz dezala bere ondorioa, ikasi duena edo bere beharren eta egoeraren arabera balio dion zerbait. Hau pertsonala da guztiz; parte-hartzaileetako bakoitzak bere buruarentzat idazten du. Bakoitzak kasu bakoitzetik eta ondorengo eztabaidatik ateratzen dena idatzi behar du (ez da berez ozen irakurtzen ez eta idatziz entregatzen). Gisa honetako idazki horien multzoek ikasitakoa osatzen dute, eguneroko bat balira bezala, eta islatzen dute pertsona bakoitzak egindako ZeharGAI ariketetatik baliagarritzat jotzen duena.

Gogoratzekoa

Taldearen neurriari dagokionean bai eta taldearen elkarrizketa eskatzen duten jarduera-faseetarako, *ZeharGAI jardueretan elkarrizketa egiteko eskainitako gomendioak* erabiltzea iradokitzen dugu (*ZeharGAI Gomendioak*, 1. unitatea).

«Aubreyk lidergoaren faktore asko aztertzeke aukera ematen digu. Lehenik eta behin, kontuan hartu behar da mendekoez ez dutela hautatu herri-lider baten estiloan. Ingalaterrako Marinak izendatu duen nagusia da, baina horrek ez du automatikoki liderra bihurtzen, nagusia baizik, eta hori bereziki desberdina da XIX. mendean, aginte-estilo autoritarioa ia soilik erabiltzen zen garaian. Hala ere, historian aurrera egin ahala, agerikoa da gizonek halakotzat, lidertzat alegia, hartzen dutela, eta arrazoiak aurki ditzakegu.

Lehenik eta behin, argi eta garbi definitzen du Aubreyk bere tripulazioarekiko misioa, hau da, Frantziako itsasontzia bat atzematea. Horretarako, hura aurkitzeko eta garaitzeko jarraitu beharreko estrategia ezartzen du, eta hori, gainera, balio pertsonaleko frogatik da, jakitun baita bere HMS Surprise ontzia etsaiena baino askoz txikiagoa dela. Eraginkortasunez zuzentzen ditu bere marinelak, eta borrokarako prestatzen ditu, berak pertsonalki kainoiak jaurtitzeko behar duten denbora neurtzen. Ofizial gazteen artean lidergoa sustatzen du, eta, lainoaren artean bela bat ikusi ote duen ziur egon gabe, borroka-zafarrantxa deitzen duen itsas-guardiaren erabakia babesten duenean ofizial gazte horiek erantzukizunak hartzera gonbidatzen ditu, akats egiteko beldurrik gabe. Mendekoen lan ona goraiatzen du, eta Nelsoni buruzko liburu bat oparitzen dio borrokaldian beso bat galdu berri duen itsas guardiari.


Gizonengandik oso hurbil egon arren, ez du zalantzarik erabaki gogorrak hartu behar diren uneetan. Hala, uretara jausi den gizon bat ez salbatzea erabakitzen du, horrek misioa arriskuan jarriko duela uste baitu. Agintearen bakardadea bere gain hartzen du, eta, aldi berean, tripulazioarekin nahasteko gai da, desberdintasunak markatuz. Eta, batez ere, lider baten ezaugarriak funtsezkoena den hori erakusten du: erantzukizunak hartzea.

Gainera, umore-zentzuari eusten dio, gizonekin partekatzen duena, eta biolina zoragarri jotzen du. Hori guztia gerra baten erdian, tentsio-egoeretan, non bereziki zaila baita talde-lana eta lidergoa uztartzea.

Aurreko paragrafoari buruz atera dezakegun lehen ondorioa da fikziozko pertsonaia bat dela, ezinezkoa baita pertsona erreal bakar batek hainbeste ezaugarri positibo biltzea. Baina, edozein kasutan, eredu baliagarria zaigu (...). Ondoriozta dezakegu nagusiak benetako liderrak izango direla, Aubreyren ezaugarrietara hurbiltzen diren heinean. Ezaugarri horien artean, alde batera utz dezakegu biolina maneatzeko duten trebetasuna, beharrezkoa ez delako.»

(Egileek moldatua. Jatorria: Dolarea, 2012:58-59)⁴

⁴ Jatorria: Dolarea Romero, José María (2012), «El liderazgo del capitán Aubrey», *Revista General de Marina*, 263, uztaila, 57-66 or.



ZeharGAIT jarduera

Master and Commander



Aubreyk lidergoaren faktore asko aztertzeke aukera ematen digu. Lehenik eta behin, kontuan hartu behar da mendekoez ez dutela hautatu herri-lider baten estiloan. Ingalaterrako Marinak izendatu duen nagusia da, baina horrek ez du automatikoki liderra bihurtzen, nagusia baizik, eta hori bereziki desberdina da XIX. mendean, aginte-estilo autoritarioa ia soilik erabiltzen zen garaian. Hala ere, historian aurrera egin ahala, agerikoa da gizonek halakotzat, lidertzat alegia, hartzen dutela, eta arrazoiak aurki ditzakegu.

Lehenik eta behin, argi eta garbi definitzen du Aubreyk bere tripulazioarekiko misioa, hau da, Frantziako itsasontzia bat atzematea. Horretarako, hura aurkitzeke eta garaitzeke jarraitu beharreko estrategia ezartzen du, eta hori, gainera, balio pertsonaleko frogatik da, jakitun baita bere HMS Surprise ontzia etsaia baino askoz txikiagoa dela. Eraginkortasunez zuzentzen ditu bere marinelak, eta borrokarako prestatzen ditu, berak pertsonalki kanoiak jaurtitzeko behar duten denbora neurtzen. Ofizial gazteen artean lidergoa sustatzen du, eta, lainoaren artean bela bat ikusi ote duen ziur egon gabe, borroka-zafarrantxa deitzen duen itsas-guardiaren erabakia babesten duenean ofizial gazte horiek erantzukizunak hartzera gonbidatzen ditu, akats egiteko beldurrik gabe. Mendekoen lan ona goraiatzen du, eta Nelsoni buruzko liburu bat oparitzen dio borrokaldian beso bat galdu berri duen itsas-guardiari.

Gizonengandik oso hurbil egon arren, ez du zalantzarik erabaki gogorak hartu behar diren uneetan. Hala, uretara jausi den gizon bat ez salbatzea erabakitzen du, horrek misioa arriskuan jarriko duela uste baitu. Agintearen bakardadea bere gain hartzen du, eta, aldi berean, tripulazioarekin nahasteko gai da, desberdintasunak markatuz. Eta, batez ere, lider baten ezaugarriak funtsezkoena den hori erakusten du: erantzukizunak hartzea.

Gainera, umore-zentzuari eusten dio, gizonekin partekatzen duena, eta biolina zoragarri jotzen du. Hori guztia gerra baten erdian, tentsio-egoeretan, non bereziki zaila baita talde-lana eta lidergoa uztartzea.

- 5) 5. fasea: **elkarrizketa-fasea irekiko da**. Galdera honekin hasiko gara, nahiz eta gero elkarrizketak norabide ezberdinetan aurrera egin dezakeen. Zer iritzi du pertsona bakoitzak boto gehien eta gutxien jaso dituztenak zeintzuk izan diren jakiteko? Beste galdera batzuk, elkarrizketa sustatzeko: atera ez den mikroeraso edo bidegabekeriaren baten falta sumatzen dugu? Zer faktorek eragiten dituzte horrelako erasoak? Zenbateko maiztasunarekin gertatzen dira ezagutzen ditugun inguruneetan?
- 6) 6. fasea: une pertsonala. Berriz ere idatziz, tanta horiek hain etengabe eror ez daitezen **egin daitekeen gutxienezko gauza bat pentsatuko dugu**.

- 7) 7. fasea: azken **analisi eta elkarrizketan**, pertsona bakoitzak proposatu dituen konponbideak aztertzeaz gain, bidegabekeriei aurre egiteko erantzukizuna norengan jartzen dugun ere aztertuko dugu: erasotzaileengan, biktima potentzialengan, autoritatea dutenengan, guztiengan?



ZeharGAIT jarduera

Tanta bat eta beste bat

Ur tanta bat hutsaren hurrengoa iruditu dakiguke. Ez da oso mehatxagarria. Baina historikoki, toki batzuetan, hori erabili izan da, ur-tantak alegia, tortura-metodo gisa. Ur-tantaren tortura (*txinatar tanta* izenez ere ezagutzen dena) metodo bat da, denbora luzez halako min fisiko eta mentala eragin diezaiokeena norbaiti, non azkenean ezinbestean hiltzen den.



Ur tanta batengatik hil da? Ez; batengatik ez. Askorengatik. Ur tantek, urteekin, harri bat higatu dezakete, ez indarrez, baizik eta iraunkortasunagatik.

Bost segundotik behin, ahoz gora etzanda dagoen eta mugitu ezin den pertsonak ur tanta hotz bat jasotzen du bere buruan. Hamabi tanta minutuko, zazpiehun tanta orduko baino gehiago, milaka tanta egun batean. Beraz, minutuek eta orduak aurrera egin ahala, itxuraz hain kaltegarriak ez diren tanta horiek biktimaren azala erretzen dute.

Baina hori ez da okerre. Mingarriena da tanta hotzak etengabe eroriz gero pertsonak ezin izango duela lorik egin. Egarrria ere sentituko du, egarri handia. Baina bere ahoak ez du harrapatuko bere burua bost segundoan behin jotzen duten tanta horietatik edatea. Jan, edan eta deskantsatu gabe, eta antsietate handiarekin, eromenera irits daitekeelarik, pertsona hil egiten da, normalean bihotzekoak jota.

Garrantzirik ematen ez diogun ur tanta hori bezala, mikroinjustizia eta mikroeraso sotilak daude, egunero gertatzen direnak. Gure inguruan. Agian normalak iruditzen zaizkigu. Bizitzaren kontuak dira, azken finean, eta pertsona guztiek pazientzia hartu behar dute, eutsi. Hori da tokatzen dena. Are gehiago. Batzuetan pentsa dezakegu pertsona batzuek ez zaiela axola horrela tratatzea. Haiei axola ez bazaie, zergatik axola guri? Galdera horren erantzuna begi-bistakoa da: besteekiko errespetu faltak normalizatzen baditugu, eraso horien hartzaileak gu edo maite ditugun pertsonak garenean ere, horiek «normalak» balira bezala jaso beharko ditugu. Eta isildu. Horrela bizi nahi al dugu batez beste 35 urteko lan-bizitza?

Agian onartu behar dugu, ezinbestean, ur tantak eroriko direla. Denak ezin dira saihestu. Ur tantaren tortura metodoan bat erortzen da bost segundotik behin. Pertsonen arteko bizikidetzan ezinezkoa dirudi errespetu-falta txikiak saihestea, batzuetan deskuiduz edo nahi gabe. Baina ekidin dezakeguna da, adibidez, tanta horiek beti pertsona berberen gainera erortzea, maiz egitea edo, jakina, intentzios egitea. Ez al da hala?



Garrantzirik ematen ez diogun ur-tanta hori erortzen den bezala, mikroinjustizia sotilak eta mikroerasoak gertatzen dira egunero. Gure inguruan. Agian normalak iruditzen zaizkigu. «Bizitzaren kontuak dira, azken finean», pentsa genezake; pertsona guztiek «pazientzia hartu behar dute, eutsi». EGITEKOA: Bi mikroinjustizia edo mikroeraso aukera itzazu, agian beti begi-bistakoak ez diren errespetu-faltak. Haietako bakoitza paper zati batean, berezita, zertan datzan azaldu ezazu.

3. Pertsona bakoitzak talde edo antolakuntza baten barruan betetzen duen funtzioa edo rola, eta rolek sortzen dituzten arazoak

Antolakuntzak funtzionatuko duen bermerik al dugu? Talde bat egituratzeak eta ondo antolatzeak ez digu bermatzen emaitza edo errendimendua onak izango direnik. Baina gaizki antolatzeak porrot egingo dugula bermatzen du. (Peter Drucker⁶)

Lantalde batean, baita txikienetan ere (bi, hiru pertsona), zeregin bat aurrera atera ahal izateko, ezinbestekoa da pertsona bakoitzak, nolabait, «rol» gisa ezagutzen den horitako bat betetzea. Rola frantsesetik, rôle, inportatutako hitza da (role ingelesez); gaztelaniaz, multzo baten barruan zerbaitek edo norbaitek beteko duen funtzioa aipatzeko, hitz zehatzena «papera» edo «funtzioa» izango litzateke. Pertsonok rola hartzen ditugu talde batean, enpresa batean, jolas batean (batez ere rol-jokoetan), antzezlan batean. Dagoeneko oso zabalduta dagoen esamoldea da.

Imajinatu eskema bat aurkezten dizutela, eta eskema horretan, betetzen dituzten funtzioen arabera ordenatuta, enpresa bateko pertsonak agertzen direla. Horrelako eskemei «organigrama» esaten zaie.

Pentsatu, adibidez, tamaina ertaineko hotel batean, non pertsonak, ostatu hartzeaz gain, gosariak, bazkariak edo afariak jasotzeko aukera duten. Hotel horrek funtziona dezan, batez ere logela guztiak okupatuta dituenean, uste dugu beharrezkoa izango dela pertsona askok bezeroekin zuzenean lan egitea: sartzen direnean bezeroei harrera egiten dieten eta irtetean kobratzen dieten pertsonak, logelak garbi egoteaz eta guztia edukitzeaz arduratzen diren pertsonak, prestatzen duten pertsonak eta gosariak, bazkariak eta afariak zerbitzatzen dituzten pertsonak. Baina, aldi berean, beharrezkoak izango dira pertsona horiek guztiak koordinatuko dituzten arduradunak edo buruak, ziurrenik arloka (logelak, kontabilitatea, jatetxea, hoteleko segurtasuna) eta lan egingo duten beste batzuk, adibidez, hornidurak falta ez daitezen (logeletako xaboiak edo komuneko papera, janaria prestatzeko osagaiak edo fakturak inprimatzeko papera). Garrantzitsua izango da, halaber, norbaitek bezero berriak hotelera iristeko lan egitea, hau da, kanpora begira publizitatea egingo duen norbait. Eta nola ez, seguruenik, pertsona batek hartuko du zuzendaritza nagusiaren edo gerentziaren postua, norbaitek multzo osoaren ikuspegia izatea ere beharrezkoa baita. Nola antolatzen ditugu hainbeste pertsona? Izan ere, ohikoena bakoitzari dagokion rola (funtzioa edo funtzioak) definitzea da.

Horrela, funtzio zehatz bat duen antolakuntza bat dugu (hotela), bezeroei ostatua eta janaria ematea, eta horretatik onura ekonomikoa lortzea helburu duena, eta pertsona multzo bat dugu ere, puzzle bat balitz bezala, edo agian hobe, erloju baten engranajeak bezala, hotelak funtziona dezan laguntzen duena. Pertsona bakoitzak, pieza gisa, rol garrantzitsua betetzen du. Hotelak funtziona dezan beharrezkoa den rola bat.

Adibidea ikusita, hotela beste ikuspegi batetik ere ikus dezakegu. Hotelaren barruan rola daude eta, aldi berean, pertsona bakoitzari rol bat dagokio. Beraz:

⁶ XX. mendearen hasieran Vienan jaio zen Drucker eta enpresen antolakuntza hobetzeko eman zituen gomendioak ospetsu egin zuten.

rol bat da, halaber, hotela bezalako *antolakuntza batean pertsona jakin bat identifikatzen edo ezaugarritzen duena.*

Ikus dezagun orain nola jartzen den hau interesgarri. Izan ere, pertsonak ez gara motoreko edo engranajeko pieza hutsak, ezta jarraibide batzuk eman dakizkiekeen robotak ere, eta kito. Adibidez, ostatu bila dabilen pertsona batek gela garbi eta prestatu bat jaso dezan, ezinbestekoa da garbitzaileei aurreko bezeroak alde egin duela eta logela libre geratu dela dioen abisu bat iristea. Eta hori baino lehen, norbaitek erreserba-departamentuari esan behar izan dio gela bat libre geratuko zela. Pentsa gelak husten ari direla, baina bezero potentzialen deiak jasotzen dituen pertsonak denak beteta daudela uste duela! Hau hondamendia! Eragozpen horiek konpontzeko, antolakuntza bakoitzak behar du: 1) pertsona bakoitzari funtzio edo rol jakin bat esleitzea; 2) baina, gainera, rolen artean nolabaiteko harremana egotea. Hotelean, argi eta garbi, batzuk besteen mende daude. Sukaldariak menu goxoa egiten badu, baina inork ez badu jatetxera eramaten edo ez badago plater garbirik anoa horiek zerbitzatzeko, zer zentzu du lan hori hartu izanak?

Rolen sareak zailagoak dira antolatzen dirudiena baino. Normalean, pertsona bakoitzak bere burua baino ez du ikusten (bere zereginak) eta, modu mugatuan, harreman zuzena dutenak. Adibidez, justu aurretik eta justu ondoren lan kate batean dauden pertsonen. Beraz, horrelako gauzak uste genezakeena baino ohikoagoak dira:

- *Pertsona bati bere rola ez gustatzea eta beste bat nahiago izatea. Adibidez, pertsona batek jatetxeko chefa izateko gaitasuna, prestakuntza eta trebetasunak dituela senti dezake. Baina kontua da chef bat besterik ez dela behar. Agian gerenteak profil hori zuten bi kontratatzea erabaki zuen, adibidez, chef nagusia gaixotzen bada edo oportetara joaten bada, berehalako ordezkapena egon dadin. Baina kontua da egunerokoan chef bakarria behar dela; beste pertsonari, bere kualifikazioa gorabehera, beste zeregin batzuk esleitzen zaizkio. Rolak ez dira guk nahiko genituzkeenak, eskura daudenak baizik. Agian, denborarekin, rola alda dezakegu, edo, rola aldatzeko, beste enpresa bat bilatu beharko dugu, jada gurean badagoelako rol hori betetzen duen pertsona bat.*
- *Batzuetan, egoera jakin batean, rolak anbiguoak dira. Erakunde txikienetan, adibidez familiako jatetxe batean, ohikoa da batzuetan denek denetarik egin behar izatea. Pentsa ezazu ahalegin berezia egin dela bazkaltiar askorekin oturuntza bat egiteko. Jantokiak muntatzeko aparteko zereginak egongo dira, platerak prestatzekoak, zerbitzukoak eta, jakina, dena amaitzen denean, garbiketako aparteko zereginak. Jatetxeak bere taldea osatzen duten pertsona berberekin lortzen badu aparteko zerbitzu hori egitea, aparteko diru-sarrerara batzuk izango ditu, jatetxearen eta langileen onerako. Baina pertsona gehigarriak kontratatu behar badituzu (soldata ez ezik, gizarte-segurantza ere ordainduz), aparteko diru-sarrerara horiek txikiagoak izango dira.*
- *Egoera zehatzetatik harago, pertsonen rol bat baino gehiago badute edo rolak oso ondo zehaztuta ez badaude, funtzionamendu-akatsak eta pertsonen arteko gatazkak izateko aukera handitzen da. Aginduak nork ematen dituen argi ez badago (edo agindu kontraesankorrek iritsi badaitezke), pertsonen informazio gutxi edo informazio gehiegi badute, ez badakite zer espero duten, hori guztia potentzialki arazoak dira. Kanpotik norbaitek pentsa dezake, hara!, eta nola ez dute zentzu pixka bat jartzen? Erantzuna sinplea da: antolatzea ez da kanpotik eman dezakeen bezain erraza.*
- *Eta nola daki norbaitek, rol zehatz batean, zer espero duten beragandik? Pertsona bat erakunde batean sartzen denean, lanean ari diren pertsonen sarean komunikatzen ikasi behar du. Ikaskideei erreparatuz, gaineratik edo azpitik dauden pertsonen entzunez eta beren asmatzetatik eta akatsetatik ikasiz, lortuko du.*

ZeharGAIT Jarduera Antolakuntzetako liderrak

Lider naturalak dauden arren, lidergoa ere lantzen da; entrenatzen da eta baliabide asko inbertitu behar dira (denbora eta energia) hori gauzatzeko.

Ariketaren aurkezpena eta egitura

Ariketa praktiko bat egitera goaz, soziograma eta autoebaluaziorako galdetegi batean oinarrituta. Ariketa hau egiteko, komenigarria da taldeko parte-hartzaileek aldeztatik elkar ezagutzea.

Hala ez balitz, hori ere egin daiteke, baina kasu honetan taldeko pertsonak minutu bat baino gutxiagoan aurkeztu eta azaldu beharko lukete nola egingo luketen erronka komun bat (adibidez: nola negoziatuko lukeen lan-taldearentzako soldata igoera, edo nola proposatu prestakuntza-zentroko zuzendaritzari ikasturte amaierako jai bat egitea). Komenigarria da denek beren izena duen karteltxo txiki bat jartzea, gainerakoek euren izenak gogoratzeko aukera izan dezaten.

Denek gutxieneko informazioa ezagutu eta entzun ondoren, honako galdetegi hau banatuko zaie guztiei, eta banan-banan eta modu pribatuan erantzun beharko zaie. Ahalik eta zintzotasun handiena eskatzen da erantzunetan, galdetegi anonimoa baita.

1. fasea: norekin lan egitea gustatuko litzaizuke?
2. fasea: jardueraren emaitzak arbelean jasotzen dira, galdetegiaren ondoren adierazten den bezala.
3. fasea: arbelean jasotakoaren kontrastea eta elkarrizketarako/eztabaidarako bigarren denbora.

Gogoan hartu

taldearen neurriari dagokionean bai eta taldearen elkarrizketa eskatzen duten jarduera-faseetarako, ZeharGAIT jardueretan elkarrizketa egiteko eskainitako gomendioak iradokitzen ditugu (ZeharGAIT Gomendioak, 1. unitatea).

1. fasea. Galdetegi (ikasleentzat deskargatzeko bertsio bat dago)

1. galdera: taldeko beste hiru pertsonarekin lan-talde batean egon behar bazenu, norekin lan egin nahiko zenuke? Zein aukeratuko zenuke taldeko lider gisa? Idatzi izenak, arrazoiaren (edo arrazoiaren) azalpen batekin batera, eskuinean.

1. (Pertsonaren izena) _____ (liderra). Zergatik?
2. (Pertsonaren izena) _____ (taldeko kidea). Zergatik?
3. (Pertsonaren izena) _____ (taldeko kidea). Zergatik?

2. galdera. Zure burua lidertzat duzu? Zergatik?

3. galdera. Zerbait proposatzen duzunean, jendeak orokorrean entzuten dizula sentitzen duzu?

4. galdera. Jar ezazu adibide bat zuk proposatutako zerbait egiteko jendeak zu jarraitu zizun une batetako:

2. fasea

Emaitzak biltzeko modua (bideratzailearentzako informazioa) eta eztabaida-txanda.

Erantzunak jasotzen dituzten txartelak jaso ondoren, emaitzak erabiliko dira baterako hausnarketari ekiteko. Lehenik eta behin, irakasleak txartelen izenak irakurri eta arbelean (edo paper batean) apuntatuko ditu, formatu honi jarraituz:

IZENA	EKIPOA	LIDERRA

Horrela, txartel guztien izen guztiak irakurriko dira eta lehenengo zutabeko (Izena) taulan apuntatuko dira. Zentroko zutabean makilatxoak edo ekiak apuntatzen dira, txarteletan izena zenbat aldiz errepikatzen den adieraziz. Txartelean taldeburu gisa izen bat agertzen denean, eskuineko zutabean adierazten da.

Jarraian, taula hamaika pertsonako talde batek bete ondoren nola gera daitekeen ikus daiteke:

IZENA	LIDERRA	EKIPOA
ISABEL	XXXXX (5)	XXXXX XXXX (9)
ANDONI	XXX (3)	XXXXX XX (7)
ANE	XX (2)	XXXXX XX (6)
MAIKA	X (1)	XXXXX (5)
UNAI		XXX (3)
LUCIA		XXX (3)

Eskuineko zutabeak onarpen soziala adierazten du (jendeak pertsona horrekin lan egin nahi du, berarekin egon). Zentroko zutabeak lidergoa erakusten du, lider ontzat hartzen direnak (haien lidergoan lan egitea gustatuko litzazukeela adierazten baitu).

Jarraian, aipatzen diren izenak identifikatu gabe (pertsonalismoak saihesteko), ozenki irakur daitezke zergatik aukeratu diren taldeburuak. Arrazoi guztiak irakurri ondoren, gaiari buruzko eztabaida hasten da.

- Zergatik aukeratu dira liderrak?
- Zeintzuk dira gehien errepikatzen diren arrazoiak?
- Zerrendari eranstea baino arrazoiaren bat gehiago bururatzen zaizue?

3. fasea: kontrastea

a. Eztabaida-txanda horren ondoren, saioa gidatzen ari denak kontuan hartu du (izenak eman gabe) lidergoa dutela sentitzen duten pertsonen kopurua. Zenbaki hori kontrastatu daiteke taldeburu gisa bozkatu diren pertsonen kopuruarekin.


- Ba al dago alderik? Zer esan nahi du horrek?
- Posible al da liderra zarela sentitzea liderra izan gabe? Eta alderantziz, inor izan al daiteke lider sentitu gabe?
- Norbait liderra izan arren, uko egin diezaiokezu lider izateari?

Gai horri buruz eztabaidatzeko txanda labur bat ireki da.

b. Azkenik, txartelen adibideak irakurtzen dira, talde bat hainbat alditan gidatzeko gai izan zinetela erakusten dutenak.


- Ba al dute puntu komunik adibideek?
- Zein dira interesgarrienak? Zergatik?

c. (aukerakoa). Galdetegiak anonimoak izan beharrea sinatuta egon balira, soziograma bat egin ahal izango litzateke, harremanen irudikapen grafiko bat. Adibide bat ikus daiteke hemen:



Grafikoan taldearen harremanen erdigunean nor dauden ikusten da. Pertsona horiek lidergo-rola betetzen dute eta taldearen kohesioari laguntzen diote.

Pentsatu zuen lagun taldean. Zein pertsona edo pertsona dira taldeko liderrak?



ZeharGAIT jarduera

Norekin lan egin nahiko zenuke?

Erantzun galdera hauei:

1. galdera: taldeko beste hiru pertsonarekin lan-talde batean egon behar bazenu, norekin lan egin nahiko zenuke? Zein aukeratuko zenuke taldeko lider gisa? Idatzi izenak, arrazoiaren (edo arrazoen) azalpen batekin batera, eskuinean.

1. (Pertsonaren izena) _____ (liderra)

Zergatik? _____

2. (Pertsonaren izena) _____ (taldeko kidea)

Zergatik? _____

3. (Pertsonaren izena) _____ (taldeko kidea)

Zergatik? _____

2. galdera. Zure burua lidertzat duzu? Zergatik? _____

Zergatik?

3. galdera. Zerbait proposatzen duzunean, jendeak orokorrean entzuten dizula sentitzen duzu?

4. galdera. Jar ezazu adibide bat zuk proposatutako zerbait egiteko jendeak zu jarraitu zizun une batetakoa:



ZeharGAIT jarduera Lidergoa eta lan-giroa (Hemen lan egin nahi nuke)


Ikerketa askok erakutsi dute lotura dagoela enpresako zuzendaritzaren kudeaketa-estiloaren, langileek hautemandako antolaketa-giroaren eta langileen lan-jardunaren artean (Lewin, Lippitt eta White, 1939; Likert eta Likert, 1976; Hendricks, 1979; Duffee, 1980; Goleman 2000; Stringer, 2002; Bloch eta Whiteley, 2003; Siwatch, 2004).

Horrela, lidergoa eta zuzendaritza-estiloa funtsezkoa da lan-giroa sortzeko. Lan-giro ona eraikitzea ez da erraza, eta faktore askoren arabera da, baina enpresa nolakoa den, zer balio dituen eta langileak aukeratzeko orduan zer irizpide dituzten adierazten du, zuzendaritza-postuetatik hasita.

Bestalde, enpresa bat lan-giro ona izateko gai ez denean, horrek taldeko kide guztiei eragiten die, eta motibazioa galtzea, estresa, amorrua eta tristura eragiten ditu, eta apatia gero eta handiagoa da, erretako langilearen sindromearekin (burnout) amai daitekeena, laneko gaixotasun gisa kalifikatu dena.

Hori dela eta, lider on baten garrantzitsuenetako bat enpresako pertsonen ardura-tzea eta lan-giroa zaintzea da.

Jarduera bat proposatzen da hemen. Hona hemen bere faseak: testua irakurri eta denbora bat uzten da parte-hartzaileek galderei erantzun diezaieten, ahal dela idatziz. Ondoren, elkarrizketa hasten da, ahal dela ZeharGAIT gomendioei jarraituz (ikus 1. unitatea).



ZeharGAIT jarduera

Hemen lan egin nahi nuke

Inoiz sartu zara kate bateko denda batean eta pentsatu duzu: «Zein dira atseginak hemen lan egiten duten guztiak?» Hala ere, kate horretako beste denda batean sartzean gauza bera gertatzen ez bada, horrek adierazten du adeitasun hura, giro on hura, lehen dendan gertatzen zen zerbait berezia zela. Batzuetan, oso gutxitan, hainbat dendatan errepikatzen da hori. Gogoratzen al duzu kate bereko beste dendaren batean sartu eta gauza bera pentsatzen atera izana: «Zein adeitsuak eta zerbitzariak, zein irribarretsua diren denak enpresa honetan?»

Batzuetan, pertsona baten nortasunak eta lidergoak denda bat eralda dezake, talde-espiritua eta lan-giro bikaina sortuz, guztiak onena eman dezaten. Eta hori bezeroak hautematen du, noski. Baina hori enpresa bereko denda guztietan gertatzen bada, ez da faktore indibidual baten edo zortearen ondorio: enpresa horretan lidergo bat dago, argi dute nolakoa izan nahi duten eta hori lortzeko bitartekoak jartzen dituzte.

Lan-giro ona dagoenean, langileek hautematen dute, eta bezeroengana proiektatzen da. Pertsona batzuek denda horietako batean egotean zera pentsatuko dute:» hemen lan egitea gustatuko litzaidake».

Erantzun galdera hauei

- Ezagutzen al duzu aipatu dugun dendaren kasuren bat? Eta kateren bat zure denda guztietan horrela izateko?
- Zer sentitu duzu denda horietatik ateratzean?
- Ezagutzen al duzu horrelako enpresa batean lan egiten duen norbait? Horrelako esperientzia positiborik izan duzu?



3.1. Pertsonen motibazioa taldeetan daudenean: sarrera

Acostak (2011:101) adierazi du pertsonak direla, zalantzarik gabe, talde edo erakunde baten aktiborik garrantzitsuena, eta gogorarazi du lider batek bere jendearen onena lortu nahi badu, beharrezkoa dela behar bezala motibatzea.

Pertsona osasuntsuak, eskuzabala izan arren, bere arrazoiengatik egiten du lan, bere interesengatik. Jabetzen bada, taldearen eta erakundearen interesak ere zainduko ditu, baina azken horiek ez ditu bere interesen aurretik jarriko.

Nagusi askok bilatzen dutena, hau da, kanpoko motibazioa, ez da eskusiboki existitzen: puntu batetaraino pertsona bat motibatzea, norberak bakarrik egin dezakeen zerbait da. Motibazio intrintseko edo automotibazioko osagai bat behar da beti. Eta talde baten barruan horrek markatzen ditu gogobetetasuna, errendimendua.

Horregatik, garrantzitsua da taldeko kide bakoitzak jakitea zein den bere motibazioa eta nola hobetu dezakeen; izan ere, liderrak lagun dezakeen arren, azkenean motibazioa pertsonala baita eta bakoitzaren mende dago.


ZeharGAIT jarduera Gure motibazioa ezagutuz

Lidergoari eta motibazioari buruz ikusi berri dugun sarreraren ildotik (3.1), honako jarduera hau proposatzen da.

Jardueraren faseak

Gorago adierazitakoaren arabera sarrera labur bat egin ondoren, galdetegiak banatzen dira eta 5-10 minutu ematen dira erantzuteko. Jarraian, bideratzaileak adierazi du galdetegian gezurrezkotzat jotako baieztapenek motibazioa hobetzeko eta taldeari hobeto laguntzeko aldatu behar diren arloak identifikatzen dituztela.

Azkenik, 10-15 minutuko eztabaida-denbora ireki da, galdeketako baieztapenei buruzko gogoetak bateratzeko.



ZeharGAIT jarduera

Nola dago zure motibazioa gaur egun?

Baieztapen bakoitzaren ondoren, zure kasuan EGIA (E) edo GEZURRA (G) diren adierazi ezazu

	E	G
Nire lana ondo egitearen pozagatik egiten dut lan, batez ere.		
Motibazioa irakaslearengan baino gehiago nire buruarengan bilatzen dut.		
Atsegin handiz onartzen ditut nire lana hobetzen lagunduko didaten iradokizunak.		
Nire buruarentzako helburuak ezartzen ditut, zeregin berriei aurre egiten diedanean eta horiek lortzen ahalegintzen naizenean.		
Egiten dudanarekin dibertitzeko moduak aurkitzen saiatzen naiz, baita ohiko zerbaitekin ere.		
Nire lana ondo egiteko nahia koordinatzailearekin eta lankideekin partekatzen dut		
Neure burua saritzen dut neure helburuak lortzen ditudanean, besteen onenaren zain egon aurretik.		
Nire lanagatik kritikak jasotzen ditudanean, gogoan dut kritika pertsonaltzat ez hartzea.		
Nire lanak epe luzera eta epe laburrera nire helburuak lortzen nola lagunduko didan behatzen saiatzen naiz.		
Saiatzen naiz gogoratzen porrot bakoitza aukera bat dela bereziki hazteko zeregin berriei aurre egiten diedanean.		

Iturria: García Sanchidrián, 2019:119.

3.2. Pertsonen motibazioa taldeetan daudenean: sakontzea

Lidergoaren funtsezko alderdi bat langileak motibatzen dituzten faktoreak ulertzea da. Milaka inkesten arabera egindako *Leadership IQ* ikerketa batek adierazi zuen langileen motibazioan funtsezko bost faktore daudela: lorpena, boterea, afiliazioa, segurtasuna eta abentura.

Ikerketa horren arabera, **lorpenak** (achievement) bikaintasunera hurbiltzeko beharra duten pertsonak motibatzen ditu, ez hainbeste beste pertsona batzuekin lehiatzeagatik, baizik eta haien errendimendu pertsonala etengabe hobetzeagatik. Pertsonen profil horrek ez du arriskua saihesten, erraz lortutako arrakasta ezin baita benetako lorpenzat hartu. Horregatik, benetako ahalegina dakarten erronkak nahiago dituzte, eta bikaintasunerako duten jarrera dela-eta, ez dira konformatzen lortutakoarekin, eta ez dute uzten arrakastaren ospakizunak denbora luzez geldiaraztea.

Beste motibazio-iturri bat **boterea** da. Pertsona batzuei agintzeko gogoia ez ezik, beren eragina aitortua ikusteko gogoia ere eragiten die. Pertsonak zuzentzea eta besteei eragiten dieten erabakiak hartzea gustatzen zaien pertsonak izaten dira. Askotan jarraitzaileak izatea eta erreberentziatuak izatea ere bilatzen dute.

Motibazio-faktore garrantzitsu bat da jende askorentzat talde bateko kide izateko beharra (**afiliazioa**), beste pertsona batzuek onartzea. Pertsona horiek nahiago izaten dituzte jendearekin harremanetan jartzeko lanak, eta taldeko langile onak izaten dira. Profil hori, askotan, zerbitzuetan eta bezeroentzako arretan egoten da.


Segurtasuna da lan-motibazioaren beste faktore nagusietako bat. Pertsona askok beren enpleguaren jarraitutasuna eta segurtasuna sentitu behar dute, eta soldata hobea duen beste batek baino lan aurreikusgarria eta bermatua lehenesten dute, adibidez. Langilearen profil horrek aldaketak saihesteko joera du, eta, horregatik, denbora gehiago ematen dute enpresa berean. Ezagutzen den txarra ezagutzeagatik ona dena baino hobe dela dioten esaera erabiltzen dute.

Bosgarren motibazio-faktore nagusia, aurreko kasuan ez bezala, **abentura** da. Aldaketak, arriskuak eta ziurgabetasunak eragindako langilea da. Aldaketarekiko duten jarrera oso positiboa da, eta aukera bat ikusten dute, non askok mehatxu bat baino ez duten hautematen. Ezaugarri garrantzitsuenetako bat da ez dutela huts egiteko beldurrik, lanaren eta bizitzaren zati normaltzat hartzen baitute. Pertsona horientzat saiatu ez izana da porrota. Horregatik, ez dute beldurrik izango zeregin edo erronka profesional berriei aurre egiteko, ez eta lan-bizitza osoan konpainiaz edo lanbidez aldatzeko ere.

- Inoiz pentsatu al duzu zerk motibatzen zaituen lanean?
- Zure ustez, bost faktoreetatik zeinek motibatzen zaitu gehien? Pertsonalki bizi izan duzun adibideren bat jar dezakezu?
- Ba al da motibatzen zaituen besteren bat?

3.3. Motibazioaren beste ikuspegi bat: Maslowren piramidea

Motibazioari buruzko ikerketa asko Maslowren piramide ezagunean oinarrituta daude (1943):



Iturria: <https://economipedia.com/definiciones/piramide-de-maslow.html>

Ikuspegi horren arabera, motibazioa biziraupenarekin lotutako bulkadarik oinarritzkoenetatik abiatzen da, eta garapen pertsonalarekin eta autoerrealizazioarekin lotutako bulkadarik gorenetera edo sofistikatuenetera hedatzen da.

Biziraupenaren noziotik abiatzen da dena. Beste edozerren aurretik, pertsona batek arnasa hartu behar du, eta behar ditu ere ura, janaria, atsedena, sexua. Norbaitek arnasa hartzeko ainerik ez badu edo janaririk ez badu, horiek lortzea garrantzitsua izango da, pertsonaren ekintza guztia gidatuko duen bultzada izango da. Biziraupen hutsaren kontua besterik ez da, muturreko egoeretan (gerrak, goseteak, etab.) askotan ikusi den bezala.

Hurrengo alderdiak segurtasun fisikoari eragiten dio, osasuna, etxebizitza eta abar barne. Fisiologia- eta segurtasun-premia oinarritzkoenak asetzen direnean, pertsonak mugituko dituen zera izango dira, soziabilitate-kontuak: afektua eta adiskidetasunaren bilatzea.

Ondoren, behar horiek beteta, gizakiak gainerakoengandik errekonozimendua eta errespetua lortzea izango du helburu.

Maslow-ren arabera, neurri horiek guztiak estalita daudenean, pertsona bat autoerrealizazioaren premian zentratuko da. Barren-barrenean motibatzen gaituena lortzen saiatzea da kontua, barnean eta pertsonalki gauzatuta sentiarazten gaituen hori. Gure ametsak dira; zerbait zehatzerako jaio ginela sentitzen dugu eta horren bila gabilta. Ken Robinsonek (2009) «Elementua» deitzen dio horri, eta jarraian azaltzen diren jarduerak batzuetan erabiliko dugu.

Zenbait ZeharGAIT jarduera Motibazioak nola eragiten duen (eta nola fluktuatzen duen)

Faktore motibazionalak oso garrantzitsuak dira, baina Saint-Exupéryk bere *Printze Txikia* lanean zioen bezala: *batzuetan funtsezkoena begietara ikusezina da*. Pertsonak modu egonkorrean zein une koiunturaletan zerk mugiarazten dituen jakitea eta geure burua bultzatzen duten motorrak zeintzuk diren jakitea oso ikaskuntza baliotsua da, baina baita nekeza ere. Ikaskuntza horretarako, zalantzarik gabe, bizitza osoa beharko dugu. Izan ere, bizitza osoan zehar askotariko egoerak eta uneak igarotzen ditugu, eta, era berean, askotariko pertsonekin harremanetan gaude, eta, aldi berean, faktore askok bultzatuta.

Emozioak eta motibazioa pertsonengan daudela ohartzeak garrantzi handia du taldeetan integratzeko eta maneiatzeko modua hobetzeko. Funtsezkoa da taldeen zuzendaritzan ardurak dituztenentzat edo pertsonekin lan egiten dutenentzat, baina oso erabilgarria da, halaber, lankideen artean moldatzen direnentzat. Alderdi horiek ezagutzea lagungarria izan daiteke gatazka eta gaizki-ulertu asko saihesteko eta, horrela, lan-giro osasuntsua eta eraginkorra garatzen laguntzeko.

Jardueren aurkezpena


Jarraian planteatzen diren testuek (Elementua, Gillianen Istorioa eta Langile des-konektatuak), bakoitzak bere galdera detonatzailerekin, oinarri bera dute, eta honako galdera hauetan laburbil daiteke:

- Zure ustez, baliagarria al da motibatzen zaituena ezagutzea?
- Baliagarria iruditzen al zaizu motibazio motak ezagutzea, zure lankideak edo taldea hobeto ezagutzeko?
- Zer gustatuko litzaizuke haiek jakitea lanean duzun motibazioaz? Zergatik?
- Arduraduna edo nagusia bazina, zertarako balioko lizuke langileen motibazio motak ezagutzea?

Denboralizazioa

Lan-proposamenak, edozein testutarako, 3 fase ditu: 1) irakurketa eta lan pertsonala; 2) gogoeten aniztasuna arbelean jartzea; eta 3) lan-giro onean zer faktorek lagun dezaketen azaltzen duen ideia-zaparrada batekin ixteko fasea. Baliteke galdera detonatzailere gehiago gehitzea.

Gogoratzekoa: taldearen neurriari dagokionean bai eta taldearen elkarriketa eskatzen duten jarduera-faseetarako, *ZeharGAIT jardueretan elkarriketa egiteko eskaintako gomendioak* erabiltzea iradokitzen dugu (ZeharGAIT Gomendioak, 1. unitatea).



ZeharGAIT jarduera

Irakurketa: Elementua

Jende gehiegi dago bere benetako talentu naturalekin inoiz konektatzen ez duena, eta, beraz, ez da jabetzen benetan zer egiteko gai den.

Zentzu horretan, ez dakite nor diren funtsean (...). Etorkizunean zer egingo duten eta nondik hasi ez dakiten ikasleekin topo egiten dut leku guztietan. Guraso kezkatuak aurkitzen ditut, ikasle horiek orientatzen saiatzen direnak, baina askotan egiten dutena zera da: beren benetako gaitasunetatik urruntzen dituzte, ziurtzat jotzen baitute beren seme-alabek, arrakasta lortzeko, ohiko bideak jarraitu behar dituztela. Enpresaburuekin hitz egiten dut, beren langileen dohainak hobeto ulertzen eta aprobetxatzen ahalgintzen baitira. Denboraren poderioz, beren talentu indibidualen benetako pertzepzioirik ez duten pertsona asko ezagutu ditut –kontatzeari utzi nion; pertsona horiek ez dakite zer duten maite. Ez dute egiten dutenaz gozatzen, baina ez dakite zer gustatuko litzaiekeen.


Bestalde, hainbat arlotan arrakasta handia duten pertsonekin ere topo egiten dut, egiten dutena hainbeste maite dute non ezin besterik egitea ezin imajinatu dezaketen. Uste dut bere istorioek zerbait garrantzitsua dutela guri erakusteko giza gaitasunaren eta errealizazio pertsonalaren izaerari buruz.

(Iturria: Robinson, 2009:16)

Galderak

- Testuaren hasierako deskribapenarekin bat datorren norbait ezagutzen duzu?
- Ezagutzen al duzu egiten duenarekin gozatzen duen norbait, grina sakon eta pertsonal batek bultzatzen duena?





ZeharGAIT jarduera

Irakurketa: Gillianen historia

Gillianek zortzi urte besterik ez zituen, baina bere etorkizuna arriskuan zegoen. Eskola-ko lanak hondamendi bat ziren, irakasleen arabera behintzat. Berandu ematen zituen etxe-ko lanak, kaligrafia ikaragarria zuen eta nekez gaintzen zuen. Ez hori bakarrik, gainera, eragozpen handiak eragiten zizkien gainerako ikasleei: urduri mugitzen zen zarata eginez, leihotik begiratzen zuen –irakasleak klasea eten behar izaten zuen Gillianek berriro arreta eskaini ziezaion–, edo ikaskideei enbarazu egiten zieten portaerak izaten zituen. Honek guztiak ez zuen kezkatzen –ohituta zegoen autoritatea erakusten zutenek arreta erakartzera, eta ez zuen modu desegokian jokatzearen sentipenik–, baina irakasleak oso kezkatuta zeuden. Hainbestearino, non egun batean gurasoengana jotzea erabaki baitzuten.

Ikastetxeak uste izan zuen Gillianek ikasteko zailtasunak zituela eta agian egokia-goia izango zitzaiola premia bereziak zituzten haurrentzako zentro batera joatea.

Gillianen gurasoek kezka handiz hartu zuten ikastetxeko gutuna, eta martxan jarri ziren. Gillianen amak bere soinekorik onena eta oinetakorik onenak jantzi zizkion, bi koleta egin zizkion, eta okerrenaren beldur, psikologoarengana eraman zuen ebalua zezan.

Oraindik ere Gillianek gogoratzen du larruz koadernatutako liburuz betetako haritz-zurezko apalategiak zituen gela handi batera pasarazi zutela. Zutik, idazmahai handi baten ondoan, tweedezko jaka bat zeraman gizon itzel bat zegoen. Gillian gelaren beste muturreraino eraman eta larruzko sofa handi batean esertzeko eskatu zion. Gillianen oinek ozta-ozta ukitzen zuten lurra; tenkatuta zegoen.

Psikologoa bere idazmahaira itzuli zen eta hurrengo hogeitun minutuetan Gillianen amari galdetu zion eskolako gorabeherez eta sortzen ari zela zioten arazoez. Galdera horietako bakar bat ere ez zion egin Gilliani, baina etengabe begiratu zion arretaz. Horrek Gillian deseroso eta nahasirik sentiarazi zuen.

Azkenean, Gillianen amak eta psikologoak hitz egiteari utzi zioten. Gizona idazmahaitik altxatu, sofara joan eta neskaren ondoan eseri zen.

- Gillian, pazientzia handia izan duzu eta eskerrak ematen dizkizut horregatik –esan zuen–, baina uste dut pazientzia izaten jarraitu beharko duzula pixka batean. Orain zure amarekin hitz egin behar dut pribatuan. Kanpora irtengo gara minutu batzuetan. Ez kezkatu, laster joango gara.

Gillianek baiezkoa egin zuen, urduri, eta bi helduek hantxe utzi zuten eserita, bakarrik. Baina gelatik alde egin aurretik, psikologoak idazmahaiaren gainean etzan eta irratia piztu zuen.

Irten eta korridorera iritsi zirenean, doktoreak esan zion Gillianen amari:

- Egon hemen une batez eta begiratu Gillianek zer egiten duen.



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).

Korridorera ematen zuen gelako leiho baten ondoan geratu ziren zutik, eta handik ezin zituen Gillianek ikusi. Ia berehala, Gillian zutitu eta gela osoan zehar mugitzen hasi zen musikaren erritmoari jarraituz. Bi helduak isilik begira egon zitzaizkion minutu batzuetan, neskatoaren graziaz liluraturik. Edonor konturatuko zen zerbait naturala –baita jatorrizkoa ere– bazegoela Gillianen mugimenduetan. Eta edonor ohartuko zen haren aurpegiaren erabateko atseginaz.

Azkenean, psikologoa Gillianen amarengana jiratu eta esan zuen:

– Lynne andrea, Gillian ez dago gaixorik. Dantzaria da. Eraman dantza eskola batera.

Gilliani zera galdetu nion, horren ondoren zer gertatu zen. Amak gomendatu ziotena egin zuela azaldu zidan. Ezinezkoa egiten zait adieraztea zein zoragarria izan zen –kontatu zidan–. «*Ni bezalako jendez betetako gela hartan sartu nintzen. Mugitu gabe eserita egon ezin ziren pertsonak. Pentsatu ahal izateko mugitu behar zuten pertsonak*».


Astean behin joaten zen dantza-eskolara, eta egunero praktikatzen zuen etxean. Denborarekin, Londresko *Royal Ballet School*-erako proba bat egin zuen eta onartu egin zuten. Aurrera jarraitu zuen *Royal Ballet Company*-n sartu zen arte, non bakarlari izatera iritsi zen eta mundu osoan zehar emanaldiak egin ere. Bere karrera amaitu zue-nean, Gillianek bere antzerki musikaleko konpainia sortu zuen eta Londresen eta New Yorken arrakasta handia izan zuten hainbat ikuskizun ekoitzi zituen. Denborarekin, Andrew Lloyd Webber ezagutu zuen, eta elkarrekin sortu zituzten garai guztietako antzerkirako musika-ekoizpen ospetsuenetako batzuk, besteak beste: *Cats* eta *El fantasma de la Ópera*.

(Iturria: Robinson, 2009: 19-22)

Galderak

- Zer iruditzen zaizu Gillianen kasua? Zer datorkizu burura istorio hau irakurtzean?
- Gillianek bere pasioa lan bihurtzeko gai izan zen. Zure ustez, autoerrealizazioak zerikusia al du lan-munduarekin eta lan-giroarekin? Nola?





ZeharGAIT jarduera

Deskonektatutako langileak

Normalean, giza baliabideetako adituek uste dute langile bat bere enpresatik deskonektatuta dagoenean honelako egoerak gertatzen direnean: gustura ez dagoenean eta bere enpresarekin kritikoa denean.. Bere motibazioa oso baxua denean, motibazio falta horrek bere lan-errendimenduan eragin handia duenean.

Hala ere, AEBetako 63 erakundetako 31.000 langilek baino gehiagorekin Leadership IQ konpainiak egindako azterlan baten arabera, ezarritako teoriak espero zutenaren kontra, lanean deskonektatuta sentitzen ziren langileen %26k «motibazio eta inplikazio handia zuten beren lanarekin». Eraitza harrigarri horiek zera erakutsi zuen: baziren zenbait langile zeinek euren enpresa ez zuten erakunde handitzat jotzen, izatez ez zuketena gomendatuko, baina uste hori zuten guztietatik laurdena ehuneko ehunean motibatuta zegoen lan egiterakoan (Leadership IQ, 2019).

Ikerketak erakutsi zuen langile horien motibazio-maila enpresarekin konektatutako langileenaren antzekoa zela. Beraz, aurkikuntza horrek argi eta garbi hitz egiten du langileen faktore motibazional barnekoez eta pertsonalez.

Galderak

- Nola azalduko zenuke hori?
- Inoiz gertatu al zaizu hori, hau da, enpresa batean edo lantalde batean gustura ez egotea (prestakuntza-zentroan, adibidez) eta, hala eta guztiz ere, maila altuan eta motibazioz aritzea?
- Inoiz esperimentatu ez baduzu, uste duzu zuk ere motibazioari eutsi diezaiokezula, enpresak ondo funtzionatzen ez badu edo lan-giroa ona ez bada ere?



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).

ZeharGAIT jarduera

Arte grafikoetako tailerrean (Berta eta Marisa)

Jardueraren eta prestakuntzaren testuingurua

Klaus tailer bateko zuzendaria da, eta zerbait egin behar du noizbehinka bere lanpostutik alde egiten hasi den emakume bati buruz. Berta, bere langileetako bat, noizbehinka bere postua uzten duela entzun du, idazkaritzan lan egiten duen Marisa lagunari bisita egiteko. Batzuetan denbora luzez joaten da, eta badirudi ohitura bihurtzen ari dela. Klaus kezkatuta dago Berta gero eta atzeratuago dagoelako. Beste langile batzuk ere erlaxatzen hasiko diren beldur da.

Gauza erraz hasi zen, baina Berta gero eta gehiago falta da. Jarduera honen harreta, gakoa, Klausengan jarri nahi dugu; ez, beraz, Berta edo Marisan. Bertaren jokabidea epaitzea, egiten duena ondo edo gaizki dagoen eztabaidatzea denbora galtzea da gure ikuspegitik; Klausek argi dauka onargarria dena gainditzen duten absentziak gertatzen ari direla, nahiz eta larriak ez izan. Eta arreta jarri behar dugu Klausek egingo duen horretan. Zazpi aukera ditu.

Jarduerarako jarraibideak

1. Urratsa: parte-hartzaileei eskatuko diegu 1etik 7ra, Klausek dituen jarduteko aukerak idatziz ordenatzeko. 7a hutsik dago, beraiek erabaki gehigarri bat proposa dezaten. Ez dago eragozpenik zortzigarren edo bederatzigarren aukera bat gehitzeko. 5-10 minuturekin nahikoa izan daiteke.

2. Urratsa: berehala, paragrafo batean, idatziz, aukerak ordenatzeko jarraitu duten irizpidea azaltzeko eskatuko diegu.

3. urratsa: kontrastea, ahal dela ARBELEAN, aukera bakoitza non jarri dugun ikusteko. Taula bat jar daiteke, 1etik 7ra bitarteko gelaxkekin (bat aukera bakoitzeko), eta dagokion gelaxkan zenbaki batekin idatziko dugu parte-hartzaile bakoitzak aukera hori non jarri duen.

Adibidez: Luciak honela ordenatu ditu aukerak: 1. aukerari 3. lekua eman dio; 2. aukerari, 7. Lekua eta 3. aukerari lehenengoa. Hori horrela, gure taulan, 1 aukerari dagokion gelaxkan 3 jarriko dugu, 7 aukeraren gelaxkan 2 eta 3. aukeraren gelaxkan 1. Behin parte-hartzaile guztien aukerak iraulita (hau da, imajina dezagun aukerak 1 zenbakia jaso duela, eta abar), 1. Parte-hartzaile guztien aukerak irauli ondoren (hau da, imajina dezagun 1. Aukerari Luziak 3, zenbakia, Markosek 1goa eta Rosak 6.a eman diotela), hori jarri behar da gelaxkan. 1 gehien lortu duen aukera gailenduko da, eta 7 gehien duen aukera, berriz, parte-hartzaileek baztertua izango litzateke. Ez da komeni parte-hartzaileek emandako zenbakiak ezabatzea; zenbaki horiek balioko digute gero, beste helburu baterako. Oraingoz, parte-hartzaileek gogokoen duten aukera zein den eta boto gutxien jaso dituen zein den jakiteko balioko digute.

Aukera bakar bat ere ez da perfektua. Izan ere, parte-hartzaileek hutsik dagoen «7. aukeran» proposamen egokiago bat egin dezaten diseinatu dira; seguru asko aurreko beste 6 bertsioen bertsio zehaztu edo egokitu bat izango da, baina pertsonalagoa.


4. urratsa: arbelaren taularen ondoko zerrenda batean, parte-hartzaileak zerrenda ordenatzeko zein gauza edo irizpidetan finkatu diren idatziko dugu. Aldez aurretik idatzita daukagunean (2. urratsean eskatu diogu), 3. urratsean ez dugu zalantzan jarriko hasierako irizpidea. Garrantzitsua da ikuspegi aniztasunak ematen duen aberastasuna azpimarratzea.

5. urratsa: puntu bakoitzari buruzko hausnarketa irekia. Oso erabilgarria da bakoitzak sailkapena egiteko erabili izan dituen irizpideen erreferentzia erabiltzea (4. Urratsa). Esan dugunez, ez dago irtenbide egokirik, abantailak eta desabantailak bilatzen ari gara, nahiz eta erlatiboak izan.

Hona hemen aukera bakoitzari buruzko iruzkin batzuk, nahiz eta ziurrenik gehiago aterako diren. Kontuan izan behar da, eszena eta pertsonaiak behatzean, parte-hartzaile bakoitzak alderdi interesgarriak deskubritu ditzakeela, beste batzuek erreparatu ez dituztenak. Kasuaren gaineko elkarrekintza hori baliotsua izango da multzoarentzat. Aukera-aberastasuna behatzea eta «*harremanetan dena ezin dela aurreikus*» hautematea garrantzitsua da. Komunikatzeko, norekin ari garen hitz egiten jakin behar dugu (nolakoa den pertsona hori eta nolakoa den oraintxe bertan), gure mezua helarazteko modurik eraginkorrena zein izan daitekeen jakiteko.

<p>1) Klausek Marisaren nagusiari eskatu diezaioke Berta handik pasatzea saihesteko.</p>	<p>Erantzukizuna Marisaren buruaren esku utzita, badirudi Klausek bilatzen duen zerbait lor dezakeela (Bertak leku horretara ez joatea), eta bestetik saihesten du ere Bertarekin hitz egitearen deserosotasuna. Epe laburrean, agian, jokaldia ondo atera dakioke. Badaiteke Berta pixka bat kontrolatuta sentitzea, eta bere jokabidea aldatzea. Baina, posible litzateke ere Marisaren nagusiak sentitzea Berta ez dela bere erantzukizuna; edo Marisari arreta deitu baina Bertarengan eraginik ez izatea; edota Marisa eta Berta, hitz egiteko, beste leku batean hitz egiten hastea. Azken finean, Klaus ez da zuzenean arazoari aurre egiten ari. Lasterbideren bat bilatzen ari da, baina ez ditu faktore guztiak kontrolatzen.</p>
<p>2) Klausek ez du ezer egingo. Beharbada, daukana baino garrantzi handiagoa ematen dio kontu honi.</p>	<p>Elkarriketa irekitzearen deserosotasuna saihesten da. Baina zalantzan dago zenbateraino duen erantzukizuna langileek denbora modu eraginkorrean kudeatzeari dagokionez. Litekeena da (oraingoz) daukana baino garrantzi handiagoa ematea, baina ez legoke gaizki Bertarekin (edo langileekin orohar) horren inguruan hitz egitea, batez ere beste langile batzuk gauza bera egiten hasteak kezkatzen duenean.</p>
<p>3) Klausek sistema bat ezar dezake bere ataleko langile guztiak kontrolatzeko eta inor arrazoirik gabe bere lan-lekua utzi ez dezan.</p>	<p>Hemen ez zaigu zehazten Klaus zer sistema motatan pentsatzen ari den, ezta nola ezarriko duen ere. Formaltasuna dela eta, badirudi zuzenean neurri zorrotzetara jotzen duela aldez aurreko elkarriketarik gabe, eta, gainera, neurriak enplegatu guztiei iristen zaizkiela, eta ez Bertari (nahiz eta azken honen egoera bultzatu duen horrek bultzatu duen).</p>

<p>4) Klausek Berta kontrolatu dezake, eta hau Marisarekin hitz egitera doanean jarraitu ere. Ustekabean bien elkarrizketa etengo du, harrituaren itxura eginez, eta esango die egiten ari diren hori «ez dagoela ondo».</p>	<p>Hori nekagarria izan daiteke, eta, gainera, Klausek arreta beste zeregin batzuetatik desbideratzea eragin dezake. Ez dirudi oso eraginkorra, baina abantaila bat du Klausentzat: Bertarekin elkarrizketa nola hasi ez badaki, horrek pixka bat lagunduko dio.</p>
<p>5) Klausek Bertarekin hitz egin dezake eta esan, Marisarekin hitz egin nahi badu, atsedena hartu beharko duela.</p>	<p>Zuzeneko elkarrizketa modu bat aurkitzea garrantzitsua da. Hasieran zaila da harreman guztietan, baina lider batentzat oso garrantzitsua da bere mendekoekin hitz egiteko modu bat aurkitzea. Hitz bigunak edo gogorragoak aukeratu ahal izango ditu, ikasiko du ere gaia nola atera eta nola bideratu, eta arrakasta gehiago edo gutxiago izango du. Orohar, dena den, ildo horretatik doazen aukera guztiak dira –epe ertain eta luzean– eraginkorrenak Klausen lan-taldearentzat.</p>
<p>6) Klausek nahiago du ezer zuzenean ez esan, baina keinu txiki batzuekin, aukera dagoenean, Bertari erakutsiko dio zerbaitekin ez dagoela gustura. Agian Bertak ez du jakingo zer den, baina heldu daiteke momentu bat zeinetan Bertak Klaus-i zuzenean galdetuko dion ea zerbaite gertatzen den. Une hori helduta, Klausek bere haserrea adieraziko dio.</p>	<p>Jarrera horri «pasibo-oldarkorra» esaten zaio, Klausek Bertari hainbat une eta testuingurutan etsipena edo haserrea erakutsiko diolako. Kontua da Berta agian ez dela konturatuko edo ez duela jakingo Klausen portaera hori zerk eragin duen. Eta Klausen antzera, Bertak ere nahiago balu zuzenean ez hitz egin, baliteke Bertak aurrez-aurre egitea saihestea, eta ezer ez galdetzea. Azken finean, Klaus da bere nagusia. Berak jakingo du. Horrelako zirkulu zoro batek harremana arrarotuko du, eta ez hori horrela ez legoke inolako zentzutan hobetzeko aukerarik.</p>
<p>7) Parte-hartzaileei egoki iruditzen zaien beste aukera bat</p>	<p>Oro har, 6 aukerak zehaztu edo hobetu daitezke, bateratzaileagoak eta proportzionalagoak izateko, eta ez hain zakarrak.</p>



ZeharGAIT jarduera

Arte grafikoetako tailerrean (Berta eta Marisa)

Klaus tailer bateko zuzendaria da, eta zerbait egin behar du une batez bere lanpostutik alde egiten hasi den emakume bati buruz. Gauza erraz hasi zen, baina gero eta gehiago falta da. Arreta Klaus piezan jarri nahi dugu (ez kanpoan dagoen langilearengan, hau da, Bertarengan).

Berta, bere langileetako bat, noizbehinka bere postua uzten duela entzun du, idazkaritzan lan egiten duen Marisa lagunari bisita egiteko. Batzuetan denbora luzez joaten da, eta badirudi ohitura bihurtzen ari dela. Klaus kezkatuta dago Berta gero eta atzertuago dagoelako⁷. Beste langile batzuk ere erlaxatzen hasiko diren beldur da.

Klaus zer egin pentsatzen ari da. Baloratu hurrengo erabakien abantailak eta desabantailak, eta antolatu 1etik 6ra. Jarri lehenengo egokiena iruditzen zaizuna, eta, azkenik, egokitasun gutxien ikusten duzuna. Ordenatu ondoren, azaldu paragrafo labur batean zein izan den ordena hori ezartzeko jarraitu duzun irizpidea.

1) Klausek Marisaren nagusiari eskatu diezaioke Berta handik pasatzea saihesteko.
2) Klausek ez du ezer egingo. Beharbada, daukana baino garrantzi handiagoa ematen dio kontu honi.
3) Klausek sistema bat ezar dezake bere ataleko langile guztiak kontrolatzeko eta inor arrazoirik gabe bere lan-lekua utzi ez dezan.
4) Klausek Berta kontrolatu dezake, eta hau Marisarekin hitz egitera doanean jarraitu ere. Ustekabean bien elkarrizketa etengo du, harrituaren itxura eginez, eta esango die egiten ari diren hori «ez dagoela ondo».
5) Klausek Bertarekin hitz egin dezake eta esan, Marisarekin hitz egin nahi badu, atsedenaldea hartu beharko duela.
6) Klausek nahiago du ezer zuzenean ez esan, baina keinu txiki batzuekin, aukera dagoenean, Bertari erakutsiko dio zerbaitekin ez dagoeka gustura. Agian Bertak ez du jakingo zer den, baina heldu daiteke momentu bat zeinetan Bertak Klaus-i zuzenean galdetuko dion ea zerbait gertatzen den. Une hori helduta, Klausek bere haserrea adieraziko dio.
7) Parte-hartzaileei egoki iruditzen zaien beste aukera bat

⁷ Kasu hau sortzeko kontuan hartu da: De Diego/ Guillén, 2015: 170-171.

ZeharGAIT jarduera

Bata bestearengatik, etxea erratza pasatu gabe (Amaliaren gurpilaren zulaketa)

Jardueraren ezaugarri orokorrak. Taldean gertatzen diren zenbait fenomenoren eragina aztertzen duen jarduera da, hala nola erantzukizunaren zabalkundea. Gako-hitzak: talde batean ezustekoak artatzea; batzuk bestearengatik zereginik egin gabe geratzen diren egoerak kudeatzea.

Gogoratzekoa: taldearen neurriari dagokionean bai eta taldearen elkarrizketa eskatzen duten jarduera-faseetarako, *ZeharGAIT jardueretan elkarrizketa egiteko eskaintako gomendioak* erabiltzea iradokitzen dugu (ZeharGAIT Gomendioak, 1. unitatea).

Jardueraren denboralizazioa: gomendatutako iraupena 60-80 minutukoa da. Gutxi gorabeherako denborak adierazten dira, eta 3. Urratsa da gehien edo gutxien irauten duena.

Sarrera. Gaztelaniaz maiz erabiltzen da «*Unos por otros, la casa sin barrer*» esaera, oso hurbileko aldaera ere baduena: batzuk bestearengatik, etxea erratza pasatu gabe. Egoera batzuetan, inork ez du bere gain hartzen egin gabe dagoen ageriko lan edo zeregin bat, bere sudurraren aurrean dagoena; eta zeregina egin gabe geratzen da. Agian bakoitzak, beretzat, pentsatu zuelako ez zela bere kontua edo beste baten zeregina zela, edo bati ere ez zaiolako bururatu hori ezin dela egin gabe utzi.

Kasu honetan, Amalia da arduraduna, eta bere langileekin gogoeta egin beharko du gertatutakoaz. Hori da galdera detonagarria: Amaliaren lekuan jarri zaitez eta lau langileekin elkarrizketa bat hasi. Arreta merezi zuen egiteko bat egin gabe geratu da, eta etorkizunari begira holakoak saihestu behar dira.

Kasua: bata bestearengatik, etxea eskobatu gabe

Gertatu dena da jende askok, konfinamenduaren ondorioz sozialki isolatuta egonik, ez duela bere lanpostuetara itzuli nahi izan, oso motibaziorik gabe zegoelako. Uko Handia hainbat faktorek eragin dute, baina, nire ustez, garrantzitsuena asebetetze-eza da, pertsonen kudeaketan gaitasun gutxi duten pertsonen zuzentzen baitituzte taldeak,




eta ez lana bera. Ez dute lana uzten, nagusia bere bizitzatik desagertzea besterik ez dute nahi.

EGITEKOA: Testua irakurri eta gero, galdera hauei erantzuna eman:

- Zure iritziz, zenbateraino dira nagusiak lan-giroa sortzeko garrantzitsuak?
- Uste duzu enplegu batetik joaten direnek batez ere nagusiengatik joaten direla?
- Elkarrizketatuak adierazi duenez, trebetasun bigunak', berez, nahiko gogorrek dira', lan-giroan eta enpresen errendimendu eraginkorren duten garrantziagatik. Zer deritzozu horri?



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).



ZeharGAIT jarduera

Uko egite handia. Irakurketa osagarria 2

Lau milioi langilek uzten dute lanpostua hilero AEBetan

Biztanleria aktiboaren baja-kopuru handiak lan-merkatua aldatzen du eta kontratazioan botila-lepoak eragiten ditu

MARÍA ANTONIA SÁNCHEZ-VALLEJO – New York, El País – 2021eko Azaroaren 21an argitaratutako idazkiaren aterakina

Irteerako elkarrizketak tradizio bat dira AEBetan; giza baliabideen kudeaketan berrezko generoa. Enpresetatik beren borondatez joaten diren langileei egiten zaizkie, jakiteko zer joan zen gaizki eta zein izan ziren langilearen itxaropenak zimeldu ziztuzten arrazoiak. Pandemiaren osteko susperraldia hasi zenetik lan-merkatua uzten duten estatubatuarren odolustearen arabera, galdeketa horien ondorioak erabilgarriak dira. Zera ulertzen laguntzen dute, zergatik apiriletik aurrera hilero lau milioi pertsona inguruk beren lanpostua borondatez uzten duten, eta zergatik ere askoren kasuan baja hori ez doalako bat, une-unean behintzat, beste enplegu bat bilatzearekin. (...)

Phyllis Curran O'Neillen kasua da. 67 urte ditu. (...) Irteeraren eragilea gehiegizko lana izan zen, eta, ondorioz, estresa eta akidura emozionala. Hilabeteak aurrera joan ahala, nire ardurak handitzen ari zirela ohartu nintzen, eta halako batean lehertu eta oihu egin nuen: «Diru gehiago nahi dut hau egiteagatik!». Amorraren ondoren, nire jokabidea onartezina izan zela sentitu nuen, eta joateko ordua zela erabaki nuen, jarraitzen du. Izan ere, zuzendaritzak erreserban mantentzea eskaini zidan, baina egun bat bakarrik deitu didate azken bi hilabeteetan; baja bat betetzeko. Sistemaren beste ezaugarri bat langileen baja medikoak oso banakakoak direla, soldatan murrizketarik ez izateko.

Desertzio masibo horrek nahasteak eragiten dizkie enpresaburuei, eskulan gero eta urriagoari aurre egiten baitiote. Merkataritza edo garraioa bezalako sektoreetan erabateko susperraldia arriskuan jartzen ari dira, gaur egun funtzionalki defizitarioak baitira: nahikoa da saltoki handi batzuetan, puntako orduan, kutxa itxien aurrean dauden ilara amaigabeak hautematea. Uztailaren amaieran, AEBetan 11 milioi lanpostu zeuden hutsik. Irailean lana utzi zutenak 4,4 milioi baino gehiago izan ziren, abuztuan baino zertxobait gehiago (4,3 milioi), 331 milioi pertsonako populazioan. Lan-absentismo mota hori erregistratzen hasi zenetik, duela bi hamarkada, eman den ehunekorik handiena da. (...)

Merkatutik ateratzen ziren langile gehienak itzulerarik gabeko puntu batera iritsiak ziren: beren zereginak bidesari psikologikoa ezartzen zieten, eta, batzuetan, baita fisikoa ere, jada ordaintzeko prest ez ziruditenak. Peter Christophe Atwillek 25 urte ditu, Politika eta Ekonomian lizentziaduna da, eta a priori bere garaikideetako edozeinek



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).

amestuko zuen lana utzi du: «ez zetorren nirekin bat; ez nintzen eroso sentitu». Duela bi aste Bloombergetik joan zen, enpresa kontu baten kudeatzaile gisa lan egiten zuen tokitik. Baina ez zegoen gustura, eta norabide profesional berri bati ekitea erabaki zuen, *«jakinda Bloombergen hautemandakoaren %50 irabaziko dudala»*.

Atwillek gizarte-zerbitzuetan lan egin nahi du, eta, zehazki, etorkinen harreran, bere familia etorkin gisa iritsi baitzen herrialde horretara. *«Oso presente dudan zerbait da, horregatik uste dut askoz gehiago beteko nauela zentzua ikusten diodan lan batek, nahiz eta gutxiago kobratu»*, dio. Momentuz atsedenaldirik hartuko du. «Baikorra naiz. Nire gurasoak ziren kezkatuenak, ni baino askoz gehiago; baina onartu egin dute al-daketa, zoriontsu ikusten nautelako, eta hori da axola zaien gauza bakarra, dio hutsera egiten duten jauziaz.» (...)

Patricia Campos-Medinak, Cornelleko Unibertsitateko Langilearen Institutuko zuzendariak, odolustearen zergatia azalduko luketen faktoreetako batzuk aipatu ditu, besteak beste, asegabetasuna. *«Larritasun ekonomiko eta pertsonaleko uneak bizi izan ditugu. Askok lanera babes-bermerik gabe eta familiak zaintzeko malgutasunik gabe itzuli ziren, eta orain bizitako eragozpenak ebaluatzen dituzte. Emakume askok beren seme-alabez edo adinekoez arduratu behar dute, kanpoan lan eginez irabaziko luke-tena ez litzatekeelako nahikoa izango pertsona bati ordaintzeko; horrek azaltzen du merkatutik irtetea. Uko Handia profesional liberalen ematen da, bai, baina are gehiago okerren ordaindutako kategorien artean; eta antzera ematen da sindikatuta dauden langileen (guztizkoaren %10) eta sindikatu gabekoen artean. Pandemiaren garaian, korporazio handien gehiegikeriaren aurkako erreakzioa izan zen, haien diru-sarrerak biderkatu egin baitziren; langile askok ikusi zuten beren bizitzak hipotekatzen ari zirela soldata miserablengatik. Neurri batean, erreakzioa izan da gauzen egoera horrekiko.»*

Pandemia, beraz, langile mota berri baten katalizatzailea izango zen, bizitzaren eta enpleguaren arteko oreka handiagoaren aldeko apustua egiten duena eta malgutasuna funtsezko faktore bezala ulertzen duena. *«Agortze Handia kontzeptua erabiltzen ez du-dan arren, ondo islatzen du gertatzen denari buruz dudak ikuspegia»*, azaldu du posta elektronikoz Chicagoko Unibertsitateko Mishal Khan soziologoak. – *«Burnout [akidura] arrazoi handia dela uste dut, baina badira beste batzuk. Fenomeno hau krisiari eta lan-arazoei buruzko erreferendum kolektibo gisa ikusten dut. Jendea nazkatu egin da eta alternatibak bilatzen ditu esplotatua, degradatua izateko edo trukean nahikoa ematen ez duten enpresei dirua irabazazteko. Zaintzarako sarbidea ere arazo handia da, bai haurren zaintza, bai adinekoak zaintzeko modu eskuragarriak. Beste pertsona batzuek beren negozioak hastea, gig ekonomian sartzea [proiektuen alde lan egitea] edo autonomo bihurtzea oso erakargarri ikusten dute, ez baitute inorentzat lan egin behar. Aukera horiek egoteak konfiantza eman diezaike pertsonari beren lanak uzteko.»*

Irene San Segundori, New Yorkeko 36 urteko kazetariari, bere azken lanaren irteerako elkarrizketan kosta egin zitzaion bere erabakia babestuko zuten kexak aurkitzea. *«Inoiz izan dudak lanik ordainduena zen, primeran tratatzen ninduten, ez zegoen halabeharrik, gaixotasunik, ezer ere ez. Baina pandemian zehar Zoom bilera gehiegi egiteak bultzatu ninduen gehien erabakia hartzera, pilotu automatikoarekin bizitza bat neramalako: 10 orduko lanaldiak, beti konektatuta, marmotaren bizitza. Covid-ak denboraren sentazioa bizkortu zuen, bi urte lapurtu izan baligute bezala da. Pandemia*



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).

baino lehen uztea pentsatu nuen, aurrezpenik gabe, baina covid-a erabakigarria izan zen pausoa emateko», azaltzen du, Uko Handiaren fenomenoak «lehentasunen aldaketa ekarriko duelakoan». «Lehen aldiz nire buruari aukeratzeko baimena eman diot; lehen aurrera egitea besterik ez zegoen». Beste kasu askotan bezala, alerta-seinaleak agerikoak izan ziren: «lo ez egitea, pilulekin egin behar izatea, antsietatea; deskonektatzeko edo egun libreak hartzeko ezintasuna –lana orduan ez zela aterako bazekielako; edo igandea lana aurrera ateratzeko erreserbatzea».

Pausoa eman eta hilabete eta erdira, kontuak egin ondoren eta aurrezki-koltxoi batekin, San Segundo *loteria tokatu izan balitzaio bezala* sentitzen da. Askoz inplikatuago dago hirugarren adineko boluntario gisa, lehen mata jauzian egiten zuena; jarduerazerrenda bat du 9tik 5era (bulegoko ordutegi tradizionala AEBetan), eta idazteko gogoa plazeragatik, ez obligazioagatik. «*Hiru desio hautatuko banitu, argi daukat zein izango litzatekeen baliotsuena: denbora*». Faktore hori, beharbada, laster agertuko da, moldeko letrekin, edozein lanetik irteteko elkarriketetan erabilitako arrazoien baremoan.

Galderak

- Artikuluan esaten denak islatzen al zaitu?
- Ulertzen duzu norbaitek lana uztea? Zure ustez, zerk bultzatzen du pertsona bat bere lana eta soldata uztera?
- Lan-giroa lana uzteko faktore bat izan daitekeela iruditzen zaizu?
- Inoiz lana utzi duzu, borondatez? Zergatik?



2. «Adimen emozionala» deitzen duten hori: haserrearen gaineko jarduera

Neurri batean, trebetasun bigun guztiek *adimen emozionala* esaten zaionaren dosi bat hartzen dute. Adimen emozionalaren maila norberaren eta beste pertsona batzuen sentimenduak ezagutzeko dugun gaitasunean islatzen da. Eta islatzen da ere gure burua zerk motibatzen duen, eta motibazio horrek emozioekin zein lotura duen, haute-mateko gaitasunean ere.

Howard Gardnerrek azaltzen du pertsona guztiok zortzi adimen mota ditugula, gutxienez. Horietako bik adimen emozionalarekin dute zerikusia, edo gure eta besteen emozioak ezagutzeko eta maneiatzeko gaitasunarekin. Gure emozioak ulertu eta haiekin zer egin jakiteak, gure burua ezagutzeko aukera ematen digu, bai eta gure jarrera eta portarenen jabe izatekoa ere. Beste era batera esanda, emozioak, sentitzen duguna, ezin ditugu kontrolatu. Baina emozioek eragiten dutena (jarrerak, jokabideak) beste gauza bat da.

Poza eta tristura, haserrea, nazka, harridura, lehen mailako emozio unibertsalak dira, giza kultura guztietan agertzen direnak. Eta, gainera, oso funtzio garrantzitsuak betetzen dituzte. Ugaztunen beldurrak ihes egiteko gogo sortzen du, gure garunak arrisku bat dagoela sentitzen ari delako (benetakoa edo imajinatua izan); nazkak edo higuinak osagai biologiko bat ere badu, nolabait gure burmuinak esaten digu kalte egin diezagukeen zerbait dagoela (adibidez, kalte egin diezagukeen jaki bat).

Eta gero emozio konplexuagoak daude, emozio primario horien nahasketa direnak. Erruak adierazten digu, arrazoiren batengatik, konpondu beharreko zerbait dagoela; lotsa, nolabait, erruaren eta beldurraren arteko nahasketa da; antsietatea, arriskua iragartzen duen sentsazioa; etsipena (geneukan espektatiba bat betetzen ez denean sortzen dena); injustizia-sumindura sentsazioa. Errukiak, adibidez, sufritzen duen norbait ikusteak sortzen digun sufrimendua edo tristura eta maitasunaren emozio positiboa uztartzen ditu. Eta itxaropenak oraingo emozio negatiboa eta etorkizunean gauzak hobeto joango direla aurreikusten du.

Unibertso oso bat dira. Izan ere, badira emozioen multzoa unibertso bat bezala aipatzen dutenak (unibertso emozionala). Horiei dagokienez, zertan datza adimen emozionala? *Emozioak hautemateko, adierazteko, ulertzeko eta kudeatzeko gaitasuna da adimen emozionala.* Aditz horien artean, argi dago ez dagoela emozioak saihesteko edo sortzea eragozteko gaitasunik. Ez. Emozioak kudeatzeko prozesua hautematearekin hasten da, hau da, konturatzearekin. Estimulu baten aurrean martxan jartzen den energia horretaz konturatzea. Zer sentitzen dugun konturatzea, eta berez emozio batek zer egitera edo esatera bultzatzen gaituzten ulertzea (emozio bat edo beste bat sentitzen dugunean zertarako gogoia dugun). Eta konturatzea ere emozio horiek gure gorputzean eta hizkuntzan adierazteko joera dutela; gure jokabidean ere eragin dezaketela. Hautemateak eta ulertzeak, emozioak behar bezala kudeatzen lagunduko digu, emozioak erreprimitzeko edo ezabatzen saiatzeko bidea aukera txarra baita. Emozio batek sortzen duen energia ezabatzen badugu, positiboa edo negatiboa izan, irtenbideren bat ematen ez badiogu, estresa barnean metatuz joango gara digu lurrikara bat gertatu arte.

Adimen emozional horrek, aldi berean, beste pertsona batzuen emozioez ohartzeko aukera ematen digu. Hau dirudiena baino zailagoa da. Ez dituzte beti beren emozioak adierazten. Baina keinuek, isiltasunek, une batean erabiltzen dituzten hitzek edo hitz horiei ematen dieten tonuak arrasto batzuk eman diezazkigukete beste batzuk bizitzen ari diren emozioak ulertzen saiatzeko. Ulertzeak, ordea, ez gaitu beste pertsona batzuen emozioen erantzule egiten. Norberaren erantzukizuna da bereak kudeatzea.

2.1. Nekatu egiten nauzu; haserretu egiten nauzu; ez da hainbesterako

Esandakoak ikusita, arretaz erreparatuko diegu honelako esamoldeei: «Haserretu egiten nauzu, nekatu egiten nauzu, nerbioetatik jartzen nauzu», bai eta «ez da horrenbesterako» esamoldearen antzekoei ere.

Haserretzen nauzu	Adierazpen horiek arrazoibide okerra dute. Pertsona bakoitza BERE emozioen arduraduna da. Beste norbaitek esaten edo egiten duen zerbaitek haserrea, tristura edo nekea eragiten dionean, egoera ondo kudeatzeko baliagarria izan dakioke emozio hori zerk eragiten dion pentsatzen gelditzea. Eta elkarriketarren parte den beste pertsonak axola badio, komunikatzeko eta emozioa adierazteko modu bat bila dezake, elkarrekiko harremanerako onuragarria izan dadin. Adibidez, pertsona batekin partekatzea: <i>nola bere jokabide zehatz batek, edo esan edo egin berri duen zerbaitek, haserrea, etsipena, tristura eta nekea eragiten digun, zeren guk..... beste portaera mota bat espero genuen; edo uste dugulako beste pertsona ez dela ohartu gertatzen ari den garrantzizko zerbaitez, etab.</i>
Nerbioetatik jartzen nauzu	
Nekatzen nauzu	
Nahi gabe apurtu dizut. Boli bat besterik ez zen, ezta? Ez da horrela jartzeko.	Beren esamoldeengatik, badirudi hitz horiek adierazten dituzten pertsonak gogaituta edo deseroso daudela (agian lehen kasuan pixkat kezkatuta ere). Antza haien solaskidea den pertsona emozio bat sentitzen ari dela sumatzen dute, eta haien «erruz» izan daitekeela pentsatu. Hori horrela, hitzuna entzuleari zuzentzen zaio, entzuleak bere emozioak nola kudeatu behar dituen adieraziz. Aginduak ere badirudite. Baina ez du entzulearengan pentsatuz esaten, bere buruan pentsatuz baizik (hiztun gisa).
Ez dakit zergatik zoazen hain harro jertse berri horrekin. Ez da hainbesterako.	Hala ere, hiztunen hitzetan ere gehiago hauteman daiteke. Zehazki, hitzuna gertatutakoarekin nola sentitzen den. Lehen hiztunak lehen entzulearen boligrafoa hautsi du; ez dakigu errudun sentitzen den ala ez, baina bestearen erreakzioak kezkatzen du. Ez da horrela jartzeko, dio. Deserosoa egiten zaio entzulearen erreakzioa, eta hori eten nahi luke.
Ez dakit zergatik jarri zaren horrela; ez dago hainbesterako.	2. kasuan, «ez da hainbesterako» horrek bestelako funtzio bat du. Hemen hitzuna ez da entzulearen erreakzio emozionala ezabatzen saiatzen. Badirudi emozio propioa dagoela, jelskortasuna agian, eta entzulearen beste emozio bat (poza, asebetetasuna, edo besteren bat) desaktibatu nahi du.

Lehen hurbiltze-adierazpen horiei esker, emozioei buruzko komunikazioari dagokion zenbait gauza garrantzitsu ikus ditzakegu, bai eta komunikazio mota honek duen aberastasun eta konplexutasuna ere. Pertsonak dauden tokian, beti daude emozioak. Energia konstante bat bezala dabilta, eta, nolabait esateko, kolore eta zapore askotakoak dira. Bizirik egotearen parte dira. Eta gure emozioei (edo beste batzuen) buruzko esaldiak eraikitzen ditugunean, oso helburu desberdinekin egin dezakegu. Oso ikuspegi ezberdinetatik eta oso helburu ezberdinekin partekatu ditzakegu gure emozioak.

«*Haserretzen nauzu*» baten atzean, agian, desira bat egon daiteke, beste pertsona batek egin duen edo egiten ari den zerbait deserosoa eta gogaikarria iruditzen zaigula transmititzekoa, edo esateko ere gustatuko litzaigukeela hori egiteari uztea. Agian, entzulea egiten ari den hori pertsona askorentzat «gogaikarria izan daiteke», eta hala bada, hitz egokiak aurkituta, zentzuzkoa iruditu daiteke entzuleari eskatzea egiten ari den horri egiten uztea..

Baina egoera batzuetan haserre horrek gauza gehiago ezkuta ditzake. Adibidez, pertsona batzuek beste pertsona batzuk kontrolatu behar dituzte beren bikote-harremantetan, familian, lanean edo lagunen artean; ez daude eroso beste pertsona horiek askatasun-marjina izatearekin. Eta haserreak ez du ekintza batengatik haserrea islatzen. Haserre keinuekin entzuleari gogorarazi nahi diote kontrolpean dagoela, eta beren arteko harremanean (hiztun-entzulea), entzuleak *saihestu egin behar duela hiztuna haserretzea*. Haserre-keinu horiekin batera, normalean, entzuleari gogorarazten zaio «ez duela hiztuna (orohar) haserretu behar», haserretze horrek *«haien arteko us-tezko maitasunaren, adiskidetasunaren edo leialtasunaren aurkakoa omen delako»*.

2.2. «Haserretzen denak beste egiteko bat du: bere haserrea lasaitzea». Esaldi hori ulertzeko era ezberdinak

Esaldi horren bertsio asko daude: haserretzen bazara bi arazo dituzu: haserretu eta «des-haserretu» (edo haserrea lasaitu); edo jada haserretu bazara, egiteko bakarra gertatzen zaizu, haserre hori lasaitzea.

Pertsonok ezin dugu haserre bat kontrolatu. Zerbaitek molestatzeko bagaitu, molestatzeko gaitu. Ez da besterik. Baina emozio horrek, haserreak, ez du justifikatzen, noski, haserreak sortzen duen energia askatzeko edozer gauza egin daitekeela –adibidez, beste pertsona batzuk kaltetzea edo gauzak apurtzea–. Esaldi hori, «haserrea lasaitzearen» lanari dagokiona, batzuetan beste tonu batean eman ohi da. Badirudi agundu bat ematen ari gatzazkiola. «Lasaitu» edo «lasaitzen zarenean hitzegingo dugu» esango bage-nio bezala, edo agian, gertatutakoa «ez dela hainbesterako» (hainbeste haserretzeko)..

Baina esaera hori, aitzitik, geure buruarentzako aholkua da. Beste inork ezin du guk sentitzen dugun haserre kudeatu. Lagungarri izan dakiguke geure buruari galdetzea (edo geure buruari galdetzea) zerk haserretu gaituen, eta gertatutakoa ulertzeko interesa izatea, edota jakitea ere gertatu den edo haserretzen gaituen hori konpontzeko zerbait egin daitekeen. Agian, gertatu den zerbaitek edo norbaitek egin duen zerbaitek gogaitu gaitu; modu oldarkorreak erreakzionatzea (oihu egitea, adibidez), lagunduko du? Bestea mintzea edo gogaitzea oso zaila da egoera hobetzeko; batzuetan, harremanak axola digunean, ideia hobea da beste pertsona bati azaltzea zerk gogaitu gaituen, gertakariak (ez pertsonak) molestatzeko gaituztelako.

ZeharGAIT jarduera Edonor haserretu daiteke, zailena zera da...

Edonor haserretu daiteke. Baina zaila da modu egokian egitea, pertsona egokiarekin, maila zehatzean, une egokian eta helburu zuzenarekin (Aristoteles)

Jardueraren aurkezpena eta hura prestatzeko jarraibideak

Jarduera hau egiteko gutxienez 90 minutu behar dira eta Aristotelesi egotzen zaion esamolde baten inguruan orbitatzen du. Aristoteles filosofo greziarra 384 urtean jaio

zen (duela bi mila urte baino gehiago), eta garai hartako beste filosofo ezagun baten ikaslea izan zen: Platon.

Berari buruz esaten denez, «polimata» bat izan zen; hau da, bere jakin-min aseeginak Aristoteles asko eta askotariko gaietan ikastera eramanez. Haren gogoeten artean, pertsonen arteko harremanei buruzko batzuk iritsi zaizkigu, hogeita lau mende geroago oso baliagarriak izaten jarraitzen dutenak. Hori da aterakin txiki honen kasua:

«Edonor haserretu daiteke, hori oso erraza da. Baina pertsona egokiarekin haserretzea, une egokian, bidezko helburuarekin eta modu egokian, hori ez da hain erraza». (Aristoteles)

Testu labur hori erabiliko dugu haserrea eta sumidurari buruz hausnartzeko. Haserrea oinarrizko emozioa da. Hizkuntza ezberdinetan hitz ugari daude haserreak adierazteko (adibidez: sumindura, hira, amorrua, furfurua, haserrealdia, sutan jartzea), baina horiek ez dira guztiz sinonimoak, haserrea neurri ezberdinetan eman baitaiteke. Gure bizitzako uneren batean, neurri handiagoan edo txikiagoan, pertsona guztiok senti izan dugu zerbait desatseguna dela, deserosoa, molestatzen gaituela, eta maila anitz daude sentimendu horretatik «sutan» sentitu arte. Inguruabarren, testuinguruaren eta konbentzio kulturalen arabera, baliteke sumin hori hainbat modutan adieraztea edo, arrazoi berberengatik, energia hori guztia ezabatzen saiatzeko ahalegin handia egin behar izatea. Hau da, ez dugu beti gure haserrea modu berean adierazten. Baina denok dakigu haserrea zer den.

Giza gorputza haserretzearekin aktibatzen da, emozio nagusia edo oinarrizkoa da; bihotzaren erritmoa bizkortu egiten da, muskuluak tenkatzen dira. Beste animalia batzuetan ere gertatzen da; haserretzen direnean, honelakoak egiten dituzte: hortzak erakustea, erasotzaileari begiratzea edo soinu handiak egitea (gizakien kasuan, oihu egitea). Eta zientziak interpretatzen du animalia haserretuaren erantzun hori aurkariari ohararazpen bat bidaltzeko diseinatuta dagoela: bere portaeran gelditu behar duela.

Jakina, gizakiengan haserrea ez da beti presazkoa edo bat-batekoa izaten, unean uneko gertaera bati erantzunez, oinazetuak edo harrapatuak sentiarazten gaituena. Hainbat haserre-mota daude:

- 1) Demagun lasai-lasai gabiltzala espaloian, eta bat-batean ur kantitate handi baten inpaktua sentitzen dugula. Norbait lorezaintza-lanak egiten ari da obretan dagoen hesi baten beste aldean, eta antza, une batez, ur-mahukaren kontrola galdu du. Ondorioa: gu blai eginda gaude. Zaila da haserre ez sentitzea. **Bat-bateko haserrea** da hori.
- 2) Beste kasu batzuetan haserrea egonkor bihurtzen da. Gure barnean, hor nonbait, zerbaitetik haserrea pilatuta dugu eta, noiz edo noiz, haserre hori elikatzen duen gertakizun berriren bat ematen da. Demagun, adibidez, pertsona batek sentitzen duela norbaitek hari ematen dion tratua bidegabea dela, edo asmo txarrekoa. Edo galeraren bat sufritu zuela eta beste pertsona horri nolabait egozten diola. Noiz edo noiz, gertakizun ezberdinengatik, pilatuta duen amorru hori aktibatu egingo da eta amorru hori gorputzera itzuliko da, pasartekara. **Pasartekako haserrea** esan ohi zaio. Tratu bidegabea ematen dion pertsona horrekin topo egiteagatik izan daiteke, baina posible da ere halako zerbait gertatzea beste pertsona hori presente ez dagoen egoeretan. Adibidez, egunean zehar asuntza gogora ekartzen duen zerbait dagoenean, nahiz eta zuzenean pertsona harekin harremanik izan ez. Telesailetan bezala gertakizun berriek (egiazkoak zein adimenak oroimenez birsortuak) kapitulu berri bat

gehituko dute, haserre horren *beste pasarte bat*. Baina ez zaigu bakarrik gertatzen beste batengandik tratu bidegabea jasotzen dugunean. Egun txar edo bolada txar batean, ezer behar bezala ez doala dirudienean, tanta txiki batek edalontzia bete dezake eta pazientzia galtzea eragin. Hala gaudenean, gure burmuinak iruzur egin diezaguke, eta sinestarazi «gertatzen zaizkigun» gauzak «eguna mingostera» etorri direla. Unibertsoak gu mingosteko plan bat balu bezala. Eta lelo hori hitzez-hitz sinetsiz, horrela interpretatzen dugu guk egun hartako ezbehar bakoitza.

- 3) Eta azkenik, behin eta berriz errepikatzen den haserre dago: **haserre errepikakorra**. Une batez pentsatuz gero ziur gogoratuko dugula egoeraren bat zeinetan pertsona bat guztiakin eta guztiagatik haserre zirudiena. Suminkorra, erresuminez, gutxiene-kora salto eginez. Zaila da jakitea pertsona frustratuta, mehatxatuta, zaurituta sentitzen den. Agian bera ere ez da konturatzen, zeren bizitzako gertaerek, bizitzan zehar pertsona bakoitzari gertatzen zaizkigun gauzek, batzutan gainezka egin baitigukete. Pertsona horri gainezka egin ziona edozein dela ere, hor nunbait haserreak pertsona osoa hartu du eta hala igertzen da estimulurik txikienaren aurrean ere.

Guk gaur *amorru episodikoa landuko dugu* eta, bereziki, betetzen eta betetzen ari zen edalontziara jausten diren tanten asuntoa, bat-batean leherrarazten gaituzten horiena. Agian azken tanta, edalontzia betetzen duen eta eztanda egiten diogun haserre hori, distantziatik edo lasaitasunetik ikusita ere, haserre sortu dezakeen zerbait bezala ikusi genezake. Edonori molestako liokeena. Baina, gure «leherketa» ikusita, egokia al da tanta zehatz horrek gu hainbeste molestatzea? Leherketa justifikatzen du? Aristotelesen dioen bezala, oso zaila da pertsona egokiarekin eta une egokian haserretzea, eta helburu zuzen, proportzional eta zuzen batekin egitea. Haserre episodikoaren emozioak gutxitan dira estimulu zehatzekiko proportzionala, estimulu berriak pilatuta dagoen haserreari ekarpen egiten baitio.

Saioa taldearekin (jardueraren faseak)

1. FASEA: DIN a5 tamainako paper zatiak behar ditugu (edo erdibitutako folioak) jardueraren lehen FASEari ekiteko. Pertsona bakoitzak hiru paper zati eta boligrafo bat izango ditu. Galderak banan-banan irakurtzen dira, eta haien artean tarte bat uzten da, parte-hartzaileek idatziz erantzuna eman diezaieten.

Sarrera: *Gaur, Aristotelesen esaldi honek iradokitzen diguna landuko dugu: edonor haserretu daiteke. Baina zaila da modu egokian egitea, pertsona egokiarekin, maila zehatzean, une egokian eta helburu zuzenarekin. [Oharra: jakin-mina badago, filosofo honi buruz zerbait gehiago azal daiteke, baina ez da beharrezkoa jardueraren helburuak lortzeko.]. Hiru paper zati dituzue. Orain azalduko dugu nola erabili. Ez da beharrezkoa paper bakoitzean izena jartzea edo sinatzea. Erantzuna anonimoa da.*

Galdera bakarra. Batzuetan pertsona bat haserre dago edo bere haserre adierazten du, baina ez une egokian edo era egokian. Badaiteke ere bere haserre era bidegabe batean adieraztea, edo neurrizkanpo. Halako adibiderik bururatzten al zaizu? Pentsa itzazu halako hiru adibide; zuk bizitakoak izan daitezke, edo imajinatuak. Azaldu egoera horietako bakoitza paper desberdin batean; hau da, erabili paper bat egoera horietako bakoitza aipatzeko. Benetako kasu bat aipatu behar baduzu, mesedez, ez jarri pertsonen izenik ez eta eszena horretan parte hartu zuten pertsonak identifikatu ditzakeen xehetasunik. Hau da, zineman egin ohi duten bezala, ahal den neurrian saiatu zure deskribapenean erretratatzten dituzun pertsonaiek eta/edo gertakariak benetako pertsonekin ageriko harremanik izan ez dezaten.

2. FASEA: zeregina. Ohar guztiak jasotzen dira. Panel batean jartzen dira. Ausaz, zenbaki bat esleitzen zaio paper zati bakoitzari, eta paper bakoitza bere zenbakiarekin markatzen da (ondo ikusteko moduan). Horri esker, gero kasu bakoitza bere zenbakiarekin (jatorrizko galderarekin) lotu ahal izango dugu.

Aristotelesen esaldiari jarraiki, pertsona bakoitzak honako taula hau egin behar du orain, paper berri batean. Galdera bakoitzerako, 1etik 4ra zenbakituak, erantzun behar duzu, zure ustez galderari erantzuten dioten kasuen zenbakiak adieraziz. Eta bosgarren galderari testuan erantzuten zaio.

- 1) Zure ustez, zein kasutan *ez da izan egokia haserrealdia?*
- 2) Zein kasutan iruditzen zaizu haserrea ez dela *une egokian* izan?
- 3) Zein kasutan zuzentzen da haserrea *bidezkoa ez den helburu batera?*
- 4) Zein kasutan adierazten da haserrea *zuzena ez den modu batean?*
- 5) Aurreko erantzunetakoren baterako (1etik 4ra) taldeak egindako kasuen artean behar zenuen adibideetako bat topatu ez baduzu, iradoki zuk adibide bat.


3. FASEA: eztabaida taldean

Oso garrantzitsua da irekiko dugun eztabaidan arreta ez desbideratzea kontatutako kasuetan agertzen diren pertsona haserretuetako bakar bat ere epaitzera. Gure helburua da konturatzea haserrea giza emozio bat dela, eta, batzuetan, gainditzen ez gaituenean —eta horretarako tresnak eskuratu ditugunean—, haserrea nolabait kudea dezakegula eta ez genukela modu desegokian, bidegabean edo okerrean adierazi behar. Baina hori, Aristotelesek dioen bezala, ez da beti posible.

Haserrea *noiz den egokia edo noiz ez den egokia* edo noiz ez den *une egokian* egiten, mahai gainean ikusi daiteke pertsonak noiz edo noiz molestatzen, haserretzen direla. Ez da hain arraroa. Agian, jarri dituzten adibideetan, haserre dagoen pertsonaren bat ikusten da (ez dezagun epaitu, emozio bat da), eta, are gehiago, ulertzen dugu haserrea adierazi behar duela eta entzuleari bere jokabidea bideratzeko eskatu behar diola. Adibidez: *Zuri maitekorra iruditzen bazaizu ere, ez zait gustatzen jarri didazun mote hori; ez dut barre egiten zure txiste batzuez; ez zait gustatzen nirekin konfiantza batzuk hartzea; ez zitzaidan gustatu atzo egin zenuena.*

Haserrea zuzentzen diogun objektuari edo pertsonari dagokionez, edo gure haserrearen xedeari dagokionez, helburua bidezkoa edo bidegabeta denean ere eztabaida dezakegu, zuzen edo oker adierazi denean. Amorru handia ematen dit Lucasek nik baino zorte handiagoa izateak azterketan; beraz, aukera dudan bakoitzean, hitz edo esamolderen bat askatzen dut —erdi txantxetan— berari enbarazu pixka bat egiteko asmoz. Edo sarkasmoa deritzona erabiltzen dut, hau da, norbait zeharka barregarri uzten, edo kritikatzeko saiatzeko erabiltzen den adierazpen ironikoa. Adibidez, honelako esaldiak erabiltzen ditugunean, baina adierazteko erabiltzen dugun tonuagatik, nabarmena da kontrakoa aditzera eman nahi dugun entzuleentzat: *bai, puntuala zarela; joan zaitz jenioarekin; ahaztuta neukan zein bizkorra zaren; zu, beti bezain atsegina.* Edo, estereotipoei erreferentzia eginez: *noski, hori da zu bezalakoek duzuen.*

Gogoratzekoa: taldearen neurriari dagokionean bai eta taldearen elkarrizketa eskatzen duten jarduera-faseetarako, *ZeharGAIT jardueretan elkarrizketa egiteko eskainitako gomendioak* erabiltzea iradokitzen dugu (ZeharGAIT Gomendioak, 1. unitatea).



ZeharGAIT jarduera

Edonor haserretu daiteke, hori oso erraza da. Baina pertsona egokiarekin haserretzea, une egokian, bidezko helburuarekin eta modu egokian, hori ez da hain erraza. (Aristoteles)



Gaur, Aristotelesen esaldi honek iradokitzen diguna landuko dugu: edonor haserretu daiteke. Baina zaila da modu egokian egitea, pertsona egokiarekin, maila zehatzean, une egokian eta helburu zuzenarekin. [Oharra: jakin-mina badago, filosofo honi buruz zerbait gehiago azal daiteke, baina ez da beharrezkoa jardueraren helburuak lortzeko.]. Hiru paper zati dituzue. Orain azalduko dugu nola erabili. Ez da beharrezkoa paper bakoitzean izena jartzea edo sinatzea. Erantzuna anonimoa da.

Batzuetan pertsona bat haserre dago edo bere haserrea adierazten du, baina ez une egokian edo era egokian. Badaiteke ere bere haserrea era bidegabe batean adieraztea, edo neurrizkanpo. Halako adibiderik bururatzen al zaizu?

Pentsa itzazu halako hiru adibide; zuk bizitakoak izan daitezke, edo imajinatuak. Azaldu egoera horietako bakoitza paper desberdin batean; hau da, erabili paper bat adibide horietako bakoitza aipatzeko. Benetako kasu bat aipatu behar baduzu, mesedez, ez jarri pertsonen izenik ez eta eszena horretan parte hartu zuten pertsonak identifikatu ditzakeen xehetasunik. Hau da, zineman egin ohi duten bezala, ahal den neurrian saiatu zure deskribapenean erretratatzeko pertsonaiek eta/edo gertakariak benetako pertsonekin ageriko harremanik izan ez dezaten.



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).

ZeharGAIT jarduera

Eguneko motxila

Astelehena da, lehendabiziko ordua. Rocio eta Ignacio eserita daude, egunean zehar abiatu beharko duten lanaren azalpena entzuten. Asteburuan, beste hiri batean bizi den lagun baten bisita izan du Rociok, Marta du izena, konfinamendua baino lehena-gotik ikusi ezin izan zuena. Asteburua ezin hobeto atera da. Atzo arratsaldean aireportura eraman zuen, eta etxera itzuli zen Marta bezalako lagun bat edukitzeagatik zein zorionekoa zen pentsatuz. Gaur goizean lasai gosalduta du, eta zorrea izan du metroan, sartu bezain laster eserleku libre bat topatu baitu.

Inazioren asteburua guztiz kontrakoa izan da. Atzo, igandea, Medinara joan zen, bizikleta lasterketa batean parte hartzeko asmoz. Hilabeteak zeramatzan entrenatzen, eta Samuel laguna bere bila joan zen autoarekin, elkarrekin joateko. Baina autobidetik zihoazela, ordainleku batera heldu ziren. Eta bertan autoentzako mugatutako erreitik sartu ziren, bizikletak kotxe gainean zeramatzatela ahaztuta. Ez ziren konturatu haien kotxeak, bizikletekin erreil horretarako finkatuta zegoen gehiegizko altuera gainditzen zuela. Eta tamalez, bidesariaren erreil horretan zegoen topearekin talka egin zuten kotxe gaineko bizikletek. Istripuak bizikletak larri bihurtu zituen, haiekin lasterketan parte hartzea ezinezkoa zen egoera batean utziz. A ze gogaikarria. Gaur, astelehena, gainera, bizikletarik ez duenez, LHko ikastetxera etorri behar izan du garraio publikoan, eta, ondo kalkulatu ez duenez, berandu iritsi da.

Egoera horri buruz, gure hausnarketa honako hau da: bietatik, Rocio edo Ignacio, zeinek uste duzu izango duela astelehen honetan klasean gogorik onena? Nahiz eta ez beti eta ez era berdinean ere, ikasgeletik edo lanetik KANPO gertatzen zaizkigun gauzetako zenbaitek, iraganean gertatutako batzuk edo etorri daitezkeenak ere, UNE HONETAN eragina dute gugan. Besteei pertsoneri ere gauza bera gertatzen zaie.

Nola kudeatu dezakegu hau? Bulkadaz, sentitzen ari garen hori, bat-batean gure gogoak desiratzen duen edo desiratzen ez duen zerbaitek indar handiz durundatzen du gugan. Indar hori kontrolatzen eta zuzentzen ikastea bizitza osorako ikaskuntza da.

Lan-eskema eta denboralizazioa

Testua banatu ondoren, jarduera hiru fase hauei jarraituz egingo da:

1. fasea: irakurketa

Kasuan kasuko testua arretaz irakurtzeko eskatzen zaie parte-hartzaileei. Irakurri egin behar dute, eta ondo ulertzen saiatu. Irakurri ondoren, aurkezten den kasuari buruz labur pentsatzeko eskatzen zaie (minutu bat edo bi).

2. fasea: galderei banaka erantzuten zaie


Ondoren, pertsona bakoitzak, banaka, kasuari buruzko galderak erantzun ditzala eskatzen da. Komeni da erantzunak hausnartzea, eta, behin zer esan nahi den jakinda, ahalik eta erantzunik zehatzena eta laburrena pentsatzea. Idaztea lagungarri izan daiteke. Horrek erraztuko du ondorengo eztabaida arina eta emankorra izatea.

3. fasea: bateratzea

Taldearen barruan pertsona bat aukeratzen da elkarrizketaren koordinatzaile. Galdera bakoitza irakurtzen du eta parte-hartzaileek erantzun dutena komentatzen dute. Erantzun guztiak entzun ondoren (esan nahi dena galdetuz edo argituz, baina baloratu eta epaitu gabe), parte-hartzaile guztien artean eztabaida ireki bat hasten da.

Azkenik, jarduera ixteko, bideratzaileak parte-hartzaile bakoitzari eskatzen dio paper batean idatz dezala bere ondorioa, ikasi duena edo bere beharren eta egoeraren arabera balio dion zerbait. Hau pertsonala da guztiz; parte-hartzaileetako bakoitzak bere buruarentzat idazten du. Bakoitzak kasu bakoitzetik eta ondorengo eztabaidatik ateratzen dena idatzi behar du (ez da berez ozen irakurtzen ez eta idatziz entregatzen). Gisa honetako idazki horien multzoek ikasitakoa osatzen dute, eguneroko bat balira bezala, eta islatzen dute pertsona bakoitzak egindako ZeharGAIT ariketetatik baliagarritzat jotzen duena.

Gogoratzekoa: taldearen neurriari dagokionean bai eta taldearen elkarrizketa eskatzen duten jarduera-faseetarako, *ZeharGAIT jardueretan elkarrizketa egiteko eskaintako gomendioak* erabiltzea iradokitzen dugu (ZeharGAIT Gomendioak, 1. unitatea).



ZeharGAIT jarduera

Eguneko motxila



Astelehena da, lehendabiziko ordua. Rocio eta Ignacio eserita daude, egunean zehar abiatu beharko duten lanaren azalpena entzuten. Asteburuan, beste hiri batean bizi den lagun baten bisita izan du Rociok, Marta du izena, konfinamendua baino lehena-gotik ikusi ezin izan zuena. Asteburua ezin hobeto aterata da. Atzo arratsaldean aireportura eraman zuen, eta etxera itzuli zen Marta bezalako lagun bat edukitzeagatik zein zorionekoa zen pentsatuz. Gaur goizean lasai gosalduta du, eta zorrea izan du metroan, sartu bezain laster eserleku libre bat topatu baitu.

Inazioren asteburua guztiz kontrakoa izan da. Atzo, igandea, Medinara joan zen, bizikleta lasterketa batean parte hartzeko asmoz. Hilabeteak zeramatzan entrenatzen, eta Samuel laguna bere bila joan zen autoarekin, elkarrekin joateko. Baina autobidetik zihoazela, ordainleku batera heldu ziren. Eta bertan autoentzako mugatutako erreitik sartu ziren, bizikletak kotxe gainean zeramatzatela ahaztuta. Ez ziren konturatu haien kotxeak, bizikletekin erreil horretarako finkatuta zegoen gehiegizko altuera gainditzen zuela. Eta tamalez, bidesariaren erreil horretan zegoen topearekin talka egin zuten kotxe gaineko bizikletek. Istripuak bizikletak larri bihurtu zituen, haiekin lasterketan parte hartzea ezinezkoa zen egoera batean utziz. A ze gogaikarria. Gaur, astelehena, gainera, bizikletarik ez duenez, LHko ikastetxera etorri behar izan du garraio publikoan, eta, ondo kalkulatu ez duenez, berandu iritsi da.

Egoera horri buruz, gure hausnarketa honako hau da: bietatik, Rocio edo Ignacio, zeinek uste duzu izango duela astelehen honetan klasean gogorik onena.



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).

ZeharGAIT jarduera Hainbesterako dago, ala ez?

Gizarte-espazio batean (ikasgela batean, lan-talde batean, lagun talde batean, familia batean) tentsioak edo giro txarra gertatzen direnean, oso frustragarria da, edo izan daiteke. Ez gara eroso sentitzen horrelako espazioetan; neke emozionala eragiten dute, erne egotera bultzatzen gaituzte.

Jakina, tentsio horiei irtenbidea ematea ez da beste arlo batzuetarako –adibidez talde lana banatzeko– ikusi ditugun estiloaren arau batzuk jartzea bezain erraza. Izan ere, estilo horretako arau batzuek, epe laburrean behintzatm egoera okertu lezakete, seguru asko; izan ere, norbaitek zerbaitengatik minduta sentitzen den bakoitzean, edo pertsona batek tentsioa sortzen duen bakoitzean, beste batzuek arauak adieraziko lituzkete, pertsona horrek gogaituta sentitzeko eskubidea duen ala ez adieraziz. Hori, emozioak kudeatu baino, emozioak saihesteko saio bat bezala ikusi daiteke. Baina emozioak ezin dira saihestu. Haien gudan sortzen duten energia bideratzen ikasi genezake, ez litzateke gutxi, baina saihestea ez da posible, eta ez da egokia beste pertsona batzuei hori exijitzea.

Benetan erabilgarria den tresna mota da pentsatzea zer gauza egin ditzakegun, oro har, ikasgela edo talde bateko giroa hobetzeko. Kontua ez da klasekide edo lankideen adiskide minak, oso gertukoak bihurtzea. Kontua da ikustea zer egin dezakegun giro onean laguntzeko (nola agurtzen dugun elkar iristean edo agurtzean, irribarrea edo eskerrak ematerakoan, etab.) edo, adibidez, giro horri ekarpen egiteko *«geure buruari eman ahal dizkiogun aholkuen zerrenda»* bat jasotzea. Adibideak: *egun txar bat edo proiektu bat badut, azterketa bat ez da nik espero bezala ateratzen, hau edo hura zer den pentsatzen/ez pentsatzen lagunduko lidake; gustatzen ez zaidan kritika bat egiten badidate, hau edo beste hori pentsatzeak/ez pentsatzeak lagunduko lidake; inguruan giro txarra dagoela sentitzen dudanean, hau edo beste hori pentsatzeak lagundu lidake.. etab.*

Adierazpen oldarkor edo etsaikor baten aurrean, pertsonak oinarrizko hiru erreakzio hauetako bat erabiltzeko joera du: borrokatu, ihes egin edo izoztu (Leal, 2017: 63). Hiru horietako bat ere ez gure kezak edo sentimenduak. Baliteke ehuneko batean borroka egin nahi izatea (haserre pixka bat adieraziz), baina, aldi berean, emozio pixka bat izoztu nahi izatea, haserrearen adierazpena gehiegizkoa edo desegokia izan ez dadin. Edo agian konturatuko gara gure adierazpenaren arabera, agian bestearengana iristen den mezua ez dela eraikitzaileena bestearekin dugun harremanerako.

Batzuetan, baina ez beti, gure komunikazio-moduaren bidez, beste pertsonari hiru erreakzio horietako bat erabiltzeko sena gaintitzea lortzen dugu, eta harekin partekatu nahi dugun informazioa –agian gure sentimenduak– entzutea eragin diezaiokegu. Beste batzuetan, ordea, zera kudeatu behar dugu: entzute hori gure esku, besteak gu era egokian entzuteak badagoelako baita beste pertsonaren trebetasunen eta, bereziki, beste personaren desira edo gogoaren mende ere.

- a. Su-adierazpenak/etsaitasun gutxiagokoak konparatzen.
 - Eskertuko nizuke, mesedez, ahots-tonua pixka bat jaistea.
 - Ez didazu entzuten! – Azaltzeko aukera ematea gustatuko litzaidake.
 - Asko haserretzen nauzu!

- b. Bestearen erreakzio askea onartuz, beti ere geuk geure erreakzioari buruz erabakitzeke aukera dugula jakinda. Bada adierazpen interesgarri bat, aholku gisa erraztu ohi dena. Ez utzi besteen portaerak zurea baldintzatzen.
- c. Kontuan izanda agian pertsona batek gaur motxila berezia dakarrela (arazoren bat, arduraren bat guk ezagutzen ez duguna), edo agian guk ere, jakinda edo jankigabe motxila berezia daramagula gaur, eragiten diguna.¹¹

Jardueraren 1. fasea: enuntziatua irakurri⁸

Azkenaldian tentsio gehiegi sortzen dira ikasgelan, eta irakasle batek zeregin erraz bat egitea proposatu du. Gerta daitezkeen gauzen zerrenda bat egingo da, pertsona bati eragin egin al dizkioten zirkunstantzia ezberdinen zerrenda bat alegia, eta, denen artean, bozkatu egingo da kaltetutako pertsonak horrelako zerbaitengatik gogaituta sentitzeko eskubidea duen ala ez.

Guk ere halako zerrenda bat egitea erabaki dugu. Hau da, arau batzuk ezarriko ditugu norbaitek haserre sentitzeko eskubidea noiz duen edo ez finkatzen dutenak, bai eta norbaitek eskubidea izatekotan zera zehazten dutenak, nahiko edo apur bat haserre sentitzeko eskubidea duen.

Horretarako, pertsona bakoitzari hiru txartel banatuko dizkiogu. Jarduera isilean egin behar da. 1. urrats honetan ezin da hitz egin, ulertu ez den zerbaiti buruzko argibidea eskatzeko ez bada.

2. fasea

Denei hiru txartel banatzen zaizkie: A.-gogaituta sentitzeko eskubidea du; B.- agian pixka bat, baina ez da hainbestera; C.- ez du gogaituta sentitzeko eskubiderik.

Lana isilean egiten da. Besterik gabe, norbaitek egoerak adierazten ditu (irakurri), eta berehala txartelak jasotzen dira (A, B edo C adierazteko), eta bi boluntariok aukera bakoitzeko zenbat boto dauden zenbatzen dute, eta arbelean adierazi.

	A	B	C
Zozketan sortu dira klaseko zeregin baterako taldeak, eta Martini ez zaio inor ezagunarekin tokatu			
Hiru pertsonako taldeak sortzea baimendu da, eta Martin bakarrik geratu da			
Egun batzuk eman ditu kanpoan Luciak, eta ez zuen jakin gaur zeregin bat entregatu behar zenik. Haserre dago inork ez diolako abisatu			
Atzo, tailerrean, Rosak istripu txiki bat izan zuen eta bere kiroletarako zapatarik gustukoena pinturarekin hondatu ziren. Lehortzen utzi behar izan zituen, eta norbaitek zapata haien argazki bat atera eta Instagramera igo zituen, meme batekin.			
Luis eta Maria haserre daude, taldeen osaketan Aaronekin egokitu zaielako. Zeregin batzuetarako, Aaron ez da lankide ona.			
Hiru egunez kanporatu zuten Gorka zentrotik, portaera txarragatik. Orain jarrera aldatu nahi du, baina bere lagunak ez dira fio.			


⁸ Eguneko motxilari buruzko beste jarduera bat dago, Unitate honetan.

3. fasea

Egoera bakoitzeko eman izan diren A-B-C botoak zenbatzen ditugu eta adostasunak edo desadostasunak dauden ikusten dugu. Jarraian, bi gogoeta egiten dira, bakoitza bere aldetik:

Lehen gogoeta: Inork ikusi al du gertuko bi esamolde erabiltzen zirela, baina ez berdinak: «Eskubidea du haserre sentitzeko, badu arrazoirik haserre sentitzeko?» Ñabardura sotila izan badaiteke ere, norbaitek haserre sentitzeko arrazoiren bat duela uste dugunean, esan nahi du ulertzen dugula zerbaitek gogaitu duela. Konturatu gara zerbaitek eragiten duela enbarazu hori. Baina badirudi gutxiago epaitzen dugula eskubidea duen ala ez esaten dugunean baino. Bigarren kasu honetan, epaitzen ari gara legezkoa den ala ez haserre sentitzea.

Bigarren hausnarketak galdera disruptibo bat planteatzen du: zertan laguntzen digu besteek zerbaitengatik gogaituta sentitzeko eskubidea duten ala ez pentsatzeak? Zentzuzko ikuspegia al da ikasgelako tentsioak hobeto nola kudeatu ikusteko? Egia esan, unitate honetan esan dugun bezala, *emozioak ezin dira kontrolatu*; beraz, alferrik da arauak ezartzea zerbait sentitzeko eskubidea dagoen ala ez jakiteko. Emozioa sentitzen dugu, eta kito. Ikuspegi egokiak, beraz, ez du emozioetan egon behar, emozioak kudeatzeko moduan baizik. Baliteke norbait erraz haserretzea edo ezeroso sentitzea; agian ezin du saihestu. Are gehiago, bere haserrea taldean gertatu den zerbaitek eragin badu, ona da horri buruz hitz egiteko tartea izatea. Baina arauak jar ditzakegu taldean haserrea edo desadostasuna adierazteko modurik egokienak zein diren jakiteko. Adibidez haserrea dela eta, baliteke norbaiti «mesedez, enbarazu egiteari uzteko» esatea eta horri buruz ezer esaterik duen entzutea, edo pertsona horri errieta, iraina edo iseka egitea; azken hauek, noski, ez dirudite taldeko elkarbizitzarako egokiak.



ZeharGAIT jarduera

Hainbesterako dago, ala ez?

Azkenaldian tentsio gehiegi sortzen dira ikasgelan, eta irakasle batek zeregin erraz bat egitea proposatu du. Gerta daitezkeen gauzen zerrenda bat egingo da, pertsona bati eragin egin al dizkioten zirkunstantzia ezberdinen zerrenda bat alegia, eta, denen artean, bozkatu egingo da kaltetutako pertsonak horrelako zerbaitengatik gogaituta sentitzeko eskubidea duen ala ez.

Guk ere halako zerrenda bat egitea erabaki dugu. Hau da, arau batzuk ezarriko ditugu norbaitek haserre sentitzeko eskubidea noiz duen edo ez finkatzen dutenak, bai eta norbaitek eskubidea izatekotan zera zehazten dutenak, nahiko edo apur bat haserre sentitzeko eskubidea duen.

Horretarako, pertsona bakoitzari hiru txartel banatuko dizkiogu. Jarduera isilean egin behar da. 1. urrats honetan ezin da hitz egin, ulertu ez den zerbaiti buruzko argibidea eskatzeko ez bada.

Norbaitek taula honetan dauden lerroetako bakoitza irakurriko du. Eta irakurri eta A, B, edo C bozkatu behar duzu, isilean. Bozkatzeko, nahikoa da dagokion txartela erakustearekin. Bi boluntariok aukera bakoitzeko zenbat boto dauden zenbatzen dute, eta arbelean adierazi.

- A.-k esan nahi du, deskribatutako egoeran aipatzen den pertsona horrek gogaituta sentitzeko eskubidea duela.
- B.-k esan nahi du, agian pixka gogaituta sentitzeko arrazoia duela, baina ez del hainbesterako.
- C.-k, berriz, zera esan nahi du: zure ustez, ez duela gogaituta sentitzeko eskubiderik edo arrazoirik.

	A	B	C
Zozketan sortu dira klaseko zeregin baterako taldeak, eta Martini ez zaio inor ezagunarekin tokatu			
Hiru pertsonako taldeak sortzea baimendu da, eta Martin bakarrik geratu da			
Egun batzuk eman ditu kanpoan Luciak, eta ez zuen jakin gaur zeregin bat entregatu behar zenik. Haserre dago inork ez diolako abisatu			
Atzo, tailerrean, Rosak istripu txiki bat izan zuen eta bere kiroletarako zapatarik gustukoenak pinturarekin hondatu ziren. Lehortzen utzi behar izan zituen, eta norbaitek zapata haien argazki bat atera eta Instagram-era igo zituen, meme batekin.			
Luis eta Maria haserre daude, taldeen osaketan Aaronekin egokitu zaielako. Zeregin batzuetarako, Aaron ez da lankide ona.			
Hiru egunez kanporatu zuten Gorka zentrotik, portaera txarragatik. Orain jarrera aldatu nahi du, baina bere lagunak ez dira fio.			



3. Asertibitateari buruzko jarduerak

Jarraian, asertibitatearekin lotutako hainbat jarduera jasotzen dira, sarrera hau aurretik dutela, honek testuinguru komun gisa balio baitie.

Berez, gizakiak izaki sozialak garela esaten da. Besteen beharra dugula. Hori, azaldu digutenez, onuragarria da guretzat zenbait zentzutan, eta gizadia garatzea ahalbidetu du. Egia da, hala ere, gizakiok sortu ditugun gizarteak perfektuak izatetik urrun daudela. Gauza batzuk onak dira, baina oraindik zuzendu behar diren miseriak eta bidegabekeriak ere aurkitzen ditugu. Besteekin bizitzea, batzuetan baita gehien maite ditugun pertsonekin ere, ez da erraza izaten. Ez dezagun esan, dagoeneko, gustuko ez ditugun pertsonekin edo, are gehiago, inolako harremanik ez izatea nahiago genukeen pertsonekin lanean edo ikasketetan bizi behar izatea. Zaila izan daiteke hori.

Gainera, pertsona batzoren ikuspegitik, gizartean parte hartzea ez da ahaleginik egin gabe egin dezakegun zerbait. Gizarte bakoitzak, nolabait esateko, bere jokoa arauak ditu, eta, gainera, denoi ez dizkigute berdin banatzen jokatzeko karta onak. Ordutegietara egokitzea, pertsonekin bizitzea, zereginak elkarrekin egitea, etab. gogobetetzea ekarri ahal diguten gauzak izan daitezke, zalantzarik gabe, baina, aldi berean, autokontrolatzea eta une horretan benetan zer egin nahiko genukeen ez pentsatzea dakarte. Beraz, karga, zailtasuna eta tentsioa dakarkiguten gehikuntzak egiten direnean, normala da gehiago kostatzea. Guri, eta gainerakoei.

Testuinguru horretan, asertibitatea landuko dugu gaur. Itxura guztien arabera, gaitasun sozial gisa baloratzen den ezaugarri bat da. Baina testuinguru eta egoera jakin batzuetan, arazoak ere sortzen ditu: nola da hori? Ikus dezagun arreta handiagoz.

Asertibitatea pertsonak besteekiko harremanetan duen trebetasuna da. Trebetasun horri esker, pertsona batek bere iritziak eta ideiak adieraz ditzake, edo bere eskubideak era argi eta zintzoan eskatu. Era berean, aukera ematen dio beste pertsona batzuen kritikak jasotzeko edo gatazkak askatasunez kudeatzeko, hau da, antsietaterik, errurik edo amorrurik sentitu gabe.

Asertibitatea pertsonak besteekiko harremanetan duen trebetasuna da. Trebetasun horri esker, pertsona batek bere iritziak eta ideiak adieraz ditzake, edo bere eskubideak era argi eta zintzoan eskatu. Era berean, aukera ematen dio beste pertsona batzuen kritikak jasotzeko edo gatazkak askatasunez kudeatzeko; hau da, antsietaterik, errurik edo amorrurik sentitu gabe.

Batzuek diote biktima *gure garaiko heroia* dela. Biktima izateak prestigioa ematen du, entzutea eskatzen du, aitortza agindu eta sustatzen du, kritiken aurka immunizatzen du. Nola izan liteke biktima bat erruduna, edo zerbaiten erantzulea? Biktimak ez du egiten, egiten diote; ez du jarduten, sufritu egiten du. Deigarriki, une batzuetan biktima gisa jarduten dugu, eta horrek gu definitzea ere ahalbidetzen dugu, nahiz eta ez garen gelditu jarduteko modu horrek gugan duen eraginari begira. Indarge sentitzen gara, agian ahul edo umiliatuta. Eta sentimendu guztiak bezala, sentimendu legitimoa da. Hor dagoen zerbait. Baina zauri horiek eragiten dituzten jarduketak ez daude automatikoki hor. Askatasun-tarte bat dugu *nola jokatu* erabakitzeke. Zaurituta sentitzen naiz, horrek eskubidea ematen dit beste bat zauritzeko? Sufritu egin dut, ezin al da nigandik erantzulea izatea espero, arduraz jokatzeko? Eguneroko edozein egoeratan, biktima sentitzen naizenez, zerbait eman behar al zait, arrazoia izan arren, konpentsazio gisa? Hona hemen gaur aztertuko dugun kasua:

Gabonetako oporrak baino lehentxeago, Mikelek Itziar eta Agustinekin batera egindako lan baten azken testua maketatu eta berrikusi zuen, eta irakasleari bidali zion hark ezarritako epearen barruan. Kontua da Mikelek ez zuela artxi-boa egiaztatu bidali aurretik, eta amaitutako lanaren orde zurrigorro osatugabea bidali zuela.

Oraindik ez dira klaseetara itzuli oporraldiaren ondoren, baina irakasleak da-goeneko argitaratu ditu notak online. Oso nota ona espero zuten, baina 4 baka-rrik jarri die. 5era iritsi nahi badute, aparteko lan bat egin beharko dute.

Mikelek sentitzen du ez dela bidezkoa Itziar eta Agustín berarekin haserretzea. Azken finean, lanaren zati handi bat eta entregatzeko ardura, hari utzi zizkioten. Orain, gainera, bere kideen haserreari eutsi beharko dio? Beraz, oporren osteko lehen eskola eguna iristen denean, kosta ahala kosta Itziar eta Agustinekin topo egiten saihestea erabakitzen du.

Galdera

Epe labur, ertain eta luzera, zer ematen dio jokabide horrek Mikeli?



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).



5. Unitatea

Gatazka-konponketa

-
1. Zer dira gatazkak eta gogoeta bat horiek konpontzea beharrezkoa eta posiblea den (edo ez)
 2. Bitartekaritza-espazioak sortzea edo identifikatzea, eta horiek aprobetxatzea
 3. Aurretiazko gatazkak ondo ez ixteagatik sortzen diren gatazkak
 4. Barkamenari buruz
-

Gatazkek ez dute zertan negatiboak izan behar. Eta gatazkak ebazteak ez du esan nahi nahitaez horiek guztiz desagerrarazi behar direnik. Gehienetan, ezberdintasunak gorabehera —eta aberastasunez— pertsonen elkarrekin bizitzeko modu bat aurkitzea da egokiena.

Bi bazkide beti ados daudenean, bi bazkideetako bat «soberan» dago.
Biak sekula ez daudenean, «biak daude soberan».

(Dale Carnegie, 1936)

1. Zer dira gatazkak eta gogoeta bat horiek konpontzea beharrezkoa eta posiblea den (edo ez)

Gatazka esamoldea oso egoera desberdinei erreferentzia egiteko erabiltzen da. Horrela, adibidez, gatazka esamoldea erabiltzen da bi pertsonak edo gehiagok iritzi edo irizpide desberdinak dituzten egoera bati erreferentzia egiteko, baina adierazpen hori bera —gatazka— erabiltzen dugu denboran zehar luzatu den lehiaren ondorioz sortu diren gerra edo borrokei erreferentzia egiteko ere. Desados egoteak, zorionez, ez gaitu beti borrokara eramaten, baina egia da pertsonen ados jarri behar dutenean (adibidez, lan bat egiteko edo enpresa osoan), gatazka bat behar bezala ez kudeatzeak gatazka hori nabarmen handitzea eragin dezakeela. Batzuetan, hastapenetan, gatazken abiarazlea oso sotila izan daiteke, baina pixkanaka egoera gehiago zaildu dezaketenez adierazpen eta jarrerak handiagoa egin dezakete.

Gatazkek ez dute zertan negatiboak izan behar. Eta gatazkak ebazteak ez du esan nahi nahitaez horiek guztiz desagerrarazi behar direnik. Gehienetan, ezberdintasunak gorabehera —eta aberastasunez— pertsonen elkarrekin bizitzeko modu bat aurkitzea da egokiena.

Gatazkak ez dira nahitaez negatiboak, eta gatazkak behin konpontzeak ere ez du esan nahi desagertuko direnik. Gehienetan, egoera bideratzeko modu egokia bilatzen da, lagunkoia, pertsonen elkarrekin bizitzea lor dezaten, desadostasunak gorabehera. Horregatik, gatazkak konpontzeaz gain, horiek *kudeatzeaz* ere hitz egiten da.

Kudeaketa horrek, nahitaez, urrats batzuk egitea eskatzen du:

Lehenik eta behin, gatazka bat dagoela eta gatazka hori zerk eragin duen konturatzeta edo onartzea. Pertsonengan (gatazkak okerrera egiten badu) nola eragin dezakeen bistaratzen saiatzea erabilgarria izan daiteke ere. Eraginik ba al du langileengan edo ikasgelako kideengan? Eragina al du zerbitzuaren kalitatean, ikasteko aukeretan? Irudi txarra ematen du ikastetxeaz, enpresaz...?

Bigarrenik, gatazka arintzeko edo, ahal bada, ezabatzeko zer neurri aplikatu daitezkeen aztertzea. Horrek ez du esan nahi, nahitaez, pertsonen iritzi edo irizpide desberdinak izateari uzten diotenik; batzuetan, ebazpena desberdintasun horrekin bizitzeko modu bat aurkitu izanaren isla besterik ez da. Batzuetan, konponbidea adostasunez lortzen da (gatazkan dauden pertsonen artean, langileen eta buruen artean, irakasleen eta ikasleen artean); beste batzuetan, berriz, bitartekaritza iristen da, edo gerta liteke ere, irtenbide negoziaturik edo elkarriketarik ez badago, aginpidea duen norbaitek zenbait neurri hartzea.

ZeharGAIT jarduera

Nork irabazi, nork galdu - Hector, Uriel eta Luis eztabaidan

Helena Corneliusek eta Shoshana Fairek 90eko hamarkadaren amaieran liburu bat argitaratu zuten (1998), gaztelaniaz *Tú ganas, yo gano – Como resolver conflictos* izenburupean hedatu dena. Egileek proposatu dute, beste pertsona batekin gatazka bat sortzen den egoeretan, gatazkaren konponbidea nork irabazi edo galdu duen ez ikustea.

Negoiazio-egoera baten aurreko jarrerak asko izan daitezke. Batzuetan, pertsonak nola sentitzen diren, aldez aurretik zer gertatu den, negoziatzeko zenbaterainoko indarra izango duten edo gauza horiek guztiak argitzeko zaila den nahasketa baten mende egoten dira.

Kasua: Hectorrek nahi du, behingoz, besteek onartzea arrazoia duela. Nekatuta dago, dio, denetik jasaten. Bilatzen duena zera da. «nik irabazten dut, gainerakoek galdu». Urielek, aldiz, ez duela besteek bere iritzia entzuteko inolako aukerarik; beraz, bere jarrera, batez ere, ildo honetan doa: «badakit irabaziko duzuela»; eta, behin eta berriz gogoratuko die besteek hemen galtzen duena, beti, bera dela. Luisek, aldiz, nahiago du erroilu txarra ez egotea; beraz, nola konpondu, ahalik eta zaratarik trikiena egitea nahi du. Zera pentsatzen du, Hector konbentziturik dagoenez arrazoia izateaz, eta Urieli ez zaionez axola, zertarako entretenu eztabaidan?

Lan-eskema eta denboralizazioa

Testua banatu ondoren, jarduera hiru fase hauei jarraituz egingo da:

1. fasea: irakurketa

Kasuan kasuko testua arretaz irakurtzeko eskatzen zaie parte-hartzaileei. Irakurri egin behar dute, eta ondo ulertzen saiatu. Irakurri ondoren, aurkeztzen den kasuari buruz labur pentsatzeko eskatzen zaie (minutu bat edo bi).

2. fasea: galderei banaka erantzuten zaie

Ondoren, pertsona bakoitzak, banaka, kasuari buruzko galderak erantzun ditzala eskatzen da. Komeni da erantzunak hausnartzea, eta, behin zer esan nahi den jakinda, ahalik eta erantzunik zehatzena eta laburrena pentsatzea. Idaztea lagungarri izan daiteke. Horrek erraztuko du ondorengo eztabaida arina eta emankorra izatea.

3. fasea: bateratzea

Taldearen barruan pertsona bat aukeratzen da elkarrizketaren koordinatzaile. Galdera bakoitza irakurtzen du eta parte-hartzaileek erantzun dutena komentatzen dute. Erantzun guztiak entzun ondoren (esan nahi dena galdetuz edo argituz, baina baloratu eta epaitu gabe), parte-hartzaile guztien artean eztabaida ireki bat hasten da.


Azkenik, jarduera ixteko, bideratzaileak parte-hartzaile bakoitzari eskatzen dio paper batean idatz dezala bere ondorioa, ikasi duena edo bere beharren eta egoeraren arabera balio dion zerbait. Hau pertsonala da guztiz; parte-hartzaileetako bakoitzak

bere buruarentzat idazten du. Bakoitzak kasu bakoitzetik eta ondorengo eztabaidatik ateratzen dena idatzi behar du (ez da berez ozen irakurtzen ez eta idatziz entregatzen). Gisa honetako idazki horien multzoek ikasitakoa osatzen dute, eguneroko bat balira bezala, eta islatzen dute pertsona bakoitzak egindako ZeharGAIT ariketetatik baliagarritzat jotzen duena.

Bideratzailearentzako oharra eta iradokizunak

- Lehen begiradan, bati arrazoia eman, eta gainerakoak isilik egotea irtenbiderik azkarrena dela dirudi egoera honetan. Urielek ez dirudi helbururik duenik gatazkari berari dagokionez, eta Luisek ere ez. Hectorrek bakarrik ematen du arrazoia izan nahi duela.
- Hala ere, Hektorren motiboek ez dute zerikusirik gatazkarekin, ezta «berearekin irtetearekin» ere. Emozionalki arrazoia ez izateaz nekatuta dagoela sentitzen delako dela dirudi. Baina horrek, berez, ez du kasu honetarako duen proposamena egokia egiten. Agian okertuta egon daiteke.
- Batzuk inhibituta eta beste batzuk modu oldarkorrean, egoerari erantzun ASERTIBOA ematea saihesten ari dira.

Gogoratzekoa: Taldearen elkarrizketa eskatzen duten jarduera-faseetarako, ZeharGAIT jardueretan elkarrizketa egiteko eskainitako gomendioak erabiltzea iradokitzen dugu (ZeharGAIT Gomendioak, 1. unitatea).



ZeharGAIT jarduera

Nork irabazi, nork galdu - Hector, Uriel eta Luis eztabaidan

Helena Corneliusek eta Shoshana Fairek 90eko hamarkadaren amaieran liburu bat argitaratu zuten (1998), gaztelaniaz *Tú ganas, yo gano – Como resolver conflictos* izenburupean hedatu dena. Egileek proposatu dute, beste pertsona batekin gatazka bat sortzen den egoeretan, gatazkaren konponbidea nork irabazi edo galdu duen ez ikustea.

Negoiazio-egoera baten aurreko jarrerak asko izan daitezke. Batzuetan, pertsonak nola sentitzen diren, aldez aurretik zer gertatu den, negoziatzeko zenbaterainoko indarra izango duten edo gauza horiek guztiak argitzeko zaila den nahasketa baten mende egoten dira.

Kasua: Hectorrek nahi du, behingoz, besteek onartzea arrazoia duela. Nekatuta dago, dio, denetik jasaten. Bilatzen duena zera da. «nik irabazten dut, gainerakoek galdu». Urielek, aldiz, ez duela besteek bere iritzia entzuteko inolako aukerarik; beraz, bere jarrera, batez ere, ildo honetan doa: «badakit irabaziko duzuela»; eta, behin eta berriz gogoratuko die besteek hemen galtzen duena, beti, bera dela. Luisek, aldiz, nahiago du erroilu txarra ez egotea; beraz, nola konpondu, ahalik eta zaratarik txikiena egitea nahi du. Zera pentsatzen du, Hector konbentzitura dagoenez arrazoia izateaz, eta Urieli ez zaionez axola, zertarako entretenu eztabaidan?

EGITEKOA: Jarrera horietako bakoitzak arazoa, oro har, konpontzeko dituen abantailak eta desabantailak aztertu itzazu.



ZeharGAIT jarduera

Zergatik, noren erruz edo zeren erruz gertatu da hau? (Nola saihestuko dugu hurrengoan?)

Fritz Heider-ek (1958) azaldu zuen pertsona bakoitzak bere proiektu eta zereginen arrakastak eta porrotak interpretatzeko modu bat duela. Eta are garrantzitsuagoa: arrakasta edo porrot horiek interpretatzeko moduaren arabera, gutxi gorabeherako estimazio bat egin dezakegu hurrengo portaera zein izango den jakiteko.

Heiderrek (1958) egindako sailkapena labur-labur azalduko dizugu, eta gero bere teoria frogatuko dugu.

Carlosek kristalezko edalontziz betetako erretilu bat zeraman sukalderrantz, eta bidean edalontzi guztiak erori dira.

Heiderren teoria aplikatuz (1958), Carlosek interpreta dezake edalontzien erorketa bere *buruarekin zerikusia duen zerbaitek* eragin duela (bera nolakoa den, sukalderrantz nola zihoan, zeraman abiadura, praktika gutxi duela, eta abar), edo *egoerak eragin duela erorketa hori* (nagusiak presa sartu dio, lan handia du, ordu gehiegi zeramatzan zutik, mahai gehiegi dira zerbitzari batentzat, ez du gaur egun zorterik izan, banka utzi du, etab.). Hau da, edalontzien erorketa hori eragin duen faktore bat egotekotan, barnekoa izan daiteke (Carlos-ekin zerikusia duena) edo kanpokoak .

Gainera, pentsa lezake kanpoko edo barruko faktore horrek edalontziak *unean-unean* erortzea eragin duela edo, aldiz, nahiko egonkorra den faktore bat dela. Adibidez, praktika gutxi duelako erori direla uste badu, Carlos basoen hondamendia barne faktore bati egotzen ari zaio, baina ez da iraunkorra. Horrek esan nahi du Carlosek uste duela denborarekin eta praktika gehiago lortzera animatzen bada, ez dela hain litekeena edalontziak erortzea.

Aldiz, pentsatzen badu edalontziak erori egin direla bera baldarra delako, erretilua oso txarra delako edo zorua, materialengatik, gehiegi irristatzen delako, hor Carlosek aditzera ematen digu bere ustez nahiko aurreikus daitekeela horrelakoren bat berriro gertatuko dela. Ez da gauza bera pentsatzea egun txarra izan duela, edo, berez, baldarra dela pentsatzea.

Jarraian, 3 egoera aurkezten dira, eta etorkizunean egoera bera edo arazo bera berriro gertatzea nola saihestu pentsatu behar da. Aztertu egingo ditugu, eta eztabaida sortuko dugu pertsona ezberdinek egoeraren sortze-faktoreak ulertzeko dituzten era ezberdinei buruz. Kasu hauek testatu direnean zera ikusi da, normalean parte-hartzaileak konturatzen direla zein garrantzitsua den eszenako pertsonaiek elkarrekin hitz egitea eta, elkarrekin, sortutako arazoa errepikatzea saihesteko modu bat bilatzea. Hala egin ezean, bakoitzak hainbat faktoreri egotzen baitie gertatutakoa, kasuan ikusi den gatazka ez da ondo itxiko, eta zaila izango da etorkizunean halakorik ez errepikatzea edo antzeko egoerarik ez sortzea.

Lan-eskema eta denboralizazioa

Testua banatu ondoren, jarduera hiru fase hauei jarraituz egingo da:

1. fasea: irakurketa

Kasuan kasuko testua arretaz irakurtzeko eskatzen zaie parte-hartzaileei. Irakurri egin behar dute, eta ondo ulertzen saiatu. Irakurri ondoren, aurkezten den kasuari buruz labur pentsatzeko eskatzen zaie (minutu bat edo bi).

2. fasea: galderei banaka erantzuten zaie


Ondoren, pertsona bakoitzak, banaka, kasuari buruzko galderak erantzun ditzala eskatzen da. Komeni da erantzunak hausnartzea, eta, behin zer esan nahi den jakinda, ahalik eta erantzunik zehatzena eta laburrena pentsatzea. Idaztea lagungarri izan daiteke. Horrek erraztuko du ondorengo eztabaida arina eta emankorra izatea.

3. fasea: bateratzea

Taldearen barruan pertsona bat aukeratzen da elkarrizketaren koordinatzaile. Galdera bakoitza irakurtzen du eta parte-hartzaileek erantzun dutena komentatzen dute. Erantzun guztiak entzun ondoren (esan nahi dena galdetuz edo argituz, baina baloratu eta epaitu gabe), parte-hartzaile guztien artean eztabaida ireki bat hasten da.

Azkenik, jarduera ixteko, bideratzaileak parte-hartzaile bakoitzari eskatzen dio paper batean idatz dezala bere ondorioa, ikasi duena edo bere beharren eta egoeraren arabera balio dion zerbait. Hau pertsonala da guztiz; parte-hartzaileetako bakoitzak bere buruarentzat idazten du. Bakoitzak kasu bakoitzetik eta ondorengo eztabaidatik ateratzen dena idatzi behar du (ez da berez ozen irakurtzen ez eta idatziz entregatzen). Gisa honetako idazki horien multzoek ikasitakoa osatzen dute, eguneroko bat balira bezala, eta islatzen dute pertsona bakoitzak egindako ZeharGAI ariketetatik baliagarritzat jotzen duena.

Gogoratzekoa: Taldearen elkarrizketa eskatzen duten jarduera-faseetarako, ZeharGAI jardueretan elkarrizketa egiteko eskainitako gomendioak erabiltzea iradokitzen dugu (ZeharGAI Gomendioak, 1. unitatea).



ZeharGAIT jarduera

Zergatik, noren erruz edo zeren erruz gertatu da hau? (Nola saihestuko dugu hurrengoan?)

Erreparatu egoera-zerrenda honi eta erantzun, zure iritziarekin, egoera bakoitzaren amaieran egiten den galderari.

1 KASUA: frantseseko notak atera dira. Evak, Egoitzek eta Nuriak suspentsoa dute.¹²

Evak uste du irakasleak suspenditu duela, mania diolako. Nola egingo dio aurre hurrengo azterketari?

Egoitzek uste du bertan behera utzi duela, frantseserako eta, oro har, hizkuntzetarako gaitasunik ez duelako. Nola egingo dio aurre hurrengo azterketari?

Nuriak uste du ez zuela behar adina ikasi, eta horrek urduriegi jarri zuela. Nola egingo dio aurre hurrengo azterketari?

2. KASUA: Joseba, Juri eta Saul berriak dira. Oraindik ez dute elkar ezagutzen. Hirurek uste dute, baina, klasean dagoen beste ikaskide batek (Osoitz) ez dituela gustoko.

Yurik uste du bera ez dela Osoitzen gustoko atzerritarra izateagatik.

Saulek, berriz, zera uste du, ez dela Osoitzen gustoko irakasleak zeregin bateratu bat agindu zien lehen aldian gauzak ez zirelako ondo joan.

Josebak orohar lagun gutxi du eta pentsatzen du Osoitzekin ere gauzak ez direla ondo joango.

Galdera: zure ustez, nola egingo diote aurre Yurik, Saulek eta Josebak talde lanari Osoitzekin? Aholkuren bat emango zenieke?

3. KASUA: Abdul, Tomás eta Kenari zerbitzuetarako Gradu bat ikasten ari dira. Laster, eskolak duen jatetxeko mahaietan zerbitzatzeko hastea egokituko zaie.

Abdulek uste du baldar samarra dela eta ez du uste ondo aterako zaionik. Azken finean, pertsona batzuk besteak baino abilago jaiotzen dira. Zer egingo zaio?

Kenarik uste du inor ez dela jakinik jaiotzen, eta litekeena dela hasieran zaila izatea, baina pixkanaka, praktikarekin, hobetu egingo da. Tomasek, egia esan, ez du ezer pentsatu horri buruz.

Elkarlanean, zerbitzari bezala, aritu diren lehenengo egunaren emaitza ez da ona izan. Tomasek uste du besteek behar adina lan egin ez dutelako dela. Talde txarra egokitu zaiolako dela uste du Kenarik. Abdulek uste du ondo koordinatu ez direlako dela.

Galdera: zer gerta daiteke irakasleak beste zeregin batean elkarrekin jartzen ditue-nean? Zer behar dute hobetzeko?

¹² Egileek moldatua. Jatorria: Sanz Aparicio/ Méndez Balaña, e. a. (2013) Psicología de la Motivación, UNED-Sanz y Torres, Madril, 272

ZeharGAIT jarduera Atazak eta haien banaketa

Lan-eskema eta denboralizazioa

Testua banatu ondoren, jarduera hiru fase hauei jarraituz egingo da:

1. fasea: irakurketa

Kasuan kasuko testua arretaz irakurtzeko eskatzen zaie parte-hartzaileei. Irakurri egin behar dute, eta ondo ulertzen saiatu. Irakurri ondoren, aurkezten den kasuari buruz labur pentsatzeko eskatzen zaie (minutu bat edo bi).

2. fasea: galderei banaka erantzuten zaie


Ondoren, pertsona bakoitzak, banaka, kasuari buruzko galderak erantzun ditzala eskatzen da. Komeni da erantzunak hausnartzea, eta, behin zer esan nahi den jakinda, ahalik eta erantzunik zehatzena eta laburrena pentsatzea. Idaztea lagungarri izan daiteke. Horrek erraztuko du ondorengo eztabaida arina eta emankorra izatea.

3. fasea: bateratzea

Taldearen barruan pertsona bat aukeratzen da elkarrizketaren koordinatzaile. Galdera bakoitza irakurtzen du eta parte-hartzaileek erantzun dutena komentatzen dute. Erantzun guztiak entzun ondoren (esan nahi dena galdetuz edo argituz, baina baloratu eta epaitu gabe), parte-hartzaile guztien artean eztabaida ireki bat hasten da.

Azkenik, jarduera ixteko, bideratzaileak parte-hartzaile bakoitzari eskatzen dio paper batean idatz dezala bere ondorioa, ikasi duena edo bere beharren eta egoeraren arabera balio dion zerbait. Hau pertsonala da guztiz; parte-hartzaileetako bakoitzak bere buruarentzat idazten du. Bakoitzak kasu bakoitzetik eta ondorengo eztabaidatik ateratzen dena idatzi behar du (ez da berez ozen irakurtzen ez eta idatziz entregatzen). Gisa honetako idazki horien multzoek ikasitakoa osatzen dute, eguneroko bat balira bezala, eta islatzen dute pertsona bakoitzak egindako ZeharGAIT ariketetatik baliagarritzat jotzen duena.

Gogoratzekoa: Taldearen elkarrizketa eskatzen duten jarduera-faseetarako, ZeharGAIT jardueretan elkarrizketa egiteko eskainitako gomendioak erabiltzea iradokitzen dugu (ZeharGAIT Gomendioak, 1. unitatea).



ZeharGAIT jarduera

Atazak eta haien banaketa

Rebecak eta Dorak zerbitzari gisa lan egiten dute jatetxe batean. Jantoki-aretoak 14 mahai ditu lau pertsonarentzat, baina gerta daiteke bi pertsonak bakarrik erabiltzea edo zenbait mahai elkartu behar dituzten taldeak etortzea.

Hasiera batean, ez dago ezarrita nor arduratuko den mahai bakoitzaz, eta nola banatuko duten modu bidezkoan iristen diren bezeroen arreta. Arau bakarra mahai bati erantzuten hasten denak mahai horrekin jarraitzea da, bezeroak joan arte, nagusiak esan baitie hori garrantzitsua dela enpresaren irudirako.

Gauaren hasieran, Rebecak eta Dorak bezeroak iritsi ahala txandaka banatuko ziztuztela pentsatu dute. Mahai bat zuretzat, beste bat niretzat. Hori zen ideia. Baina zoriak nahi izan du Dorari bikotekidearekin edo bakarrik afaltzera zetozen bezeroak egokitu izana, Rebecak artatu dituen bezero-taldeen aurrean (horietako bat ezkongabeen agurreko 16 mahaikidekoa). Zerbitzuaren erdian, Rebeca Doraren aurka lehertu da.

Galdera

- Zergatik uste duzu gatazka sortu dela, eta zer gomendatuko zenieke Rebeca eta Dorari?



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).

ZeharGAIT jarduera

Gauzak eta pertsonak modu desberdinean ikusteagatik sortzen diren gatazkak

Lan-eskema eta denboralizazioa

Testua banatu ondoren, jarduera hiru fase hauei jarraituz egingo da:

1. fasea: irakurketa

Kasuan kasuko testua arretaz irakurtzeko eskatzen zaie parte-hartzaileei. Irakurri egin behar dute, eta ondo ulertzen saiatu. Irakurri ondoren, aurkezten den kasuari buruz labur pentsatzeko eskatzen zaie (minutu bat edo bi).

2. fasea: galderei banaka erantzuten zaie

Ondoren, pertsona bakoitzak, banaka, kasuari buruzko galderak erantzun ditzala eskatzen da. Komeni da erantzunak hausnartzea, eta, behin zer esan nahi den jakinda, ahalik eta erantzunik zehatzena eta laburrena pentsatzea. Idaztea lagungarri izan daiteke. Horrek erraztuko du ondorengo eztabaida arina eta emankorra izatea.


3. fasea: bateratzea

Taldearen barruan pertsona bat aukeratzen da elkarrizketaren koordinatzaile. Galdera bakoitza irakurtzen du eta parte-hartzaileek erantzun dutena komentatzen dute. Erantzun guztiak entzun ondoren (esan nahi dena galdetuz edo argituz, baina baloratu eta epaitu gabe), parte-hartzaile guztien artean eztabaida ireki bat hasten da.

Azkenik, jarduera ixteko, bideratzaileak parte-hartzaile bakoitzari eskatzen dio paper batean idatz dezala bere ondorioa, ikasi duena edo bere beharren eta egoeraren arabera balio dion zerbait. Hau pertsonala da guztiz; parte-hartzaileetako bakoitzak bere burua-erantzat idazten du. Bakoitzak kasu bakoitzetik eta ondorengo eztabaidatik ateratzen dena idatzi behar du (ez da berez ozen irakurtzen ez eta idatziz entregatzen). Gisa honetako idazki horien multzoek ikasitakoa osatzen dute, eguneroko bat balira bezala, eta islatzen dute pertsona bakoitzak egindako ZeharGAIT ariketetatik baliagarritzat jotzen duena.

Oharrak: taldearen arabera, litekeena da Lander-Yerai eta Jesus-Robertoren artean justizia bilatzeko joera hautematea. Baina hori estimazio alborapen batetik abiatzen da. Agian irakasleak ez du Yerai begiko (agian merezi duen nota da), eta ez dakigu Robertok zergatik kobratzen duen gehiago. Desberdintasuna ez da beti diskriminazioa. Jesus eta Landerren haserrearen zati bat haiek egoerari buruz egiten duten interpretaziotik sortzen da, eta hori beraiek bakarrik kudea dezakete. Irakaslea eta nagusia, edo, gutxienez, irakaslea (irakaskuntza-rola dela eta) gardenagoak izan daitezke kalifikazio edo ordainsari desberdina izateko arrazoiak azaltzean, baina: mendeko batek normalean ezin izaten du halakorik eskatu eta, gainera, informazio hori ezagutzeak ez ditu zertan Jesus eta Lander lasaitu behar. Yeraik eta Robertok, berriz, ezer gutxi edo ezer gutxi egin dezakete hori saihesteko; harreman horren deserosotasuna kudeatu beharko dute Landerrekin edo Jesusekin lanak egitea egokitzen zaienean.

Gogoratzekoa: Taldearen elkarrizketa eskatzen duten jarduera-faseetarako, ZeharGAIT jardueretan elkarrizketa egiteko eskainitako gomendioak erabiltzea iradokitzen dugu (ZeharGAIT Gomendioak, 1. unitatea).



ZeharGAIT jarduera

Gauzak eta pertsonak modu desberdinean ikusteagatik sortzen diren gatazkak

Landerrek uste du Yeraik adina edo gehiago lan egiten duela, baina irakasleak azken honi begikoa diola. Horregatik jartzen dio nota gehiago.

Jesus beti tentsioan dago Robertorekin. Robertok ez du ezer berezirik egiten. Oso antzeko lana dute, baina Robertok 300 euro gehiago kobratzen ditu hilean. Eta ez zaio bidezkoa iruditzen.

Desadostasun hori ezkutuan egon daiteke, adierazi gabe, harik eta, adibidez, bietako batentzat bakarrik izango den aukera bat (mailaz igotzeko, praktika batzuetarako edo zerbaitetarako) sortzen den arte.

Lander eta Jesus, haiek aukeratzen ez badituzte, haserretu egingo dira.

Galderak

- a) Zure ustez, gatazka bat aukeratzeko beharrak sortzen du, ala gauzen batura da?
- b) Zer egin dezakete irakasleak eta Robertoren eta Jesusen buruak horren inguruan?
- c) Zer egin dezakete Yeraik eta Robertok?
- d) Eta Jesus eta Lander?



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).

2. Bitartekaritza-espazioak sortzea edo identifikatzea, eta horiek aprobeztatzea



ZeharGAIT jarduera Jarreran endokatu edo bitartekaritza bilatu?

Gatazka bat arintzeko modu bat baino gehiago dago, baina ez denak berdinak

Gatazka baten aurrean, batzuetan oso konponbide ezberdinak egon daitezke, baina guztiek ez dute ondorio bera. Azter dezagun kasu bat: *Robertok zurezko altzariak fabrikatzen dituen enpresako langileak bildu ditu gaur. Ez zegoen pozik, enplegatuak zain zeuden, argi baitzegoen zerbait ez zihoala ondo jakinaraziko ziela. Hona hemen bere hitzak: «Begira, hau ez da zuengandik espero nuen lan mota. Benetan, pentsatzen ari naiz horrelako lanak Manresako tailerrera pasatzea. Ez dut uste zuek hau egiteko gai zaretenik.»*

Galdera: zer transmititu nahi die benetan Robertok bere langileei? Zure ustez, benetan pentsatzen ari da zeregin horiek beste tailer batera pasatzea, edo jarrera hori hartzen ari al da langileekiko gatazkaren kudeaketan? Ez al dute, bada, bertako langileek ere jakin nahiko zer ez duten behar bezala egin, bai eta Robertok ontzat emango lukeen hori zelan egin beharko litzatekeen?

Lan-eskema eta denboralizazioa

Testua banatu ondoren, jarduera hiru fase hauei jarraituz egingo da:

1. fasea: irakurketa

Kasuan kasuko testua arretaz irakurtzeko eskatzen zaie parte-hartzaileei. Irakurri egin behar dute, eta ondo ulertzen saiatu. Irakurri ondoren, aurkezten den kasuari buruz labur pentsatzeko eskatzen zaie (minutu bat edo bi).

2. fasea: *galderei banaka erantzuten zaie*

Ondoren, pertsona bakoitzak, banaka, kasuari buruzko galderak erantzun ditzala eskatzen da. Komeni da erantzunak hausnartzea, eta, behin zer esan nahi den jakinda, ahalik eta erantzunik zehatzena eta laburrena pentsatzea. Idaztea lagungarri izan daiteke. Horrek erraztuko du ondorengo eztabaida arina eta emankorra izatea.

3. fasea: *bateratzea*


Taldearen barruan pertsona bat aukeratzen da elkarrizketaren koordinatzaile. Galdera bakoitza irakurtzen du eta parte-hartzaileek erantzun dutena komentatzen dute. Erantzun guztiak entzun ondoren (esan nahi dena galdetuz edo argituz, baina baloratu eta epaitu gabe), parte-hartzaile guztien artean eztabaida ireki bat hasten da.

Azkenik, jarduera ixteko, bideratzaileak parte-hartzaile bakoitzari eskatzen dio paper batean idatz dezala bere ondorioa, ikasi duena edo bere beharren eta egoeraren arabera balio dion zerbait. Hau pertsonala da guztiz; parte-hartzaileetako bakoitzak bere buruarentzat idazten du. Bakoitzak kasu bakoitzetik eta ondorengo eztabaidatik ateratzen dena idatzi behar du (ez da berez ozen irakurtzen ez eta idatziz entregatzen). Gisa honetako idazki horien multzoek ikasitakoa osatzen dute, eguneroko bat balira bezala, eta islatzen dute pertsona bakoitzak egindako ZeharGAIT ariketetatik baliagarritzat jotzen duena.

Oharrak: gatazka bat konpontzeko (gogora dezagun ez dela gerra bat, desadostasun hutsa baizik), oso lagungarria da pertsonak jakitea beste pertsonari zer transmititu nahi dioten eta beste pertsona horrengandik zer espero duten. Bestera esanda, zer interes duten gatazka konpontzeko, zer behar edo balio ikusten dituzten jokoan.

Hori ez dator bat arazoaren aurrean duten jarrerarekin; hau da, gatazkaren aurrean sentitzen dutenarekin. Adibidez: *Oso haserre nago zurekin gertatu denagatik. Ez da zugandik espero nuena.* Gatazka baten aurreko jarrera adierazten duten adierazpenak dira horiek. Baina ez dute mahai gainean jartzen konponbide bat negoziatzeko ezer.

Gogoratzekoa: Taldearen elkarrizketa eskatzen duten jarduera-faseetarako, ZeharGAIT jardueretan elkarrizketa egiteko eskainitako gomendioak erabiltzea iradokitzen dugu (ZeharGAIT Gomendioak, 1. unitatea).



ZeharGAIT jarduera

Noiz endrokatu, noiz amore eman

Robertok zurezko altzariak fabrikatzen dituen enpresako langileak bildu ditu gaur. Ez zegoen pozik, enplegatuak zain zeuden, argi baitzegoen zerbait ez zihoala ondo jakinaraziko ziela. Hona hemen bere hitzak:

«Begira, hau ez da zuengandik espero nuen lan mota. Benetan, pentsatzen ari naiz horrelako lanak Manresako tailerrera pasatzea. Ez dut uste zuek hau egiteko gai zaretenik.»

Galderak

Zer transmititu nahi die benetan Robertok bere langileei? Zure ustez, benetan pentsatzen ari da zeregin horiek beste tailer batera pasatzea, edo jarrera hori hartzen ari al da langileekiko gatazkaren kudeaketan? Ez al dute, bada, bertako langileek ere jakin nahiko zer ez duten behar bezala egin, bai eta Robertok ontzat emango lukeen hori zelan egin beharko litzatekeen?



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).

3. Aurretiazko gatazkak ondo ez ixteagatik sortzen diren gatazkak

Onespena nahi dugun bezainbat, kondena-aren beldur gara: zergatik dute kritika garratzek edo zigorrek kritika konstruktiboek baino eraginkortasun gutxiago? Kritika zorrotzak ez du inoiz aldaketa iraunkorrik eragiten (azalekoak soilik), eta, oro har, erresumina sortzen dio hartzaileari (etorkizunean berriro ere gatazka-iturri izango den erresumina). Kritikak, esaten denez, uso mezulariak (edo boomerangak) bezalakoak dira: beti itzultzen dira habiara.

D. Carnegie (1936)

ZeharGAIT jarduera Zerbaiterako balio du barkamena eskatzeak?

Ikus ditzagun orain eszena batzuk, non pertsonak akatsen bat aitortzen duten eta damua adierazten duten:

<p>Soniak behin eta berriro eskatzen du barkamena. Batzuetan oso gauza txikiengatik.</p> <p>Beren partidari lan egiten duten pertsonak uste dute ez dela beharrezkoa barkamena eskatzea, batez ere ustekabeko gauzengatik. Baina etengabe honen antzekoak esan behar dituzte: «ondo da Sonia, ez arduratu».</p>	<p>Denbora guztian barkamena eskatzen ari- tzeak, batzuetan beharrik gabe, benetan akatsak egiten direnean, barkamena eskatzea alferrikakoa izatea eragiten du.</p> <p>Are gehiago, badirudi ohitu egiten garela, «<i>lasai, ez kezkatu</i>» esatera, eta akatsa edo iraina handiak badira, berdin barkatu behar dugula. Barkamena eskatzeari ere zentzu guztia kentzen dio; badirudi enpatiarik erakusten ez duen formalismoa dela.</p>
<p>Jorge zeharo okertu da. Koadrilari jukutria bat egin dio. Baina zuzendu nahi du.</p> <p>Asko kostatzen zaio, baina azkenean barkamena eskatzen du, eta Luis bere lankidea- rekin zubi-lana egin du.. Badaki harreman pertsonalari kalte egin diola; agian ez da inoiz erabat osatuko. Baina uste du ere, lanaren esparruan behintzat, lan egiteko modu bat aurki dezaketela.</p>	<p>Erronka bikoitza dago hemen. Jorgerentzat, baita Luisentzat ere.</p> <p>Luisi barkamena eskatu dio, eta horrek, antza, Jorgeri erlazioak axola diola erakusten du. Jorgek hori adierazten asmatzen badu, agian erakutsi ahal izango du harremana zenbat axola zaion. Baina puntu horretatik aurrera Jorgek ez du kontrolik izango egin- dako barkamen-eskariaren eraginean. Luisek sentitzen duenaren zain egon beharko du (eta Luisi erlazioak zenbat axola dion ere ikusi beharko du).</p>

Lan-eskema eta denboralizazioa

Testua banatu ondoren, jarduera hiru fase hauei jarraituz egingo da:

1. fasea: irakurketa

Kasuan kasuko testua arretaz irakurtzeko eskatzen zaie parte-hartzaileei. Irakurri egin behar dute, eta ondo ulertzen saiatu. Irakurri ondoren, aurkezten den kasuari bu- ruz labor pentsatzeko eskatzen zaie (minutu bat edo bi).

2. fasea: galderei banaka erantzuten zaie


Ondoren, pertsona bakoitzak, banaka, kasuari buruzko galderak erantzun ditzala eskatzen da. Komeni da erantzunak hausnartzea, eta, behin zer esan nahi den jakinda, ahalik eta erantzunik zehatzena eta laburrena pentsatzea. Idaztea lagungarri izan daiteke. Horrek erraztuko du ondorengo eztabaida arina eta emankorra izatea.

3. fasea: bateratzea

Taldearen barruan pertsona bat aukeratzen da elkarrizketaren koordinatzaile. Galdera bakoitza irakurtzen du eta parte-hartzaileek erantzun dutena komentatzen dute. Erantzun guztiak entzun ondoren (esan nahi dena galdetuz edo argituz, baina baloratu eta epaitu gabe), parte-hartzaile guztien artean eztabaida ireki bat hasten da.

Azkenik, jarduera ixteko, bideratzaileak parte-hartzaile bakoitzari eskatzen dio paper batean idatz dezala bere ondorioa, ikasi duena edo bere beharren eta egoeraren arabera balio dion zerbaite. Hau pertsonala da guztiz; parte-hartzaileetako bakoitzak bere buruarentzat idazten du. Bakoitzak kasu bakoitzetik eta ondorengo eztabaidatik ateratzen dena idatzi behar du (ez da berez ozen irakurtzen ez eta idatziz entregatzen). Gisa honetako idazki horien multzoek ikasitakoa osatzen dute, eguneroko bat balira bezala, eta islatzen dute pertsona bakoitzak egindako ZeharGAIT ariketetatik baliagarritzat jotzen duena.

Gogoratzekoa: Taldearen elkarrizketa eskatzen duten jarduera-faseetarako, ZeharGAIT jardueretan elkarrizketa egiteko eskainitako gomendioak erabiltzea iradokitzen dugu (ZeharGAIT Gomendioak, 1. unitatea).



ZeharGAIT jarduera

Barkamena eskatzeak, zerbaiterako balio al du?

Jarduera honek izenburua galdera ba da eta galdera horren erantzunak bistakoa dirudi. Gehienek baietz erantzungo lukete, hau da, barkamena eskatzeak «zerbaiterako balio duela». Noski, behin xehetasunetan sartuta, seguruenik ez gara ados jarriko «zerbait» hori zer den zehazten. Alde batetik, barkamena eskatzean ez du egoera edo testuinguru guztietan esanahi ezta ondorio bera. Eta bestetik, barkamena eskatzeko modu guztiek ere ez dute lortzen pertsona minduak eskaria barkamen-eskari zintzo gisa ulertzea.

1. KASUA

Soniak behin eta berriro eskatzen du barkamena. Batzuetan oso gauza txikiengatik.

Beren partidaren lan egiten duten pertsonen uste dute ez dela beharrezkoa barkamena eskatzea, batez ere ustekabeko gauzengatik. Baina etengabe honen antzekoak esan behar dituzte: «ondo da Sonia, ez arduratu».

2. KASUA

Jorge zeharo okertu da. Koadrilari jukutria bat egin dio. Baina zuzendu nahi du.

Asko kostatzen zaio, baina azkenean barkamena eskatzen du, eta Luis bere lankidearekin zubi-lana egin du.. Badaki harreman pertsonalari kalte egin diola; agian ez da inoiz erabat osatuko. Baina uste du ere, lanaren esparruan behintzat, lan egiteko modu bat aurki dezaketela.

Zeregina: alderatu Soniak eskatzen dituen barkamena eta Jorgek Luisi eskatu diona. Gutxienez hiru desberdintasun aipatu ditu egoera baten eta bestearen artean, eta bata eta besteak eskatzen dituzten barkamen-eskaeren artean.



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).

4. Barkamenari buruz

ZeharGAIT jarduera Barkatu eta barkamena eskatu ez dira gauza bera

Jarduera honek barkamenari buruzko elkarrizketa irekitzen du. RAE hiztegiaren arabera, barkamenak edo barkatzeko ekintzak berekin dakar norbaitek merezi duen zigorra, zorra edo betebeharra arintzea edo guztiz kentzea, zor edo betebeharrak bat igortzea. Eta, koherentziaz, *barkamena eskatzen* duena, barkamen edo bihozberatasun hori eskatzen ari da; zerbait alegatu nahian dabil bere ekintza desenkusatzeko edo erru bat purgatzeko. Azken esamolde horretatik dator *barkamena eskatzea*.

Pertsonen arteko harremanen esparruan, barkamenak eta honek bere barnean hartzen dituen ekintza guztiek garrantzi berezia hartzen dute, harreman batean hautsi den zerbait nolabait berregiten saiatzen garenean. Oinarrizko konfiantza, bi pertsona edo gehiagoren arteko harremana bideratzen zuten kodeak (ikasgelako ikaskide batzuk, lagun batzuk, bi anai-arreba, etab.) bat-batean hautsi egin dira, eta pertsonetako bat –edo, batzuetan, horietako bakoitza bere erara– *minduta sentitzen* da.

Jarduera honek horrelako egoerei buruz hitz egitera gonbidatzen gaitu, konfiantza kaltetua berrosatzea zein zaila den –edo ezinezkoa– aztertzea. Pertsonak egoera batean edo bestean nola sentitzen diren.

Barkamena

Zer esan nahi du, benetan, barkatzeak? Zer da barkamena pertsonetikiko harremanetan? Barkatzea beste norbaitek egin digun zerbaitengatik amorrua eta herra askatzean datza.

- *Barkamen horrek ez du esan nahi pertsonak egindakoa ontzat eman edo ahaztea. Mina hartu duen pertsonaren erabaki bat da, batzuetan esfortzu handiz hartua, eta funtsean esan nahi du saiatuko dela sentitzen dituen emozio negatiboak –batez ere haserrea– ez daitezela mendeku edo suntsipen jarrera eta portaeretan agertu (dela bere buruaren aurka, dela eraso egin zionaren aurka, dela erasotzaileak biktimarentzat ordezkatzeko duenaren aurka). Barkamenak ere ez ditu behartzen min egin duenaren balioak ulertzera edo onartzera.*
- *Barkatzea, nahi izanez gero, biktimak egiten duen lana da, eta denborarekin bere ondorioa izango da biktimaren pentsamenduak, sentimenduak eta emozioak eraldatzen dituela (kexatu, mendekua bilatu, hausnartu, erasotzailea gaizki desiratu).*
- *Barkamenak, beraz, ez dakar nahitaez adiskidetzetik. Adiskidetzeko beste prozesu mota bat da; bi alderdik parte hartzen duten prozesu bat. Barkatzeak ez du esan nahi norbaitekiko harremana berrezartzen denik, eta ez du esan nahi zigor bat ahaztea edo altxatzea. Haserrea bezalako emozioak desaktibatzeke jarrera bat baino ez dakar, batez ere laidotuaren onerako.*

Barkamena eskatzea

Barkamena eskatzea ekintza bat da, norbaiti *sorrarazi diogun sufrimenduaz jabetzen garela* erakustea dakarrena. Sortu dugunarekiko ulermena eta enpatia komunikatzen ditugu, eta bere sufrimenduaren berri entzuteko aukera eman diezaiokegu. Ez da geure burua zuritzea edo gaizki egindakoaren ondorioak saihestu nahi izatea; ezta errua beste bati botatzea ere. Esan nahi du aitortzea zenbat erru izan dugun gertatutakoan, eta erakustea benetan sentitzen dugula gertatutakoa. Kaltetutako pertsonarekin partekatzea zer egiteko prest gauden horrelakorik berriro gerta ez dadin. Barkamen-eskaera hori, kaltea jaso duen pertsonak oraingoz barkatzen ez badigu ere, beste pertsonarekin konprometituta gaudenaren isla da, guretzat zenbateko garrantzia duen adierazten duena (izan lanaren, adiskidetasunaren, bikotekidearen edo familiaren testuinguru batean).

Jakina, «sentitzen dut» guztiak ez dira benetako barkamen eskaerak. Barkamena eskatzen badut nire buruarekin ondo sentitzeko edo beste batzuen aurrean nire errua zuritzeko, ez dut niregain hartzen nire ekintzak biktimarengan izan duen eragina.

Lan-eskema eta denboralizazioa

Testua banatu ondoren, jarduera hiru fase hauei jarraituz egingo da:

1. fasea: irakurketa

Kasuan kasuko testua arretaz irakurtzeko eskatzen zaie parte-hartzaileei. Irakurri egin behar dute, eta ondo ulertzen saiatu. Irakurri ondoren, aurkezten den kasuari buruz labur pentsatzeko eskatzen zaie (minutu bat edo bi).

2. fasea: galderei banaka erantzuten zaie

Testua banatu eta parte-hartzaile bakoitzari hiru paper zati emango zaizkio (folio erdia gomendatutako neurria). Ondoren, pertsona bakoitzak, banaka, kasuari buruzko galderak erantzun ditzala eskatzen da. Komeni da erantzunak hausnartzea, eta, behin zer esan nahi den jakinda, ahalik eta erantzunik zehatzena eta laburrena pentsatzea. Horri esker, eztabaida bizkorragoa eta emankorragoa izango da.


3. fasea: bateratzea

Arbelean hiru leku bereizi egiten dira (galdera bakoitzeko bat) eta parte-hartzaileen erantzunak itsatsita jartzen dira. Orduan, pertsona bideratzaileak honako hau galdetu du: egin al genezake deskribatutako egoera bakoitzean murgilduta dauden pertsonentzako aholkuen zerrenda bat? Koordinatzaileak galdera bakoitza irakurtzen du, eta parte-hartzaileek erantzun dutenari buruz hitz egiten dute. Erantzun guztiak entzun ondoren (esan nahi dena galdetuz edo argituz, baina baloratu eta epaitu gabe), parte-hartzaile guztien artean eztabaida ireki bat hasten da.

Azkenik, jarduera ixteko, bideratzaileak parte-hartzaile bakoitzari eskatzen dio paper batean idatz dezala bere ondorioa, ikasi duena edo bere beharren eta egoeraren arabera balio dion zerbait. Hau pertsonala da guztiz; parte-hartzaileetako bakoitzak bere buruarentzat idazten du. Bakoitzak kasu bakoitzetik eta ondorengo eztabaidatik ateratzen dena idatzi behar du (ez da berez ozen irakurtzen ez eta idatziz entregatzen). Gisa honetako idazki horien multzoek ikasitakoa osatzen dute, eguneroko bat balira

bezala, eta islatzen dute pertsona bakoitzak egindako ZeharGAIT ariketetatik baliagarritzat jotzen duena.

Gogoratzekoa: Taldearen elkarrizketa eskatzen duten jarduera-faseetarako, ZeharGAIT jardueretan elkarrizketa egiteko eskainitako gomendioak erabiltzea iradokitzen dugu (ZeharGAIT Gomendioak, 1. unitatea).



ZeharGAIT jarduera

Barkatu eta barkamena eskatu, zein da zein

Bizitzako hainbat unetan, zoritxarrez biktima bihurtzen gaituzten gauzak gertatzen dira. Pertsona jakin batek gertaera horiek eragin dituenean, oso gizatiarra da barkatzeari uko egitea. Batez ere, barkatzeak iraintzailearen eta irainduaren arteko elkarrizketa suposatzen duela pentsatzen badugu, eta horrek, nolabait, harremana berrezartzen du. Batzuek uste dute gauzak geratzen direla, ezer gertatu ez balitz bezala.

Baina barkamena beste gauza bat da. Barkatzea minduak bakarrik egin dezakeen zerbait da. Funtsean, irainak utzitako arrastoa gero eta txikiagoa bihurtzen saiatzea da. Oso grafikoa izan daiteke zauri batean pentsatzea. Zauri bat egin digute; zauria hor dago, eta orbaina utziko du. Hori horrela da. Baina zauria etengabe arakutzen ari bagara, infekzio bat gertatzeko arriskua hartuz, zauri hori gure bizitzan egotea gehiegizkoa izan daiteke. Konstantea. Harrapatuta gaude. Zauria sendatzen uztea erabaki dezakegu. Hori da barkatzea pribatuan. Horrek ez du esan nahi laidoari garrantzia kentzen zaionik, ez du esan nahi barkamena eskatu arte itxarotea, ezta justiziarako dugun eskubidea ezabatzea ere. Beste kapitulu bat hasten uztea da.

Erantzun galdera hauei paper zati desberdinetan. Galdera bakoitzeko erantzun anonimo bat baino gehiago eman dezakezu; izan ere, baliteke pertsona desberdinek gauza desberdinak sentitzea edo pertsona batek, egoera desberdinetan, sentimendu desberdinak izatea.

- 1) Zer iruditzen zaizu zailena norbaitek (zuk edo beste norbaitek) beste bati barkamena eskatu behar diola sentitzen duzunean?
- 2) Norbait kaltetu edo mindu denean, zure ustez, zer sentazio izango du hirugarren batek esaten badio «barkatu *behar* duela»?
- 3) Zergatik uste duzu esaten ari zaiola hirugarren hori kaltetuari esaten «barkatu egin behar duela»?



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).

ZeharGAIT jarduera

Elkarrizketa zailtarako prestatzea

Ez dago errezeta hoberik elkarrizketa zailtarako. Batzuetan besteek hasten dituzte eta beste batzuetan guri dagokigu hastea. Beste batzuetan, berriz, denbora hartu behar da ondo prestatzeko, ez baita beti erraza haiei bidea irekitzea, unearen zain egotea.

Nolanahi ere, egin dezakegun zerbait, hori bai, ikastea da. Elkarrizketa zail batetan barte hartzea dagokigunean, posible dugu, besteak beste, hurrengorako irakasgaiak ateratzea. Nola sentitzen garen hauteman genezake, elkarrizketa korapilatsu bat tokatzen denean edo fitxa mugitzea tokatzen zaigula iruditzen zaigunean. Bizitza osorako ikaskuntza da.

Jarduera testu bat irakurtzean datza, Luis Rojas Marcosek proposatzen dituen ideia batzuetatik egokituta (2019). Galdera batzuk erantzuteko pertsonala utziko da eta, ondoren, elkarrizketa ireki.

1. fasea: testua irakurri eta galderei erantzutea


Galderak ez dira tranpa duten galderak, baina ez dituzte erantzun absolutuak. Geure buruari galdetzen diogu, adibidez, nolakoa den Markelek egoera baten aurrean eman dezakeen erantzunik probableena; baina eskatzen dugu, halaber, pertsonak azal dezatela zergatik uste duten hori izango dela erantzun probableena. Komeni da kasua irakurtzea eta denbora pertsonala uztea, askotariko erantzunak eta arrazoiak egon daitezzen.

2. fasea. Arbelean bateratzea, zeregin bakarra aniztasuna islatzea izanik. Garrantzitsua da besteen pentsamenduak ez interpretatzea. Argibideak behar izanez gero, eska daiteke, baina askatasuna utzi behar da.

3. fasea: elkarrizketa eta kontrastea

Hor konturatuko gara ez dela erraza (ezinezkoa da) norbaitek izango duen portaera zehatz-mehatz iragartzea. Hala ere, geure buruari galde diezaiokegu:

- Zenbateraino eragiten du gatazka-egoera baten aurrean beldurtuta egoteak?
- Zenbateraino eragiten digu Markelek edo Anak alde zuzenetik nola erantzungo duten pentsatzeak?
- Iragarri den hori, guk sortu dugun irudi mental bat da, beraz, ez al da posible beste erantzun ezberdin baterako aukera sortzea?



ZeharGAIT jarduera

Elkarrizketa zailtarako prestatzea

Batzuetan elkarrizketak zailak izan daitezke. Zerbait delikatuaren gainekoak izan daitezke, edo baliteke kezka, beldurra, lotsa, haserrea, tristura bezalako emozioak eragitea. Batzuetan lagunekiko, bikotekidearekiko edo familiarekiko harremanetan ematen dira, baina beste batzuetan ikasketa-kideekin edo lankideekin, adibidez zerbait eskatzeko, mugak jartzeko edo gure ustez desegokia den zerbaiti ezetz esateko unean.

Luis Rojas Marcosek dio (Somos lo que hablamos, 2019) elkarrizketa zail gehienak «hitz egin behar dugu, «berri txarrak ditut», «kezkutzen nauen zerbait dago» edo antzeko esamoldeekin hasten direla. Baina beste batzuetan, besterik gabe hasten dira. Bat-batean, elkarrizketa normal bat eraldatu egiten da, eta jaurtigaiak alde batetik bestera egiten duten eskenatoki bilakatzen da (probokazioak, iradokizunak, manipulazioak, presioak, baita irainak edo oihuak ere).

- 1) Edozein elkarrizketa erraz edo zailtan asko laguntzen du mezuak argi eta garbi komunikatzeak, esan nahi duguna oso erraz adieraziz. Neutraltasunez, neurritasunez eta enpatiaz. Baina errazak ez diren elkarrizketetan, oso zaila egiten zaigu maneiatzea. Zerk beldurtzen zaitu gehien egoera horietatik?
- 2) Anari asko eragiten diote adierazpen oldarkorrek. Ez zaio gustatzen hitz itsusiak erabiltzea, eta gogaikarria egiten zaio berarekin modu txarrak eta hitz itsusiak erabiltzea. Zein da zure erreakziorik probableena «berotzen» den egoera baten aurrean? Zergatik?
- 3) Markel oso sentibera da. Norbait makurrarazten zaionean, bere bila dabilzala, entzuten ez diotela edo irainak edo errespetu faltak iradokitzen dizkiotela sentitzen duenean, zapuztu egiten da. Ez zaio gustatzen horrela tratatzea. Zein da bere erreakziorik probableena zaila bihurtzen den elkarrizketa baten aurrean? Bururatzen zaizun erreakzio posible bakoitzerako, saia zaitez azaltzen zergatik uste duzun hori izango dela zure erreakziorik probableena.



Bizkaiko Lanbide Heziketa Publikoan garapen profesionalerako zeharkako gaitasunak eta lidergoa sustatzeko BBK-GizaLeader Programak, diruz lagunduta (2018-2021).

ZeharGAIT jarduera Norekin ari zara gatazka konpontzen?

